


7366-2

EUSKAL HERRIA HELBURU



EUSKAL HERRIA HELBURU

Jose Luis Alvarez Enparantza, *Txillardegi*



Izenburua:

Euskal Herria Helburu

Egilea:

Jose Luis Alvarez Enparantza, *Txillardegi*

Zuzentzailea:

Joxe Mari Nuñez (Itzuliz)

Argitaratzea:

Editorial Txalaparta S.L.

Navaz y Vides 1-2

78. Postakutxa

31300 Tafalla

Nafarroa

Tfnoa: (948) 755260

Faxa: (948) 755012

Lehenengo edizioa:

Tafalla, 1994eko abendua

I.S.B.N.

84-8136-937-3

Lege gordailua:

NA: 1702-1994

Copyright:

© Txalaparta

Azala eta bildumaren diseinua:

Esteban Montorio

Azaleko argazkia:

Juantxo Egaña

Fotokonposaketa:

arte 4c

Fotomekanika:

arte 4c

Inprimaketa:

Gráficas Lizarra

Saila:

AMAIUR, 12

LIBURU HONEK NAFARROAKO GOBERNUKO
ETA EUSKO JAURLARITZAKO KULTUR
SAILEN LAGUNTZA JASO DU

Euskal Herri Askatua,
berritua eta anaikorra,
kapitalistarik gabea,
ojalaterorik gabea,
integrista sasi-ezkertiarrik gabea,
ahalik eta laisterrenik jaio dadin,
espanturik gabe,
isisilik,
beren burua eskainia duten borrokakide
ezezagun
guztiei.

Txillardegi

Hitzaurrea

Nire belaunaldikoek bost urte, zazpi, hamar, hamabost zuten 1936an.

Nolazpait esateko, beraz, gerra eta zapalketa giro betean jaio ginen gu mundura, are euskal mundura ere.

Edozertaz konturatzeko gai izan orduko, geure kaleetan gora eta behera topatu baikenituen milizianoak, kapelu gorriko mairuak eta bota martzialeko naziak.

Urteak joan, urteak jin, 1975ean Franco hiltzean, berrogeita bost, berrogeita hamar, hirurogei genuen... Artean biziera osoa joana.

Histori inguramendu horretan jaio eta hazi gara nire belaunaldikoak.

Eta zalantzarik gabe, markatu egin gaitu horrek; eta betirako baldintzatu. Baita gaurko jokabideetan eta hautuetan ere.

Hitz batez, euskaltzaletasuna, abertzaletasuna, separatismo politikoa, Frantziatik eta Espainiatik bereizi nahia, nigan eta gudan nola hozitu eta azkartu ziren azaltzen saiatuko naiz

liburu honetan barrena, ideiak eta proiektuak neure gertakari pertsonal nagusi batzuetan txertaturik eta argiturik.

Sortzez donostiarra izanik (edo antigutarra zehazkiago) gerra ondoko Donostia beraxka eta erdaltzale hartan antze-man nuen nik gure nazio arazoa. Zein bideskatatik? Zerk eraginik?

Haurtzaroko Antigua hartan gorabehera nagusiez ere ongi jabetu ez arren, euskal kutsua izan zuten gertakari xume batzuen oroitzapena atxiki dut gardenki gaur arte. Bitxi zait.

Auzoko elizaurrean ikusitako euskal dantzaldi batez oroitzen naiz, adibidez, guztiz ongi; nahiz gertakari axal hura 1934-1935ekoa izan, nik uste (bospasei urte nuen garaikoa, beraz).

Besteak beste, Enparantza-tar ene lehengusu-lehengusinek egin zuten dantza, euskal soinekoz jantzirik, eta eskuetan ikurriña zeramatelarik. Migel Enparantza ene osaba, abertza-lea zen; eta Telesforo Monzonen miresle eta laguntzaile sutsu, askoz ere beranduago jakin nuenez.

Ume dantza hura izan daiteke, agian, gerra baino lehen-txeago, euskal munduarekin nik izan nuen lehenengo ukipe-na.

Deplauki aitor dezadan: arrotza nintzen ni mundu hareki-ko. Ez bainekien nik euskaraz, hasteko; eta gure etxean «euskal» gauzak ez baitziren aipatu ere egiten.

Elizaurreko gertakari horrekin bateratsu, edo geroxeago agian, neure sei urteetan Colegio de Lourdes delakora joaten hasi nintzen; eta irakasle, Mintegi ahizpak izan. Eskola hura, bidenabar esateko, Alfonso XIII plazan bertan zegoen, auzoko azoka gaur arte egon den lekuaren ondo-ondoan.

Han, honetaz ere zehazki gogoratzen naizelarik, ikasketa liburu lodisko bat erabiltzen genuen. Saihetsetik begiraturaz ikus zitekeenez, kolore desberdinetako orriz osatua zen. Azkenaldean, azkeneko hosto mordoska osatuz, kapitulu motx bat zegoen: euskarari buruzkoa. Zenbait hitz-ilara, nik uste; euskarazko esaldiren bat agian. Ez dakit. Liburu haren arrastoa

galdua dut aspaldi. Baina gauza bat dakit ziur: liburu hartan euskararen berri ematen zela.

Ageri denez, liburu atal horrek zauskada handia izan zuen nigan. Ni erdaldun hutsa izanagatik, «euskalduna» nintzela iradoki balit bezala. Edo-ta, preseskiago, euskalduna izan nintekeela. Nirekiko izkutua eta misterioitsua zen mundu hura, ez bainuen nik batere arbuiazen edo gorroto. Alderantziz. Zergatik, edo nondik nora horretara batere ez badakit ere.

Haseratik beretik, hitz batez, bospasei, zazpi urte nuenez geroztik, oso jarrera berezia zen nirea: euskal mundua ez nuen batere ezagutzen. Baina «neure» mundutzat hartzen bide nuen; eta «neure» egin nahi bide nuen. Donostia erdaltzale eta erregekoi hartan (*Antigua 1900* liburuan aitortu dudanez), haurtzarotik beretik senditu nuen nik gure hizkuntza berreskuratzeke eta mintzabide bihurtzeko jorana.

Zazpi urteak betetzear nituenean, bonbaketen lehenengo eskarmentua izan nuen.

Bospasei urte lehenago Llaguno bilbotarrak eraikitako Casa de las Conchas etxetzarra (Amilibia 1-3 orduan), gurearen ondo-ondokoa, «cemento armado»zkoa zela-ta, askoz ere seguruagoa omen zen gurea baino. Eta gisa berekoak omen ziren Satrustegi etorbidekoak.

Hain zuzen ere, luzaz, zenbait urtez, hantxe egon zen, Amilibia 3ko portalaren gainean, zintzilik, xafla batean izkiriaturik, «Refugio» letrero zuri-beltza; etxerakoan, egunero, irakurri eta berrirakurria.

Hots, arriskua hurbiltzen zenean, eta sirena-hotsak entzuten (Crucero Cervera delakoak bisitatu gintuen hartan, esate baterako) Matia kaletik sartu, bizpahiru ohol luzeren gainetik patio karratua zeharkatu, eta zementuzko etxe berri haietan bilatzen genuen babesa.

Beste zenbait aldiz, hau gaur norbaiti irrigarri gerta bada-kioke ere, elizaren aurreko etxe batera joan (Elortzarenera, zehazkiago), plaza aldeko balkoi-ateetan koltxoi bana zutik paratu, eta... lotara lasai. Lur gorrian tapaki batzuk zabaldu, eta familiako guztiok elkarren ondo-ondoan... hura poza! Gu, umeok, loriatu egiten baikinena desordenu-giro hartan.

Biharamunean, ausaz, Amilibia Etorbideko leihoetara azaldu, eta hauxe zen ikuskizuna: FAI eta UHP letra handiak idatzirik zeramatzaten kamioiak, zitzu bizian, gure etxearen aurretik pasatzen ziren Bilbo aldera.

«Ha empezado la guerra» entzuten zen bazterretan.

Uztailaren 18an aurreko xaletaren gaineko terrazan «militzianoak» agertzen ziren, fusilak eskutan.

Handik aste batzuetara, orain uler dezakedanez, osaba bat agertu zitzaigun urduri oso: «Rápido. Vámonos enseguida. He conseguido un coche». Eta presaka eta muturka, koltxoia, koltxoia, maindireak, arropa, hasi ziren bera eta gure ama tarrapataka kotxean kargatzen.

Berandutu egiten zitzaigun aita, artean. Azkenean, eta ilunabarra gainean genuelarik, Ondarreta aldetik agertu zitzaigun, lasai asko. Eta beharbada nire biziera aldatuko zuen bere erabakia azaldu: «Nosotros no nos movemos». Hauetxek izan ziren hitzak.

–«Pero las tropas de Franco entrarán hoy», esan zuen norbaitek.

–«Nosotros no nos moveremos».

Kotxea hustu, eta aldegin zuen osabak. (Hamabi bat urtetarako, gero ikusiko genuenez).

Horrela hasi ziren niretzat, eta ez bestela, «Cuarenta años de paz» famatu horiek.

Euskal mundua, euskal kantak, Euskal Herriko mapak berak (Bulebarreko Bar Oliden-eneko hura salbu), Zabalo, Txiki-*ren* kartelak, lauburuak, mendigoizale-galtzak, ikurriñak zer esanik ez-, desagertu egin ziren osotara gure artetik.

Handik urte batzuetara, eta gurasoak «Donostiara» joanak zirelarik, gure amaren kajoietan anaia eta biok kuxkuxeatzen ari... eta, nondik nora, liburu dotore eta mardul batekin egin dugu topo: «¡Mira, mira! ¡Fíjate qué libro más precioso! ¡Vaya tapas! ¡Qué láminas! Larruzko azal hartan *El Libro de la Patria* irakur zitekeen. Arropa guzti-guztien azpian agertu zen. Afal aurrean errieta galanta: «¿Quién os ha dado permiso para revolver esos cajones?». Ez genekien liburu hura zegoenik ere. Berriro desagertu zen ondoko aste eta urteetan.

Gai hura DEBEKATUTA zegoen. Baita etxe barruan ere. «Democracia orgánica», badakizue.

Eskola barruan ere, debeku-giro bera zegoen. Gaztelania hizkuntza bakarra. Noski. Gure eskola-liburuetan euskal arrastorik ere ez. Kondaira 1936an amaitzen zen: «El Caudillo Invencible, para poner orden en aquel caos creado por la masonería y el comunismo», eta abar.

Ikusten duzu goizean edo ikasi beharrean, «A la mar fui por naranjas, cosa que la mar no tiene» irakatsi ziguten... Eta jolasaldirakoan, «rompan filas» guk entzun orduko, «Fran-co» erantzun behar izaten genuen; lehenengo silabakoan eskuineko besoa goraino altxatuz, eta bigarrenekoan behera jaisten genuelarik.

Orduan bertan ez ginen egoeraz ongi jabetzen. Eta oso berandu arte, ez ginen osoki konturatu. Gure mugaketa eta alienazio biografiko hura, gure herriaren egoera orokorraren irudi fidela besterik ez baitzen.

Oso prozesu motel eta lantsu baten ondorioz ulertu genuen piskanaka, Euskal Herria ZINEZ DEBEKATUTA zitzaigula. Eta ez 1930 inguruan jaiotakooi bakarrik; eta ez Kondairan lehenengo aldiz. Ez horixe! Euskal Herriarekiko debekua askoz ere lehenagotik baitzetorkigun; eta soma ezin genezakeen osotasunez inposatzen baitzitzaigun oso antzinatik espainiar-tasuna.

Debeku-kutsu nabarmen horrekin batera, eta hau ere oso txikitandik, gainbehera doan herri bateko susmo sakona eta mingarria sustraitu zen nigan.

Gure herria guretzat debekatuta izateaz gain, nabarmenki DESAGERTZEKO bidean genuela erreparatu genuen hasera-haseratik. Ez baitzen, egia esan, oso susmagaitza.

Bazirudien, batetik, gure herria debekatuta zegoela; eta, bestetik, gainbehera eta suntsizera zihoala.

Alegia: hau zirudien: Euskal Herria beti atzeraka, beti gainbehera, eta beti galtzaile gertatua dela. Are familian bertan ere.

Ez zen oso argia izan behar egoera somatzeko.

Ingurura begiratuz, arestian esan dudanez, joera berberak topatzen genituen. Nire bi gurasoak, adibidez, euskaldunak ziren, euskaraz sekula mintzo ez baziren ere. (Bi hitz entzuten nizkion nik amari, eta noizean behin baino ez, eta helburu bakar batez: aipatu behar ez bide zen zerbait alde batera uzteko: «Federiko, umiak aurrian!». Eta mintzagaia aldatu egiten zen. Horra hor gure hizkuntzaren «funtzioen murrizketa». Goizean esnezalearekin: hau bai, egunero. Eta kitto. Beste euskal arrastorik ez etxeko hizketetan.

Bide beretik, nire lau aiton-amonetatik hiruk zekiten euskaraz, nahiz inoiz etxe barruan erabili ez. «Parece que me he casado con una mujer de Salamanca», esaten omen zion Oñatiko aitonak Andoaingo amonari. Erdaldun huts bakarra, dena dela, Federico Alvarez González tolosarra zen.

Eta geure belaunean, zer ikusten genuen? Gogoeta hauek interesgarriak izan daitezke, ene ustez; gerra-garaian eta ondoko urteetan (geroko etorkin-olatu gaitzak hasi baino lehena-go, alegia) milaka baitzeuden plegu horretako familiak.

Antzeko egoera ezagutua zuten Nafarroan eta Araban aurreko mendeetan. «Hizkuntz ordezkapena» nabarmena zitzaigun txikitandik; gertakaria axola izan, zein ez izan. Mendee-tan barrena guganaino iritsia zen kate luzearen azkeneko katenbegia, gu ginen. Gugan mamitzen ari zen etendura. Oso garbi zegoen.

Nire belaunaldiko anitz euskal herritarrek zeraman (eta darama gaur egun) barru-barruan, oinazez iltzaturik, arantza hori; baita garbiki aitortu nahi ez den askotan ere. (Ez beti, esan beharrik ez: batzuei berdin zaie hau, beste hamaika gertakari bezalaxe).

Nire garaikideen artean, hitz batez, beren burua «el último mohicano» sonatuaren kidetzat zeukaten aberkideak, ehunka topa zitezkeen. Herri baten amaia ikusten ari ginela gauza ageria zitzaigun askori.

Ilunabar giro hori nabarmenagoa zen, jakina, 1940 inguruko frankismoaren garaian, gaur baino. Espainiar inperialismo anti-euskaldunak lotsarik gabe eta mozorro sasi-demokratikoetatik at erakusten zigun bere burua.

Geroztik ardi-larraz, are ikurriñaz ere jantzirik, sartu da gure artean betidanikako etsaia. Eta bai egoera, eta bai egin behar diren hautu politikoak, nekezago ulertzen dira gaur, orduan baino.

Gainbeherako patarra labain horretan tenk egin beharra nola ikusi genuen, eta kontra nola egin hartutako delibero zindoa nola mamitu zen, azaltzen saiatuko natzaizue ondoko lerro eta orrialdeotan. Gure belaunaldiak, beste hamaikak bezala, sofrikario eta ezintasun horiek beste edozeinek bezain latz pairatu baititu.

Euskal belaunaldi abertzale baten lekukotasuna izan nahi dute lerro hauek.

Gertakari hauek ezaguturik, irakurleari dagokio bere gogeta jator eta ausarki egitea, eta zuzen deritzon bidea prestuki hartzea.

Eta lekukotasun horrek balio hau du beste ezeren gainetik: belaunaldiko lekuko bat mintzo dela; eta, segur naiz, nire belaunkide mordo batek esango lituzke antzeko gauzak... luma hartuko balu.

Beste askok egingo ez duen segurantzian, mintza naki-zuen ni bederen; nire adineko askoren kezkak eta joranak azalduz.

Euskal Herrian, 1994eko udazkenean

I. Atzeraka

Orain dela hamar bat urte, Nafarroan barrena UEUko Hizkuntzalaritza Saileko ohizko txangoa, burutzen ari ginelarik, gertakari xume baina adierazgarria gertatu zitzaigun.

Geure grabagailuak eta guzti, Ergoienako euskara bizia biltzen ari ginen bertako hiztunengandik (Lizarragan bereziki). Eta halako batez galdera hau egin genien informatzaileei: «Andia mendi-kateaz bestaldera (Zudairen edo Abartzuzan, gonbarazio baterako), ez al dute euskaraz egiten?».

Eta erantzuna ez zen batere luzatu: «Mendiaz bestaldera ez da euskara oso aspaldidanik egiten». Beste batzuk urrunago joaten ziren, eta «sekula ez zela erabili» segurtatzen ziguten.

Hots, Arturo Campion-en *Gramática Bascongada* hartu (Tolosa, 1884); eta «Alto-navarro Meridional» izeneko euskalkiaz ari delarik (39.orr.), hau irakurtzen dugu: «la región en que se habla (el A.Nav.Mer.) por una minoría, más o menos pequeña, o insignificante, de habitantes originarios, está constituida por las siguientes localidades: Iturgoyen, Arzoz, Estenoz... Puente la Reina, Obanos... Uterga, Legarda... Ibiricu...».

Irakurleak dakikeenez, Ibiriku hau, Abartzuzaren ondoan, Lizarragaren parean baina mendiaz bestaldean dago preseski. Eta Estenoz, Obanos, etab., Hegoalderago daude.

Ohar antzekoak egin daitezke bazter mugante askotan.

Hori dela bide, gure herriaren «shrinkage» zaharraren susmoa; alegia, Euskal Herria txit aspaldidanik murrizten eta urritzen ari ote den bihozkada hori, sekulako hizkuntzalari jakintsua izan ez arren, euskaldun askok senditzen du aisa eta maiz.

Eta Ahuñemendian barrena edozergatik mugitu behar baldin badu (eta arreta pitin batez ibiltzen bada) berehala sendotzen da berarengan hastapenetan hutsal jo zitekeen susmo hori. «Gure arbasoak alderdi hauetan ibiliak dira» bururatzen zaio eskierki behin eta berriz. Paraje haietan ez du bere burua erabat arrotz senditzen.

Gure herriari mendeetan zehar gertatu zaiona ulertu nahirik, horretara, derrigorrez sortzen da euskaltzale ororengan toponimia zaharraren ikertu beharra; batez ere aspaldiko fenomeno orokorrak konprenitu nahi izatekotan. Eta areago «Zazpiak Bat» deritzon Euskal Herri administratiboko lurraldeetatik kanpora irtetea.

Euskal Herriaren murrizketa etengabea frogatzekotan tresna nagusia (beti tresna bakarra ez bada ere) azterketa toponimikoa baita.

Horregatik, argi-iturri egokia izango dugu azterpide hori kapitulu honetan.

Ikerkuntza sakonegitan murgildu gabe; hori nire jakintzalor berezia ez delako; eta liburu honen azken muina ere ez. Hain zuzen ere, jakintza-sail zail horretan barrena abiatu nahi duen irakurleak hobe du, besteak beste, Jimeno Jurío eta Zierbideren ikerlanetara jotzea. Edo-ta, oso bereziki, Alfontso Irigoienen *De re philologica* sorta bikainera.

Baina itzul gaitezen geurera. Ergoienako pasadizua beti gogoan atxikiz.

Bertako toponimia salbu, eta gaur egungo Gipuzkoa eta Bizkai euskaldunak geure begiez eta belarriez ezagutu ez ba-

genitu, eskualde hauetan antzina euskaraz egiten ote zen galdetzeko eskubide osoa izango genukeen...

Hain zuzen ere, horixe defendatu dute suharki oso gogoko ez gaituzten batzuek. Sánchez Albornoze-ek, esate baterako.

Gaur egun hala ere, gure artean gailen dagoen pentsamoldea ezaguturik, orain dela hamar mende Errezilen edo Seguran, eman dezagun, euskaraz egiten ez zela norbaitek seriotan aldarrikatzea, bitxi izango litzaiguke.

Errioxari buruz baiespen bera bota, ordea. Eta sinesteko prestago. Euskara beharbada –entzungo dugu– oso aspaldi mintzatua izan bazen ere, errotik desagertu zen. Erdi Aroaren haseran; eta geroenean, lotura etenda egon ondoren, «bir-jendaketa» dela-ta, berreuskaldundu omen zen.

Berriro itzuliko gara puntu honetara.

Alde batetik, beraz, Euskal Herriaren gunean bertan, luze eta etenduragabetzat geneukan hizkuntza soka, etena ote da?

Eta, bestetik, zalantzarik gabe esan dezakegu hau, «Vasconia» ofizialetik at (beronetan paradigmaticotzat jotzen baita euskaltasuna) eskualde euskaldun osoak gelditu zirela. Aski dugu, adibidez, Bizkaia bera kontutan hartzea; luzaz Nafarroatik at egondakoa.

Hots, gure korapiloa are askagaitzago egitekotan antza, hona hemen, bere buruaz herabe izanik, nazio-hizkuntzaz sekula idatzi ez duen herri hau.

Mintza bekigu José María Lacarra, nafartar kondairalari ospetsua: «Al historiar la Edad Media del País Vasco nos asalta constantemente la preocupación de estar reconstruyendo el pasado de un pueblo que se expresa por escrito en un idioma que no es el que habla, y que el suyo se le escapa a través de los documentos» (*Vasconia Medieval*, Lacarra, 9; S.S., 1957).

Baina, kontuz! Herri xeheak erabili egiten zuen euskara (besterik ez zekien!). Baina kantzillergoetan, elizako papereetan, eta maila ofizialeko bulego guztietan, frankismoaren garaian bezain gupidagabeki, at egon zen euskara mendeetan barrena.

Hona hemen, bide beretik, J.M. Jimeno Jurío nafar iker-

tzaileak honi buruz idatziak dituen lerro lazgarri hauek: «La fidelidad con que los nativos vascongados han venido transmitiéndose, durante generaciones y siglos, antiguos topónimos euskéricos, raras veces e incluso JAMAS (J. Juríok berak azpimarratua) plasmados en la documentación oficial, pero conocidos a través de la toponimia menor (mugas y caminos)». No la lor daiteke debeku hertsiaorik?

Eta honela jarraitzen: «No cabe la menor duda de que los navarros vascongados siguieron, y continúan llamando «Iruña, Iruñe, Iruñea» a la ciudad de Pamplona; «Iruñerria» a su Cuenca o «Terra»; «Orreaga» al antiguo hospital y convento de Roncesvalles; «Auritz», al Burgo de Roncesvalles o Burguete; «Auritz-berri», «Auzperri», al Espinal fundado en el siglo XIII; «Elo», a Monreal; «Getze», a las Salinas de Galar e Ibargoiti; «Iantiz», a Salinas de Oro; «Oibar» a la villa de Aibar; «Zare», a Sada; «Muru Arte ederreta», al actual Muruarte de Reta; «Tutera», a Tudela...» (ik. J.M. Jimeno Jurío, *FLV* 51, 1988; 64).

Artikulu berean, argibide mamitsu hau eman digu «Yerri» leku-izenari buruz: «Tierra Estella» sustituyó al topónimo comarcal anterior, «Deio-erri», «Deierri»; produciendo incluso el desplazamiento de éste desde su punto de origen, el castillo de Deio o Monjardín, hacia el Norte de la ciudad, llamándose actualmente «Valle de Yerri» por corrupción» (ibid. 68).

Esan beharrik ez dago: katalanek «auto-odi» delakoa salatuko lukete joera horietan (gaurtxe arte gure artean nagusi).

Euskara osoki baztertuta egon da (eta dago oraindik alor askotan). Ferguson-en sailkapen famatua hona ekarriz; euskara, are erabili denean ere, bigarren mailako B hizkuntza arrunta besterik ez da izan.

Hitz gutxitan esanda: egunero familia giroan, lagunartean, eta lanean erabili izan den hizkuntza horrek, ez du ia-ia arrasto «ofizialik» utzi.

Egoera soziolinguistikoko bitxi horri «lengua latente»koa esan ohi zaio gaztelaniaz. Hizkuntza hori dago, egon, hori bai. Baina dokumentu bidezko frogabiderik ez du eskaintzen. Hizkuntza izkutua da, gordea, debekatua, tabuduna.

Horixe gertatzen zaigu Aragoi eta Errioxa Garaietan, adibidez; baita «Zazpiak Bat»etik ateko beste eskualde batzuetan ere. Hizkuntza hor zegoen. Bai. Baina mila, bimila urtetan, ukatua eta lotsakizun bihurtua. Zergatik?

«La cuestión se convierte en un problema de manejo social de la escritura, y, consecuentemente, de determinadas lenguas frente a otras que no se escriben nunca, en virtud del prestigio social de cada una de ellas» (Gorrotxategi, *Estudio*, 98).

Gizarte-debeku guztizko hori dela-ta, asko eta askotan, eta oso berandu arte, toponimia izango da ia ikerbide bakarra euskararen ezaguera eta erabilpena erakutsi ahal izateko.

Oso adierazgarria da, honi buruz, joera hori: itxuraz euskaldunok euskal antroponimiarik ez erabiltzea. Nabarmen erakusten baitu gure arbasoek ez zutela «izendatzeko eskubiderik»: Calvet-ek «le droit de nommer» bataiatu duena. Euskal toki-izen zaharrak iritsi dira guganaino, bai; «itzulpenaz» horniturik izan bada ere. Pertsona-izenik ez, ordea, oro har. Deiturak, jakina denez, toponimikoak baitziren.

Pertsonak izendatzerakoan, osoki herabe eta uzkur agertzen zaigu gure herria mendeetan barrena. Eta euskaldunon herabekeria horrek, gaurtxe arte iraun du.

Garbiki aitortu nahi izan ez bada ere, euskaldunok erdal izenak nahiago izan ditugu; eta oso aspaldidanik. Eta batez ere «goiko klaseetan». (Ikus, adibidez, Antiguako jauntxo eta puntuzkoen artean orain dela ehun urte zegoen izendegi harriarria. *Antigua 1900*, Txillardegia).

Ez zaio joera hau Gorrotxategiri itzuri. Bere tesian ondoko hau idatzi baitu: «(la lengua vasca) se hablaba, pero por diversas razones que hay que explicar, ni se escribió nunca, ni siquiera proporcionó nombres a sus hablantes» (ik. *Estudio sobre la Onomástica Indígena de Aquitania*, UPV 1984; 96).

«La lengua vasca era lengua de uso, ya en la antigüedad, en la misma zona en que lo sería en épocas posteriores», hori bai.

«Ahora bien –Gorrotxategik ekiten– como muy certeramente ha expuesto Michelena, en esa misma zona no se ha

escrito en vascuence hasta épocas muy recientes... a pesar de que la evidencia del vigor del vascuence es impresionante en virtud de topónimos y antropónimos que aparecen abundantemente en textos latinos y romances, desde el siglo X en adelante» (ib., 97).

Ohar bertsua egin du Rikardo Zierbide historilariak: «El vasco era la lengua de la intimidad familiar y de las relaciones privadas; y no intentó competir, sino en muy escasa medida, con el latín, y luego con el romance, en la vida pública. Cuando se llegaba a dar constancia por escrito de los actos públicos de cualquier orden, era dejado de lado» (*FLV*, 35-36, 397).

Eta ohizko galdera jaulkitzen aidean: «¿Cómo no se ha escrito esa lengua, el euskera, la lengua de todo un pueblo?» (ib., 397).

Nor harri daiteke gure herri xehea euskararekiko erakusten duen uzkurkeriaz? Eta nor ere herri honek pairatu duen klase agintariarekiko mespretxu edo herraz?

Fenomeno ezin larriago hauetaz ongi jabetu artean, nekez uler daiteke euskal bortizkeria politikoa. («Keria» hori bera sobera ote dagoen galde daiteke). Nekez aurki baitaiteke gurea baino nabarmenkiago saldua izan den herririk.

Euskararen erabilpen hiper-diglosiko nabarmen horrez gain, dena dela, bere muga geografiko guztietan atzeraka aurkitzen dugu betidanik. Eta atzerakada amaigabe horren argizapena izango da ondoko orrialdeetako lana.

Mintza bekizkigu berriro Euskal Herriaren iragana funski ikertu duten batzuk.

Eta hona hemen, hasteko, Mitxelenaren lerro ezin adierazgarriago hauek: «Desde los comienzos de la Historia, el elemento éuskaro es claramente recesivo» (*Lengua e Historia*, Madrid, 1985: 206. orr.).

Euskara atzeraka betidanik. Beraxkeria agonikorik ez. Gertakarien kondaira hutsa.

Baina, horren irakurketa zuzenaz: Euskal Herria bera betidanik atzeraka.

Zeren eta gaindituta dauden eztabaida antzuei agur esanda, zer da, izan, Euskal Herria, Euskararen Herria, eta euskaraz mintzo diren euskaldunen herria besterik?

Denak ematen digu aditzera, ordea, erromatarren garaian oso kinka larria jasan zuela euskaraz mintzo zen herriak.

Eta ondoko mendeetan (erromatarren garaitik mila urtetera, batez beste), «sarrazeno»en etorrera zela bide, bigarren aldiz gertatu zela desagertzeko arriskutan euskaldun herria. (Hirugarren kinka, jakina, begien aurrean dakusagu).

Dokumentazio segurua Erdi Aro Beherera arte urria denez, Mitxelenak ez zuen ezer handirik esan nahi izan lehenengo krisialdiaz.

Baina bigarrenaz argi eta garbi eman zuen bere iritzia: «Hay constancia histórica de que ese ámbito (de la lengua vasca) ha venido reduciéndose, con mayor o menor rapidez, digamos desde el siglo IX o X hasta nuestros días» (*Lengua e Historia*, 448).

Ahuldurik, eta hedaduraz murrizturik irten bazen ere, irten egin zen bizirik kinkalditik.

Eta guk geuk bizirik jasotzeko aukera izan dugu.

Arte horretan zer galdu genuen?

Ipar

Hegoaldeko euskaldunok, eskuarki, askoz okerrago eza gutzen ditugu Ahuñemendiaz haranzko gorabeherak, honanzkoak baino. Honetan Geografiak eta Historiak agintzen.

Donostiako inguruetatik Hegoalderantz bizi direnek batez ere, asko eta askotan (gehiegitan zuzenduko nuke nik) ezagutu ere ez dituzte egiten Lapurdi, Baxenabarre eta Zuberoa osoak. Baigorri, Bidaxuneko gaztelua, Donibane Garazi, Hendaiako Abadia, Kanbo, Errobi ibaia... zer direnik ezin esan. Askoz erantzun-errazago zaie Marbella, Burgosko gazta zuria, Rocío Durcal, Granadako Alhambra edo Tajo ibaia zer diren azaltzea.

Iparraldeko gorabeherak arrotz baino ezezagun zaio hegoar askori. «Frantses» eskualde horiek, eskolaren eraginez, eta geronen faltaz ere ez gutxitan, Voivodina edo Cymru «gureak» ez diren bezalatsu, Iparraldea ere... urrun.

Zer esanik ez, beraz, Ipar «Vasconia Aquitanica» zahar eta zabalaz: fitsik ez dakigu, deusik ere ez. Eta hau azpimarraitu beharrik ez dago; begi-bistan baita egunero.

Saint Sever, Auch, Lescar, Nérac, Arcachon, non dira? Hondartzak direla-ta, Arcachonen berri badukegu; edo-ta Bokale Zaharraz (orain modan, itxura denez, Hegoaldekoen artean). Baina Dax hiri hurbila (Baionatik 60 km. exkax), euskaraz Akize (lat. Villa Aquis); edo-ta Bordeaux, euskaraz Bordele direnik, nork daki?

Inor gutxik Hegoaldean.

Bide beretik, baina erantzunak zailago hegoarrentzat, nork daki Auch-i, Gascogne aldean, lehen Ausci idatzia (eta Auzki ahoskatua, beraz, Zuberoako Ahüzki-ren kide hertsia), Auzki zeritzonik? Nork daki Barèges ski-gune ezagunetik Baztan ibaia pasatzen denik?

Oso Iparraldean, eta Arcachonen ondoan, Biscarrosse topatzen dugu, gaur egun euskal kutsuko lekuko harrigarri. Eta Aragoi Garaiko Biscarrués diptongatuaren kide hertsia (gogoan har gure Bizkargi, Bizkarrondo, Bizkarra, eta beste). Eta euskarak (Euskal Herriak, beraz) Iparraldeko alderdi horietan galan-ki atzera egin duela garbi uzten du.

Famak dioenez, bestalde, oso antzinetatik tinko dago hizkuntz muga: leku berean aldakaitz, lpar-muga osoan (bai «Zazpiak Bat» delakoan, bai at). Egia al da hori, ordea?

F. Krutwig-en *Vasconia* liburu burrunbatsua 1963an argitaratu baina askoz lehenago, mugaren tinkotasun horretan batera sinesten ez zuen jende ikasirik bazegoen.

Arnalt Oihenart baxenabartar-zuberotarrak, hasteko, *Notitia Utriusque Vasconiae* liburua idatzi zuenean (2. argit., Paris 1656), «bi Vasconiak» (Iberiarra eta Akitaniarra) hartu zituen aztergai. Ez Hegoaldekoa soilik, edo beronen zati bakar bat.

Askoz beranduago, baina bide beretik, Jaurgain-go Jeanek ere «bi Euskal Herriak» ikertu zituen 1898an. Eta orain badugu liburuaren berrargitaraketa eskuragarri bat (*Vasconia, Estudio histórico-crítico*, Auñamendi, 118 eta 119 liburukiak, 1976).

Hori guztia, ordea, gaurko errealitate sozio-politikoan osoki da iragana eta ehortzia.

Jaurgain bera ere, bidenabar, frantses «purra» zen politikoki: «un ancien combattant français à part entière». Vasconia zaharra osotara zen joana eta ahantzia. Zer esango, beraz, lpar-eskualde urrun horietan jaio eta hazitako biztanle arruntez? Azaldu beharrik ez dago.

Orain dela hogeï mendeko egoera gaurko abiaburu politikotzat hartzea, eskizofreniatzat hartuko litzateke. Eta hauxe gertatu zitzaion Krutwigi.

Hala ere, Euskal Herria nondik eta nola honetara den argitzea, jakintza hutsaren aldetik ere, garrantzitsua izan daiteke. Besterik ez bada etsaiak gure Historiaz asmatu duen mitologia desmozorrotzeko; eta gaurko gertaera batzuk aztertzerakoan, argi iturri oparoa izan daitekeelako.

Garratza izan badaiteke ere, egiari bere bidea.

Niri dagokidanez, eta gaur egun oroitzen naizenaren arabera, Biarno euskaldunak eman zidan lehenengo sorpresa. Eta ondoko urteetan, behin eta berriz bihurtu nintzen kezkaburu berera (ikus *Euskal Herritik erdal herrietara*, Amorebieta 1978. 1970, 1973, 1974eko artikuluak bereziki).

Zenbait urte lehenago *Euskera* Euskaltzaindiaren agerkiari ireki zizkidan begiak (ikus *Euskera* 1961, Bilbo; 242). Justo Garateren eskutik, Bonaventura Smet, *Vulcanus* flandriararren *Ioarnandes* (Leyden, 1597) izeneko liburuaren facsimilea zekarren.

Liburuaren 89-90 orrialdeetan (*Euskera*, 241-242) hitz interesgarri hauek irakur zitezkeen: «Est autem Cantabrica Lingua, quae hodie Vizcayna siue Vasconica vocatur... nunc verò vulgò Bazque, siue Bazcuence appellatur».

Eta honetara jarraitzen: «Cuius usus hodie est non in Vizcaya tantum, verumetiam in finitimis ei et circumiacentibus prouinciis, Alaba, Guipuzcoa, Nauarrae etiam regno, et Bearnensi ditione». Hitz batez, XVI. mendean, Biarnon euskara erabili ere (usus) egiten zela.

Euskera horrek berak dakarren hiztegitxoak, badu xehetasun interesgarriarik. Vinum: ardoa dakar (nahiz aurreraxeago, vinum, çahagui); video: bacust (= badakust); bibo: edatendot; dormio: lonaca (= lo natza); canis: ora (= hora, artzanor); villa: uria...

Bego horretan Biarno euskaldunaren lekukotasun xume hori.

Axularrek, berebat, ondoko lerro hauek idatzi zituenean, Zazpiak Bat-etik at bide zeukan arreta: «Badakit halaber ezin heda naitekeiela euskarako mintzatze molde guztietara. Zeren anhitz moldez eta diferentki minzatzten baitira euskal herrian. Nafarroa Garaian, Nafarroa behean, Zuberoan, Laphurdin, Bizkaian, Gipuzkoan, Alaba-herrian, eta bertze anhitz lekutan» (*Gero*, Flors ed., Barcelona 1964; 52.orr. Itzulpenaz A. Villasantek hornitua).

Baina, noski, Axularrek bere gogoan zer ote zerabilen frogatzerik ez dago.

Gaur egun Euskaltzainburu den Haritxelhar baigorriarrak bere aldetik, beste xehetasun txiki hau eskaini zigun bere doktorego-tesian Biarno euskaldunari buruz (ikus *Euskera* XIV-XV; Bilbo 1969-1970; 503. orr. eta hurrengoak).

Eskiula-ko Udalak 1861eko apirilaren 28an (Eskiula Biarno da administrazioz, izan) erabaki hau hartu zuen:

... «Vu la population de la commune, qui est de 1.281 habitants, nombre auquel il faut joindre les hameaux de Oloron Ste. Marie, section St. Pée, ceux de Féas et de Ance» (alegia: Oloroe-ko Sanpegainekoa, Inhazi eta Arhantze; «Anssa» 1350an)... «qui sont sous la juridiction de Mr. le desservant d'Esquiule, et qui élèvent le nombre de ses paroissiens à 1.502 âmes»...

... «Vu que 113 des hameaux de Géronce et d'Aramits» (euskaraz Jeruntze eta Aramitze, baina biok ere Biarnon kokaturik) «ont toujours recours à M. le desservant d'Esquiule pour leurs besoins spirituels, pour la raison qu'ils ne savent parler que la langue basque. Que le village au centre aggloméré d'Esquiule n'a que 127 habitants, et que les autres 1.488 habitants mentionnés sont disséminés sur une étendue superficielle de forme rectangulaire de 15 km. de long sur une largeur moyenne de 4 km... délibère à l'unanimité: il est absolument nécessaire qu'un vicariat soit établi à Esquiule».

Bide beretik etorri zitzaigun orain dela bospasei urte Mikel Albisu antzerki-ikertzailearen lekukotasun argigarria: XIX.

mendean pastoral bat jokatu zela Aramitzen. Eskuarki herri bakar batek bere gain hartu ohi duenez pastoralaren prestaera osoa (herriak txandakatzen direlarik), nekez antola zezakeen Aramitzek pastoral hori, bertan euskaldun jokatzailerik eta entzulegorik batere egon ez balitz.

Pedro Irizar azkoitiar euskalari jakintsuak, bestalde, ongi zekien biarnes «anomalía» hauen berri. Eta, horretara, euskal dialektologiari buruzko bere plana aurkeztu zuenean, Biarnoko Jeruntzen inkesta egin zedila eskatu zuen (ikus *Contribución*, I, 133; Géronce, 104. inkesta-gune).

H. Gavel-ek ere, bestalde, bide bera proposatu zuen zailantza modura: «... sí sería útil hacer investigación en una barriada del pueblo de Aramits, llamada «Le Basque»; en ella se habla efectivamente vascuence mientras el conjunto del pueblo de Aramits es de dialecto gascón bearnés». (Irizar, *Contrib. a la Dialect. de la L.V.*, t I, 149).

Beste alde batetik, Larraxket-ek etxez etxe zehartu zuen eskualde hori bere zerrenda ezagunean (ikus *Action de l'Accent*, Libr. Vrin; Parise, 1928; 19. orr.). Ikertzaile honek, Eskiu-laz gain, Jeruntze, Orin, Oloroeko Sanpe, Iñhasi, Arhantze eta Aramitzeko euskaldun baserrien zerrenda argitara zuen.

Biarnoko Sarraltzünen, bestalde (fr. Barlanès), eta Landan (fr. Lanne) gaur bertan ere euskalduna da biztanleriaren parte bat.

Administrazioz biarnesak diren batzuk, labur esanda, «üskaldünak» dira mintzairaz. Areago senditzen bide dira üskaldünak, biarnesak baino; behinola Aretako jatetxe batean zerbitzari eskiulatarsa hark argitu zidanez...

Egoera bitxi horretan bizi diren euskaldun biarnotar horiek, kopuruz oso gutxi izan arren, adierazgarri gertatzen zaizkigu; eta aspaldidaniko bitxikeria anitzen gako argi-emale. Oso aspaldian idatzi nuen, hain zuzen, artikulu mordoxka bat gauza hauetaz (ikus, batez ere, *Biarno euskaldunaz*, in *Huntaz eta Hartaz*, Baiona 1965; eta beste zenbait artikulu *Euskal Herrietik erdal herrietara* bilduman, Gráf. Bilbao; Amorebieta, 1978).

Euskarak oso aspaldidanik inon ez baitu «aurrera» egin,

eta «lur arrotzik» okupatu... Mugaren atzerakuntzaren aztarna dugu, hortaz, «bitxikeria» horietan.

Baionari buruz, 1991ko abenduaren 12an eta Lapurdiko hiriburuan, atzerakada horren berri zehatza eman zuen Manex Goihenetxe baxenabartar historilari ikasiak; eta ondoren (1992-II-20an) *Aburu, Enbataren* eraskinak, zortzi orrialde ezin mamitsuagotan barrena, hitzaldi horren muina ezaguturazi zuen. Eta zinez, ikerlan bikain horien ondoren, ezjakintza borobilak ez bestek azal dezake abertzale batzuen herabeke-ria BAB-ren (Baiona-Angelu-Miarritze) euskalduntasunari buruz.

Gainerako bost euskal hiriburuetan bezala, eta Coquebert baroiak XIX. mende haseran inkestatu zuenez (Pariseko gobernuaren zerbitzutan!) jauntxoak, dirudunak eta jende eskolatuak mintzo ziren erdaraz Baionan (kaskoineraz, beraz, frantses Iraultzaren ondoko eskola berria bere fruituak ematen hasi arte); eta baionar herri xehea, berriz, kaletar arruntak, euskaraz. «A Bayonne le petit peuple parle basque», izkiriatu zuen baroiak bere txosten-oharretan.

Zer gertatzen zen Iruñean edo Donostian? Gauza berbera, jakina: handikiak gaztelaniaz, herri xehea euskaraz.

Iparraldean ere, geografikoa baino areago, soziala zen muga.

«Gascogne» eta «gascon» hitzak, Goihenetxek azpimarratu duenez, Erdi Aro osoan barrena, are beranduago ere, ez ziren inon erabiltzen. Garonarainoko lurralde zabala aipatzerakoan, idazleek «Vasconia» esaten zuten; eta bertako jende-
ez, «Vascon» hitza zerabilten.

Barrukaldean, bide beretik, Baxenabarre eta Zuberoako hizkuntz mugak beti tinko eta aldakaitz dirauen uste ustela salatu behar da: Ipar eskualdeetan ere, euskarak atzera egin duela.

Hain zuzen ere, bi euskaltzain oso eta ipartarrek, eta biok ikertzaile ezagun, ipar-mugaren atzerakuntza aztertu dute berriki.

Sentaziko seme den Txomin Peillen dugu bata (ik. *F.L.V.* 39; 1982; *Ühaitzibar osoa euskaldun*, 339-345 orr.); eta Beñat

Oihartzabal baionarra bestea (ik. *Iker* 6, Bilbo 1992, *Euskararen mugez*, 349-366). (Bata eta bestea, egia esan, Parisen munduratuak)...

Irakur ditzagun, hasteko, eta Zuberoari dagokionez, Peillenek idatzi zituen hitzak: «lan honekin, askotan irakurri eta entzun dugunaren aitzitik, euskararen ipar muga, duela guti aldatu dela erakutsi nahi nuke» (*FLV* 39, 339).

1385eko Errolda (Censier du Béarn izenekoa) abiapuntu-tzat hartuz, Ühatzandi Behereko lau herri hauetan gutxienez, euskarak atzera egin duela erakutsi digu: Azpilda (fr. Espiute), Lexoze (fr. Lichos), Üzkaiñe-Tabailla (fr. Usquain-Tabaille), eta Xarre (fr. Charre).

(Bidenabar esateko, azkeneko herriska honetako Haritzaga etxean ostatatu zuen bere izeba batek Laffitte umezurtza. Etxearen izena euskarazkoa izan arren, biarnesez ikasi zuen han Aita Laffitte umezurtzak, eta ez euskaraz. Eta hau adierazgarria da).

Beñat Oihartzabalek, bere aldetik, Charles Coquebert baroiaren inkesta oinarritzat hartuz (1806), eta Brunot-en hizkuntz muga (1927) alderatuz (ik. *Iker* 6, 365), atzerakada hori zehazki neurtzeko oinarriak eskaini ditu.

Burgue eta Erreiti (Baxenabarren), eta Ozagaiñe eta Jestaze, Jestatsü (Zuberoan), urte hauetantxe ari dira erdarara pasatzen. Gure begien aurrean, nolazpait esateko.

Xehetasun gehiago erantsi du Martin Haas-ek (ikus *Iker* 7, *Communes bilingues*, 698; Bilbo 1992). Herri horietan, erakutsi duenez, euskara ez da oraindik osotara iraungi: Jestaze (%16 euskaldun), Ozagaiñe (%12). Nahiz, ikus daitekeenez, desagertzear egon.

Ibar horien kaskointzea, Nafarroa garaian bezala, behetik gorantz obratu da. Adibidez:

(Ühatzandi)

Ündüreiñetik gora, eusk.;

Lixoze, Xarre, Jestaze, Azpilda, Ozagaiñe, esan dudun bezala, berriki kaskoinduak.

(Biduze)

Ilharre, Bizkai (oraindik ere, teorian be-
deren, euskaldunak);

Erreiti, Burgue (eusk. 1927; erd. 1994)

Erango, Akhamarre, Bidaxune, Gixune.

Erd. azken mende parean.

Beste alde batetik, Constantin medikuaren bidez jakin du-
gu hau, Baretoz ibarra (Biarnon: Aramitze, Iñhasi, etab.) eus-
kalduna zen oraindik XV. mendean.

Iragan euskalduna salatzen du, bestalde, toponimiak bes-
te ipar-barruti askotan.

Oloroeko Iruriaren harroan leku-izen hauek topatzen di-
tugu (idazkera ofizialaz): Escos, Abitain, Aspis, Bideren, Mu-
nein, Barraute, Orion, Orriule, Narp (eta Navarrenx), Audaux,
Araux (Araos pila dago bi Vasconietan), Bastanès, Estos (beste
bat badago Oska probintzian; eta "Esko" haserako toponimo-
ak Kataluñaraino hedatzen dira), Garris, Escou (Esku ahoska-
tua), Aurance ibaia.

Pauekoan, berriz, begirada arin batez: Ramous (gogoan
har Erramuspe deitura), Berenx, Castetarbe (Arbe-ko gaztelua,
jakina), Balansun, Argagnon (Argañon, ahosk.), Arance, Aude-
jos, Urdés, Lagor.

Eta askoz ere Iparralderago, Landetan barrena: Mixe (gure
Amikuze, Mixe da frantsesez), Lit-et-Mixe, Uza, Guetch, Lar-
den, Onesse, Garrosse (gogoan har gure Garruze, fr. Garris,
baita Garrués Nafarroan, eta Garro), Lisacq, Escource, Leyre
ibaia (L'Eyre ere idatzia), Gastes, Navarrosse, Narp, Ispes
(Haizpe baino zaharragoa, Irigoienen ustez), Biscarrosse, On-
ce...

Txiripa izateko, gehiegi.

Baina hau guztia baino garrantzitsuagoa: kaskoinerak
euskal ezaugarri mordo bat dauka. Azalpenak ez du zalantza-
rik uzten: kaskoinerak euskal sustratoa dauka funtsean.

Aran-dik Bordeleraino garamatza honek. Vasconia zaha-
rrenen maparik zaharrenetara.

Noiz galdu zuen, beraz, bere jatorrizko hizkuntza Ipar-

Vasconia hark? Oso aspaldian. Honi buruz denak datoz bat; nahiz eskualdetik eskualdera desberdintasun handiak egon.

Narbaitz kalonjeak ekarri zigun, Akize (= Dax) hiriari buruzko xehetasun interesgarri bat (ik. *Le Matin Basque*, Pierre Narbaïts; Libr. Guénégaud; Parise, 1975; 33. orr).

Hona hemen, hitzez hitz, ipartar historilariaren izkribua: «On parlait le basque à tout le moins dans une bonne partie de ce qui, à partir sans doute du VI. siècle, deviendra la Gascogne (Wasconia, Gascogne)». Eta, ironiaz: «René Cuzacq lui-même, authentique érudit et authentique gascon devant l'Eternel, nous a conté fort bien qu'au IV. siècle on parlait basque (et sans doute latin) chez la grande-mère du jeune Ausone, à Dax».

Narbaitz kalonjearen datu honek erromatarren okupazio-urte urrunetara garamatza.

Coromines-i esker ikasiko dugunez, Cerdanyan (Kataluñan) eta Vasconia akitanikoan, bateratsu gertatu bide zen euskararen suntsiera.

Eki

Elurra dela eta ez dela, esate baterako, turismoak berak bultzaturik; edo-ta mendizaletasunak eraginik, Aran haranaraino joandako euskaldunak, txit ugariak dira gaur egun.

Urrunsko dugu Aran eskualdea, hori bai; Kataluña barruan dagoela kontutan hartzeak ongi agertzen duenez: Lleida probintzian, preseski.

Araneraz «Era Val d'Aran» deritzon harana, izenak berak adierazten duenaren bidetik, horixe baita, izan: mendi-kateaz Iparraldean kokaturik dagoen haran garai eta luze bat. Vielha hiriska (Garonaren ertzean dagoen hiriburu xarmanta, Atharratzeren ahizpa bataiatzeko modukoa), zortzi mila biztanle, 977 metro gora, mendialde betean dago.

Garona ibaiak 45 kilometrotan barrena gurutzatzen du batetik bestera.

Euskaldun bisitariari bitxi gertatzen zaizkion xehetasunak ez dira han eskas. «Garona» izena bera barne; Leireren atzean Garona izeneko erreka bat baitago.

Baina sorta gorriko gida-liburuxka eskuetan hartu (*Vall*

d'Aran izenekoa, edit. Alpina); eta irakurketa hasi orduko, esaldi hau topatzen baitu 3. orrialdean: «En lenguaje antiguo aranés el vocablo ARAN significa El Valle o 'La Vall'». «En lenguaje antiguo aranés» bakarrik? Zer da «haran» euskaraz?

Euskal Herria, euskararen Geografiak eta Kondairak argi eta garbi erakusten dutenez, betidanik ari da atzeraka, suntsiera nabarmenean. Eta euskal toponimoak ditugu lekuko garbia.

Bidenabar: Aranen gaur hitz egiten den hizkuntza berezia, osoki bertakoa, hemen arestian «aranera» deitu duguna (kanpotik etorritako katalan eta gaztelaniaz gainekoa), kaskoinaren adar bat besterik ez da. Alegia, «Vasconia» zabalean barrena mintzatua izan zen hizkuntza erromanikoaren atal bat. Italiaren eta errumanieraren haurridea.

Orain dela ehun urte, Pasai Donibaneako eta Donostiako «gaskoinek» (Aiet, Urgull, Narrica, Embeltrán, eta abar, izendatu zituztenen ondorengoek) ez zuketzen beren burua Vielhan edo Bossost-en batere deserrian antzemango...

Baina goazen aitzina.

Irakurleak agian badakikeenez, Vielha ondo-ondoko Escunhau herriskan, hain zuzen ere (Eskuñau ahoskatua) topatu zen «akitanieraz» idatzitako harri horietako bat: katalogoetan CIL 23 erreperaz ezagututakoa. «Akitaniera» diogunean, eta Lafon errepikatuz, euskara arkaikoa adierazi nahi dugu, eta ez besterik.

Hilarran irakur daitezkeen hitzak hauek dira: «ILVRBERRIXO ANDEREXO», eta «x» hori segurki soinu afrikatu bat denez (Gorrotxategi, *Estudio... Onomástica Aquitana*, 131), «Ilurberritxo Anderetxo» irakurri behar dira. Edo horren oso antzeko zerbait.

Lehenengo hitza harri-eskaintza merezi izan duen pertsonari ohi dagokio (edo-ta jainko bati); eta bigarrena, berriz, eskaintzaren egileari. Hortaz, «Ilurberritxori, Anderetxok», geure idazkeraz. Oraino politago kasu honetan, Aita Fitak eta Gómez Moreno ikertzaile ezagunek, emaztearen eta senarraren bi izenak somatu baitituzte izkirio horretan...

Badirudi, hitz batez, Aranen aurkitu dela lehenengo senar-emazte ezagunen izen pareta.

«Anderetxo» zer ote den euskaldunoi galdetu beharrik ez dago. Eta «Ilurberritxo» hori, «Ilur-berri»ren hipokoristikoa da.

Hots, Biarnoko Oloron hiriaren izen zaharra, «Iluro» da (euskaldunek gaur «Oloroe» diote). «Oihan» hitzak, «Oihartzabal» eman du; eta «jaun» hitzak, «Jauregi».

«Ilurberritxo» horretan, beraz, «ilun» dago; akitanieraz behin eta berriz errepikatua. Nafarroako Lumbier-en euskal izena «Ilunberri» dela kontutan hartuz (edo-ta Urunberri erronkarieraz), zein euskaldunek ez du hitz bikote hori «etxe-ko»tzat hartuko?

Baina bego hori horretan.

Eta abia gaitezen beherantza; Frantzia aldera, alegia.

Eta, abiatu orduko, oraindik Aran barruan gaudelarik, hor-
txe topatuko ditugu bi herriska: «Arró» bata, eta «Arrós» bes-
tea. Garonaren «harro» betean kokaturik biok... Hots, «arro,
barranco» (Azkue, *Dicc.*, 78). Baita gure Arrospeide, eta abar.

Eta bertako ipar-mugan bertan, «Arbe» bat topatuko dugu;
Nafarroan bezalaxe.

Garós dugu gero (Amikuzeko Garruze-ren kidea, r/rr neu-
tralizazioa maiz aurkitzen baita inguru hauetan); eta *Unha*
(Uña euskal grafiaz, Oña-ren oihartzun). *Bossost* xarmanta
atzean utzirik (eta –ost eta –oste bukaeren antza nabarmen
zaigularik), aldapan gora joan, eta Frantzia-Espainia muga
gaindituko dugu Portillonon. Mendatetik jaistean, *Luchon* hiri
dorotea aurkituko dugu, baketsu: ur-pausaleku ezaguna.

Beherago segi, eta *Cier de Luchon* topatuko dugu. Gure
Zierbide, Zearra, Zearreta, Ziarsolo, Zierbena, eta abarrez
oroitzea aski, «Cier» horretan euskal zantzua somatzeko.
Hots, gure susmo hori ez da erokeria: «609: zear, 'costado, la-
dera', *Apellidos Vascos*, 165 orr., Mitxelena).

Beti ere iparralderantza joaki, eta aldapan behera, zazpi
kilometro egin, eta *Cierp* topatuko dugu.

Zierpe edo Zierbe irakurri behar dela garbi dago; *Cier* bai-
no beherago baitago. Abaurre-geinaren azpian, Abaurre-pea
dagoen bezalaxe. Edo Donostian, Antigua zaharrean, Loreto-

pea muturra, Loretoko Ama-birjinaren kaperaren azpian zegoen bezala.

Beste hiru kilometro beherantza egin; eta daramagun kaminoaren ertzean, *Estenos* deritzon herriska topatuko dugu. Baina Nafarroako Lizarraren ondoan ere, Allozko urtegiaren hegian, beste *Estenoz* bat dugu. Izen berbera berriro!

Beste xehetasun adierazgarri bat gogoraziko dugu: Boltañako *Ucilos*, Foradada del Toscar-en, Irigoienek argiro azpimarratu duenez, *CTVCP 228*, Arrazolako *Urtzillo* baserri-izenaren bizkia da. «Lur»etik, «lubizia» irten den bezala.

Eta *Lacarro*, eta *Lastarri*, eta *Guncheru*, eta *Escos* (antzinago Escosse izkiriatura)...

Eta, honetara, eta ezinbestean, eskualde hartan euskaldunak bizi izan zirela tinko grabatzen da gugan.

Derrigorrezkoa izango da, beraz, hemendik goiti, eta espaldiko mendeei dagokienez, euskararen hedadura geografikoa Ekialdetik ausarki zabaltzea: «Cette collection de faits nous montre que l'emploi des parlars basques s'est étendu bien plus qu'on ne le croît d'ordinaire, et dans un sens *chronologique*, et dans un sens *géographique*» (Coromines, ibd. 113).

Eta liburu honetan toponimi-azterketa sakonetan abiatzeko asmorik izan ez arren, beste txango toponimikoren bat burutzeko asmoa itsatsiko zaigu. Eta, irakurlearen mesedetan, egin ere egingo dugu.

Horretarako berriro Vielhatik abia gaitezen, baina hegoerantz oraingoan.

Eta har dezagun Ribagorza alderako «tunel» famatua. Aragoien dago Ribagorza harana, Huesca probintzian (Oskan, beraz, diptongaketarik gabeko bere molde zaharraren arabera). Gaur egun katalanera da bertako mintzaira berezia, gaztelaniaz gain mintzatua. Hain zuzen, Ribagorzaren inguruan kokatzen da katalunarrak Banda de Ponent deitzen duten lurraldea. Catalunya ofizialetik at, beraz.

Beste oharño bat aurrera baino lehenago: Nafarroako Güesa herriari, Zaraitzun kokatua, Gorza deritzogula euskaraz. Eta aldaketa fonologiko hori erabat normala dela. Bokale

arteko /p.t.k./ gorrak, /b,d,g/ ozenak bihurtzen baitira hitz-haseran (ikus Rippa Curza zaharra).

Hona hemen orain xehetasun jakingarri hau.

Orain dela hamar bat urte, J. Coromines kataluñarrak aztoratu egin zituen bazterrak. Zeren-eta, 1973ko *Fontes L.V.* nafar aldizkarian (13. zenb., 5-19 orr.), artikulu harrigarri bat argitara baitzuen: *Dos notas epigráficas*.

Berorren bigarren parteari, jatorrizko izkribuan, honetara zeritzon: «Una inscripció en basc ribagorçà del segle I, amb dos ideogrames».

Garbi agertzen zuen, hitz batez, oso aspaldian bederen, mendikateaz hegoaldera (Aran haranaz honanzko aldean, nolazpait esateko, mintzatua izan zela euskara. Ez «hizkuntza pre-romaniko» bitxiren bat bakarrik; oraindik ere zenbaitek xede ilunez esan ohi duen bezala. «Basc» baizik: «No vacillo, doncs, a considerar aquesta inscripció com un antiquíssim text en l'arcaic dialecte ribagorçà de la llengua basca». (*Una inscripció en basc ribagorçà*. Ikus gaztelaniazko itzulpena, *FLV* 13. alean, 1973).

Lapitz-lata hau Ribagorza Garaian atxeman zuten, Pas de la Croqueta delakoan. «En la zona –dinosku Corominesek– donde las reliquias vascas de la toponimia ribagorzano–pallaresa, que he estudiado tantas veces, llegan al grado sumo en densidad» (8. orr.).

Fama denez, arabiarren okupazioaren garaietan, «sarrarzenoak» Aragoiko parte askotan sartu eta nagusitu baziren ere, Ribagorzan eta Pallarsen ez. Batez ere mendialdeko eskualde malkartsuetan.

Euskal aztarna zaharrak, hitz batez, mendialdeko inguru horietan aurki daitezke (baita aurkitzen ere). Aiseago, askotan, gaurko Euskal Herriko mugetatik hurbilago dauden beste toki batzuetan baino.

Guk, dena dela, geure txangoari ekinez, eta Ahuñemenditik hegoaldera abiatuz, eta Les Bordes-ko elkargunean eskuinera joz gero, berehala egingo dugu topo Obarra izeneko Monastegi famatuarekin; Isabena ibaiaren gain-gainean.

Izen honetxek ematen dio lehenengo zauskada euskaldun bisitariari: Ribagorzan «Isabena» lekun-izena topatzen baitugu; eta Nafarroan, berriz, «Isaba» («Isabarre» bat ere badugu, ez urrun; azálduko dugunez).

Obarraren ondo-ondoan, bi «Espés» ditugu: «Espés» soila, batetik (zenbait aldiz, «Espés Bajo» esana); eta «Espés Alto» izenekoa, bestetik, goraxeago. Biok «El Turbón» tontorren inguruetan («Tur-» horrek Euskal Herriko beste hamaika «Tur-»kidetara garamatzalarik). Zuberoan ere «Ezpeize» bat badugula esan beharrik ez dago (fr. «Espès»).

Obarra ospetsuaren izena bihurtzen da azkar argi eta galdera-iturri. Aski da horretarako Angel Martín Duquek argitaratu eman duen *Colección Diplomática de Obarra* liburua gainetik bederen begiratzea; eta izendapen horren eboluzio diakronikoaren jarraipena egitea. (Univ. de Navarra, 1965).

Dokumenturik zaharrenetan (1.000. urtearen ingurukoe-tan) haxe da irakurtzen den hitza: «Uuarra» (sic); «Uvarra», beraz, eta «Ubarra» gaurko euskal grafiaz (bokale arteko /b/ frikari gisa ahoskatzen baita euskaraz, gaztelaniaz bezalaxe). Eta gero hasten da «Ouarra» agertzen, eta geroenean nagusitzen. Obarra-ren forma zaharra, hitz batez, Ubarra da.

Eta honek ondorio garrantzitsuak ditu; «ubar» hori, gure ohizko «ibar»en kide hertsia baita.

Honelako zerbait iradoki zuen Mitxelenak berak aspaldidanik: «No es imposible que haya existido una forma occidental *ubar, var. de ibar... p.ej. en *Ubarrundia*, en la Reja de San Millán» (*Apell. Vs.*, 156).

Badirudi, beraz, ekialdeko Obarra hori, gure Ibarra besterik ez dela. Eta Ribagorzan. Isabena ibaiari datxekion ibarra.

Forma arkaiko horiek batera euskal eremuaren bi muturretan agertzea, jakina denez, normala da. «Uharra» ere, bestalde (maiz «ubarra» ahoskatua), eta gaur egungo hizkeraz, hazita datorren erreka laisterra besterik ez da zenbait lekutan.

Ribagorza horretantxe dago Abi herriska; edo herriska izana bederen.

1495eko erroldan *Avi* herriak 5 sutegi zuen (bost «fuego»

erdaraz). (Ikus Antonio Serrano, *La población alto-aragonesa a finales del siglo XV*). Abi Esera-ren harroan zegoen, Seira inguruan, Sos-ko Castejón-dik hurbil; San Pedro de Tabernes monastegi ospetsuaren eskualdean.

Orain ia-ia topatzerik ez dagoen Abi zahar horrek, halere, Nafarroara garamatza: Lergara preseski, Uxue eta Garipentzu herrien ingurura.

1960 urte amaieran, Lergan aurkitu zen harrizko estela «akitaniko» horietako bat (Gorrotxategiren tesian «2» errepera darama. lk. 121. orr.).

Aurkikunde honi artikulu luze bat eskaini zion Mitxelenak 1961ean; denaz gain, lehenengo aldiz aurkitu baitzen euskarazko testu bat, laburra eta ia onomastika hutsezkoa izanik ere, Añemendiko kateaz hegoaldean.

Irakurketaren gorabeheretan sartuko ez bagara ere, hiru izen hauek irakur daitezke Lergako estelan: «Ummesahar» (semea, Gorrotxategiren ustez, 238); «Narhunges» (aita); eta «Abisunhar» (biloba).

Silabaketa osoki da euskal fonologiaren arabera (Nar.hun.ges; A.bi.sun.har). «Ummesahar» hori zer den galde-tu beharrik ez dago: gogoan har guk erabiltzen dugun «neskazahar» hitza. «Umme» ulergarria da guztiz (gogoan har akitanierazko «Ombe»; «sembe»rekiko parekotasun osoan).

«Abisunhar»en zatiketa segurua da: «Abi» eta «sunhar». Gaurko ortografiaz: «Abi» eta «zunhar», ik. «zumar» usuenik; eta guztiz ohizkoa Zuberoan: Zünharre, Zünharreta (fr. Lichans-Sunhar).

«Abi-zunhar», hitz batez, eta «Usun-(h)aritz» (ik. Dussunarits), simetrikoak dira. Usun, Domeño ondoan, Romanzado deritzon eskualdean, Nafarroan, ez dago Lergatik urruti. Bi toponimo bizki bide dira; Mitxelena honi buruz uzkur agertuko bazen ere: «un nombre de árbol sería único en la antroponimia vasco-aquitana, en cuanto alcanzan mis conocimientos» (*Lengua e Historia*, 456 n.).

Harri-izkribu honetan, garai hartako nafartarren euskaltzaletasunaren arrastoa ikusi uste du Mitxelenak: «La estela de Lerga constituye un indicio, pero un indicio inconfundible, de

la tenacidad con que se mantuvieron las viejas hablas en la proximidad del Pirineo (457).

«Narhun» horrek, bestalde, Sara ondoko «Larhun» delakoaren kide hertsia dirudi: hitz haseran, bai gaurko Euskal Herrian, eta bai orduko Ribagorza-Pallarsen, alternantzia normala da. Aneto-ko *Nestui*, Cerdañan, Kataluñan beraz, «est prononcé Lestui par beaucoup» (Coromines); eta Malpàs-ko *Navarri*, Lavarri. Nola ez oroituko gure «lasai/nasai» bikoteaz (beste hamaikaren artean)? (109).

«Ges» (edo «Gesi» zenbait irakurketaren arabera) zer den ez dakigu. Lapurteraz (erd. dardo) flèche, esateko, «gezi» erabili izan da. Beste zuhaitz izendapen zaharren bat ote? Oska Garaiko testu zahar bat ari gara somatzen. Gisa da zalantzatan ibiltzea.

Euskaltzalearen harridurak, dena dela, ez dira horretan amaitzen.

Arandik irteterakoan Vielhatik gora egin bagenu (eta hegoalderantz, hortaz), Garonaren harroan gora joanez, elurte gaitzak jasaten dituen Baqueira-Beret eski-gune ezagunera iritsiko ginen aurrenik; goian alimaleko turismo-zentro bat topatuz (Espainiako erregea ere hara joan ohi da neguko kirol-tan saiatzera).

Neguetan, elurra dela bide, hertsita egon ohi den Bonai-gua-ko mendatea pasa; eta Arandik Pallarsera igarotzean, Sorpe herria topatuko genuke. Beherago (948 metro gora heinean) Esterri d'Aneu herria, berau ere udako turismorako prestatua.

Aurrerago Unarre-ko harana dago, eta bertan Isil eta Escalare topatuko. Eta gu Nafarroako Eskalarrez oroituko gara; eta Alos de Isil ikustean, Alos-Torreaz. Hantsu ere «Cerbi» irakurriko; juxtu «cerretani» delakoak bizi izan ziren inguruetan.

Oraino beherago, «Isavarre» herriska xarmanta («qui répond au basque Isaba», Corominesen hitzetan); eta Ribagorzan topatu dugun Isabenaren bizkia (dena kondatzekotan, dokumenturik zaharretan Isavana deitua, «Isauana»).

Eta Noguera Pallaresa ibaian behera goazelarik, Estaon eta Arestui (berau Aresti eta Hariztui-ren kide hutsa: ik. Sagar-dia/Sagardui, adibidez; baita Elordui eta Otadui ere).

Geroago Llavorsí herria agertuko, Urdossa mendiaren ondoan (Baigorri ondoan Urdoz dugu). Beherago, Tirvia-ren ondoan, Araós (sic), Oñatin bezala. Rialb pasa, eta Escós; berriro ere Baxenabarren bezalaxe. Eta inguruetan 2.437 metrotako gailur bat: Torreta de l'Orri... Zinez: hau guztia txiripa hutsa izatea, ez da posible.

Oraino haratago, ekialderago alegia, eta Bescaran topatuko dugu.

Egia esan, begenekien honetaz ez dagoela zertaz harriturik; Corominesen ikerlanen ondorioz, Col de la Perche menderaino euskal sustratoa baitago gailen. Hots, urruti dago oso Col de la Perche hori: Font-Romeu eta Lllivia-ren parean, Puigcerdátik ekialderantz, Andorratik aisa haruntzago, Berga parean, eta Prada eta Canigú famatuen agerrian...

Haruntzago, jatorri iberikoa duten toponimoak gailentzen omen dira.

Llivan bertan, Espainia estatuak Frantziaren barruan daukan bere Trebiñoaren ondoan, Estávar herria dago; Corominesen eskutik euskalarien artean dexente ezaguna. Kataluñar jakintsuak irakatsi digunez, *Estavar/ Estaguja* bikote arkaikoa dago; erabat gure *Hiribarren/ Hirigoien* bikotearen bizkia. (Honi buruz gehiago jakin nahi duenak, ikus beza *Toponimia bascoide a Catalunya* ikerlana, 158. eta hurrengoak; in *Estudis de Toponimia Catalana*, Barcelona 1966: «els noms cerdans em 'guja' i en 'barre».

Euskaldunok honelako gauzak somatzea «buru-beroke-ria» izan liteke, ausaz. Zer pentsa, ordea, ideia horiek Abadal eta Coromines katalan jakintsuen ikerlanen ondorio baldin badira?

«Hi ha raons per a creure que... es parlaven varietats bascoïdes a la major part dels Pirineus» (ib. 172).

Eta beste lan batean: «Tant qu'on restera dans les Pyrénées (et à l'Ouest du Col de la Perche) on pourra parler strictement de basque» (Coromines, *Survivance du basque*, 98). *Eus-kara* dio, eta ez «hizkuntza pre-romaniko»ren bat, edo horrelako zerbait. Batzuetan hori gelditu baita aidean; ez ote genuen Ahuñemendian, Kaukasoan bezalatsu, hizkuntza mordo

bat, oso maiz elkarrekiko «arrotz eta estrainio»: avar eta armeniera, eman dezagun.

Ilergeteak, bestalde, Graus-tik gora bizi izan zirenak, «Vascones» izenekoen jatorrikide zaizkie ikertzailerik gehienei.

Haratago. Cerdanyako hizkera zaharra, kataluñar ikertzaille horien ustez, beste euskalki zahar bat besterik ez zen: «el basc antiquissim de Cerdanya, potser ja extinguit cap al segle VI», dio Corominesek. Kontutan har beza irakurleak: «el basc antiquissim». Eta Coromines ez da nornahi.

Berorren miresle eta adiskidea izan zen Koldo Mitxelenak ere, gai hauetan batere ez espantuzale, lerro hauek idatzi zituen honi buruz: «Hay testimonios epigráficos que establecen que, en una parte de Aquitania, con inclusión del valle de Arán, se habló una lengua que es, en substancia, algo extremadamente parecido al vasco antiguo» (ib. 450).

Irizkide agertzen zaigu kataderan ondorengo eta dizipulu ofiziala den Joakin Gorrotxategi irakaslea: «El vascuence, o un grupo lingüístico éuscaro del que el vascuence formaría parte, desvinculado ya de su vecino el ibérico, veía extender su territorio considerablemente hacia el Este a lo largo de los Pirineos, hasta llegar al río Salat».

Euskararen eremu zaharra Andorrraraino, are haratago ere, hedatu behar da.

Irizpide nagusi hori nolazpait laburbiltzekotan, honela zioen Gorrotxategik bere tesian: «A esta visión –Abadal-ez ari da hor– venía a sumarse Coromines, 1960,... donde se exponía la existencia de un gran número de topónimos de origen éuscaro en la zona del Alto Pallars (Lérida): este valle del Noguera Pallaresa es el correspondiente al del Garona en la vertiente meridional». Eta honela jarraitzen: «Coromines en este trabajo se sumó a la opinión, ya emitida por don Ramón de Abadal, de que las gentes que habitaban estos valles de Ribagorza y Pallars pasarían del vascuence al catalán sin la fase intermedia de la latinización, fenómeno que requiere una supervivencia del vascuence hasta el siglo X» (ik. Gorrotxategi, *Onomástica Aquitana*, 96.orr., U.P.V. 1984).

Bagenekikeen hau Sylvius Italicus-en bitartez: «(lequel) associe les cérétans, ancêtres des gens de la Cerdagne, avec les Vascons; et des ethnologues modernes des plus éminents ont adhéré à cette classification» (Est. de Topon., 113).

Harrigarri zaio euskaltzale arruntari, beste adibide bat ematekotan, «res» hitza (deusik ez, beraz) Pallarsen «arrés» bihurtzen dutela ikastea. Latinetikako «rota», euskaldunok «errota» bihurtu dugun bide berberetik.

Hots, «on entend 'arrés' partout dans le Pallars» (ib., 123). Eta fenomeno bera gertatzen zen Aragoi Garaian: Navarra Tomás-en bilduma mamitsuan, eta besteak beste, «arrequisión» dokumentatzen da 1293an (ik. T. Navarro Tomás, *Documentos lingüísticos del Alto Aragón*, 100. orr.; Columbia Univ., 1957).

Baina, kasu: ez dago hor inondik ere bitxikeria solte bat: «On pourrait exemplifier toute la phonologie basque au moyen de la toponymie pallaraise» (Coromines, *Estudis*, 123). «Ce sont les traits coïncidant avec le basque qui nous frappent et par leur nombre et par leur importance» (ib., 138).

Fonologi antz errepikakor hauek sekulako garrantzia dute; ez baitira azaltzen ahal elebitasun luze baten ondorioz bai-zik. «Gendearia» (lat. Centenaria); eta «Ripalda» (vs. Ribalta), euskal sustrato seguru dira. «Insistiré, porque esto no suele ser evidente para el no especialista, en que el valor apodíctico de este tercer grupo de pruebas» (= fonológicas, de adaptación fonológica de los préstamos de origen románico) «no me parece en nada inferior al de los otros dos» (K. Mitxelena, *BRSAP* 1966, Corominesen *Estudis de toponimia catalana*-ren aurkezpena; 283).

Eta orain, orrialde pare batean barrena hizkuntzaren beraren lekukotasun hertsietatik urrunduz, «arrapiztu» egiten dira euskal oihartzunen susmo horiek.

Irakur dezagun, adibidez, oso «koloregabe»tzat jo behar den *El Pirineo Aragonés* liburuxka (Santiago Broto Aparicio, Everest Argit., 1979). Eta Ribagorzaz, eta Benasquez berezi-kiago, ari delarik, eta Esera gainean dagoen Guayente-ko Ama-Birjinaren elizaz (1936ko gerratekoan porroskatua) hau dio: «Tiene el poético interés de la ingenua leyenda medieval,

que se relata con todos sus pormenores en un manuscrito firmado en el año 1292 por don Pedro Azcón y Abarca, conservado en el archivo de sus descendientes».

«Narra don Pedro –dinosku Brotok– que yendo un antepasado suyo, don Hernando de Azcón de Anciles a su casa solariega de Liri; y siendo noche cerrada, oyó unas voces que entonaban melodiosamente la Salve, sobre las rocas que se alzaban al otro lado del río». Eta abar.

Ama Birjinaren imajina bat hiru aldiz bertan agertu, beste hirutan desagertu, etab., behin eta beriz Sahún-a eraman. Pasadizua, irakurleak erreparatu dukeenez, guztiz da Euskal Herriko zenbait ermitatan gertatu omen den bezalakoxea...

Baina bego hori bere horretan.

Eta begira ditzagun izen horiek. Imajinaren aurkitzaileari *Azcon* deritzo (Nafarroan Azkona herria badagoela esan beharrik ez dago); *Azcon* horren jaiotetxea, *Liri*-n zegoela azaltzen zaigu (Zuberoan Ligi dugu, fr. Licq). Eta harako bidean *Azcon* delako hura *Anciles*-tik irten omen zela (Baxenabarren Aintzila dugu, fr. Aincille). Kokalekutzat *Azconek Sahún* herri-omen zeraman irudia (nola ez aipa Etxahun, Barkoxeko koblakaria?; Etxenagusia-tarrak «Chena» bihurtu izan direla jakinda... Eta Txabarri eta Liberry, ezkerreko silaba ahularen aferesi berberaz laburturik ezagutzen ditugularik...

Azcon hori hor ikusita, Lergako harrian gezi irakurri behar ez ote den bururatzen zaigu azkarki.

Eta, beste alde batetik, oso bitxi gertatzen zait (besterik ez esatekotan) neronek, Zuberoan bildurik, Ligiko zubiari buruz entzun eta transkribatu dudana: «Gisála Lígiko zúbía lamiñék egíñi(k) tüzü... kalthégin ziezün herríko neskatillá(r)ik eijerréna... láster azken-harría zén ezartéko... bé(r)e kükürrükü handiéni(r)o igórtendü... azken-harría ürthüki zien üháitzilat» (*Fontes L.V.*, 34; 29/36 orr.).

Santiago Broto idazleak ia hitzez-hitz istoria berbera aurkitu du Sobrarben (*El Pirineo Aragonés*, 245). Oso aspaldian erdaldundutako eskualdeez ari bagara ere, «los relatos sobre Monclús se repiten, y las piedras del congosto de Entremón guardan viejos secretos, extrañas historias, como la del Puente

del Diablo, allí junto a la enorme presa; que fué construído en una noche por los espíritus infernales, con la promesa, fallida luego por el importuno canto del gallo, de entregarles las almas de las tres doncellas más hermosas de Mediano» (ibid. 245). Kondaira berbera da, dudarik ez.

Bide beretik: mendialdeko Oskan babide zeuden lamiñak (ik. Broto, 252). Eta Sobrarbekoak, gure ingurukoak bezalaxe, San Juan bezperan agertzen omen ziren gure artera; eta ilaje hori ederra ilargiaren argitan orrazten: «Algún pastor dijo haberlas visto peinando sus cabellos y poniendo ropas a tender» (Broto, ibid. 252).

Oska Garaiko «pastoradak», gisa denez, Zuberoako pastoralen bizkiak ote diren bururatu zaio zenbait euskalduni (niri barne). Baina gai honetaz jakintsu nagusia den Beñat Oihartzabalek ez du ahaidetasunik somatzen. Mitxelenak ere ez: «En cuanto a los orígenes y antigüedad de este teatro, se ha pensado, a causa de la proximidad, en las 'pastoradas' de Huesca, que difieren mucho tanto por la extensión como por los temas» (*Historia de la Literatura Vasca*, Luis Michelena, Madrid 1960; 29).

Dantza bera bide da Oskako «pastoradetan» ikuskariaren ardatza. Baina Zuberoako pastoraletan ere, nork uka dantzak dituen garrantzia eta lekukotasun etengabea?

Ahuñemendi erdi-aldeko beste zenbait ikuskaritan ere, badugu euskaltzaleok zertaz harriturik.

Adibide bakar bat eskaintzekotan, irakur bitza irakurleak ondoko lerro hauek; urtero-urtero Sobrarbeko hiriburua den Ainsa ikusgarrian, irailaren 14ean, antzesten den «La Morisma» herri-teatroaz idatziak:

«Este drama histórico –dio Brotok– se representa de forma espectacular, con la participación como actores de un centenar de personas, vestidos a la manera medieval, tanto los cristianos como los moros. Su sabor popular y étnico, su carácter colectivo, valor histórico y antigüedad documentada, hacen de ella una pieza de gran interés en el aspecto tradicional y folklórico.

En un verso irregular, los distintos personajes, desde el

Monarca, nobleza y gremios, milicia y representantes de pueblos, desfilan en el abierto escenario de la Plaza Mayor, para revivir el milagro de la aparición, sobre la encina de Sobrarbe, de la roja y luminosa Cruz.

El texto, en romance, parece relativamente moderno; y se inicia con un parlamento del pastor, en el que refiere que viene en secreto a prevenir del ataque de los moros. Después intervienen dos generales, y un soldado que pone la nota humorística con dichos alusivos.

Después todas las villas y lugares del antiguo Sobrarbe se expresan por medio de enviados, entre ellos los de Laburda, San Vicente, El Pueyo, La Fueva, Banastón, Araguás, Cagigosa, etc..

Terminada la actuación de los cristianos, comienzan los representantes moros, a los que ayuda constantemente el diablo. Posteriormente la reina mora pide clemencia y se hace cristiana, y después se entabla batalla espectacular, simulando la conquista de un castillo, y apareciendo la Cruz victoriosa en la encina.

El pastor finaliza la representación diciendo que se marcha a Jaca y San Juan de la Peña a comunicar el triunfo» (Broto, 241).

Ziberotar pastoralak ikusi duenak, ez du, aurreko lerroek aurkeztu diguten teatro-saioa, batere arrotz harrapatuko...

Baina guk, nahiz antz bitxi horiek eta beste xehetasun askok azalpen osoagorik merezi, geureari eutsiko diogu. Eta hizkuntz-ohar adierazgarrietara itzuliko gara.

Zazpiak Bat «Euskal Herri» tradizionalaren barruan, bate-tik; eta ekialderagoko eskualdeetan, bestetik, aurki daitezkeen izen-bikoteen errepika, gogoeta-iturri bilakatzen da.

Hemen lerrokada apalak eta mugatuak aurkeztuko ditugu. Xehetasun gehiago nahi duenari, Alfontso Irigoien hizkuntzalariaren lanetara jotzea gomendatzen diogularik: *En torno a la Toponimia Vasca y Circumpirenaica*, Deustuko Unibertsitatean 1986an argitaratua.

Alos (malkorra); ik. Alos, Zuberoan.

Arán (malkorra, Boltaña). Aran-harana. (H)aran, normala.

Arbisa (malkorra, Basa ondoan). Vs. *Arbeiza*, Errioxan.
Artaso (Aquilué, Jaka); baita *Arantzazun* ere.
Artasona, mordo bat. Baita *Nafarroan* ere.
Artaun (Almudebar, Oska).
Ayerbe (Broton).
Azpe zein *Aspe*, batzuk: bai Ipar bai Hegoaldean.
Sobrarbe, jatorrian Super-Arbe. *Arbe* deitura normala.
Belarra (Sabiñánigo-ren inguruetan).
Iguazar (Jakan). Vs. *Igoa* (Nafarroan).
Góriz, Ordesa; vs. *Gorliz*, etab.
Irués (ibaia, Bielsan). Vs. *Iroz*, Nafarroan.
Larrayeta (Aniés, Oska). *Larraz*, etab.
Liri, Ribagorzan, jadanik aipatua. Vs. *Ligi*.
Linsoles, Oska. Vs. *Linzoain*, etab. Nafarroan, *Linza* ere
 bai Arag.
Escarra (Panticosa).
Ola, *Olla* (pila bat Oskan). Vs. *Ola*, *Olha*, etab.
Sarasa (Jakan).
Saierri (Jakan).
Charo, Arag. Vs. *Zaro* (Baxenabarren) (gero *caro* bihurtua!)
Viadós (Benasque). Vs. fr. *Viodos*, eusk. *Bildoze*.
Sopeliana (Ordesa). Vs. *Sopelana*.
Arazas (Ordesa). Vs. *Araxes*.
Arresa (Sobr.) Vs. *Arrese*.
Ereta (Sobrarbe). Vs. *Areta*, *Ereta* (Bizk. Araba).
Soaso (Ordesa). Vs. *Zuazu*, *Zuhatzu*.
Vizcarra (munoa, Biescas). *Bizkarra*, ohizkoa.
Bescós (Jaka). Vs. *Beskoitze*, *Beraskoitze* (Lapurdin).
Atarés, Arag. Vs. *Atharratz(e)*, Zuberoan.
Eresun, Arag. Vs. *Eratsun* (Nafarroan).
Lumbier (Borau, Jaka). Vs. *Lumbier*, *Irunberri*, Naf.
Urdués (Etxo), *Urdos* (Aspe), *Urdoz*.
Esurra (Tramacastillo, Jaka). Vs. *Ezkurra*, Naf.
Garay (bai Antson, bai Etxon). Vs. *Garai*, arrunta.
Larraga (Bielsa, Boltaña). Vs. *Larraga* (Nafarroan).
Larrain (Jaka-ko mendia). Vs. *Larraineta* (bizk.).
La Sarra (malkorra, Oskan). Vs. *Lazar* (mendatea, Naf.).
Yesa (arroila, Ainsatik hurbil). Vs. *Yesa* (Nafarroan).
Orós, biga, Serrablon. *Oroz*, Nafarroan.

Ainsa bera, ez ote da *Gaintza*-ren aldaki arkaiko bat?
Ainsa zoragarriko kokaguneari, zinez, «*Gaintza*» legokio-
ke euskaraz...

Eta abar, eta abar. Ehundaka aurki daitezke.

Nahiz, mendeetan zehar, euskal izenak desitxuratzeko, erdalduntzeko, itzultzeko, eta deserrotzeko saiaketa iraunkorra izan, nekagaitza, oraindik ere, toponimia zaharrean, suntsitutzat jotzen den euskal munduaren aztarnak hor daude. Tinko, nabarmen.

Horretara, beraz, Jakaldean, Sobrarben, Ribagorzan, Pallarsen, Urgell aldean, Cerdanyan, aspaldian mintzatua izan zen hizkuntza euskara zela jakinda, interesgarri zaigu euskaldunoi lurralde haietan gure hizkuntza noiz galdu zen (noiztsu bederen) jakitea.

Aipamen berezi bitartez, nekez: normalean gure hizkuntza erabiltzen zenik ere ez baita inon esaten.

Ikerkuntza filologiko hutsen bidez, kronologiaren lerro nagusiak proposa daitezke. Pallars haranean, Corominesen iritzi, euskara izan zen mintzabidea mende visigotikoetan barrena. Baita Reconquista delakoaren lehendabiziko bizpahiru mendeetan ere (VIII, IX eta X. mendeetan).

Lakarrak ere gauza bertsua uste zuen: «Don Ramón de Abadal emite la hipótesis –jadanik esana dugunez– de que las gentes de la parte más alta del Pirineo, en estos valles de Pallars y Ribagorza, pasarían del vascuence al catalán sin la fase intermedia de la latinización, y esto tal vez en el siglo X» (*Vasconia Medieval*, San Sebastián 1957; 11. orr.).

Hona hemen, hitzez hitz, *Pallars i Ribagorça en los siglos IX i X* ikerlanean (Zaragoza, 1958), Ramón de Abadal historialariak dinoskuna: «Es evident que la llengua indígena sobrevisqué llargament a través d'aquest domini i possiblement no desaparegué fins molt avall del nostre primer millenari» (53).

Eta aurreraxeago: «Aquest poble pirinenc ocupa, com el nom que li estat donat pels prehistoriadors vol indicar, tota l'àrea de la cadena d'alta muntanya que separa França d'Espanya, i s'escampa pels estreps i altes planes prepiriniques. Pel nostr costat ames dels pallaresos i ribagorçans, per als quals

non se'ns ha conservat appellació específica històrica, són pirinenques les tribus que els romans denominaven Aranesos, Andorrans, Ceretans, Bergistans, i en forta proporció els Ause-tans i Auso-ceretes... Ho demostrarien les restes de toponímia eusquérica, puix que *l'èuscar hauría estat la llengua pròpia del poble pirinenc*» (54).

Bidenabar esateko, eta pausagune bat eginez: «butifarra» famatuarekin lotuta ikusten dugun Vich hiriaren izen zaharra, «Ausa» da (aurreko izendapenen irakurketa artatsutik soma zitekeen). Ultzamako Auzak, hitz batez, Kataluñan dauka bere bizkia...

Baina Abadalen ondorioetara etorritz: «Parallelament es degué anar fent una transformació lingüística fins al punt que, sempre en els altes regions, és possible que es saltés de l'èuscar al català sense la fase intermèdia de llatinització» (ibid. Pallars i Ribagorça, 55).

Itzul gaitzen berriro Corominesen izkribuetara.

Arabiarrak VIII. mendean Kataluña aldera azaldu zirenerako, galduak zituen euskarak Tremp-erainoko lurraldeak.

Geroago erdaldundu bide zen Gerri eskualdea. Oraino beranduago Cardós eta Val-Ferrera. Ondoren Aneu ingurua. Eta, azkenin, XI/XII. mende irian, Cabdella, Boi eta Aran haranak. Beronetako lurralde garaiak erdaldundu bide ziren beranduenik Ahuñemendi ekialde hartan.

Horra hor, arrisku handirik gabe, eskualde haietan euskaren suntsierari buruz esan daitekeena.

Hau besterik ez bageneki ere, aisa ondoriozta liteke beste hau: bai Aragoi Garaian, bai Ipar-Mendebaldeko Kataluñan, euskal toponimoak erruz aurkitu ahal izatea. «Dans le Haut Aragon et dans le Nord-Ouest de Catalogne ces noms (à parenté basque) se trouvent en masse» (*Coromines*, ibid. 106).

Leku-izen horien moldakuntzan erabili zen euskara oso aspaldikoa delako, batetik; eta geografiaz ere urruti dugulako, bestetik, urrunsko gertatzen zaigu geure eguneroko hizkeratik. Eta hau ez da batere harrigarria. Alderantzizkoa litzateke, estonagarri, hain zuzen.

«Ces parlars basques ou bascoïdes anciens des Pyrénées

Centrales et Orientales étaient sans doute fort différents des dialectes basques d'aujourd'hui» (106).

Leku izenek eta, euskal eitea dute: «ils ont l'air aussi basque que dans la zone aujourd'hui frontalière du basque; seulement c'est une physionomie basque un peu différente, un autre dialecte» (117).

Nolako euskalkia? Gaur egun ez dakigu.

Baina, Corominesen ustez, piskanaka-piskanaka, posible izango zaigu ekialdeko euskalki horien ezaugarriak eta zertzeladak funtsatzea. Denbora luzea beharko da, hori bai: «Ce ne sera que peu à peu, et après quelques générations de savants, qu'on pourra en reconstituer patiemment le vocabulaire et la grammaire» (ibid., 106).

Euskalkiaren xehetasunak alde batera utzirik ere, berorien diakronia antzeman daiteke, larri-larrian bederen.

Toponimian oinarriturik, Corominesek burututako kalkuluek gauza bat frogatu dute: Ahuñemendiaren erdialdean halako erdal mutur bat egon zela, euskal eskualdea erdibiturik gertatzen zelarik.

Euskal etimologia duten herri-izenen zenbaketa eginez («pré-romane» dio berak puntu honetan zehazkiago), kurbaren gailur bat aurkitzen da Aranen (%45), eta beste bat Pallarsen (%54); bai Jaka aldean eta bai Ribagorzan, kopuru hori %35 ingurura jaisten delarik.

Bestela esanda, badirudi Erdi Aroan *euskal irlak* agertu zirela Ahuñemendian, elkarrengandik berezita.

Hizkuntza baten eremu zaharrear horrelako uharteria edo irla-mordoa aurkitzea, ez da batere bitxia.

Alderantziz: suntsitzera doazen hizkuntzen eremu zatikatu eta anizkoitz hori, eskuarra izaten da. Suntsitzekotan dauden mintzairek morfo-sintaxian edo fonologian oso ezaugarri aldakaitzak erakutsi ohi dituzten bezalaxe.

Bi adibide soilik gogoraztekotan, berebereraren kasua aipatuko dugu aurrenik; eta Irlandako gaelikerarena ondotik.

Bereberera Ipar-Afrikan mintzatzen da; Marokon eta Algerian bereziki.

Oso datu zehatzik ez badago ere, Marokon 5 milioi dira bereberedunak, gutxi gora behera (populazioaren %20, beraz); eta Algerian 3 bat milioi (Estatuaren %12). 1980ko gertakari larriak, Kabylia bereziki, gogoan hartu besterik ez da behar, zifren zehazkabetasuna ulertzeko. Tunisian ere badaude bereberetar batzuk, gutxi; baita Mauritanian eta Malin ere.

Oro har, beraz, eta lehenengo hurbilketan, bereberera Marokoko eta Algeriako bigarren hizkuntza dela esan daiteke. Frantsesa alde batera uzten dugun ber.

Marokoko bereberera hiru dialektotan banatzen da: «tarifit» izenekoa, espainiarra izandako Rif eskualdean mintzatua; «tamazight» izenekoa, Erdiko Atlasean eta Atlas Garaiko Ekialdean erabilia; eta «tashlhit» izenekoa, azkenik, Anti-Atlasean eta Atlas Garaian, oro har, mintzatua. Hirurak entzun daitezke gaur irratietan.

Algeriako bereberera, bide beretik, bi dialekto nagusitan banatzen da: bata, «kabylera», kostaldean erabilia, Al-Jezair (fr. Alger), eta Bejaia (fr. Bougie) inguruetan. Eta bestea, «shawiya» izenekoa, Aljeriako gerlatearen garaian oso famatu egin zen Aurès mendialdean.

Jakitunek diotenez, Rifin «tarifit» ez mintzo diren bereberetarrek eta Algerian «kabyleraz» mintzo direnek, ongi xamar ulertzen dute elkar.

Hots, bereberera horrek ez du, geografiari dagokionez, eskualde-bakuntasunik. Vintilak bere hiztegian azaltzen duenez (*Les langues du monde*, 1984, Parise, 63. orr.) berebererari eskualde etena dagokio: «aire discontinue –irakur dezakegu– surtout sous forme d'enclaves».

Eta aski da J. Gabrys-en *Carte Ethnographique* koloretsu eta ezaguna begiratzea (Berne, 1918), eskualde-plegu bera erreparatzeko.

Har dezagun orain Eire-ko hizkuntz mapa bat. Meic Stephens-en *Linguistic Minorities in Western Europe* liburua agertzen dena, esate baterako (Gomer Press, 1976; 445. orr.).

Hortxe dugu irla-multzo bat, Euskal Herrian Erdi Aroaren amaiera aldean ezagutu zuen geografi itxura bertsua.

1971ko erroldaren arabera, zazpi «gaeltachta» zeuden Eiren orduan, elkargandik berezita: horietako sei, «naturalak», nolazpait esateko; eta zazpigarrena, Meath-koa, 1930etan eiretar abertzaleek propio eta hizkuntza piztutzekotan gaelikodun etorkinez gauzatutako gune berezia.

Hiztunen kopuruak (berezko hiztun horiek orduan 60 urtetik gorakoak zirelarik), ondoko hauek ziren:

Donegal	18.321	hiztun
Mayo	9.270	"
Galway.....	17.698	"
Kerry	6.200	"
Cork	2.700	"
Waterford	730	"
Meath.....	900	"

Gaeltachta horietako biztanleak oro elebidunak izanik (edota ingelesdun elebakarrak), eta 22 urte honetan adinez hizkuntza ongi zekiten zaharrik gehientsuenak hilak direlarik, jatorrizko gaelikera Gaeltachtetan suntsitua dela esan daiteke gaur (eta esan ere egin behar da).

Guk ere, Eiren eta Maghreben bezalaxe, hizkuntz irla mordoxka bat genuen (Menéndez Pidal-ek ere ideia bera zeukan). Erdibidezko elkar-ulerkuntzan, saihetsetako hiztunek ezin elkar adituz; eta, erdaldundutako barrutiak etendura, gero eta elkarretarik bereziago.

Irla nagusia, jakina, gure «Zazpiak Bat» delakoan zegoen, eremu osoa hartzen ez bazuen ere. Baina baziren beste bi «irla»: Ribagorza, Pallars eta Aran Garaietan, bata; eta Errioxa-Bureba Garaian bestea.

Normalean ikusi ohi diren hizkuntz mapak, antzinateari dagokionez, faltsuak dira. Ez du gure herriak horrelako linealtasunik ezagutu. Eskema zahar batzuk alboratzeko tenorea iritsi zaigu.

Batez ere gure herriaren puskaketa geografiko, instituzional eta psikologikoa izkutatzen duelako. Gure herriaren txikizioa, lurraldetasunezkoa izan da aurrenik. Eta hortxe dirau gure begien aurrean.

Euskaldun «irla» horien ideia Corominesena da, eta ez le-
rro hauen idazlearena: «Pallars (sans doute avec le Haut Val
d'Aran, de l'autre côté de la chaîne) a dû constituer *une île
linguistique basque* lorsque presque tout l'Aragon était déjà
submergé par la marée montante de la romanité» (ibid. 117).

/e/ eta /o/ diptongatuen kronologiak eta hedakuntzak ere
antzeko zerbait iradokitzen dute.

Sobrarbe aldean, eta Huesca probintziaren erdialdean
diptongaturik topatzen ditugun toponimo berberak, diptonga-
tu gabe topatzen ditugu, bai Euskal Herri konbentzionalean,
eta bai Pallarsen.

Oskan, Castejón de Sos-en ondoko *Estierri-ri*, esate bate-
rako, *Esterri* dagokio Lleidan (eta *Ezteribar* gurean). Etxo-ko
Urdués-i, *Urdossa* dagokio Pallarsen, eta *Urdoz* Baxenaba-
rren. Osia erreka gaineko *Aragüés del Puerto-ri*, *Araós* dago-
kio Pallarsen, eta *Araotz* Gipuzkoan. Eta abar, eta abar.

Ahuñemendiko erdialdean, oso aspaldian mutur erdaldun
bat agertu zela dirudi, Oska hiriaren inguruan; Oska hiribu-
rua, horretara, erdal kulturgunea izan zela berretsiz.

Euskal toponimia eta antroponimia egoera zahar baten
aztarna izan daitezke. Hau garbi dago. Baina mendialdean,
Coromines eta Abadalek oharrerazten dutenez, baliteke eus-
kara, ia-ia izkutuan, egoera hyper-diglosikoan egotea. Nafa-
rroako zenbait eskualdetan azkeneko bizpahiru mendeotan
egon den bezalatsu.

Navarro Tomás-en dokumentu bildumak berak ez ditu
gure zalantzak garbitzen. Baina zerbait izkututzen zaigula
pentsatzeko arrazoiak ez dira falta.

1296ko dokumentu batean, adibidez (ik. N. Tomás, Doc.,
orr.) *Açnar Belça* izeneko «jurado del conçellyo de Brallau-
illa» herritar agertzen da (Jakako Santa Cilian). Petro d'Aco-
muer-en emazteari, bestalde, *Andreva* zeritzon (Jaka, 1361;
179. orr.)

Askoz ere beranduago, 1441ean, «Testamento» baten be-
rri ematen da (206. orr.). Sabiñanigo eta Aillué herriak aipa-
tzen dira, baita Ara eta Jaka ere. Bost semek eta alaba batek
osatzen zuten familia hura. Hona hemen beroien izenak: *Mar-*

tinico, Çalbico, García, Johanico, Petrico; eta alaba bakarra: *Albiruca*. Ez dut iruzkinik egingo.

Susmoak ez dira susmo huts: «Sabido es que en época primitiva poblaron esta zona de la península («desde el valle de Ansó a las riberas del Cinca») gentes de la misma estirpe que las que ocupaban Vasconia» (Navarro Tomás, Doc. A. Ar., VI).

Areago, euskal azentuaren pioneroa izan zen Navarro Tomás berberorrek, hau idatzi baitu bere *El Acento Castellano*, Madrid 1935; 45, orr.): «Por mi parte, advertí la posibilidad de suponer análogo parentesco entre los rasgos más característicos de la entonación aragonesa y la vascongada».

Ekonomiak ez zuen euskararen alde jokatu. Ebro ibaiaren harroa aberatsena eta interesgarriena izanik, betidanik egon da Mendialdea (bai Araban eta Nafarroan, bai Aragoien ere), Ebroko erdaldunen menpe (erromanizatu zein musulman). «Ager» eskualdea nagusitu zaio «Saltus» eskualdeari, behin eta berriz. Eta euskaldun herria, hitz batez, bere lurraldean bertan arrotz eta morroi egon da (eta dago oraindik!).

Euskal Herria hor zegoen, halere.

Dokumenturik ezagunena, agian, Oskako azokari buruzkoa da. Aragoiko hiriburu horretan debekatuta zegoen euskaraz mintzatzea (oso berandu arte, hobeki esan, Zierbide historilariak aurkitu duenez).

Hona hemen aspaldidanik ezaguna dugun lekukotasun hori, bere horretan emana: «En relación con zona aragonesa... hay que señalar las 'Ordenanzas de 1349', de Huesca, en las cuales se lee lo siguiente:

'Item nuyl corredor non sia usado que faga mercaderia ninguna que compre nin venda entre ningunas personas, faulando en algaravía nin en abraych nin en basquenç; et qui lo fara pague por coto XXX sol» (Alfonso Irigoien, *En torno...* Univ. Deusto 1986; 193. orr.).

Arabiera eta hebraiera garai hartan oraindik Oskan entzun ahal izatea, egia esan, ez zaigu oso harrigarri gertatzen. Han propio euskara debekua kaleratzeko heinean erabilia izateak, honetxek harritzen du euskaltzale arrunta.

Arau hori XIV. mendean eman zuenari, arrotz bide zaio gure mintzaira (hebraierarekin eta arabierarekin parekatzen baitu). Baina, beste alde batetik, orduan bidaiak eta jende mugimenduak nola egiten ziren kontutan hartuz, bidezko dirudi Aragoi Garaian, mendialdean, Erdi Aroan barrena (eta XIV. mendera arte gutxienez) euskara mintzatua izan zela somatzeak.

Bide beretik, eta oraingo honetan XX. mendera arte hurbilduz, interesgarria da Gartzzen Lacasta Estaun ikertzaileari esker (ikus *El Euskera en el Alto Aragón* izkribua; Bilbo 1988; oraingoz argitaragabea), eta Alfontso Irigoien berriaren emaleari esker, jakin duguna.

Isidro Escagüés de Javierre katedradun eta akademikoak (batera Historiakoan eta Zientzia Moraletakoan) Alfontso Irigoien irakasleari kondatu zionez, mende honen hasera arte egin dituzte euskaraz bertako otoitzak Uncastillo herrian; Zaragoza probintzian, beraz, iparraldean, Onsella Haranetik at.

Escagüés de Javierre lekukoak azaldu duenez, bere haurtzaroan (1923-1924) Uncastillon bertan ikasi zuen berak euskaraz otoitz egiten. *Aita Gurea* atxekitzen zuen gogoan, erdi lardaskaturik; eta gogoan zeukan hartantxe errepikatu zion Irigoieni:

«Aita guria seude / etán saudená / santificát bedí surei sená /», etab. (ikus *Vitoria en la Edad Media*, 1981ko irailaren 23an Irigoienek irakurritako hitzaldia).

Interesgarriago agian.

Aztergaia sakontzekotan Irigoien bera bertara zen geroztik, bere emaztearekin. Baina oso harrera txarra egin omen zioten Uncastillotarrek. Nafarroak ekialdeko zenbait herritan Koldo Artolak azaldu duenez, bai euskara, bai euskal munduari buruzko galderak oro, tabu huts eta baztergarri diren bezalaxe, Uncastillon ere «itsusi» gertatzen bide da gaur bertako euskal sustraia erakuts dezakeenik ezer galdetzea...

Nik neronek ere, beste aztarnatxo xume bat erants dezaket. Eta oraingoan Yesa-ko urtegiaren ertzean dagoen (zegoen hobe?) Sigüés herriskari buruzkoa izango da.

Jean Moureu izeneko bordaltar eta adiskide izandakoaren

emaztea (neronek ezagutua; nahiz orain beraren izen-deituraz ezin oroit) nire adinkidea zen, gutxi gora-behera. Eta Sigüés-koa jatorriz. Euskalduna zen emakume hura: ez jatorriz, uste dudanez, baxenabarreraz mintzo baitzen. Haurtzaroan Baxenabarren ikasia, omen.

Eta halako batez, emakume hark honelako zerbait konda-tu zidan: bere haurtzaroan, Sigüés-ko senitartekoengana joan ohi zela uda garaian.

Sigüés-ko famili-etxe hartako mandioan –oso ongi oroi-tzen omen zenez– euskarazko meza liburu batzuk topatu omen zituen hauts artean. Gaur egun, zoritxarrez, besterik ezin erants.

Sigüés Zaragoza probintzi barruan dago; Nafarroako mugatik kilometro gutxitara. Bertan ez da inor ere bizi gaur; Yesa-ko urtegia betetzean, urpean gertatu baitira siguestarrek neka-zaritzan eta abeltzantzan erabiltzen zituzten lurrak...

Beste amaiera-mota hits bat...

Hegoa

Goazen aitzina.

Aran, Ubarra, Araós, Abi, Estaguaia, Umezahar, Oskako debekua, buruan darabiltzagularik, gisa bereko ezustek gertatzen zaizkigu hegoarantza jotzean.

Gazte denboran, eta bide bertsutik, piskanaka mamitu zen nigan Hegoaldean galdu eta ahantzitako Euskal Herriaren kontzientzia ere. Nahiz lehendabiziko susmoak haurtzaroan bertan hozituak izan.

Oraindik oso gazte nintzelarik, 16 bat urte, 1946 inguruan edo, eta oker ez banago, Haroko neska laguntzaile bat hartu zuen gure amak etxeko lanetarako («neskame» esan ohi zen). Gurasoak «café»-ra «Donostia»-ra joaten zirenean, bakarrik gelditu ohi ginen anaia eta biok. Eta gurekin ere, jakina, Consuelo izeneko errioxar neskame hura. Eta, afaria prestatzeko garaian, honetaz, eta hartaz, eta besteaz mintzatu ohi ginen berarekin.

Halako batez Haroko kontuak izan ziren mintzagaia; eta bertako leku-izen batzuk eman zizkigun: «plaza de Mikelan-

da» («Mikalanda» esaten zuela esango nuke); eta «calle Iturrimurri» (edo honelako zerbait); eta beste mordoska bat, denak plegu berekoak.

Euskaraz neure kasa ikasten hasia nintzen ordurako. Eta izen haiek euskal kutsukoak iruditu zitzaizkidan. Baina euskaldun-berri gordin haren susmoak ez ziren oso fidatzekoak:

–Esos nombres me parecen vascos –esan nion.

Ez zekiela ezer izenen jatorriaz erantzun zidan. Baina Haron arruntak, eta eguneroko ogia zirela.

Sei-zortzi urte pasa. Eta 1957an «urgazle» izendatu ninduten Euskaltzaindian. Hori dela-ta *Euskera* aldizkaria jasotzen hasi nintzen; oraindik Donostiatik eta Hegoaldetik ihes egina ez nengoelarik.

Eta, horretara, 1958ko alea errezibitu eta ezagutu nuen.

Santiago Arregi delako baten artikulu luze bat zekarren: *Toponimia de Ezcaray* (*Euskera*, III, Bilbo 1958; 83-102 orr.). Beronen barruan, 90. orrialdean, Ezkarai inguruko mapa zehatz bat.

Toponimia hura, erdal leku-izenak alde batera utzirik itxuraz, Gipuzkoakoa bezain euskalduna iruditu zitzaidan. Nork esan ote zuen Errioxa Euskal Herritik at dagoenik?

Mapa hura iltzaturik gelditu zen nigan.

Gaur gaurkoz ezagutzen ditugun «lehenengo» bi euskal «glosa» famatuen milagarren urtemuga, 1975eko ekainaren 13an mamitu zen Kukullako Donemiliagan; Errioxan, beraz. «Jzioqui dugu» eta «Guec ajutu ezdugu» bost berba motx horiek, Euskal Herrian barrena hedatu ziren; Franco diktadorearen hilaginaren zurrumurrua mamitzen hasten zenean.

«Berceia» izeneko herriaren ondoan («plarren plar» esango lukete baxenabartarrek), *Berceo* gaur egun, Monastegi famatua dago, bietan «berriena». Ez zait erokeria iruditzen «ceia» osagarri horretan, bizkaiera zaharrez («B. arc» dio Azkuek) azoka adieraztekotan erabiltzen zen hitza zomatzea: «zeia». Agian Errioxako Sajazarra leku-izenean topatzen dugun berbera (*Saiaçaharra* dokumentu zaharretan).

Gonzalo de Berceo erdal idazlea herri horretako seme

zen, eta euskaraz bazekiela somatzen da: «zatico», «azcona», «Don Bildur»... Hitz horiek eta beste batzuk erdarazko bere izkribuetan tartekatu izanak, Errioxako inguru haietako euskalduntasuna aldarrikatzera garamatza.

Berceo fraile eta idazlea XIII. mendekoa izanik, ez da baxterre harritzekoa hiru mende lehenago bertako beste fraile baxterre euskal «glosa» motx famatu horiek eranstea («a mediados del siglo X» erantsiak, Mitxelenaren ustez; T.A.V., 41). Bi esalditxoan azterketa sakonagoa nahi duenak, aski du Alfontso Iri-goienen Sarrera Hitzaldia irakurtzea; in *Euskera* XX, 1975, 166. orr. eta ondokoak.

Euskararen aztarnak eskualde horretan topatzea ez da baxterre harritzekoa; hizkuntzaren muga orduan Oka mendietan baitzegoen. Eta ez Ebro ibaian.

Fernán González-en «Poema»ren esaldiak ez du zalantzarako atekarik uzten: «Entonces era Castiella un pequeño rincón, era de castellanos montes de Oca mojón» (Menéndez Pidal, *Orígenes*, 472).

Yerga mendia dugu Errioxan, Alfaro eta Autol-en artean; Llerga Nafarroan eta Oskan dugun bezalaxe. Zergatik ote da ustekeria bikoiztasun horietan euskarak galdu dituen lurraldeak somatzea?

Oso nabarmena baita, ordudanik erreparatu nuenez, Errioxako eta Euskal Herri ohizko izenen errepikapena: *Zidakos* ibaia dugu Nafarroan (Oletatik Pueiora), eta *Zidakos* ibaia Errioxan (Piquerastik Kalagorrira). *Leza* ibaia dugu Araban (Nabaridas), eta *Leza* ibaia Errioxan (Clavijo). *Ea* dugu Bizkai-ko itsasertzean, eta *Ea* Errioxan, Sajazarraren ondoan.

Errioxako kondairan aita pontekoa den Aita Mateo Anguianoren ustez, errioxatarrak «mende askotan barrena» mintzatu ziren euskaraz: «Apenas hay lugar, monte o pago que no tenga nombre vascongado» (*Compendio Historial*. Irigaraik aipatua: *Una Geografía Diacrónica*, 114).

Irtizi bera zeukan Aimeric Picaud bisitariak (1134): Okako oihanaz bestalderaino pasa arte, hura «Nafarroa»zela (Iri-goien, Sarrera Hitzaldia).

1958an Construcciones Guillermo Ibarгойen entpresan

ari nintzen lanean, Donostiako bulegoan eta Gros auzoan. Be-toiezko obrak kalkulatzen nituen, eta planoak diseinatzen. Eta Errioxako San Asensiorako obra bat projektatu behar izan ge-nuen.

Komentu hartan bazegoen garai hartan fraile euskaldunen bat. Eta berorren bidez jakin nuen, zeharka egia esan, bertako Ama Birjinari «Nuestra Señora del Robledo» omen zeritzola.

Nahiz Anguianok, geroago ikusi dudanez, «Virgen de la Encina» bat aipatu...

Bidenabar esateko, *Arizta* horrek, (*h*)*arítzeta* zaharrago batera garamatza; *Urdanta* eta *Sagasta* izenek Urdáneta eta Sahátseta zaharragoetara garamatzaten bezala (*Urdanta* Errioxan agertzen da, Merino 24; *Urdaneta* Gipuzkoan, Zarautzen ondoan).

Hego Euskal Herritik 1961ean ihes egin baino lehenago ezagutu nuen J.B. Merino Urrutiaren ikerlana; orduantsu eman baitzuen argitara, *Monografías Vascongadas* sailean; 17. alea, *El vascuence en La Rioja y Burgos* liburua.

Handik urte mordo batera, eta frankismoa bere azken hi-labeteetan zegoenean (1972an preseski), eta nire urtemugaren karietara, Alfredo Gil del Río *La Rioja desde sus albores* libu-rua opaldu eta bidali zidaten senitartekoek Donostiatik.

Liburu horren irakurketak sendotu egin zituen nire susmo-ak. Mendebaldeko Errioxak batez ere, halako Nafarroa «irre-denta» baten itxura hartzen zuen nigan, geroz eta garbikiago.

Askoz beranduago bisitatu nuen Naiara herria lehenengo aldiz, dena dela. Franco hil ondoren.

Autore hori irakurriz ulertu nuen Errioxa bereko eskualde-en arteko desberdintasun nabarmenen gakoa. «Logroño» pro-bintzia, bere horretan, gauza berria baita: 1822. Eta gaurko probintzia ofizialetik at paratu baitira bai Arabako Errioxa, eta bai Nafarroakoa.

Zenbait urte lehenagotik nekien nik Errioxako euskaldun-tasunaz dugun datorik ospetsuena: «Esto es por fazanya que el Alcalde de Oia-Castro mandó prender Don Morial que era Me-rino de Castilla, porque juzgara que el ome de Oia-Castro si le

demandase ome de fuera de la villa o de la villa, que el recudiese en Bascuence. Et de si sopo Don Morial en verdad, que tal fuero habían los de Oia-Castro, e mandol dexar e dexaronle luego, e que juzgase su fuero» (ikus, adibidez, J.B. Merino Urrutia, *La lengua vasca...*, 19. orr.).

Don Morial hori 1234etik 1239ra egon zen Gaztelako Merino Nagusi. Beraz, XIII. mendean, eta haraneko hiriburuan zen Ojakastron gutxienez, euskaraz deklaratzeko eskubidea zuten bertakoek.

Noiz arte hori? Ez ote zen gauza bera gertatzen Ezkarai, Aiabarrena, Zorrakin, eta gainerako herri auzoetan?

Hona hemen Merino Urrutiaren beraren iritzia: «Si en la citada villa (Ojacastró), cabeza del valle en la Edad Media, imperaba el vascuence, lógico es pensar que en los demás pueblos ocurría lo propio... No es de creer que el vascuence se perdiese a continuación, sino que perduraría hasta siglos posteriores, época relativamente próxima» (ib., 19).

Orain hobeki ulertzen da Gil del Río-ren baiezpena: «La Rioja es vasca, como afirma el P. Anguiano» (*La Rioja desde sus albores*, 46). Eta aisago ere Ojakastroko dantza zaharra, ezpatadantza mota bat besterik ez izatea; nahiz gaur hau erdi galduta egon: «reducida ya a las aldeas» (Merino, 21).

Guganaino heldu diren toponimiak eta antroponimiak euskal sustrai bera iradokitzen dute azkarki, bai Errioxa Garaian, eta bai Burgos probintziako iparraldean ere.

Merino Urrutiak –1931z geroztik– baita beste ikertzaile batzuek ere, gauza bera irakatsi digute. Izen-ilara luze horretako azken ikertzailea Luis M. Muxika izan da (ikus *Iker* 6, Euskaltzaindia, Bilbo 1992: *El euskera en la Toponimia de Burgos*, 311-347).

Ziurki esan dezakegu, hitz batez, hegoaldeko mugari dagokionez, euskarak atzera egin duela ausarki azken mendeotan. Errioxa euskalduna izan zela, bai; baina «la lengua oficial de Castilla, en su lento e insensible acoso al éuscaro, fué desplazándolo paulatinamente, con notoria intención destructiva» (A. Gil del Río, *La Rioja*, Imp. Zaragoza 1972; 397. orr.).

Baina nire gogoetak horretantsu zeudelarik, beste zalantza bat sortu zen nigan, beste euskaltzale askorengan bezala: Errioxa Garaiko euskara hori ez ote zuten, «Reconquista» orokorraren garaian, nafartarrek eta arabarrek «birjendaketaz» obratu, eta Erdal Herrian berriki «txertatu»?

Euskaldun abertzaleengan sekulako «expansionismoa» («inperialismoa» ere aipatu izan da!) somatzen duten erdaltzaleengan, oso harrera ona izan du «teoria» horrek. Iparraldeko euskalduntasuna (eta Akitaniakoa) hego-baskoniarren «inbasioaren ondorio» gisa aldarrikatu dutenen artean bezala.

Bestela esanda, Errioxako hegoar euskal irla hori, antzinate euskaldunaren arrastoa zen? Ala okupazio-ondorio? Euskaldun irla bat hor egon zenak, ez baitu zalantzarik uzten. Antso Handiaren politikan nafar «inperialismoa» somatzen zuen Menéndez Pidalek berak ere, «hizkuntz irla» hori topatzen baitzuen Errioxan.

Euskaldun euskalari batzuek (izenik ez dut emango) nafartarren «okupazio» berantiar horretan sinetsi dute.

Haseratik eta ausarki joera herabeti horren aurka agertu den autorea Alfontso Irigoien da. Euskaltzaindian egindako Sarrera Hitzaldian bereziki (Donemiliagan 1974eko ekainaren 15ean irakurria) funski argudiatu zuen bilbotarrak irizpide horren kontrako berea.

Berrirakur ditzagun Irigoienek esaldi nagusiak: «Askok us-te du alde horretako euskara errepoblaziokoa dela; baina VIII. mendean euskal joera argia baldin bazegoen, jatorria ez zen Errekonkista deitzen zaion garaiko errepoblazioa, lehenagokoa baino, gutxienez» (*Euskera* 1975; 181).

Alde batetik, Errioxako eskualde batzuetan euskal izendapenek (toponimia «gutian»: erreka, muno, iturri, etab.) erakusten duten trinkotasun harrigarria, euskaldun leinuen egonaldi iraunkor eta zindorik gabe, ulertu ezina da.

Zenbait euskal toponimoren diptongaketak, bestalde, Irigoienek azpimarratu izan duenez, fenomeno hori ongi ezaguna eta zehazki datatua delako, hain zuzen, oso atzera garatzea: mende visigotikoetara, bederen.

Briones ondoko *Mendigüerra*-k eskaintzen digu, alor honetan, oinarri sendo bat. Ebro ibaiaz iparralderantz joanda

(Gares aldera prezeskiago) *Mendigorria* toponimoa baitauka-
gu. Hots, bi toponimo horiek jatorrikideak dira: toponimo bera
dago iturburuan. Lumbier eta Irunberri; edo Aragüés eta Araotz
jatorrikide diren bezalaxe.

Diptongaketa, oro har, VI. mendean gertatzen hasi zenez,
Mendigüerra-k VI-VII. mendeetara garamatza. Errioxar toponi-
mo hori ezin izan daiteke birjendaketa berankorren ondorio.
Askoz ere zaharragoa da (ik. Irigoien, *Euskera XX*, 184/186).

Bide beretik, oso adierazgarri iruditzen zait Alfaro (Erriox-
an, eusk. Grakuri) eta Korella (Nafarroa) herrien artean, gaur
desagertua den *Araciel* herria egon izana (1416rako «ya des-
truído y abandonado de sus habitantes»; Ildefonso R.R. Lama,
Col. Dipl. Med. Rioja, 350 orr.).

Gaur euskaldun dagoen Sakanan Arakil herria baitugu;
bestearen jatorrikide itxuraz. Hots, asimilaketa horiek euska-
raz arkaikoak izanik, eta Nafarroan gertatuak («iken», Goñi,
vs. «izan»; «bikala, bikain», Erronkari, vs. «bezala, bezain»),
Araciel horretan oso atzera begiratu behar dela dirudi. Eta, be-
rriro ere, Ebro ibaiaz hegoaldean ere, euskarak sustrai zaha-
rrak dituela dirudi.

Bidenabar, eta Hervás-en bidez dakigunez, *Alfaro*-ren
izen zaharra («*Gracuri*» baino lehenagokoa), *Ilurcoa* zen (ikus
Euskera 1960; 166; Arruek argitaratutako izkribuan). Eta *Ilurko*
horrek euskal sustrai nabarmena du.

Bide beretik: gaztelaniazko ahoskeraren eraginez sortu di-
ren /j/ belare berantiarrek, lehenagoko /ll/ zaharragoetara ga-
ramatzate askotan; jatorrizko izendapen horietan euskal fun-
tsa agerian utziz.

Besterik gabe, eta M. Pidalen bikote ezagunak gogoraziz
(ikus *Orígenes*), nafar-aragoierazko joeraz /ll/ sabaikaria atxeki
duten hitzek (baita euskaraz ere askotan), /j/ belare berriagoa
hartu dute gaztelaniaz: *espillu*, *ispillu* vs. *espejo*; *conello*, vs.
conejo; *coscollar*, vs. *coscojal*; *concello* vs. *concejo*.

Aski du irakurleak, bide beretik, Arabako *Subijana* eta *Or-
mijana*, eta 1025eko *Subillana* eta *Urvillana* gogoratzea (Mi-
txelena, TAV, 30).

Badago, hitz batez, gaztelania nagusitu zen eskualdeetan,

halako soka aldakaitz bat: *lh//* zaharretatik, gaztelaniaren ondoriozko *j-ra*. Gaztelaniak ekarri zituen berrikuntzak; erdal nafarrerak, aragoierak eta euskarak berak, ahoskera zaharrari eusten ziotelarik.

Hau dela bide, Errioxaren barruan ere, ahoskera zaharrak luzaroago atxeki dira Ekialdean, Errioxa baskonikoan; Bureban eta Mendebaldeko Errioxa castellanon baino.

Horra hor, adibidez, eta ia-ia erdibiketaren sinbolo bihurturik, *Castejón/Corella* bikotea Nafarroan (Castellón, 1121); edo-ta *Ojakastro* (lehen *Ollakastro*, grafia desberdinetan), vs. Iparralderagoko *Ollauri*. Eta, alderantziz, *Allo*, *Allin*, *Ollo*, eta abar (horrelako hamaika Nafarroan), antzinako *ll/j* isoglosa non ote dagoen zehazteko.

Errazkiago esanda: euskal *olha* zaharrak, han-hemenka *olla* batzuk utzi ondoren, gaztelaniaren araberako *oja* eman du. Eta Bureba ondoko Errioxa Garaiko Mendebaldean ere bai.

Olla/oja horrek, aurreko kapituluan *Ubarra/Obarrak* bezalaxe, gure irizpideak errotik inarrostera garamatza.

Zeren Errioxak ere anitz mende zail eta istilutsuren ondorioz, jatorrizko bere euskal izena bera ahantzi baitu; erdal kutsuko fantasia zozoak azkenean gailendu zaizkiola.

Areago: Errioxan izenen bitasuna ez ezik, halako hiru-koiztasuna ere sortu baita.

Formarik «itsusiena», «arloteena», «ulergaitzena» (hizkuntza galtzean, euskal toponimoek ez baitute «ezer garbirik adierazten»), euskal izen adierazgarria besterik ez zena, gehienez «nafar-aragoitar» kutsua zeukana, lardaskatua, aldatua, zokoratua, ahantzia eta ordezkatua izan da; batzuetan, ustez bederen, osoki erdaldundua eta gardendua: «así ya se entiende algo»...

Berriena, berriz, Gaztela hazkorraren ofizialtasuna zekarena, entzute onekoa, «berri» kutsukoa, aurrekoari gailendu zaio.

Bestela esanda, Errioxa parte askotan, gaztelaniaren araberako toki-izenak, lehenagoko euskaldunei nagusitu zaizkie;

eta nafar-aragoitar aztarnak atxeki zituztenei ere bai. *Sajazarra* berria, Haro ondoan, antzinako *Saiaçaharra*-ri dagokio (R. de Lama, 14); eta *Sojuela*, *Sollola*-ri (*Soliola* idatzia 1054).

Aisa uler daitekeenez, Erdi Aroko mendeetan egoera diglosikoa egon zen Errioxa euskaldunean (bi motatakoa, agian). Euskara erabili zen mende eta eskualdeetan, gaztelania zen *A* hizkuntza, «goiko» hizkuntza (Ferguson); eta euskara, berriz, lagunarteko mintzaira, «behekoa», *B* hizkuntza.

Ondorioak ezagunak dira: *A* hizkuntza errespetatu zen; *B* hizkuntza, berriz, mespretxatu. Euskal kutsuko hitzak, ahoskerak, toponimoak, eskarnio-iturri bihurtu ziren. Sistematikoki gutxietsiak, baztertu egin ziren, eta ahantzi ere bai.

Gutxiespen joera horixe jasan zuten toponimoek. Forma diptongatuak hobetsi ziren: *Baraguas* hobetzat, *Baros* baino; Nafarroan bertan *Bigüezal* eta *Navascüés* nahiago, bertako «ez-ikasi kankailuek» erabiltzen zituzten *Biotzari* eta *Nabas*-koze baino.

Eta, bide berberetik: euskal ol.ha galtzean, gaztelaniazko *oja* hobetsi zen, *olla* eta *ola* baztertu zirelarik.

La Rioja, are *Rioja* maingua ere hobetsi ziren (are *Río Oja*, erdaraz han garai hartan!). Eta jatorrizko *Larreolha* ahantzi egin zen. «Artikulua» kendu, eta... aurrera. Badakizue.

Eskualdeen arabera, aldakera-kate desberdinak izan ditugu:

a) hasperenketa aspaldian galdu zuten inguruetan, erdal *ola*-ra pasa gara: *Mendiola* (Erdi-Haroan *Mendiolha*); *Artola*, edo-ta *Artolla* (antzinatean *Artolha*), *Pagola* (*Pagolha*-tik), *etab.*

Bidenabar, *Galhar* zaharrak, *Galar* eman du Nafarroan (*Gallarreta* ere bai Hernani ondoan, Gipuzkoan); baina *Gallarta* Mendebaldeko Bizkaian; baita *Gallardi*, *Gallargan*, *Gallarraga*, *Gallarreta* eta *Gallarza* (ik. *Sasia*, 126-127 orr.).

b) Aragoiko bilakabidea jarraitu duten eskualdeetan (Ekialdeko Nafarroa eta Errioxa barne), *olla* izan da emaitza. Zenbait aldiz tinko iraun dute bi formek elkarren ondoan: *Chócola/Chócolla* (Sant. Arregi, 92). *Ollaz* dugu Romanzadoan (Nafarroan); baina *Olatz* Gipuzkoan.

Palatalizazio horren ondorioz, hain zuzen, bokalaren artikulazio-puntua altxatu da; eta *olla*-tik *ulla*-ra pasa gara. Horra hor Merinoren zerrenda: *Aluscula*, *Escarrulla*, (*A*)*marulla*, *Turzulla*, *Azarrulla*. Azkeneko hau Ezkarai ondoan, «donde hasta hace poco ha funcionado una antigua ferrería» (Merino, 32).

c) Gaztelatik hedatutako ahoskera berriak, belare gorra eman du (esp. 'jota'). Hau dela bide, eta adierazi dugunez, Mendebaldeko Errioxan askoz ere /j/ gutxiago aurkitzen dugu, Ebro harroan bertan baino (lehenago erdaldundu zen seinale).

Eta has gaitezen *Ojakastro*-tik.

Dokumentu zaharretan (1052, 1117, 1135, 1155) *Olia Castro* agertzen zaigu normalean; *Ollakastro* ahoskatua, beraz. Ikus, adibidez, kidetza fonetikoei buruz Manuel Alvarrek eskaini duen zerrenda: *Estudios sobre el Dialecto Aragonés en la Edad Media*, 85; edo-ta, gure jakintsuen eskutik, R. Zierbide; *FLV* 23, 267. orr.

Tafalla, adibidez, *Tafalia* idazten zen garai horretan (1056, Col. Dipl. R., 68). Nahiz batzuetan «riuo de *Oiha*» (1120) agertu; edo-ta *Oggacastro* (alegia: Otxakastro gaurko ortografian).

Ollakastro hori ez da batere isolaturik agertzen.

Horra hor, gaur arte, *Ollauri* ezaguna, Briones-en ondoan; ardoengatik bederen ospe eta istimu zabalekoa... Zergatik ez *Ojauri*? Euskararen kondairak baluke honetaz zer esanik.

Casalarreina-n bertan «Olgabarte» dugu katedraleko dokumentuetan (1087); segurantzia osoaz *Ollabarte* irakurri beharra (ik. Alvar; edo Men. Pidal, *Orígenes*, 210).

Bidenabar, eta ahantzi aitzin, *Casalarreina*-ren izen zaharra *Nafarruri* ezagunaz gain, *Ojazulo* ere ba omen dago, belarez, gaurko Ojakastroren kidetza osoan; eta *Olhazulo* zahar baten emaitza, beraz. Oraingoz honen aldeko frogarik izan ez arren, «Arantzadi»ko toponimia lanetan diharduen Josu Tellabide lankidearen bidez izan dut horren berri. Eta, enkas, hemen erantsi dut.

Naharruri/*Nafarruri* formak antzinatik dokumentatzen dira (1987 urtean, Merino, 58).

Gaurko *Ollabarre-ri*, dagokionez, *Olhabarri* zegokion Erdi Aroan (1052, 1135; Mitxelena, TAV, 30).

Areago. Iparraldeko Vasconia zaharrean, badugu *La Réole* izeneko herria, Garona ibaiaren ertzean, Gironde departamenduan.

Hegoaldean, bestalde, Ebro arroan, ongi hedatuta dago *Larrégola* deitura.

Hots, Aragoi Garaian, *Gyllem de la Reulla* izeneko jaun bat topatzen dugu Oskan 1280an (ik. Navarro Tomás, *Documentos*, 92. orr.).

Larriaga-ren atzean (Sabiñánigo, Oska), eta Mitxelenaren beraren irizpideari helduz, *Larriaga* baldin badago (ik. Irigoien, TVP, 220-221); horretara *Larrijoja*-ren atzean, dudarik gabe, *Larrealha* dago; geroenean, *Larriolla* ahoskatua.

Baroja-ren atzean, hego-Araban, *Barolha* dagoen bezalaxe (LSM 91, 1025). (Honen sail berean kokatu beharra dago, bide-nabar esateko, Sto. Domingo-ko *Barharanburu* toponimoa; ik. Irigoien, TVCP, 233 234). Aranen *Barós* dagoen bezala.

Eta ez dira horiek lekuko bakarrak:

ulla:

Gomenzulla (Belorado, Tirón-en).

Garrulla (Valmala, Tirón).

olla:

Olleta (Eterna, Tirón; Nafarroan bezalaxe);

Artolla (Valmala, Tirón);

Ollora (Pazuengos-en ondoan, Najerilla);

Ninollas (Urbion-dik ez urrun, mendia, Najerilla);

Ollano, bai mendia eta bai ermita ere (Villan. de Cameros; Merino, 66).

ola:

Olagurria (mendia; Urizaharraren ondoan);

Olagosa (San Asensioen ondoan);

Metola (Fresneda, Tirón harroan);

Metolabarrena (Fresneda, Tirón);

Aizola (Fresneda, Tirón);

Fayola (1157; gaur *Hayuela*, Sto. Domingo de la C.) (Karrantzan ere, hurrengo kapituluan ikusiko dugunez, *El Fayo* aurkitzen da, 1860; Errioxan, berriz, *Los Fayos* dugularik. Ez baita Errioxa eta Enkarteriaren artean egiaztatzen dugun errepikapen bakarra; ezta gutxiagorik ere).

Zabarrola (Ojakastro, Merino 21). XIX. mendean suntsitutako auzo edo «cuadrilla» zaharra. *Oja* ibaiaren harroan; *Olandia* (Ezkarai, Oja harana);

Ulagarte (Fresneña, Beloradoren ondoan).

-uela (diptongaturik):

Iruela (Burgos, Tirón harroan gora);

Hayuela (jadanik aipatua);

Uruñuela (Naiara ondoan, Najerilla. Ik. Uruñola).

Yeismoz, itxuraz:

Oiarrate (Villagalijo, Burgos; Tirón harroa);

Oiazezuelas (Pineda de la Sierra, Tirón).

Beste ohar bat, azkena, Oja toponimoari buruz.

Gil del Ríok gogoratzen duenez, gaur *Oja* deitzen dugun ibaiari, *Glera* edo *Ilera* zeritzon; lehenengo letraren irakurketan arazoak baleude bezala. Hots, «il» grafiari /ll/ dagokionez, badirudi hortxe egon daitekeela izenaren gakoa.

Badirudi *Llera* izan zela gaur «Río Oja» deitzen dugun ibaiaren izena. Bizkaian (Lekeitio, Getxo, eta bestetan) topatzen ditugun *Llera* eta *Llerandi* deiturek, Errioxan eta Oja ibaian bide dukete beren lehenengo sehaska...

Errioxako toponimoen euskal orokortasuna azpimarratu behar da, era berean; Errioxako beste izen asko, beren horretantxe aurkitzen baita Euskal Herrian barrena. Bizkaiko Mendebaldean oso bereziki. «Autrigoin» leinuaren egiazkotasuna eta euskaltasuna indartuz.

Argi dezagun hau zenbait adibideren laguntzaz.

Oska Garaian bezalaxe, Errioxan ere *Ubarra* agertzen da askotan: Bañares herrian (Merino, 58); Alesancon (64), Fresnedan (73), Villagalijon (76).

Baina baita *Uiarra* ere (Ojakastro, 21), eta *Guarra* (Valmala, 76). Hegoalde eta Ekialde muturrak, eskuz esku.

Errioxako «*Pa-de-rey*» harana (sic), 1110, Ezkarairen ondoan, ez al da *Mena*-ko *Paderuy* berbera? Errioxako (D)ezperiturri izenak, ez al gaitu Barakaldoko *Ezperrali*-rantza bultzatzen? Eta Errioxako *Samaray* delakoak, nori ez dio Güeñesko *Samaia* oroitarazten?

Cirueñan 1074ean topatzen dugun *Hoscarliçardi* horrek, Barakaldoko *Oskaritz* aldera garamatza. Eta Errioxako *Bellaizfaram* idatzitakoak, *haran* euskal hitza darakuskigu, /h/ a eta guzti.

Alcanadre ondoan, *Soto de Gorria* aurkitzen dugu 1067an; ohartxo adierazgarri honekin: «quod uulgo dicitur *Salto Roio*» (Lama, 76). Elebiduna dirudi ohartxo hori idatzi zuen «Eneco» izkribauak; eta herriaren izendapenean ere nola-halako bikuntasuna bide dago bertako hiztunen artean.

Logroño ondoko *Turrillas*-ek (1052), Izagaondoko *Turrillas*-a garamatza (Nafarroan, euskal «iturri» hitza igartzen delarik).

Mendabian, *Mandabia*-ko zubia topatzen dugu, agian ulergarriago; eta ondo-ondoan, Ebron bertan, «la pieça de *Arbeïça*», 1076an.

Beste bitxikeria bat: Aleson ibaiaren ondoan, *Monte Hero* delakoa dugu, /h/a eta guzti. Ni bederen «Hero mendi» horrek ezinbestean narama «Higa de Monreal» delakora; berau euskaraz *Elomendi* baita.

Naiara ondoko *Ataio* herri-ohiak («despoblado» esaten zaie erdaraz), 1077an dokumentatua, Nafarroako *Atallo* gogorazten dio edozein euskalduni. Batez ere inguru horietan «yeismo» zaharraren aztarnak eskas ez direlarik: *Soiola* eta *Sojuela* (1044), baina baita *Soliola* ere, 1054 (*Sollola* irakurri beharra).

Antzera, nahiz desberdina, Lizarra ondoko *Deio* toponimo famatuak (badakizue: *Deierri*; hortaz... «de Yerri»!!), ni behintzat Errioxa zaharreko *Degio*-ra narama.

Honetaraz gero, beste puntu bat azpimarratu nahi nuke: Errioxako euskal toponimoak, desitxuraketa, erdalkuntza eta ezabaketa sistematikoen gainetik iritsi direla guganaino. Oro har, mordoska bat besterik ez: galdu dirateke gehien-gehienak mendeetan barrena.

Gogoan har dezagun Santiago Arregiren lekukotasun ma-
mitsu hau: «Hace algo más de veinte años, cuando yo era ni-
ño, recuerdo cómo un anciano que murió hace mucho tiem-
po, apuntando en cierta ocasión con el dedo, me decía: 'Ves
este y aquel monte? Se llamaba así'. Y aún recuerdo vagamen-
te que añadía, entreverando este pensamiento: 'Estos nombres
vascos ya se han perdido, los nombrarán solo en castellano»
(Euskaltzaindiaren *Euskera* aldizkaria, 1958; 84. orr.). (Pasadi-
zuak, beraz, gerra garaikoak izan daitezke, gutxi gora-behera).

Oskan aipatu dugun *La Raz* irrigarriaren bidetik, hemen
ere *La Raz* dugu (Abellanosa de Rioja, Burgos-ko lurraldearen
ondoan; Merino, 72). Baina, oraino galantagoa, *La Rad* topa-
tzen baitugu: «un despoblado cerca de Nájera»; Merino, 14...
«Larraz» izan ote daitekeen ez bide zaio inori bururatzen. Eus-
karari buruzko hutsune lotsagarri horiek, itzuri egiten zaizkie
ikertzaileei...

Baina grezierari buruzkoak ez: «el notario o copista que
hizo la transcripción debió equivocarse indudablemente...
porque no conocía el griego... con lo que vulneró la expresión
del día de la semana y la exactitud del cálculo astronómico»
(Rodríguez de Lama, ib. 56. orr.).

«Artikulua» galdu omen duten beste leku-izen piloa dago,
noski: *Remendia* (Fresneda, Santa Cruz; Irigoien, *De Re Philo-
logica*, II, 255-256). Ez ote dago hor, besterik gabe, gure *Larra-
mendi* bera?

Zer ote da Sajazarra-ko *Relucea* (Merino, 62), *Larreluzea*
besterik?

Bide beretik, eta oraingoan Nafarroari gagozkiolarik,
orain dela mendebete eskas euskalduna zen eskualde batean,
Riezu diptongatua eta «artikulu-gabetua» onartu badugu; eta
okerrak konpondu nahiz *Errezu* eta *Errezumendi* ontzat eman
baditugu (/e/ren epentesia lortu dugunez...), nola harrituko?
Zeren *ezki* hitzak *Ezkizu* toponimoa eman badu; eta *ote* hi-
tzak *Otazu*, zertan litzateke harrigarria *Larrezu* toki-izena?

Baina *El Orrio* idatzi eta seriotan hartu izan bada, zer
erantsiko? *Larrealha*, Río Oja bihurtu zen; *Landabe*, La Nave;
eta *Muru-Arte derreta*... Muruarte de Reta... Nous n'avons pas
le Droit de nommer... Les Espagnols et les Français, oui...

Beste «perla»ren bat. XI. mendean Soto de *Algarraga* zeritzona, gaur egun «de la *Algarrada*» bihurtu da (Lamo, 108).

Hitz bukaeren erdalkuntza ere, sistematikoa izan da. *-zu eta -tsu* atzizkiak, *-so* bihurtu dira Errioxan (Araban bezala). *Sarrassu* zaharrak, *Saraso* eman du. Bide beretik, Biasteri ondoko *Beurku*-ko Monastegia (1208), *Beurko* bihurtu da Barakaldon. Fenomeno berak, beraz.

Hots, kasu honetan badakigu (R. Lama, 194) antzinatean leku hori, (*Ilekora*-ren ondoan, *Bihurco* (sic) zela. Desitxuraketan atzean euskal *Bihurko* dago, bere /h/ eta guzti...

Desitxuraketak haratago heldu izan dira batzuetan. Naiarako lekuko baten izena, esate baterako (R. Lama, 116), *Galarrecta* bihurtu zuen izkribauaren hyper-korrekzioak (1113). *Galarreta*, noski, 1138ko beste izkribu batean datorren arren.

Erabat Nafarroan aurkitzen dugunaren bidetik, azpimarragarria da izen askoren bikuntasuna: Nafarroan *Irunberri* / *Lumbier* dugu; eta *Galoze* / *Gallüés*, *Garipentzu* / *Gallipienzo*...

Horrelako bikoteak oso adierazgarriak dira. Erdarazko ahoskera «berria» topatu ohi dugu, batetik, erdal fonologiaren arabera, dokumentuetan hobetsia, hozitzen hasia den ofizialtasunaren lekukoa. Eta euskal joeren moldekoa, bestetik, ofizialtasunik gabea, izkutua, izkribuetan agertzen ez dena, euskal fonologiaren arabera oratua, eta guganaino eskuarki ahozko tradizioz iritsia.

Errioxan ere bikote-mota berbera aurkitzen dugu maiz.

Adibidez:

Iroka (1044) // *Iruega*, *Iregua*.

Orcanos (1052, 1073) // *Huércanos*.

«*Ruete o Rota*» (1181) (R. Lama).

Cironia (972) // *Cirueña* (hau gogoan atxekitzekoa; *Cironia* horren ahoskera *Ziroña* baitzen eskierki).

Fayola (1157), jadanik aipatua // *Hayuela*.

Sollola (1044, grafia desberdinetan) // *Sojuela* gaur.

Erunola (1052) // *Uruñuela*.

Aragoien aipatua dugun *Arrosta* / *Ruesta* bikotearen bidetik.

Eta hizño bat bederen, amaitu aitzin, Errioxako dokumentuetan aurkitzen ditugun patronimikoei buruz.

Harrigarria, hasteko, euskal familia-izenen ugaritasuna:

Aita (edo *Eita*), *Ama*, *Amuna* (edo *Amuña*), *Ato*, «*Domna Andresa*»... *Obeko* (= *Oueco*), *Oneka* eta *Oñeka*... mordoka ageri.

Kalagurriko *Arzellar* horrek (1162), berriz, ez al du Euskaltzaindiako Lehendakariaren deitura gogorazten: *Haritxelhar?*

Sos-en ondoan topatzen dugun *Gaizko* izenak (1128, «*Gaiçquo* in Luesia), Tarazonan du errepikapena (1123).

Asuriz, *Acenari*, *Velasco*, eta beste hamaikak, ez al dute euskal kutsu nabarmenik?

Ikergai hauetan ni baino trebeago eta jakintsuago diren euskaldun filologo gazteek dute orain hitza. Baina, ene uste apalaz, hori guztia gehiegi da, arras, Errioxan euskal sustrai zaharrak ez somatzeko.

Mendebal

Zazpi urte pasa dut nik Bilbon, ikasle: 1949an hasi, eta 1956ra arte. «Zazpi urte» baino egokiagoa litzateke «zazpi kurtso» egin nuela esatea, zazpi ikasturte.

Gaztetango bolada galanta, dena dela, Nerbioi gaineko hirian. Oroitzapenez betea, nola ez! Eta gaztaroko oroitzapenak ez dira beti garratzak izaten.

Baina oraingoan, eta liburuaren hariari berriro helduz, puntutxo hau besterik ez dut aipatuko hemen. Eta galdera modura aurkeztuko: nola senditzen nuen nik urte haietan mendebaldeko euskal mugaren hurbila? Bilbo, nolazpait esateko, mendebaltar marka baita, mugakidea. Eta, teorian bederen, ongi baikenekien.

Eta hemen ere, zergatik ez, egia aitortuko dizuet deplauki; zenbaitu hau (eta neure buruari gauza bera) atsegin izango ez bazaio ere.

«Bilbotik ezkerretara», esaten genuen geure artean, «Cantabria, Santander, Asturias, Espainia»... Abertzale bati interesgarri izan dakiokenik ezer ez. Zer aurki dezake abertzale ba-

tek barruti itsusi eta erdaldun horietan? Ezer ez onik. Kanpotarrak nagusi, gure herriak, zenbaiten poltsikuren mesedetan, arroztuta galdu duen eskualde tristagarriak.

Eta interesik ere ez genuen harantza joateko.

Guk euskal giroa bilatzen genuen. Eta Bizkargira joaten ginen, eta Lekeitiora, eta Begoña eta Zamalbidera azoka egunetan.

Santander eta La Roblako bi trenbideetan, argi eta garbi aitortzen dizuet, ni neu behintzat ez nintzen behin ere ibili! Bilbotik harat, Espainia nagusiturik. Hortaz, zertarako joan? Han gertatutakoa mehatxutat hartzen genuen. Areago: Enkarterria euskaldunak al dira, izan?

Abertzale jende fina zegoela bagenekien. Hau bai. Baina... Askoz beranduago ezagutu nituen nik Bizkaiko lurralde horiek.

Ez ginen gu bakarrak ustekeria horietan.

«Al Oeste de Bilbao –zinoskun Tovar hizkuntzalariak– hay un corte, y en Cantabria los restos de lengua vasca son difícilmente registrables... Si bien se señalan retrocesos del vasco por el Sur y por el Este, por esta parte la frontera se ha mantenido firme durante milenios».

Euskal Herriari hats berria eman nahian, eta talde abertzale berri bat antolatzekotan ginenean, frankismoak zapaltzen eta izkututzen zigun euskal giroa eta euskal arnasa bilatzen genituen.

Eta euskal arima hori, erdalkuntzak osotara itota zegoelakoan, Bilbotik mendebalderantz hilik aurkitzeko beldurrak, azaldu ere ez ginen egiten paraje haietara. Niri dagokidanez bederen, hauxe da egia gordina. Eta Enkarterriko aberkide maiteek, giputx-jokabide exkax hau barkatu beharko didate.

Urteetan barrena bakarrik konturatu naiz ni, apurka-apurka, oker nengoela. Bilbon bertan, eta Nerbioiren bi hegi jendetsuetan, gure nazio-taupadak entzun zitezkeela; eta agian hantxe, mendebaldean eta Enkarterrian, jokatu dela aspaldidanik Euskal Herriaren geroa.

«Al Oeste de Bilbao hay un corte...».

Non, ordea? Hauxe izango da ondoko orrialdeetan laburki bederen aztertuko duguna.

«Tierras asperísimas y estériles» dio *Geografía del País Vasco-Navarro* delakoak, 919 orr.

Ohar orokor bat egingo dugu hasteko: Ipar, Eki eta Hegoaren aldetik, Euskal Herriak antzinatean eskualde zabalak eta kilometro-mordoak galdu baditu ere, mende historikoei gagozkielarik bederen, Mendebaldean ez dugu atzerakada-maila bera aurkitzen. Alde honetan hizkuntzaren muga tinko egon ez bada ere, askoz ere tinkoago, bai, beste eskualdeetan baino.

Bestela esanda, Autrigoinen euskalduntasunean bide dartzarazoa. Alegia, euskaldunak ote ziren Mendebaldeko Autrigoinak? Ala ez?

Jakitunen irizpideak bilduko ditugu hasteko.

«No sé cómo se ha podido dudar del euskarismo de los autrigones», dio Aita Jesus M. Sasiak; Don Luciano Serrano jakintsuaren ikasle, eta Enkarterriko ezagutzailerik gailena den Beneditarrak (*Boletín Americano de Estudios Vascos*, 1970-1971; 18). Eta honela ekiten: «Los autrigones eran, como los vascones, várdulos y caristios (y quizá los berones) de lengua vasca» (19).

Bosch Guimpera, Odón Apraiz, Akesolo, Jose Luis Lizundia, iritzi berekoak dira.

Uzkurrago agertzen zaigu Mitxelena, Caro Baroja bezalatsu.

Ez osoki aurka; baina bai Enkarterri osoaren euskaltasunari dagokionez, herabe.

Alfontso Irigoien, berriz, Enkarteriaren euskalduntasunaren alde agertu izan da ausarkiago: «Esto está en favor de la antigüedad de la lengua vasca en el área referida» (ik. *En torno a la Toponimia vasca y circumpirenaica*, 11. orr.; baita 54tik aurrerakoak ere).

Mendebalde muturretik (Bureba, Reinosa) erdararen sarrera aspaldikotzat jo behar bada ere, Autrigonia, oro har, eus-

kalduntzat hartu behar bide da. Eta euskaldun egon dela zenbait eskualdetan berandu arte.

Enkarteritik mendebalderantza, euskaldunen egona ez da maila berekoa; Kantabria keltatzat (eta erdalduntzat, beraz) hartu behar delako.

Idea hau kolokan jartzeko datu bitxi bakan batzuk badaude. Bai. Zein euskaldun ez da harritu, adibidez, *Ason* ibaitik mendebaldean, eta Enkarteritik at oso, *Selaya* toponimoa aurkitzean? Eta berorren ondoan, txiripaz bezala, *Aloños*, eta *Iruz*, eta *Saro* topatzean?

Nondik etorri ote da *Reinosa* toki-izena bera, eskualdeburua. Betiko «artikuluaz» mozturik, *Larreinosa* zaharragoaren laburketa ote? Zein euskaldun ez da orain *Puente-la-Reina*, *Casa-la-Reina*, *Las Reinetas*, eta euskal *larrain* hitz ezagunak han-hemenka sortu dituen sasi-errezalekeria toponimiko guztiez oroitzen?

Susmo hori ez baita gurea bakarrik izan, edo funtsik batera gabea; Merino Urrutiak berak 1963ko udan, prentsa bidez jakinarazi zuenez, Ebro ibaiaren sorburuetan beretan, «(anunció) su descubrimiento de un grupo de toponimia vasca» (Sasia, *Toponimia Euskérica en las Encartaciones*, 50. orr.).

Nolanahi ere mendebaltar lurralde urrun horien arazoa besteren eskuetan eta azterkizun utziz, praktikan ahobatez onartua denez, *Ason* ibai-arroan dagoen toponimi etendura har dezakegu euskal mugatzat. Zedarri tinko agertzen zaigu aldakaitz. Erdi Aroan barrena, sinbolo gisa, *Santa María de Portu* agertzen zaigu, «kanpo aldetik». Eta *Portu* hori gaurko Santoña da.

Enkarterrian bizkaitar kondaira-oroitzapena batere galdua ez denez, ulergarria da, XX. mende honetantxe ere, Mene Haranak eta Kastro Urdializ-ek Bizkaiko Enkarterrira bihurtu nahi izana (ib. 179).

Zehazki eta zorrotz hitz eginda, Lanestosa, Portugalete, Balmaseda eta Barakaldo, bizkaitarrak izanik ere, ez dira, izan, Enkarterriko parte. *De facto*, halere, Enkarterrikotzat harzen dira. Eta Balmaseda, hain zuzen, Enkarterriko Foru Hiriburutzat hartu ohi da (Sasia, *Toponimia*, 49).

Aldatu egin dira mugak. Gaur muturrekotzat jotzen dugun Karrantza, Autrigoniaren erdi-erdian zegoen.

Atzera begiratzuz gero, Mena (Burgosen gaur egun); eta Castro-Urdializ, Bizkaia izana; Otañes, Samano-ko eskualdea eta «Junta» (Arabian *Samaniego* dugu), Colindres, Limpias eta Laredo, Enkarterriko parte izan dira: «Todas esas zonas fueron con seguridad histórica, tierras de Vizcaya y encartadas» (Sasia, *Toponimia* 1966, 49. orr.).

Mendebaldetik, beraz, Autrigonia zaharraren mugak, eta gerozko bigarren «Bardulia»renak (azkeneko honek ez du ezer ikustekorik Gipuzkoarekin), desberdinak izan arren, antzekoak ere badira funtsean.

Autrigonia zaharrean, Burebatik itsasorainokoan, Ebro ibaiatz ipar eta hegoaldean hedaturik, Briviesca, Oña, Urria eta Mena bazeuden (Burgos gaur egun); Gaubea-Harana eta Koartango ere bai (gaur egun Araba); Balmaseda, Zalla, Barakaldo, Santurtzi, Gallarta, Somorrostro, Turtzeoz (gaur Bizkai barruan); eta Otañes, Kastro-Urdializ, Ampuero, Limpias eta Laredo (Paraia eskualdean, beraz, gaur Santander probintzia). (Ikus J.M. Sasia, *Más sobre Toponimia Euskérica en las Encartaciones de Vizcaya*, Boletín del Instituto Americano de Estudios Vascos, 1970, 1973, 1974 eta 1975).

Mendebaldeko Euskal Herria hor kokatu behar da.

Eskualde zabal horren mendebal ertzean (beste muturrean, Ahuñemendi erdialdean ikusi dugun bezalatsu), erdararen sarrera eta erabilpen hazkorra oso aspaldiko kontua dira. Ohartxo hau beti atzeki behar da gogoan.

Eta, honetaraz gero, ohar orokor bat hasteko: mendebaldeko toponimiak, erdialdeko lurraldeetara eramaten gaitu (are ekialderago ere). Bartoliren ideiak bete-betean baiesten dira euskal geolinguistikan.

Mendebaldean topatzen ditugun toponimo askok, Euskal Herriko beste muturreraino eramaten gaituzte. Garape-ko *Ibeas* zaharrak (1781ean dokumentatua) eta Kastroko *Imeas*-ek (bidenabar, eta ezaguna denez, Oihenart zuberotarrak *Krasto* esaten zion kai honi), Burgos probintziako *Ibeas* izenkidera garamatzate.

Balmasedako eta Menako *Kebarro*-k Dimako *Akebarro*-ra bultzatzen gaituzte. Garapeko *Araos*-ek, Gipuzkoako Oñatira eta Pallars haranera. Menako *Arrate*-k, Eibar ondoko *Arrate*-ra... Eta abar.

Herrikidetasun zantzuak, ugari.

Ez gaitezen, beraz, horretan geldi.

Enkarterriko toponimiak, hasteko, oso kutsu arkaikoa du. Toki-izen horiek ikusirik, nekez pentsa dezake inork atzo eza-riak direnik, edo ekialderagotikako etorkinek mamitutako berrikuntza direnik.

Garbikiago mintzatuz, eta bilbotarrek ezagutzen duten leku bat argigarri hautatuz: Enkarterriko toponimian aurkitzen duguna, ez da batere Laredoko mendebal uda-hiri berri eta luzeko xaleten eta etheen izenetan somatzen dena. Mendebaldeko Laredo berrian, bai auzoa, bai etheen izenak, ezarri berriak dira. Bizkaiera fresko-freskoa darie...

Gainerako kapitulu ataletan bezala, ez da nire asmoa, oraintxe eta hementxe, sekulako toponimi-azterketatan barrena abiatzea. Egin bezate hori, eta nik baino hobeki, alor horretan jakitun direnek.

Ohar solte batzuk egingo ditut, hori bai; irakurlearengan euskal-eremuaren zabalerari buruz funtsezko zalantza batzuk bederen txertatzekotan.

Eta has nadin, hariari helduz, leku-izenen arkaismotik.

Hitz haserako eta bokal arteko herskariak, antzinatean gorrak izan ondoren, ozendu egin dira geroenean. Errazago esanda: lekune horietan, «petaka»tik, «bodega»ra pasa gara.

Adibidez:

– Keltiar kutsuko *Turango* zaharrak (Sasia 2327, 1053 urt., Mena haranean Monastegi izana), *Durango* bihurtu zaigu Bizkaian.

Bide berberetik:

– *Paraya* (La), (Sasia 2041; Arzenteliz, Turtzeoz, 1863, eta Kastro Urdializ-ko baserria; Sasia 2042 eta 2043), *Baraia* bihurtu da Errigoitian. Euskal Unibertsitatean lan egiten dugu-

nok ongi ezagutzen ditugu Baraiazarra neba-arreba euskaltzale gartsuak. Izarra ondoan, bestalde, Araban, *Badaia* mendia dago. Eta Haron, Errioxan, *Paragutia* aurkitzen dugu 1513an (Merino Urrutia, 60).

Gaurko Enkarterria eta itsasoaren arteko lurraldeari *Parayas* deritzo (Sasia, 2045).

– *Betaio*, Turtzeoz eta Otañes-en artean (Sasia, 715 eta 716). Vs. *Bedaio*, Gipuzkoan, Amezketaren ondoan.

– *Kaona* (Sasia 1335; Arzentaliz 1755). Vs. *Gauna*, Araban eta Gipuzkoan.

– *Kandiaga* (Sasia 1321, Lanestosako baserria XVIII. mendean). Vs. *Gandiaga*, Bizkaian (Bizkaitar poeta ezaguna Mendatakoa da sortzez).

– *Arekuia* (Sasia 258; Somorrostro, 1863). Eta *Arkuia* (Sasia 307, Soba-Lanestosako iturria). Hots, guztiz interesgarri eta adierazgarria da toponimo hau.

Alde batetik, Irigoienek jakinarazten zuenez, eta Jon Arretxek bere tesi berrian baietsi duenez, Basauri inguruko baserri-tarrek *Arguia* esaten diote Arrigorriagari.

Hots, *Coromines*-ek gehien inarrosi eta ikertu zuen toponimo bikotea, katalan Ahuñemendian, *Estaguia / Estavar* izan da. Lanestosa, Soba eta Arrigorriaga, mendebaldean; eta Livia eta Cerdaña, Andorra inguruan (berrikus 1.2 kapitulua), elkarren ahaide auzo agertzen zaizkigu. Ptolomeo-ren *Antekuia*-k (II), *Andagoia* eman du Koartangon.

Dudarik gabe, beraz, aspaldikoa da Enkarterriko euskara.

– *Pikarola* (Sasia 2066, 2067); *Gordoxolan* eta Turtzeozen. Baita *Pikarol* ere). Vs. Nafarroako *Figarol*, Oskako mugan.

– *Karde* (Sasia 1343; Abanto, 1792). Gaur egun «Cardeo» bihurtua... Nafarroan, irakurleak dakienez, Erronkarin, *Garde*.

Goazen orain beste sail horietako bat ikustera. Jakina denez, euskal eremuan antzinako *b-* zaharrak, *m-* eman izan du. Adibiderik klasikoena ematekotan: *baculu*-tik, *makulu*.

– *Badoz* (Sasia 522; Karrantza, 1860). Nafarroan *Madotz* dugu.

Jadanik esana dugunez, euskarazko /lh/ zaharrak, nafarre-
ra-aragoieraz /ll/sabaikaria eman ohi du, gartzelaniaz /j/ bela-
rea; euskaraz, mendebaldeko euskalkietan, /l/ ematen duela-
rik.

– *Gallar* dugu Soban, Enkarterritik at (Sasia 954; baita ho-
nen ondoriozko mordo bat ere Enkarterrian barrena, Sasia
955-960, eta 965eko *Gallarza*, Urtuellan). Hain zuzen, eta
Madoz geografilari ezagunaren iritziz, *Cadagua* ibaiaren izen
zaharra *Galharraga* zela; Sasiak sinesten ez duena).

– *Udalla* (Sasia 2386; Ramales-en, Santander). Erdi Aroan
Udalha idazten zen (ik. Mitxelena, TAV, 27). Gipuzkoan *Uda-
laitz* eta beste eman du.

– *Bellastegi* (Sasia 678; Somorrostro). Badaude bai *Belas-
tegi* (Bizkaian) eta *Berastegi* (Gipuzkoan).

– *Bollain* (Sasia 775, 776; Karrantza). Aski da *Bolandia*
(Karrantzan bertan), eta *Bolueta*, *Bolunburu*, eta abar, aldera-
tzea.

Olla banaka batzuk badaude, bai. Baina askoz gehiago
dira euskal kutsuko *olak*; euskal ahoskera berandu arte erabili
balitz bezala. Adibidez:

Arzolla (Sasia 438; Trapagan, 1863, «ferrería de San Sal-
vador del Valle, 1863»).

(*La*) *Olla* (Sasia 408-2; Galdames).

Ollas (Sasia 409-2; Guriezo).

Baita *ola* pilo bat:

Gordoxola, erdaraz *Gordejuela*.

Yandiola (Sasia 2530, Güeñes).

Irola (Sasia 1246; Gordoxolako mendi bat).

Azola (Sasia 514; Mena Haranean, XIX. mendean).

Beraskola (Sasia 683, 684; Gordoxola, Güeñes, 1720).

Urdiola (Sasia 2447; Zaldu, Gordoxola).

Ullola (Sasia 2408; Galamiz).

Hau besterik ez jakinda ere, Gordoxola eta Güeñes alde-
an euskaraz beranduago arte mintzatu direla esan daiteke.

– *Llerena* (Sasia 1629; Garapen. Vs. *Leren*, baxenabarren).

Oso azpimarragarria da, bide beretik, Enkarterriko toponimo askoren orokortasuna:

– *Amoros* (Sasia, 128; Kastron, XV. mendean). Kontutan har Baxenabarreko *Amorotz(e)* eta Bizkaiko *Amoroto*.

– *Araos* (Sasia 219; Garapen). Colindres-en ere *Aragos* dago (Sasia 182; 1210 urtean). Jaka ondoan, esana dugunez, *Aragüés* del Puerto dago, diptongazioz (diptongorik gabea, beraz, zaharragozat har behar delarik).

– *Araia* (Sasia 224; Karrantza, 1860). Araban ere *Araia* dago, jakina denez.

– *Anzo* (Sasia 170; Karrantza, XIX. mendean). Nafarroako *Anso-Berari* ezaguna da.

– *Aras* (Sasia 220, 221, 222; Karrantza eta Ramalesen. Nafarroan ere, eta Bargotaren ondoan, *Aras* dago.

– *Askona* (Sasia 447; Güeñes 1720). Vs. *Azkona*, Nafarroan.

– *Aia* (Sasia 478... 482; Galdamiz, Somorrostro, Soba). Gipuzkoan ere *Aia* batzuk daude.

– *Aiabarrena* (Sasia 483; Mena haranean). Errioxa Garaian ere, Ezkarai aldean, beste *Aiabarrena* bat dugu.

– *Elorrio* (Sasia 848; Karrantzan, *Elhorrio*, XIX. mendean). Vs. Bizkaiko *Elorrio*.

– *Loizeta* (Sasia 1663; Güeñes). Donostian, Ibaeta auzoan, *Loistarain* zeritzon lehenengo euskal Lizeoa eraiki zen munoari.

– *Larraga* (Sasia 1515; Turtzeoz-en, 1741). Nafarroan ere beste *Larraga* bat dago.

– *Oiziko* (Sasia, 2698(2); Karrantzan, XIX. mendean. Enkarterrian aisa erasten den –ko atzizkia kenduta (honetan ere Nafarroatik gertu; *Aoizko*, *Aoitzen* jaiotakoa), *Oizi* dugu. Eta Nafarroan *Uitzi*.

– *Maruka* (Sasia 1746; Muzkiz, 1863). Donostian, gaur Miramar Jauregia dagoen puntuan, *Marrukas* baserria zegoen XIX. mendearen bukaeran. Eta Bizkaian *Maruri* dago (Menan *Marure* bihurtua).

– *Arreras* (Sasia II, 51; Karrantza, 1860. Vs. *Arrarats*. Nafarroan.

– *Orzante* (Sasia 1981; Garape 1863). Vs. *Urzante* nafarroako Erriberan.

– *Eskaba* (Sasia 880; Mena haraneko mendia). Nafarroan ere badago beste *Ezkaba* bat.

– *Obekuri* (Sasia 1886; Garapeko auzoa. Arabako Trebiñon ere beste *Obekuri* bat dago.

– *Oro* (Sasia 1966... 1970; zenbait lekutan). Nafarroan ere badago *Oro*; baita Errioxan ere.

– *Araute* (Sasia 223; Abanto, 1863). Baxenabarran *Arraute* dago; euskaraz *Arrüeta* ahoskatua.

– *Araz* (Sasia 225; Somorrostro, 1863). Gorago Bargota ondoko *Aras* gogorazi dugu. Baina Urbia ondoan *Aratz* mendia dago.

– *Ugatxa(s)* (Sasia 2396; Menako mendia). Erronkarin eguatxa esaten zitzaion errekarri (*üháitza* Zuberoan).

Txiripa sail luzeegia...

Aipamen berezia merezi bide du euskal hasperenketak; euskal /h/ zaharrak, beraz.

Berriro ere, Bartoliren legeen bidetik, errepikapen harrigarriak topatzen ditugu Zuberoan eta Enkarterrian.

Has gaitezen fenomeno ezagun batzuetatik.

Iñaki Gamindek ezagutarazi duenez, Bilbo ondoan, *ni nas / i as* adizki-bikotea, *ni nas / i gas* bihurtzen da. Ekialdeko *haiz/hiz* bigarren pertsonako adizkia *gas* da Bilbo ondoan.

Galdakao ondoan, bide beretik, eta J. Ulibarriren lekukotasunak baiesten direlarik, *i gas* esaten da (ez, jakina, hirekin adieraztekotan!).

/g/ horiek, esan beharrik ez dago, ekialdeko euskalkietan topatzen ditugun /h/en ahoskera lokala besterik ez dira. Oso arrasto arkaikoa, beraz.

Jon Arretxek, bestalde, irakurri berri duen bere tesian dio-

enez, *Ergoiena* eta *Erbarrena* bereizten dira Basaurin; bigarren honi *Begie* izena ere eman ohi zaiolarik (behereko auzoari, alegia). Hots, izendapen honen atzean dagoen *Behea* somatzen da; Basauriko euskalkian bokal-harmonia baitago. «La Vegada» ote den, 'a posteriori' bilatutako sasi azalpen erdal-tzale horietakoa iruditzen zait.

Bizkaian, mendebalde muturrean, beraz, hasperenketaren aztarnak daude.

Baina euskaltzaleon «iritziez fidatzen» ez direnei, berriki argitaratutako liburu-aurkezpen bat gomendatuko diet (edo-ta, hobe, liburua bera): *Language Loyalty and Linguistic Variation*, Holmquist; Foris ed. 1988.

Irakurri dugun laburtzapena Michigan-Flint Unibertsitateko Paul O'Donneel irakasleak prestatu du (ikus *Language and Social Psychology*, 1992; 283/291).

Cantabria-ko Ucieda herriko hizketaren ikerketa burutu du; eta bertan «Aspirated /h/» topatu du (284).

Ohar bera egina zuen lehenago Aita Sasia bizkaitarrak: «Se dan en esta zona de Carranza formas características de cierta aspiración de la H... Esta aspiración subsiste en el dialecto castellano de Cantabria o montañés» (ibid. 138).

Hitz haseran topatzen ditugun /j/ batzuek (aurreko kapitulu-*Ojacastro* toponimokoa, eta antzekoetan, erakutsi dugunez), antzinako euskal /lh/ edo erdal /ll/ daukate jatorrian:

– *Jardui* (Sasia 1294; Turtzeoz, 1863), –dui atzizkiak iradokitzen duenaren bidetik, *Illardui* bilatu behar da (deitura arrunta da Illarduya gaurko Araban). CSM 91 deritzon arabar herrien zerrenda ezagunean (ik. Mitxelena, TAV, 25. orr. eta hurr.), *Hillardui* izeneko herria dugu (1025an).

– *Jarreta* (Sasia 1296; Güeñes-en), bide beretik, *Hillarreta* zahar batetik etor daiteke.

Beste zenbait aldiz, /x/ zahar baten ondorio izan daitezke:

– *Jiba* (Sasia 2012; Somorrostro), lehen *Oxibar* eta *Uxibar* izandakoa; eta Arangurenen eta Turtzeozen ere aurkitua.

Baina beste zenbait aldiz, itxura osoa duenez, /h/ zahar baten emaitza izan daiteke:

– *Jarratia* (Sasia 1295; Garape, 1857 urtean): Arabako CSM 91 delakoan (1025koa) *Harhazua*, *Harhaia* eta *Arrazaha* ditugu. *Harrate*, bestalde, guztiz da posible euskaraz.

– *Juriondo* (Sasia 1309; Erretortu, Barakaldo). CSM 91 zerrandan, *Atahuri*, *Okerhuri*, *Huribbarri*, *Basahuri*, *Bardahuri*, *Hurizahar* eta *Huriarte* ditugu (Mitxelena, TAV, 25).

– *Ejera* (Sasia, II, 220; Karrantza 1860), *Eihara* izan daiteke, bokal-harmoniaz.

Bokal artean, berriz, beste leku askotan bezala, /h/ zaharrak /g/ eman du:

– *Barrago* (Sasia 577; 1784). Santurtziko «barra» besterik ez da: *barra-(a)ho*, «kanala» Gernikan.

Beste kate diakroniko ezagun bat hau da: /l/ zaharrak, /r/ sortzea: *hili*-tik, *hiri*-ra.

– *Kalagorri* (edo *-gurri*) izan daiteke ezagunena (besterik ez bada, antzinatean *Kalagorri* asko zegoelako).

Mena haranean *Galagorri* daukagu (Sasia 942); eta Gipuzkoan *Garagorri* deitura. Menakoa, beraz, arkaikoagoa da Gipuzkoakoa baino.

– *Larrol*i (Sasia 1564; Galdamiz). Euskal Herriko beste muturrean, hurrengo urratsekoa den *Larrori* topatzen dugu, Zuberoan.

– *Ligorri* (Sasia 1643; Gordoxola, XV mendean). Gaurko euskaraz *Hirigorri* litzateke. Baina fase arkaiko horren aztarna segurua da Oskan topatzen dugun *Ligüerre*, Ainsa ondoan, Sobrarben. Nafarroan *Liberr*i dago, simetrikoa.

– *Ligoiti* (Sasia 1641; Abanto-Zierbena, 1863 urt.). Jatorrrian Hiligoiti dago; Hirigoiti baino arkaikoagoa. Jatorrikidea da *Hirigoien*, esan beharrik ez dago.

– *Ulibarri* (Sasia 2403; Galdames). Eta bide beretik: *Ulizar* (Sasia 2405; Güeñes, 1720). Gaur *Urizar*, *Uribarri*, etab.

Enkarterriko arkaismoak ez dira horretan amaitzen:

– *Udoia* (Sasia 2389; Barakaldo). Ekialdean *l(hi)doia* dugu.

Bestetan ahantzitako hitzak topatzen ditugu toponimoen osagarri:

– *Nabaiz* (Sasia 1866; Mena haranean, 1863). Euskara zaharrez horrela esaten zitzaion mendi arteko zelaiari. Horra hor, adibidez, *Nabarniz*, *Nabaskoze*, *Nabarzi*, eta Menako beste batzuk. Menako *Ungonaba* ere hemen kokatu behar da (Sasia 2417).

– *Espuia* (Sasia 909; Garape, 1863). Osagarri berbera dugu Bilbo ondoan: *Buia*, orain arte euskaldun egona. Eta *Arbuio* Alonsotegiren ondoan.

– *Utero* (Sasia II, 564; Karrantza). Sasiak dionaren bidetik, Nafarroako *Uterga*-ren ahaide izan daiteke.

– *Urdiales* (Castro–). Bukaerako «-es» horiek, askotan euskal *-itz* (edo *-iz*) atzizkiaren ondorio izan daitezke. Hemen, beraz, *Urdializ* irakur bide daiteke. Kontutan har Bizkaiako *Urduliz* herria. Baita Euskal Herrian barreneko *Urdiain*, *Urduña*, *Urdinarbe*, eta abar.

– *Güeñes*. Badirudi, Tovar-en irizpidearen bidetik, sasi-pluraleko *-s* kenduta, *Güeñe* dugula. Bukaerako euskal *-i* eta *-u* sistematikoki *-e* eta *-o* eman baitute ondoriozko erdal toponimoetan (Marure, Orbiso), *Güeñi* proposatu behar dela. Eta honen atzean *Goñi* dago. Plegu berekoa da, ikusia dugunez, *Ziroña/Zirueña* bikotea, Errioxan. Euskara luzarago egon den lekuetan, *-oñ-* horiek ez dira diptongatu: *Oña*, *Oñate*, *Oñatz*, *Garoña*, *Santoña* agian (Santa Maria-ko *Portu*, esan dugunez).

Bukaerazko */s/* zentzugabeari buruz, aski du irakurleak leku-izen hauek gogoan atxekitzea: *Erletxes*, *Artigas*, *Basordas*, *Aretxas* (Menan).

Adibide argi emale *Markiniz*-ek ematen diguna, Araban; gaur *Marquínez* baita... *Martínez* aurki. Argi ibili!

– *Erretortu* euskaraz (erdaraz, gerozko diptongaketaz, *Retuerto*).

Toponimo hau, hala ere, euskalduna da eskierki.

Aski da horretarako lerrokadatxo hau kontutan hartzea: *Amorrortu*, *Arriortua*, *Olaortua*, *Maortua*, etab. Erdal diptongaketaz *-uerto*.

Erret- hori, berriz, *errege*-ren osakina da: «*erret* corresponde al adjetivo 'regale, real', corriente en nombres de lugar medievales» (Mitxelena, *Apellidos Vascos*, 86).

Sandhi normaldez, /b,d,g/ /p,t,k/ bihurtzen da: *Erreparatz*, *errepide*, etab. (= *errege*-baratza, *errege*-bide, etab).

Nafarroako leku-izenen grafiak berak ez du honetaz zailtza izpirik uzten: *Erret Ihera* (1150; Lacarra, Col. Dipl. de Irache, Zaragoza 1965).

Erret Ortu, beraz, guztiz normala da. Eta ondoriozko *Reuerto* ere bai. Honek halako «entuerto» kutsua hartu arren...

– *Balderizes* (Sasia 531; Soba, 1724). Vs. Nafarroako *Eri-ze*.

– *Beloreta* (Sasia 676; Somorrostro, 1792); eta *Belorita* (Sasia 677; Mena, 1863). Errioxan *Belorado* dugu.

– *Baia*, eta hurrengoak (Sasia 646tik aurrera). Araban ere *Baias* ibaia dago. Orain Fiteroko Maria Baio kantariaren deiturak azkartu ditu susmo hauek...

Beste ohar orokor bat Enkarterriari buruz: toponimoen desitxuraketa eta erdalkuntza sistematikoa.

Desitxuraketa horiek sailkatu egin daitezke.

Hasteko, eta gainerako inguru-lurraldeetan bezala, «la-» eta «el-» artikuluek «lanak» eman dituzte... «En los topónimos que tienen la inicial «La-» –dinosku Sasiak– no es ni seguro ni claro que se trate del artículo singular femenino del rom. ni, por el contrario, que forme propiamente la primera sílaba del término» (ib. 208).

Juan San Martín euskaltzainak ere ohar bera egin zuen *Euskera* aldizkarian 1959 urtean.

Adibidez:

– *La Relusa* (Sasia II, 462; «gran peña alargada y mugante entre Carranza y Castilla». Nabarmenki: harriluze izan daiteke abiapuntua.

– *Las barrietas* (Sasia 1907; Garape, XIX. mendean).

Labarrieta ere aurki daiteke. Sasiak honelako mordo bat eman ditu Enkarterrian (1429/1435). Bistan denez, *Olabarrieta* dago funtsean.

– *La Reineta* (Sasia 2109; Trapagan). XIX. mendean *Larrieta* aurki daiteke. Bilboko gartzela ezagunaren izenak ongi argitzen duenez: *Larrinaga*.

– *Repélaga* (Sasia 2123; Portugalete, XIX. mendean). *Larrepelaga* izan daiteke.

– *Parduia* (Sasia 2046; Lanestosa 1863). Euskaraz «lapar» hitzak, «sasia» adierazten du, «zarza». «Otañui», otea dagoen lekua den bezalaxe, *laparduia*, *Lapar* asko dagoen lekua besterik ez da. (Mitxelena, *Apellidos*, 119).

– *Karduia* (Sasia 1344; Somorrostro, 1862). Bide beretik eta *Lakarra* bezalaxe, (ik. Sasia 1448) Galdames (edo *Galdamiz*-en, egokiago), «lakar» asko dagoen lekua. Azkuek dienez zuhaitz-adarra da «lakarra». Agian zuhaitzen bat ere bai.

– *Las Carretas*. Badirudi bide beretik bilatu behar dela honen gakoa: *Lakarreta*, gero *La Carreta*, eta gero plurala... «Las»... *Lakarra*-ren kide hertsia da.

– *Resabal* (Sasia 2124; Barakaldo, 1863). «Artikulua» kendu diote: *Larrezabal*.

– *La Rea* (Sasia 1545; Turtzeoz 1711). Jadanik ezaguna: *Larrea*. Eta bide beretik Ezkaraiko Regutia (J.B. Merino Urrutia, 47). Agerian denez: *Larregutia*, larre txikia.

– *Laluz* (Sasia 1454; Zalla 1863). *Olaluz*-tik, *Egiluz* eta *Etxaluz*, *Egiluze* eta *Etxaluze* diren bezala. Bukaera hori «eluts» ez denean, «luze» da.

– *La Herrera*, oso maiz agertzen da. Askotan *Olaerrea*-tik etorri ohi da.

– *Lagorria* (Sasia 1443, 1444; Santurtzin eta Trapagan). Nabarmen agertzen denez *Olagorria*.

Inoiz ere «el-» maskulinoa ere bereiztea gertatzen da:

– *El Higar* (Sasia, 1200; Balmaseda). Errota bat. *Ihara*, *Eihara*, *Igara*, oso hedatuak daude Euskal Herrian barrena. Bokalk-harmoniazko moldeak dira *I(h)era* sailekoak.

– *El Cenarro* (Sasia 926, Balmaseda). Lehenago, XVIII. mendean *Ezenarro* izan ondoren.

Erdalkeria bihurrituen zerrendak ez du mugarik:

– *Muro* (Sasia II, 397). *Muru*, Nafarroan bezala (ikus *Arterreta*).

– *La Escrita* (Sasia 894; Karrantzako mendia). Zaharrek *Es-kita* esaten diote. *Ezkieta* eta *Ezkiaga* hor daude. Hots, ahoske-ra horrek (+2) azentu zaharra erakusten digu, erdal paroxitonia nagusiaren aurkakoa. *Ezkieta*, beraz. *Gallartak* eta *Eskorzak*, *Gallarreta* eta *Eskauriaza*-ra garamatzate; eta *Bolugak* (Sasia, 772; Somorrostro, 1863), *Bolu(a)ga*-ra. *Deskargak Ezkarra-ga*-ra bezalaxe.

Aita Sasiari ez zitzaion itzuri ahoskera «esdrújulo»aren aldeko joera nabarmena. Zierbenako *Labargak*, horretara, *Labarra* zaharrera garamatza; Araban bezala.

– *La Vega Hurtada* (Sasia 524; Portugaleta). Aspaldiko denboretan *Begaurtaga*; edo, zuzenkiago, *Bagaurtaga*. *Paga-zaurtundua* deiturak iradokitzen duen bidetik.

– *Muñecas* (Sasia 1842/1844). Menan, Güeñesen eta Somorrostron. Güeñesko auzo bati *Amuñicar* deritzo (Sasia 130). Eta, hemen bertan, Amasan, lehen-auzoaren baserriari Muñiki deritzo (plano ofizialetan *Muñoki*).

– *Lanzagorta* (Sasia 210, Gordoxola). *Aranzagorta* zen XVII. mendean. Eta, bide beretik, *Lanzas Agudas*, *Aranzagutia* ez ote den somatzeko oinarriak daude.

– *Aldeacueva* (Sasia 68; Karrantza). *Aldakueba* izan dela seguru da («desde el siglo XV al XIX», dio Sasiak). Erdal dip-tongaketarik gabe *Aldakoba* dugu. Eta hau euskal toponimoa da bete-betean: aldapako kobazuloa. Hots, «hay una enorme cueva en aquel lugar».

Eta azken ohartxo bat bukatzeko. Bai Enkarterrian, bai Zuberoan eta bai Aragoi Garaian, zalantza fonetiko etengabea dago /r/ leuna eta /rr/ dardarkaria bereizteko. Guztiz Jon Arretxek bere tesian Basauriko euskarari buruz aurkitu duen berbera: *uregorri*, *uresuri* (383), urrea eta zilarra adierazteko.

Alternantzia hori, ezaguna denez, oso arkaikoa da.

Toponimia hori ezagututa, aspaldiko denboretan Enkarterriko mintzabidea euskara zela ez da zalantzazkoa.

Eta 903ko dokumentuak (de San Ciprián de Ranero deritzonak) hori erakusten du. Sinatzaileen izenek kutsua uzten dute: Ahostar, Berexa, Araspio, Anasso, Scemenoz, Nequeti, Eita, launso...

Askoz ere beranduago (XV. mendean) Muskizko jauntxo famatuak, Lope de Salazar familiakoak, Munotonizko gaztelu harrigarri horretako jabeek ere euskaraz bazekitela ematen digu aditzera. «En las comarcas de los Vascongados... *ceruarri* hitzek *qué nuevas*» adierazten baitute. Euskal hitz horiek, orduko grafian, *zer barri* irakurri behar dira; /b/ hori herskaria ez izanik (gaur ere ahoskatzen den bezala).

Bide beretik, euskal herrietan «cómo llamauan al moço en su tierra de vascuence»; eta «e dixo que *motila*» (Bienandanzas, XV, 5; Irigoienek gogorazia).

Posible da kronologia apur bat finkatzea?

Horixe egin du berriki Sabino Aguirre Gandarias-ek (Eusko Ikaskuntzako *Cuadernos de Sección* delakoetan (19). 1504 eta 1508 urteetako bi dokumentu argitara eman dituelarik.

X.garren mendean euskalduntzat jo daitezke Muskiz, Somorrostro, Olabarrieta eta Otxaran. Ordurako, Agirrerren ustez, baita geroago ere luzaroan («los encartados siguieron hablando su idioma por más tiempo, con la temprana excepción del valle de Karrantza e inmediaciones»).

Bai XIV. mendean Fernán Pérez de Ayalak, eta bai XV.ean Lope García de Salazarrek, biok bertako kondairalariak direlarik, Enkarterritarrekiko mugante ziren Aiaratarrak, euskalduntzat jotzen zituzten. Jaroslav Lez Rozmital txekiarrak, Villarcayon jarri zuen muga XV. mendean.

Hurrengo mendean, XVI.an, Zaldibia gipuzkoarrak, lerro hauek idatzi zituen: «Háblase esa lengua (euskarari buruz ari da) en Guipúzcoa, Vizcaya y *Encartaciones*, Alava, lo más interior de Navarra, y en Labort y Vascos».

1800 inguruan Galdames eta Güeñesko mugetan (Barakaldo alderakoetan) euskaraz egiten bide zen. Eta joan den

mendeko lehenengo herenean (lehenengo karlistada hastera-koan, beraz) Barakaldoko mintzabide euskara zen. 1900 ingururako, aldiz, karlistaden eta industrigintzaren ondorioz, Barakaldoko zaharrek ez bestek egiten zuten euskaraz.

Honek 1625-1626ko Bizkaiko Juntetara garamatza. Muxikak, Ereñok, Berangok, eta beste zenbait herrik, Barakaldok barne, arazoak izan baitzituzten Gernikan, «porque los comisionados no sabían leer, escribir ni hablar el romance» (ik. Sasia, 76)... Gezurra badirudi ere...

Bonapartek, joan den mendean, euskalduntzat jo zuen Barakaldo, baita Somorrostroko ibarra ere. Eta historilariiek diotenez, Burgosko Losa haranekoek eta Arabako Amurriokoek, lanak izaten zituzten; arabarrek ez baitzekiten gaztelaniaz, ezta Burgoskoek euskaraz ere. Bonaparteren hizkuntz mapa famatua, 1863koa da.

Oso interesgarria da, honi buruz, predikariak zer hizkuntzaz hitz egin behar duten, guztiz behar funtzionala delako, XIX. mendeko lehenengo herenean Aita Añibarro euskal idazleak prestatu zuen herri zerrenda (ikus *Geografía Histórica de la Lengua Vasca*, I, 44.) «Libro Becerro» horretan euskaldun agertzen da Barakaldo (48); eta Encarnaciones, sic, euskaldun lurraldetzat jotzen da. Baina beste xehetasunik gabe.

Delmas-ek 1864an idatzi zuenez, «todavía se hablaba vascuence a principios del siglo pasado (= 1700 inguruan, beraz) en Galdames, y hoy mismo lo hablan muchos vecinos de Gordejuela» (ikus Sasia, 76).

1900 inguruan euskaldunak ziren Arrankudiaga, Gordo-xola, Okondo, Laudio, Baranbio; eta gaur egun, 1994ean, euskaldun daude, osoki zaharren artean, Zollo eta Ugao.

Bilduma bat eginez, eta Irigoienen bidetik, hau esan daiteke. Geure mende honetara arte, euskaldun egon direla Barakaldo, Galdamiz, Gordoxola, Güeñes (Goñi esango al dugu?) eta Zalla. Baina erdaldundurik jadanik Karrantza, Arzenteliz, Turtzeoz, Somorrostro eta Lanestosa.

Barakaldon, lekukoek batera diotenez, Artiba auzoan, euskara entzuten zen oraindik zaharren artean.

Garbi agertzen da gauza bat bederen: kontu zaharra goa

izanik ere (batez ere mendebaldeko Enkarterrian) alde horretatik ere euskarak atzera egin du.

Nerbion eta Ason ibaien artean, eskualde oso bat galdu du Euskal Herriak.

Egiaztapen hauetan ez dago inolako tema negatirik.

Zinez: *Euskal Herria uxatua izan da bere sorterritik*. Zergatik izan da «Reconquista» Gaztelak mairuei kendutako lurraldeak oro, ia Iberia osoa; eta guk Kastro, Ezkarai edo Mena gogoan izan, eta noizpait galdu egin genituela esatea, irredentismo, imperialismo, revanchismo enfermizo, eta ez dakit zer besterik, eta nolako «Conquista» asmo nazkagarria?

Irakurleak dauka erantzuna.

II. «Cueste lo que cueste»

Euskaldun gazteek ez dakite, gaur egun, erdal hitz horiek ze debruri dagozkion...

Nire adinekoak, aldiz (eta zer esanik ez zaharragoak) ongi oroitzen dira «Requeté» en kanta horretaz; eta nekerik gabe eman dezakete, arrapaladan, bertsetaren segida:

*«Cueste lo que cueste
se ha de conseguir,
que vuelva el Rey de España
a la Corte de Madrid»...*

Nola ez, bestalde, frankismoa garai luzeko urteetan barrena, himno «hirukoitz eta ofiziala» ren atal funtsezko eta aldakaitz izan ondoren?

Hegoaldeko gure herriaren parte batek (Nafarroan indartsuago beste hiruretan baino), Espainiako eskuindarren garaitzapenean ipini zituen bere esperantzak; eta horren sinbolo eta bilduma gisa, Errepublikaren etorrera igarokorrak mehatxatutako Erregeren berretorreran, 1936ko gerlari dagokionez, eta laburkiago, Francoren eta fazisten garaitzapenean.

Hots, Francok eta bere lagunek berrogei urtez Hego Euskal Herriko agintaritza beren eskuetan atxeki ondoren, «Requeté»en kantaren sinesgarritasuna ez da, izan, ezelako filosofia arazoa; kondaira-irakurketa hutsa baizik. Eta «Requeté»en helburuak UPNk eta Del Burgok lortu dituztela erantzuten baizaigu, ondorioak ateratzea besterik ez zaigu gelditzen.

Gure herriaren parte handi batek karlismoan («legitimismo monárquico español» erdaraz) somatu zuen soluzioa. Eta suharki borrokatu zen Don Karlosen alde: are armak eskutan behin eta berriz hartuz, eta bizpahiru belaunetan barrena.

Bai Hegoaldean (eta askotan muga administratiboen gaineratik, muga-ohi zaharretara joaz; halako sena atabiko batek euskal sustraiko eskualde guzti-guztiak jo balitu bezala). Eta bai Iparraldean ere.

Ipartarrek zuberotar ezagun baten lekukotasun aparta eta profetikoa utzi digute:

«La distinción de la race et celle du langage, deux beaux privilèges de l'origine, constituent à nos yeux le droit d'un peuple à l'indépendance politique: quand une possession glorieuse et séculaire le consacre, ce droit nous apparaît revêtu d'une inviolable sainteté.

Dès 1834, nous l'avons hautement invoqué en faveur du peuple Basque. Nous ne nous flattons point d'avoir conquis à notre voeu patriotique la sympathie des cabinets européens.

La restauration de la *nationalité vasconne* est encore bien éloignée sans doute; mais *son jour viendra*.

Nous l'avons écrit dans plus d'un livre, il y a plus de dix ans: les marches de Vasconie seront rétablies dans *leur indépendance patriarcale*, protégées par la France et l'Espagne, à l'image des cantons helvétiques: cet acte de justice politique, que la malheureuse Pologne invoque aussi en sa faveur, s'accomplira pour la *Navarre espagnole et pour les provinces basques*, sans combat.

Ou si le droit était méconnu par la force brutale, nos frères trans-pyrénées sauraient en appeler à *Dieu et*

à leur courage» (Agustin Xaho, *Profession de Foi*; in *Courrier de Vasconie*, 1845).

1810ean Atharratzen jaioa, 23 urte zuen Lehenengo Karlistada hasi zenean; eta 1848ko matxinada ezkertiarrean, Baionako matxinatuen burua izan zen. Xaho, profetaz gain, militante sozialista izan baitzen... 1840az geroztik; eta, batera, eskema guztiak hautsiz, Zumalakarregiren miresle sutsu...

Zoritarrez, ordea, Atharratzeko igarle eta gudaria 48 urte zuenean hil zen Baionan. Karlistadan «euskaldunen intsurrezioa» zegoela idatzi ondoren.

Karlismoa, ez dago zertan diximulutan ibili beharrik, tinko itsatsi zen euskal lurretan eta euskaldunen bihotzetan. Zergatik?

Itzul gaitezen harira. Eta kantuz egin dezagun:

«*Don Karlosek emon dau
errege-berbia, errege-berbia,
gure dabela gorde
euskaldun legia*»...

Horixe kantatzen zuten bizkaitar karlistek «zazpi urteetako gerrate»ren garaian («lehenengo Karlistadakoan», bestela esateko).

Euskal gerrarien helburua guztiz garbi agertzen da hor: «euskaldun legea»ri eustea; baita Don Karlosen bandoa zergatik hautatu duten ere: «errege-berbaz» lege zahar hori gordezea agindu duelako.

Horra hor, gardenki, gure bermearen *eskema alienatua* (ez baita batere berria edo sekula ez errepikatua): Euskal Herriak *Espainiako Erregeren hitzean* jarri behar du bere konfiantza osoa.

Gure soluzioa, hitz batez, Madriletik pasatzen.

Madriletik bakarrik ez: Madrilgo bando bakar batetik juxtuan! Gure borondate eta helburuak, bere egingo dituelakoan...

Handik ehun urtetara, isil-isilka, eta frankismoaren gau beltza hasi berria zelarik, orduko gazte abertzaleok, abesti hau ikasi genuen izkutuan:

«Orain jendiak esango du
umore onian gabiltzala,
koadrill(a) hori sarritxotan
deskuidatzen dala edanian...
Eutsi, eutsi
geure bizi-moduari!
ez egin kasorik
atsuen esanari!».

Eta aurreraxeago pasarte hau ematerakoan, elkarri zehar-
ka begiratzen geniolarik:

«...eztegu lotsarik,
eztegu bildurrik,
España utzirik
Madrillen sartzeko
eusko ikurriñarekin»...

Ez omen zuen Zumalakarregik konprenitzen, eta ez uler-
tzen, euskaldun karlistek zergatik eraso eta okupatu behar zu-
ten Bilbo. Eta guk euskal ikurriñarekin Madrilen barrena zer
«pintatzen» dugun ere ez. Euskal Herriaz jabetu behar baitu-
gu, eta ez Madrilez.

Adibide batez, garbiago ikusiko agian: zer «pintatuko» lu-
kete algeriar *fellagh*-ek Champs Elysées etorbidean barrena?

1950 inguru hartan baita gure balentria eta harrokeria se-
paratistetan beretan ere, Madril gogoan. Baita kateak haustera-
koan ere, «la piel de toro» bedeinkatua geure neurri eta aipa-
buru.

Horri, gaizki ez banago, barne-kolonizazioa deritzo...

Fenomeno simetrikoa dugu, noski, Iparraldean.

1947 aldean zabaldu zen Donostiako abertzaleen artean
Iparraldetik iritsi berria omen zen «khantore» hau:

«Sorlekhia ützirik
gazte nintzalarik,
Parisen sarthü nintzan
kurajez betherik.
Plazerez gose-eta
bürían hartürük,

*behar niala alegera bizi.
Bostetan geroztik
nigar egiten dit
Xiberua zuri»...*

Lehengo Madrilen partez, hemen Parise dugu neurri eta miresgune:

*«Zü ützig geroztik
bizi niz trixterik,
abandonatürik,
ezpeita herririk
Parisez besterik
zü bezalakorik»...*

Horra hor, kantuz, gure herriaren irudi fidela eta... hitsa!

Itsu batek ere errepara dezake, berehalaxe, gu 1950 inguruan euskal mundu abertzalera jaio ginenean, Hegoaldeko Madrileria begira bizi ginela; eta Iparraldekoak, simetria harri-garran, Pariseran so.

Euskaldunak berak, halere, eta oro har, ez ziren erdibiketa horretaz batere jabetzen .

Orain dela 30 urte, etxeko apaingarri nagusi Joffre mariskalaren fotoa gailen agertzen zen ipartar etxeetan, «eskualdun purrak» izan uste zuten bertakoek. Eta, alderantziz, Tercioetako piperpotoa ohore bihurtua zen hegotarrenetan, «vasco-navarro» huts, «montañés», «kantabres fin», are «euzkotar» leial, eta nik dakita zer besterik, uste izan zuten.

Alienazio osoaren bi muturrek, horrela, kosk egiten zioten elkarri.

Egoera horren argigarri, eta karlistadak hasterakoan euskaldunek berek beren buruari nola irizten zioten hobeki ulertu nahiz, mintza bekizkigu joan den mendeko bertsolari batzuk.

Luzeegi ez gertatzekotan, perla bakan batzuk gogoraziko ditugu soilik: bai liberalengandik, bai «legitimistengandik» ja-soak. (Ikus, bereziki, *Aprikako gerra, 1859-1860*, A. Zabalak prestatua; Auspoa 129, 1977. Nahiz, egia esan, Tolosako jesuitak, nekagaitz, urte luzetan barrena bildu duen Sail osoa,

dokumentu sozial eta harrobi paregabe izan euskal XIX. mendea ulertzeko. Baina, jakina, euskara hutsezkoa denez... ezezagun egongo da luzaz erdaldun historilari eta ikertzaileen artean).

Eta has gaitzen honetatik:

*«Gure euskaldun maiteak,
orain da denbora.
Esan biotzetikan:
Españolak gera!
Gerra gustokoa degu!» (43)*

Horra hor Espainiarekiko lotura garbiki aitortua. Eta hori bezain nabarmenki gerra inperialistarekiko harrokeria.

*«Españolok ez degu
moruen bildurrik» (70)*

Espainiar joera hori ez da batere iraungiorra, 1896ko lerro hauek erakusten dutenez:

*«Española beti da
noblea eta fiña,
orain artean iñork
bentzutu eziña»*

Euskalduna (are «liberala» ere) bere espainiartasunaz harroturik agertzen zaigu.

Hizkuntzaren arazoa dago tartean, etengabe. Eta ahalik eta soluziorik espagnolena bilatu nahiz, erdara lerroka nahasteko joera azkartzen da:

*«Adorado Fernando
zazpigarrenkoa,
oh Rey esclarecido
Españiako!
Majestad soberana
biyotz gurekoa,
recibe el homenaje
Donostiyakoa»*

Poesia hau 1828an asmatu zen Fernando VII.aren ohoretan, eta Plaza Berriko Udaletxe berriko lehenengo harria ezarri zenean estrainatu.

Buruzagitza politikoak horretaturik, «sed de imperio» famatua hasten da senditzen bazterretan:

*«degollando los moros
Tetuan artzeko,
enseguida Tánger
guretzat betiko» (40)*

Kolonialismoaren alorrean bederen, ez da batere garbi agertzen liberalen ezker kutsurik batere!

*«Tángerren ipiñirik
español bandera,
denbora labor barru
etxerako gera» (37)*

Batzuetan haratago doa euskaldunen inperialista garra:

*«¡Guerra al moro! del vasco es el grito,
que su Reina Isabel dió esta voz:
¡A vanguardia la boina encarnada!
Lleve al campo enemigo el terror» (59)*

Horra hor fazismo huts-hutsa «Libertad» delakoaren ize-
nean. Eta ohar txiki bat: «txapelgorriak» liberalak zirela... Ofi-
ziale karlisten ezaugarria, hain zuzen, eta pentsatu ohi dena-
ren aurka, txapel zuria zen.

Zenbait aldiz Cid Campeadorea bera mintzo bide da eus-
kaldunen ahoetatik:

*«que es la España su patria querida,
y es la Patria del Cid Campeador» (ibid., 59)*

Ez da batere harrizkoa gure hiri liberaletan, erdal izen-
dapenak ugaltzea: «El Cuartel Real», «El Sitio», «La Unión Ar-
tesana»...

Bihotzak at daude. Madrilen preseski.

Mihiak, ezinez, ez. Unamunok madarikatzen zuen euskal
«mula» (=mando) kaltegarria, bizirik dago.

Hizkuntzaren aldetik, Euskal Herriaren «integrazio» bikoitza (gure «desintegrazio» bikoitza zehazkiago) XIX. mendearen haseran lortuta ez bazegoen ere, psikologia politikoaren alde-
tik, aldiz, abiatua zen irmoki nazio-deuseztapenaren prozesua.

Klase agintarien ondotik (arestian gogorazitako kantu herrikoietan soma daitekeenez) herria ere prest zegoen «harakiri» etnikoa egiteko; horren irrikan bizi zela esatea hobe litzateke, frantses zein espainiar zintzo eta leial bihurtzeko.

Baina nazio-projektu arrotz eta bikunaren onarpen horrekiko, aurrez aurre kontrajarririk, kontraesan guztizkoan, beste errealtate hau agertzen zen sendo: bere objektibitate hertsia eta itsuan, Euskal Herriak zirauen hor. Alegia, sorkuraz etxezoletan euskaraz mintzo zen herria: «el pueblo del basconz», Esparzak antzinetatik berreskuratutako esamoldea erabiltzekotan, hortxe topatzen.

Hizkera ofizialaren arabera: «las Provincias» («Vascongadas» batzuetan, nahiz ez beti); «y el Reino de Navarra». Hortxe zegoen gure herria, *de facto*, mila modutara bereizia. Baita bertakoek berek, gure arbaso laburrek, «nos ancêtres les gaulois» larrubeltzen ildotik, beren burua amorruez eta ezinez «español» aitortzen bazuten ere.

Zorrozki ulertu zuen hau John Hay almiranteak, Pasaiatik 1839an, bidalitako bere txostenean lerro mamitsu hauek idatzi zituenen: «nunca se miraron (vascos y castellanos) en el pasado, como miembros de la misma familia» (Idoia Estornes, in *Carlismo y Abolición Foral*, 14. Eraskina, 227).

Euskal herritar gerrariak berek zer zeritzoten alde batera utzirik ere, oso gauza nabarmena da, bai Lehenengo Karlistadan (1833-1839), bai Bigarrenean (1872-1876), benetako «lurralde liberatu» gisa bizi izan zen eskualde geografikoa, bateko, eta «euskaraz mintzo» zen eskualde geografikoa, besteko, eskualde berbera zirela.

Honen frogabide erraza du irakurleak gaur egun.

Gipuzkoako Goierrin, Zumarraga eta Beasainen artean, Ormaiztegi herrian, Zumalakarregi Museoa zabaldu zuen Diputazioak 1989an.

Gela haietan sartu orduko, paretetatik zintzilik, mapa interesgarria erreparatuko du bisitariak: Zumalakarregiren garaian karlistek kontrolpean zeukaten eskualdearen mapa.

Hots, gaur egun edozein euskaltzalek ezagutzen duen Bonaparteren hizkuntz mapa koloredunaz (1869koaz) oroitzea, ezinbesteko gertatuko zaio bisitari horri.

Zergatik? Bi mapa horiek (karlistena eta euskaldunena), oro har, mapa berbera direlako. Lehenengo Karlistadako urteetan euskaraz mintzo zen eskualdeak gogor ekin zion Madrilgo «gobernu ofizialari»; egiazko gotorleku bihurtuz. Nahiz (gaur bezalaxe, egia esan) orduan ere hamaika euskaldun egon Madrilgo gobernu ofizialaren alde.

Mapa horiek alderatuz, zinez dirudi Hego Euskal Herria altxa zela Madrilen kontra. Orain Lehenengo Karlistadaz mintzatuko gara.

Xaho ziberutarrak «Insurrection des Basques» aipatu zuen bere lekuko-liburu nagusian.

Gutxiegitan aipatu ohi den Barrès du Molard-en *Mémoires sur la guerre de la Navarre* liburuak (1842), bide beretik bultzatzen gaitu. Eta Barrès horrek ongi ezagutu zuen gatazka; Carlos V.aren zerbitzuko koronel nagusia izan baitzen gerla garaian.

Hona hemen, beren hartan, liburuan irakur ditzakegun hitzak: «cet idiome (Basque) se retire de plus en plus vers les sommités des monts, pour disparaître du plat pays; au point que dans les villages des environs d'Estella il n'y a plus guère que les vieillards qui aient conservé l'habitude de parler Basque».

Lekukotasun hau zehatza da (askoz ere zehatzagoa, adibidez, Henningsen-ena baino). Euskaraz mintzatzekotan hau idatzi behar: Lehenengo Karlistadakoan –B. de Molardek dinoskunez– Lizarra inguruko herrisketan, zaharrek ez bestek eusten zioten orduan euskaraz hitzegiteko usadio zaharrari; gazteagoak, aldiz, erdarara jotzen hasiak zirelarik.

Inolako euskaltzaletasun jakitunik, oste txiro eta ezjakin hartan alferrik bilatu nahi izan ez arren, gauza nabarmena da (bi Karlistadetan hau) euskaldun gerrilariak, aisago komunikatu beharrez bestegatik ez bazen ere, «bertako» buruzagiak nahiago eta maiteago zituztela, kanpotikako militar arrotzak eta «ojalateroak» baino.

Hots, eta hain zuzen ere, Gorteko jauntxoek eta erregetza-beretterrek, «ojalatero» erdaldunak nahiago behin eta berriz...

Batere abertzalea ez den Extramianak berak, ezinbestean, deplauki aitortzen du hau: «los voluntarios prefieren que les mande gente de la provincia que conozca el euskera» (*Historia de las Guerras Carlistas*, IX. liburukia, 188).

Baina lupaz bilatu behar da euskararen presentzia. Kronikariek ez dute euskal hitzik bat ere transkribatzen. Francoren garaiko auto-zentsura baino gogorragoa dago. Piralari oste karlisten «aurrera mutillac» oihu bildurgarriaren maiztasuna «itzurtzen» zaio halako batez...

Eta salbuespen horien artean Nicomedes Pastor Díaz eta Francisco de Cárdenas kronikariak aipatu beharra dago (*Galería de Españoles célebres*; Madrid, 1842). «Bergarako Besarkadaz» mintzo delarik (eta gu geu ere puntu honetara itzuliko gara berriro), Moraytak bezalaxe (hitz berberetz esan daiteke) kondatzen digu gipuzkoar karlisten isilune adierazgarriarena.

Baina itzulpen kaxkar eta motx hau erantsiz: «quinorac» (61). («Gizonak» transkribatu nahi bide zuen: «muchachos»). Batalloiek «la paz, la paz» erantzun omen zuten. Sineskaitza dena. «Bakea, bakea» erantzun zutela somatzen dugu; «quinorac» horrek euskal kutsua baitu, eta jende hark ez baitzuen erdaraz ulertu ere egiten...

Baina, irakurleak ongi daki gakoa: «¡ya vale, tío!»...

Karlistadetan euskaldunek bultzatu zuten. Espainiar «legitimistek» ez zuten inoiz indar handirik lortu. Hauxe azpimarratuko dugu laburki ondoko orrialdeetan.

Karlistadaren kronikari zorrotza izandako Augustin Xaho atharraztarrak azaldu zuen hau gardenki haseratik.

Eta hitzez hitz kopiatuko ditugun lerro hauek, garbi erakusten digute karlismoaren gakoa:

«Nous prions les Basques de réfléchir que pendant six ans ils ont fait toute la force des 'Ojalateros' contre le reste de l'Espagne, où à peine, *au milieu de la profonde indifférence des populations*, on a pu recruter dans l'Aragon, la Catalogne et la Manche cinq ou six mille bandits auxiliaires. La faction qui n'avait d'appui que dans les Basques, et qui les a sacrifiés» (ikus *Le Courrier de Vasconie*; 1846-VII-23).

Ez zen hau batere «ojalateroen» propaganda ofizialak barreiatzen zuen mezua: espainiar «legitimistek» zeramatela borrokaren zama nagusia; euskaldunek halako «giro» urruna erasten omen zutelarik...

Gertakariak aztertzen direnean, aldiz, beste hau agertzen da garbiki: arazo dinastikoak, gorteak, ojalateroak, sermoi be-roak, eta abar, ikur desbideratzaile hutsak direla. Borroka la-tza, sekulako sofrikarioz oratua, euskal herri xeheak baitarama aurrera (Extramiana, ibid. 117).

Dударик gabe: osoa da apezzeria apalaren laguntza (are zuzendaritza armatuaren planoan ere ez gutxitan); eta honen ondorio ideologikoari buruz, ezer argitu beharrik ez dago. Ofizialki batez ere, euskaldun karlistak apezkoiak eta elizkoiak dira.

Eta etsenplua goitik dator: gauza ezaguna da (eta orduko ere bazen) Don Carlos Maria Isidro de Borbon-en gelako pare-tetan, birjinak eta «xantuak» (oraingoan, hertsiki) zirela apain-garri nagusia.

Antologiakoak dira Carlos (Maria Isidro) errege-nahiak Fernando VII.ari bidalitako eskutitzak. Hemen ezin denak ko-pia.

Betor hau, «botoi» gisa, Damalhao-tik 1833ko apirilaren 29an Fernando anaia eta erregeari idatzirikoa:

«Mi muy querido de mi corazón, Fernando mío de mi vida... Adiós, mi muy querido hermano de mi cora-zón: siempre lo será tuyo, siempre te querrá, siempre te tendrá presente en sus oraciones, éste tu amante hermano: Carlos»...

Edo-ta, urte bereko maiatzaren 13ko beste hau:

«Mi muy querido hermano de mi corazón, Fer-nando mío de mi vida... Adiós, querido Fernando mío; cree que te ama de corazón, como siempre te ha ama-do y te amará éste tu más amante hermano»...

Horrelako maitasunezko zinen artean oratu zen Zazpi Ur-teetako Gerrate krudela... Baina erregeen gezurra ez omen da gezurra...

«No ambiciono el trono; estoy lejos de codiciar bienes caducos –Fernando VII hil eta hilabetera idatzita– pero la religión, la observancia y cumplimiento de la ley fundamental de sucesión, y la singular obligación de defender los derechos imprescriptibles de mis hijos y todos mis amados consanguíneos, me esfuerzan a sostener y defender la Corona de España del violento despojo que de ella me ha causado una sanción tan ilegal como destructora de la ley que legítimamente y sin alteración debe ser perpetua»... (Carlos mintzo, jakina).

Nekez sinets daiteke horietxek izan zirela gure baserritarak mendira eraman zituzten arrazoinak!

Hain zuzen ere, Don Karlosen Gorteak gerla-garaian erabiltzen zuen dotorekeriak, uxatu egiten zituen karlista herritarak. Nola konpreni, hitz batez, horren desbideraketa nabarmenen gainetik, gure herriak zazpi urtez, eta gero beste bosetez, bandera eta argudio arrotz horien alde bizia bera ematea?

Irakur dezagun kondaira etsenplu hori: gaur desbideratua eta alienatua zaigun arrazoin-bidea, onargarri gertatu zitzairen gure arbasoei. Gure arbasoen zuzendariei bederen. Eta, txintxo-txintxo, bizia bera eman zuten. «Creer lo que no vemos», bada-kizue... Eta ikusten saiatzea, bekatu, eta madarikazio iturri. Mundua ez baita erruz aldatu.

Baina gu geure hari nagusira berriro.

Karlismoak Hego Euskal Herrian izan zituen sustrai sendoak. Kataluñan pittin bat. Eta kitto. Hauxe da egia.

Nahiz, sistematikoki, espainiar inperialistek eta bertako espainolistek, abstrakzio-nahia «pretesto», egia nabarmen hori ukatu, desitxuratu eta izkutatu.

«Karlos Setimo»ren gerratean haratago eraman zen euskal errealitate hori.

Hiriak salbu, Euskal Herriaren gain-gainean, eta geografimuga berberen barruan, eraiki zen euskal sasi-Estatu karlista. «El mini-Estado rebelde», ikuskera ofizialaren arabera.

Karlos V eta Karlos VII erregeen manupean antolatu zen Estatua, helburuz eta ideologiaz arrunt nahasia; eta aginpide-

az zeharo koloka muntaturik ere (aginte karlista berez baitzen gerla-agintea), ez al zen izan, benetan, euskal instituzio nazionalen aurre-sorkaria? Zergatik euskal Estatu karlista ez, eta La-kuakoa eta «Amejoramiento»aren emaitzak bai?

De facto, eta eremuz eta agintez, are gure Lege Zaharrarekiko errespetuaren aldetik, (Auto-Gobernuaren aldetik, modernoago hitzeginda), Nafarroako Erreinua eta Euskal Estatu «vasco-navarro»a, nazio-eraikuntzako katenbegitzat hartu behar dira. Eta honetxek azal dezake, eta ez besterik ezerk, euskaldunen atxekimendu beroa.

Honen arrasto bitxiak ere badaude.

Zumalakarregik 1834eko martxoaren 8an argitaratutako Agirian, honela izenpetu zuen: «en nombre de Carlos V de Castilla y VIII de Navarra». Eta bide berberetik, Nafarroako Diputazio «Liberalak» berak, deia egin zuen Isabel Erreginaren alde: «Isabel II de Castilla y I de Navarra». Nominalismo hutsa ikusi behar al da hizkera horretan?

Karlismoa herri mugimendu sendoa izan zen Euskal Herrian. Espainian ez. Noizpait berreskuratu egingo du herri honek XIX. mendeko kondaira odoltsu eta tragikoa.

Iradokizun batzuk bakarrik xede horretan.

Eta Lehenengo Karlistadari gagozkiolarik, berrirakur dezagun *Elliot-en Ituna* (1835ekoa). Ikus beza irakurleak, adibidez, Pi i Margall-en *Historia de España en el siglo XIX* Saila. II. liburukia, 710. orr. eta hurrengoak.

Lehenengo Karlistadako basakeriak etetekotan sinatua, honela zioen:

«Art. 1 – Los generales en jefe de los ejércitos actualmente en guerra en las provincias de Vizcaya, Guipúzcoa y Alava, y en el Reino de Navarra, convienen en que...»

Egin dezagun geldiu-netxo bat: Hego Euskal Herrian dagoen gerla aipatzen da Itunean argi eta garbi. Eta ez besterik.

Goazen aurrera:

«Art. 8 – Si la guerra se extiende a otras provincias, se observarán las mismas condiciones que en las provincias de Guipúzcoa, Alava y Vizcaya, y el Reino de Navarra».

Gerla heda badadi. Hortaz: hedatua ez den seinale!

Kataluñako karlisten buruzagia zen Cabrera jeneralak ez zuen Ituna sinatu nahi izan. Eta are gutxiago topatzen ditugu honetan loturik Merino gaztelar apaiza eta antzekoak.

Elliot-en Ituna Zumalakarregik sinatu zuen euskal aldetik (karlista aldetik, beraz); eta Jerónimo Valdés jeneral liberalak espainiar aldetik.

«Habiendo sido firmado este tratado por duplicado, se ha cambiado el puesto de las firmas de los dos generales, a fin de que hubiese paridad perfecta entre los dos partidos» – Cuartel de Logroño, a 27 de abril de 1835 (Valdés); eta Cuartel general de Eulate, a 28 de abril de 1835; Zumalakarregi eta Elliot.

Non da karlismo español famatua?

Jose Manuel de Arizaga, Armada «Vasco-Navarro»ko Auditoreak, beste hamaika lekukok bezala, «levantamiento vasco-navarro» aipatzen du bere *Oroitzapenetan* (1840; 5. orr.).

Zergatik euskaldun «faccioso»en artean «Abajo los castellanos» esaldia hain maiz entzuten?

Zergatik Lizarrako Matxinadan (1838ko urtarrilean) karlista batailoien oihu hura: «¡Mueran los ojalateros! ¡Abajo los castellanos!»; Felipe Urra matxinatua afusilaturik hil arte?

Nondik nora Baionako *Le Phare de Bayonne* aldizkariaren iritzia? Iparraldeko kazetak «cause navarraise» aipatzen baitzuen karlismoaz hitzegitean. Eta honetan «euskal nazio arazo» garbia somatzen baitzuen.

Hona hemen, Zumalakarregi hiltzean, *Phare de Bayonne* delakoak izkiriatu zituen lerroak: «Qu'on ne s'y trompe pas, le principe national de la guerre est détruit; reste simplement et à

découvert le seul principe absolutiste: la légitimité. Il n'y a plus de Navarre; il n'y a qu'un roi qui combat la tête nue»... «La cause perd ce qui la rendait victorieuse, et ce qui lui donnait outre la force des armes la force morale. Zumalacarregui a entraîné avec lui tout un côté de la question... Don Carlos prend le commandement: c'est le chef d'une autre armée... l'insurrection a changé d'objet».

Iritzi berekoak ziren jeneral liberalak urtebetez geroztik: «He creído y creo que todo el foco de la rebelión está en Navarra, y en lo imponente de su resistencia» (1834eko otsaileko txosten ofizialean).

Baina, ildo beretik, ezin adierazgarriagoak dira Miguel Gómez eta gainerakoen «espedizio» errekaratuen kontuak.

Irakur dezagun Pi i Margall-en testu hau (*Hist.*, II, 722):

«Medraban poco las facciones en Castilla... y Asturias y Galicia no habían respondido por su parte al movimiento rebelde». Euskara batuaz: Karlismo legitimista espainolaren proiektuak ez zituen bazterrak harrotzen eta espainiarrak mendira bidaltzen.

Eta, ezintasun hura zela-bide, «para levantar estas últimas provincias y distraer la atención del Gobierno, organizóse una expedición al mando del ex-coronel don Miguel Gómez; que salió de Amurrio, el 26 de junio de aquel 1836, al frente de 2.800 infantes, 200 jinetes y dos piezas de artillería» (Ibid. 722).

Euskal Herritik irten zen Espainia aldera.

Ez dut ibilaldi hura zehatz-mehatz azalduko. Badago, egon, baita Gómezen beraren kondaira (*Historia de la Expedición del rebelde Gómez*; Madrid, marzo 1839).

Asturias kurritu zuen Gómezek, eta Galiza, eta León. Gero Cangas de Onís-a aldatu zen, eta Palenciara; beti ere «marchando y contra-marchando, según las noticias que recibía de la dirección». Leku guztietan «oso harrera ona», omen. Hala-ko batez lotura egin zuen Cabrerarekin, eta Requenera jo zuen. Eta Albacetera. Eta aurrerago Córdoba eta Cáceres-a. Eta abar.

Eta abenduaren 20an, Urduñara itzuli zen, «con mayor número de infantes y triple caballería que a su salida»...

Sei hilabetez ibili zen, hitz batez, atzera eta aurrera Espainian barrena («durante 5 meses y 24 días», zehazkiago), tropa ofizial espainoleatik ihesi, 4.200 kilometro ginez.

Baina «ojalateroek» segurutzat zeukaten katalizatzaile-efekturik ez zen egon. Espainiar oste indartsu famatuak... ez ziren altxatu, ezta mugitu ere... Orduan ere, «terrorismoa» Euskal Herriko landare bitxia zen, Espainian ez hozitzen...

Eta gauza berbera gertatu zitzaizen Sanz eta Basilio García gerrilariei, eta Zaratiegi nafartar eta Zumalakarregi adiskide leialari. Bata Bizkaira itzuli zen, «sin haber alcanzado ventaja de ninguna clase»; bestea, berriz, «regresó a Navarra»; eta hirugarrena, porrota bizkar gainean, «regresó a las Provincias Vascongadas».

Euskal Herritik «irteten» ziren gerrila-predikari haiek; pa-seialdi tragiko-komiko bat egiten zuten Espainia arrotzean barrena, etengabe ihesi; eta, azkenean, «sartu» egiten ziren Euskal Herrira, «itzuli» egiten ziren, eta bertan kokatzen eta indarberritzen...

Gerrate hura Euskal Herriko kontua baitzen, eta ez Espainiakoa: «En las provincias del Norte estaba el núcleo de la guerra» (Pi, II, 715). Euskaldunok «norteño» eta Euskal Herria «el Norte» deitzea, ez baita atzo goizeko kontua!...

Espainian bertan ari ziren gerrilari batzuen izenak kontutan hartzea aski da, bestalde, (Garmendia, Gorostidi kalonjea, etab.) Karlismo espainolaren indarra hobeki neurtzeko.

Baina Bergarako Besarkadaren aurreko egunetan gertatutakoak (1839ko abuztuaren 27an), hamaika aldiz mozorrotuta, jukutria hutsaltzat eta garrantzirik gabeko pasadizu gisa aurkeztua izan ondoren, merezi du aipamen berezirik (liburu honetan behintzat!). Mintza bekigu Morayta historilaria (ibid. Pi M., II, 741):

«Al llegar ante los batallones guipuzcoanos, Don Carlos les recordó su fidelidad, sus juramentos; y como aquellos vo-

luntarios permanecieran impasibles, un tanto amoscado, exclamó:

– ¡Nadie me oye?

– Señor –díjole el General Lardizabal– son todos vizcaínos y no entienden a V.M.

– Pues tradúceles mis palabras.

Lardizabal les dijo en vascuence:

– ¡Muchachos: este hombre pregunta si queréis la paz o la guerra! ¡Contestadle!

– ¡La paz! ¡La paz! –gritaron miles de voces.

Y Don Carlos, no queriendo oír más, partió a uña de caballo hacia Villafranca»...

Gipuzkoar karlistek ez zuten ulertu ere egiten erdaraz; eta Lardizabal jeneralak, hertsiki mintzatuz, itzultzaile-lana egin behar izan zuen. Don Karlos errege ez baitzen gauza zuzenean bere jarraitzaileekin mintzatzeko!

Espainiar kondairalarien funtsezko arrotasun hori ezin nabarmenago agertzen da.

Pi i Margallen *Kondaira* (interesgarriaren) II. liburuki horretantxe (742/743 orrialdeen artean), koloretako orri berezian, *El Abrazo de Vergara* irudia ikus daiteke. Zaldi mordo bat bertan, hiru «txapelgorri» zaldiz, eta bi «txapelxuri» aldamenean, piperpotoa eskuin alderago agertzen delarik. Ere mu zabal, hori eta idorra, Bergarako (?) ezaugarri nagusi. Mendi arrastorik ez, itxura denez, Osintxu, Elgeta eta Arrasate artean. Dekretuz, antza, Albaceteko eremu bihurtu zaigu Debarroa... Bergara Espainia baita! Bapo, mutilak! Horretan ere ongi erreparatzen baita «periférico»on desberdintasunak ulertzeko eta errespetatzeko modua. Eta, kasu, Pi i Margall federalistaren liburu bati buruz ari gara. Atera kontuak...

Beste xehetasun txiki baina adierazgarri horietako bat.

Lehenengo Karlistadari buruz idatzi duten autorerik gehienek, euskal fonologiak (euskal belarriak, herrikoiago mintzatzera) iradokitzen duenaren aurka, «Zariátegui» errepi-katzen dute behin eta berriz. Gaur egun «kaia», *caía* ahoska-

tzen duten arrazoin berberarengatik; edo-ta, lehenago, gure «Eibar», *eibar*, hiru silabatan, esan ohi zuten bezala.

Hots, aski da Pirala famatuaren kondaira esku artean hartu, eta IV. liburukiko 168. orrialdean datorren erretratua (Cuevas-ek margotua) arreta apur batez begiratzea.

Erretratuak Zumalakarregiren borrokakidearen beraren sinadura eta zertzeladak dakartza. Oliten 1804eko urtarrilaren 27an jaioa zela dinoskue, eta beraren izelonebrearekin badakar: *Juan Antonio Zaratiegui y Celigueta*. Baina berdin da. Madril-en Zariátegui nahiago dutenez, *Zaratiegi...* fuera!

Bigarren Karlistadaren kondairetan ere, plegu bereko «bixikeriak» somatzen dira.

Batere gure aldekoa ez den Extramianak Euskal Herriaren «independencia de hecho» egon zela dio, Bigarren Karlistadaz mintzo delarik (ikus *Historia de las Guerras Carlistas*, in *Historia General del País Vasco*, vol. IX, 346).

«Estado Carlista Vasco» behin eta berriz irakurtzen da garaiko testuetan; Karlos Setimo izenekoak benetako Estatu bat eraiki baitzuen hiru urtez Hego Euskal Herrian. Eta balio simbolikoa baino gehiago izan zuen Don Karlosek Gernikan, 1875eko uztailaren 3an, Foruaren zina euskaldun agintarien aurrean egitea.

Kontutan har, bestalde, Karlos Setimoaren mini-Estatu hartan, Diputazioek agintzen zutela (eta ez Erregek), eta Foruaren arabera gobernatzen zutela.

Ohar bat hasteko: «Se repite así la situación de 1835: cae en manos carlistas toda Vizcaya, menos Bilbao y Portugalete; toda Guipúzcoa, menos los pasillos Tolosa-San Sebastián-Irún; toda Navarra, menos Pamplona, Estella y parte de la zona ribereña; la totalidad de Alava, menos Vitoria y Laguardia. Los trenes procedentes de Madrid no pasarán, hasta 1876, de Miranda de Ebro» (euskaldunek hobeki ezagutu behar luketen *Carlismo y Abolición foral* liburuan; Auñamendi 107; 1976. Idoia Estornes Zubizarretak idatzia).

Bigarren Karlistadaren garaian, «hasta los mineros se en-

rolan en el campo insurrecto: son carlistas hasta las piedras» (Extramiana, nota, ib. 165). Euskal Herri osoa, hiri erdaldunduak salbu, legetik at bizi da. Haseratik beretik hori. 1873ko abenduan Bilbora «laguntza» helerazi nahi zaionean, eta segurtasun arrazoinengatik, «desembarcan (la ayuda) en la provincia de Santander, pues considera que esta región es más segura» (210).

Zerbitzu nagusien faltak erakusten du ongi egoera politiko-a zertan zen.

Bigarren Karlistadaren garaian, bi zerbitzu publiko agertzen dira Estatuaren ikur nagusi: trena eta telegrafoa (esan beharrik ez: Zumalakarregik ez zituen ezagutu, ez bata ez bestea; Lehenengo Karlistada Bigarrena baino aisa «arkaikoago» agertuz).

«Ordenuaren defendatzaileek», horretara, ezinbestezko betebehartzat hartzen zuten bi zerbitzuon «normaltasuna»: «la primera tarea ha de consistir en evitar los atentados contra el ferrocarril y el telégrafo» (ib. 154). Halaz ere, «el telégrafo y el ferrocarril dejan de funcionar» (119) (1872).

Hots, ezin hori segurta! Oraingo egoeraz arrangurutzen da Madril. Baina ikusia du askoz okerragorik!

1873an gaurko «herri-borroka»ren itxura oso-osea zuen gure herrialdeak.

Alde batetik, liberalek berek aitortzen dute, zenbait aldiz, halako «kolore politiko bitxia» hartzen zuela «Norte-ko gerralak»: «como dice el general en jefe, en una frase cuyo sentido no comprende él totalmente, la guerra (parece) más política que militar» (Extramiana, 127).

Baina hau Euskal Herrian bakarrik: «En la mayor parte de las regiones españolas, la guerra no supera la etapa de la simple acción policíaca» (283). «Aparece con claridad que la guerra en las demás regiones españolas no ha alcanzado nunca un nivel comparable al que ha tenido en el País Vasco, donde el carlismo es muy peculiar» (285).

Karlista gerrilariak, perretxikoak bezala jaiotzen eta ugaltzen dira; eta Extramianak «alzamiento casi espontáneo» ikusten du Euskal Herrian (ib. 198).

Giro horretan espainiar indar armatu ofizialak *okupazio-indartzat* agertzen dira herriaren aurrean. Eta, hori izkutatze-ko, indar dotorea asmatzen du okupatzaileak, mozorrotzeko: «los voluntarios de la Libertad» (198). Zapalketaren indarrak, bertako «progre»ren laguntzaz, «armada liberatzaile» bihurtzen dira. Concha jeneral okupatzaileak –J.M. Esparak, berriki eta oso bidez, zorrozki gogoratu duenez– bere kalea du Bilbon. Baina bi Karlistadetan buruzagi, eta Bigarreanean Concha jeneral horretxen etsai nagusi izandako Castor Andetxaga gerrilaria... ohore beraren zai dago oraindik; baita egongo ere!

Hain zuzen ere, zein eragile atabikoren arabera konpre-
nitzen ez dugun arren, Andetxagak lortu zuen Enkarterriko eta Mena Haraneko karlisten laguntza mugagabea. Bizente Manterola donostiar kalonje euskaltzale eta super-eskuindarra, bere heriotzeko ekintzetan hizlari izatea erdietsi zuen; apez gazteen eskolatzaileaz batera gerrilarien egur emale bihurtuz. Eta Bizkaiko muga administratibo berrien axala erakutsiz.

Lehenengo Karlistadakoan ere antzeko oharrak egiten zitu-
tuzten kronikari liberalek. «En Eibar se presentaron pidiendo
armas y municiones hasta los ancianos de más de 70 años de
edad, y los muchachos de 13 y 14» (*Panorama Español*).

Izendapenek egia kontra-ispilatzen dute kasu honetan; eta 1872az geroztik (haseratik, beraz), Don Karlosekiko agin-
te-balantza egiten duen instituzioari, «Junta Militar Vasco-Na-
varra» deritzo.

Karlos Setimoren Euskal Estatuak lau hiriburu izan zituen: Oñati eta Tolosa, Gipuzkoan; Durango, Bizkaian; eta Lizarra, Nafarroan. Hain zuzen ere, lau hiri horietantxe argitara zen gerra-urteetan *El Cuartel Real* izeneko karlista aldizkari ofizia-
la.

Txanpona ere kalera zen Oñatin (ondoko urteetan famatu
egingo ziren «txakurrandi» eta «txakurtxikiak»). Eta posta-zigi-
luak ere bai.

Don Karlosen jokabideak askoz ere «separatistago» izan
ziren, gero «abertzale» izeneko partiduek eratu dituzten «Jaur-
laritzarenak» baino.

Horrekiko erantzunez, latzak dira Madrilek hartzen di-
tuen jokabideak.

Lizarraga jeneralak, adibidez, haseratik beretik (1873) es-

painiar gobernuak izendatutako Udal ofizialak, Euskal Forua-
ren arabera aukeratuak izan beharrean, «espainiar legetasuna-
ren» bidetik antolatu zirela-ta, ezeztatu egin zituen (Ardanzak
bezalaxe, hitz batez...) Hura bai, gori-gori, bi aginpide etsai-
ren arteko talka.

«Ese comportamiento –baita Gernikan eta Ordizian Don
Karlosek egindako Foru-Zinak– va a dar sus frutos, y la juven-
tud vasca se alista con entusiasmo en las filas carlistas. El ras-
go dominante es la adhesión masiva a los legitimistas. Surgen
bandas armadas, en muy poco tiempo, en las cuatro provin-
cias» (ib. 174).

(Bidenabar esateko: euskal «banda armada» delakoen
arazoa ez da atzo goizeko kontua...).

Eta hauteskundeek ez dute ikuspegi orokor hau hirietatik
at, karlisten aginduak betetzen zituen euskaldun herriak her-
tsi-hertsiki. Ez Madril-Fikako dekretuak.

Karlistek abstentziara jotzen zutenean, esate baterako,
herriak ez zuen borroka elektoralean batere parte hartzen:
«Fuera de Bilbao –dio Extramianak– la participación electoral
es inferior al 1%».

Aldiz, jokoan parte hartzea erabakitzen zutenean, gehien-
go nabarmena lortzen zuten Hegoaldeko lau probintzietan.

1870eko azaroaren 16an, II. Karlistada hasi baino lehen-
ago, hortaz, arrakasta gaitz hau lortu zuten karlistek Hego Eus-
kal Herrian:

Araban	= 2 zizailutatik,	2 (%100)
Bizkaian	= 4 zizailutatik,	4 (%100)
Gipuzkoan	= 4 zizailutatik,	3 (% 75)
Nafarroan	= 7 zizailutatik,	6 (% 86)

(Idoia Estornes, ibid., 152).

1872ko apirilean ere, Espainiako gertaerez guztiz bestal-
dera, emaitzak hauek izan ziren:

Araban	= 2 zizailutatik,	1 (% 50)
Bizkaian	= 4 zizailutatik,	4 (%100)
Gipuzkoan	= 4 zizailutatik,	3 (% 75)
Nafarroan	= 7 zizailutatik,	6 (% 86)

(Estornes, 155).

Erromerietako istiluak aisa ulertzen dira: «Las fiestas populares o romerías se transforman fácilmente en manifestaciones carlistas» (Extramiana, 229).

Euskal Estatu Karlistak, irakaskuntzari dagokionez, lehen mailako eskolez gain, hiru ikasgu nagusi izan zituen; gerratean barrena lanean ari izanak:

Urduñako Ikastetxea, Bizkaian; eta Tolosako Frantziskotarren komentukoa, Gipuzkoan. Gehi, jakina, Oñatiko Unibertsitatea, Don Karlosek berak 1874eko otsailaren 12an abiarazia.

Oñatikoa maiz samar aipatzen da. Baina gutxitan bere neurria hartzen. 45 titulu banatzen zuen, eta 150 ikasle eskolatzen. Hegoaldeko lau probintziak batuz, Unibertsitate Distrito bakarra eratu zen bertan. Oñatiarrek ez dute hau guztia ahantzi; eta goiko mailako irakats-leku izanarena, ongi bizirik dago herritarren oroimenean.

Karlismoak zeukan armada, euskaldunek osatutako armada besterik ez zen; Kataluñari buruz baiespen hori pittin bat (ez arrunt) doitu behar bada ere.

1873ko uztaillean, adibidez (ikus Extramiana, 189) karlista Armadak 44 batailoi zituen (oinezkoetan); honetara banatuak:

Euskal Herriko 35 batailoi (% 79,5):

Arabako	6
Bizkaiko	10
Gipuzkoako	9
Nafarroako	10

Eta Espainia aldeko beste 9 batalloi (% 20,5):

Gaztelako	5
Asturiasko	1
Kantabriako	2
Errioxako	1

(Lehenengo kapituluan idatzitakoak hor utzirik ere, hone-la sailkatu ditugu).

Bide beretik, 1875eko hastapenetan, karlisten indar militarrek honetara banatzen ziren:

Arabako	6	batailoi
Bizkaiko	10	»
Gipuzkoako	9	»
Nafarroako	12	»

Guztira: 37 batailoi

Lehenengo karlistadarako, oso kopuru antzekoak ditugu (ikus Idoia Estornes; 1839ko egoera militarraz; ibid. 111):

35 batailoi («vasco-navarro»):

Arabako	6	batailoi
Bizkaiko	8	»
Gipuzkoako	8	»
Nafarroako	13	»

Versus 8 batailoi español:

Gaztelako	8	batailoi
Kantabriako	2	»

Demografi bilakaeraren irudia bide dugu zifra horietan.

Gero ere, jakina: Euskal Herrian Karlista/liberal dikotomian, baserriar/kaletar dikotomia besterik ez zegoela pentsatu duenik ez da falta. Batez ere, ikuspegi «abstraktoak» (?) maite dituzten sasi-aurrerazale eta «progre»en artean. Beroien goiburua hauxe baita: *euskal arazoa lardaskatu eta izkutatuko duen oro, on.*

Gaztelan, Extremaduran eta Andaluzian ez zegoen baserriarrik ala? Lehenengo sektorekoak, Euskal Herrian bide zeuden bakarrik! Espainian barrena... denak liberalak, denak kaletarrak eta hiritarrak zirelako... itxura denez!

Baserría/kalea dikotomia argi egonik ere, horrez gain besterik ere begiratzea beharrezkoa da.

Baserria euskalduna zen XIX. mendeko hasieran, gaur baino aisa zehazkiago. Eta liberalen kalea (Donostiakoa, eta areago Bilbokoa) erdalduna zen: hizkuntzaz eta erreferentziaz españolizatu. Unamuno bera, 1864ekoa, euskaldun-berria zen; eta Baroja donostiarrak, bere obran erraz egiazta daitekeenez, «zerbait» (oso gutxi, hobe) zekien euskaraz; nahiz 1872an Donostia euskalduna izan, klase herrikoietan batez ere.

Oro har: ciudad/campo dikotomia, erdal mundua/euskal mundua irakurri behar da.

«Solo algunos centros urbanos se hallan en condiciones de crear unidades de voluntarios de la libertad, mientras que todas las comarcas y la mayor parte de las localidades contribuyen a engrosar las filas de los insurrectos» (Extramiana, 132).

Edozein aztertzailek egingo luke honetarakoan beste irakurketa hau: karlismoak euskaldunen artean zeukala sostengua; eta espainiar Estatuaren «voluntarios» izenekook, berriz, erdaldundutako eskualdeetan eta gizartean, eta ez besteetan, lortzen zuela azkarki sustraitzea.

Garaia dugu, nik uste, marxismoaren eta sasi-marxismoen apotesia luzaz jasan ondoren, bigarren bikote soziolinguistikoaren erdibiketa ohi baino arreta handiagoaz aztertzeko.

Oso adierazgarria eta tipikoa da, bide beretik, orpoz orpo jarraitzen ari garen autorearen iritzi hau: «Navarra parece más uniformemente carlista, exceptuando la zona meridional de la Ribera, comarca donde el número de voluntarios liberales es uno de los más elevados del País Vasco. En las tres provincias occidentales, las zonas de economía más arcaica son las más resueltamente legitimistas». Eskualde haiek berriro ere, eskualde erdaldunduak dira; eta hauek, euskaldunak.

Bilboko setialdiak (1874eko otsailetik maiatzera) sortu zituen jarrerak, jokabideak eta herrak berak, oso adierazgarriak dira.

Adibidez, Madrilgo Armada ofiziala, gusta ala ez-gusta, espainiar legetasuna indarrez ezartzera zetorren; Euskal Herrian gehiengoak karlista baitzen. Hots, liberalerik «ejército na-

cional» (edo-ta «ejército regular») zaie kanpotik zetorkien okupazioko armada española. Bilbotar liberalek «libertador»tzat daukate Concha jenerala; eta Andetxaga, «arrisku nagusitzat»...

Eta ikuspegi españolistak («progre»z mozorroturik) gauza bera errepikatzen digu orain dela ehun urte: «Bilbao ha sabido aceptar el desafío de la Vizcaya rural» (258).

Extramianari eta antzekoei gaitzi bazaie ere, ordea, Bizkai «rural» deritzoten hori, Bizkai euskalduna da, oro har; eta Bizkai «urbana», berriz, Bizkai erdaldun eta españolizatu.

Zergatik errepikatu ohi zuen Indalecio Prieto PSOEtarrak: «Yo siento a Bilbao, pero no siento a Lequeitio»? Lekeitio «rurala» eta Bilbo «urbanoa» zelako? Lekeitio «senditzen ez duten» horietzek, loriatu egiten ziren (eta egiten dira) «castellano recio» ez ikasien «noblezia» eta «giza-maila» aipatzerakoan; eta nazkatu euskaldun petoen erdaraz mintzatu ezina jasatean («estos jebos no saben ni hablar»... erdaraz, jakina).

Bilboko setiaketa (Zergatik «El sitio»? Zergatik ez «Le Siè-ge»?) erabat basa, arbuigarria eta gaitzesgarria zaie. Baina Conchak zekarren zapalketa osoa, instituzionala, Madrilen gustokoa, anti-euskalduna, itzuri egiten zaie bilbotar erdaltzaleei; edo, gehienez, katarsi-sendabide bakarra.

Mintza gaitzen klarki: Prietoren ezpalekoei ongi iruditzen zaie Estatu-setiaketa, baina gaizki euskaldun gerrilariengandik datorrena. Areilzak 1937an, «horda rojo-separatistez»ok eginik, Franco «liberatzailea»ren sarrera harroputz eta arrotz (mairuak eta guzti) esku-zartaka eta bihotzez txalotu zuen bezala.

Euskal Herriaren instituzioak eta eskubideak deuseztatze-
ra datorren armada oro, «unibertsala, aurrerakoia eta ona»
baita. Eskubide eta instituzio horiek defenditzekotan altxatzen
den oro, aldiz, «puro retroceso histórico», «irracionalidad estre-
cha», «contubernio caciquil» eta «intentona reaccionaria».
«Lo español es progreso» dinoskue harro-harro. «Lo vasco,
vuelta a las catacumbas».

Logika-bide hau betidanik ari da. Eta karlista garaian ere bai.

«Faccioso»en kontrako gorrotoak, euskalduntasunaren beraren kontrako gorroto sortzen du: «El odio al carlismo incita a algunos responsables liberales a imputar la rebelión al conjunto de las provincias vascas y a desencadenar una campaña anti-vasca» (ib. 269).

Eta, noski, kontraesan objetiboak horren nabarmen egonik, euskaldunen artean ikusmolde abertzalea piskanaka hozitzea, ez da batere harrizkoa. 1884ekoa da Larrazabalgo Zina; II. Karlistada amaituta zortzi urtetara egina. Arana Goiri, baita kronologikoki ere, euskal karlismoaren segida besterik ez da.

Oso interesgarria litzateke, honi buruz, eta, besteak beste, (XIX. mendeko historia osoa baitago berrazterkizun, eta irakurketa euskaldun baten zai), Aita Goirieta jesuitaren biziera eta ideiak xeheki ikertzea.

Extramianaren kondairaren irakurketari esker dakigunez (177-178 orr.) «el jesuita Goirieta, jefe de una partida de Vizcaya, se dirige el 31 de enero (de 1873) al alcalde de Ochandiano, para acusarle de «traicionar a la patria» suministrando informes a un ejército «representante del extranjero»...

«En la misma carta, Goirieta, cuando pasa de las fórmulas generales a las instrucciones concretas, habla de 'ejército extranjero'... El ejército liberal, da a entender el jesuita, es en el País Vasco un ejército intruso, de ocupación»...

Horra hor, hertsiki mintzatuz, gaurko indar abertzaleen hizkera bera: «¡Fuera las fuerzas de ocupación!» entzun ohi dugu.

Beste ohartxo bat: Extramianak orrialde berean (178) aipatzen ditu Santa-Krutz eta Goirieta bi apaiz gerrilariak...

Okupazio atzerritarraren sendimendu landugabea giroan zegoen 1875 inguruan; 1835 inguruan baino indartsuago seguru aski. «La ocupación militar a veces toma la apariencia de una invasión extranjera» (ib. 138).

Egia esan, errepikatu besterik ez du egiten kondairagileak, buruzagi espainiarrek berek aitortzen zutena: «(se trata de) una guerra muy difícil –idatzi zuen Concha jeneralak– teniendo en cuenta el relieve, la dispersión del habitat, y el odio de sus habitantes al Gobierno Central y el Ejército» (259).

Bukaera ezaguna da: 120.000 soldadutako «ejército regularrak», 33.000 gerrilari zarpailek osatzen zituzten «banda armatuak» bentzutu zituzten. A ze balentria!!

Eta Lege-Batasuna egin zen: probintzia «Vascongada» delakoak, era «demokratiko» horretara «integratu» ziren «Madre Patria» maitatuan; Nafarroaren iresketa «demokratikoa», berrogei urte lehenago obratua izan ondoren.

Karlismoaren bigarren porrotak (bigarren porrot nagusiak esatea hobeki letorke) ez zuen Espainian sekulako tragediarik ekarri. Besteak beste, espainiar herria, oro har, karlista ez zelako.

Euskal Herrian, aldiz, bihotzondoraino sartutako esperantza izan ondoren, egundoko ondorio latzak izan zituen, eta tristura eta txirotasuna baita baserririk urrunetaraino eramán.

Baina, honetaraz gero, hobe izango dugu batere karlista ez den Zierbide nafartar irakasle eta ikertzaile bikainari luma uztea (ikus *Fontes L.V.*, 41-42, 1983; 5-15 or..).

«Las consecuencias políticas motivadas por las derrotas sucesivas de los carlistas... fueron, sin duda, de especial gravedad... La tragedia más grave de su historia».

Eta nazio-deskalabro hura lau puntu hauetara biltzen du:

1) Euskal Herriaren porrot militarra: lurraldearen okupazioa eta bertako ordenamendu berria, herri zapaldu bati dago-kion moldekoa.

2) Euskal Herriaren porrot politikoa: herri gisako bere fun-tsa galduz.

3) Euskal Herriaren porrot ekonomikoa: zegokion gidake-ta galduz.

4) Euskal Herriaren porrot kulturala: euskara bere hizkun-tza bereziaren gainbeherada, gaztelaniaren onetan (5).

Zer gerta ere irribarretsu eta baikor agertu nahi, eta gure «biktimismo hiletari eta merkea» salatzen duten betikoek, ez-ikusia egiten diote lasai asko porrot laukoitz lazgarri horri. Berak «se sienten cómodos»; eta ez dute «kakazarra» inarrosi nahi... Marioren miresle sutsuak dira.

Baina 1839an eta 1876an ez zuten gerla euskaldun karlistek bakarrik galdu.

Arana Goiri anaiek argiro ulertu zuten hau berehalatik; eta euskal politikagintza errotik behar zela aldatu.

Koldobikak eta Xabinek ongi hurbildik bizi izan zuten bigarren Karlistada; baita Bilboko setiaketaz ipartar anaiek nola ikusten zuten ere.

Baina Karlos Setimoren inguruko mikro eta sasi euskal Estatu hartan ez zuten inolaz ere Euskal Herriarentzako soluzio-biderik hauteman.

Hain zuzen ere, «ojalaterismo» haiek bertatik ezaguturik, urrundu egin ziren osotara espainiar tentazio-mota guzti-guztietatik; españolismora eramaten zuen arriskuarengatik, foruzaletasuna bera gaitzetsi zuten; soluziobide bakarra Espainiarekiko separatismo politikoan jarritz.

Joera airean zegoen: «En verdad que nos importa lo mismo –izkiriatu zuen Hermilio Oloriz nafartarrak– de absolutistas que de liberales, porque nosotros nada amamos sino el Fuero». Arana Goirik, ordea, beste urrats bat eginez, hau esan zuen: «nosotros nada amamos sino la Independencia».

Españolismoaren metafora faltsuaren berri jakinez («España es un árbol que tiene raíz vasca, tronco castellano y flores andaluzas»), Arana Goirik hau erantzun zuen: «Utikan! Euskaldunok Burujabetza behar dugu!».

Badirudi, hitz batez, euskaldun herria altxa zela joan den mendean España Estatuaren aurka; harrigarritzko indar maila lortuz. «Batailoia» prest zegoen, baina «Kapitainak» desbideratu zuen. Zuzendaritzak sartu zuen Euskal Herria irtenbiderik gabeko bide itsuan. Noren eskutan jarri zuen bere burua?

Kapitulua areago ez luzatzekotan, aipamen argitsu batzuk baino ez.

«Fuera de la Iglesia, no hay salvación», errepikatzen zuten karlistek Manterolaren *El Semario Vasco-Navarro* astekarrian. Horra buruzagi politikoen irakurketa bitxia.

Areago: «Péguese mi lengua al paladar, y ciérrense mis ojos a la luz, y deje de latir mi corazón, antes que pueda yo ahogar en el fondo de grosero olvido tu santa memoria, tu dulce recuerdo (Erromaz ari da hemen 1867an).

¡Padre Santísimo! ¿Saldréis de Roma? ¿Sí?

¡Oh! Venid, venid a España» zioen 'Kosketako' apaizak.

«España os ama con frenesí, con delirio.

Y en el último rincón de España, en la pobrísima región vascongada, tenéis un defensor en cada hombre, una heroína en cada mujer, un ángel tutelar en cada niño, un cielo henchido de bendiciones, una atmósfera de cariño y una tierra que produce héroes, brota mártires, arroja santos. Loyola, Aránzazu, Begoña, Roncesvalles e Irache son monumentos dignos de vuestra visita» (Manterola; ikus Vicente Garmendiaren lana, *Biblioteca Luis de Ajuria*, 1975; 28. orr.).

Manterolak aipu handia zuen karlista buruzagitzaren barruan. Ez zen nornahi. Nolazpait esateko, «legitimisten» intelektual «organikoetakoa» zen.

«La estancia en las cortes (de Madrid) no tenía ninguna razón de ser (para Manterola) desde el momento en que se aprobó el artículo 21 que consagraba *la libertad de cultos* en España» (ibi. 93).

Karlos Setimo, jakina, bide beretik zihoan: «España no quiere que se ultraje ni ofenda la fe de sus padres; y *poseyendo en el catolicismo la verdad*, comprende que si ha de llenar cumplidamente su *encargo divino*, la Iglesia debe ser libre.

«Sabiedo, y no olvidando, que el siglo XIX no es el siglo XVI, España está resuelta a *conservar a todo trance la unidad católica*, símbolo de nuestras glorias, espíritu de nuestras leyes, *bendito lazo de unión de todos los españoles* (ibid., 94)».

Batek edo bestek irribarre egin duke dagoeneko... Baina ez dago zertan barre eginik. Bistan da karlismoak «nacional-catolicismo»aren oinarriak ipintzen zituela. Lerro horiek irakurtzean frankismoaren garaiko prentsara itzuli garela dirudi.

Hori bakarrik ez: ideologiaren zerbitzuko Estatua ere, joe-ra horietantxe funtsatzen da. Estatu osoa jartzen da ideologiaren aldeko lanean. Eta hemen Estatu totalitarioa dugu aurrean. Ez karlista bakarrik. Kasu!

Karlistek bere egiten dute P. Maldonado-ren pentsamol-

dea: «¿Elecciones? ¡Bayonetas! La llave del problema está en la punta de la espada» (Aita Maldonadok Elio karlista buruzagiari; 1870/VI/27an. Ibid. 108).

«El pueblo armado debe ser la base sobre la que se asegure y se consolide la gran restauración católico-monárquica por la que todos los buenos españoles tanto tiempo suspiramos. El mal del liberalismo no se cura con recetas liberales» (ib. 97).

«El pobre no conoce todas las ventajas del trabajo» zioten Manterolaren lagunek (askoz beranduago kantari famatu batek, eztenka-nahian, beste hau herrikoitu zuenean: «Le travail c'est la santé, ne rien faire c'est la conserver»...). «El pobre no sabe las desventajas de la vida ociosa, que es nociva para el cuerpo y llena de peligros para el alma»... Ez bide da gutaz trufatzen ari... baina badirudi!

Baina, batera, porrusalda lodiago egitekotan, nonbait, beste hau: «Jamás se ha blasfemado en vascuence. La blasfemia es antiforal, porque es anti-racional y anti-cristiana» (ib. 21).

Edo-ta, Urretxun, 1865ean emandako sermoi hartan: «Allí donde se hable el vascuence, es imposible la idea panteísta... (El vascuence) es una lengua que jamás se ha visto salpicada por la inmunda baba de Satanás»...

Hautua, zail. Hetika ala minbizia!

Eta Karlistadaren ondoko foruzaleek eta aurre abertzaleek, gauza bat zeukaten garbi: Zer ez zen bidea. Bai karlismoak bai liberalismoak putzura eramango zuten Euskal Herria. Hau bazekiten.

Arana Goiriren merezimendu gaitza: ahal bezala, ahal izan zuen heinean, batarekin eta bestearekin haustea.

Etendura bikoitz honetatik ez abiatzekotan, alfer lana.

Itxurak aldaturik ere, oso egoera antzekoan egon da Euskal Herria behin eta berriz.

Ondoko kapituluetan agertuko denez.

III. Euskara

Asmorik ere ez dut nik, jakina, euskararen aldeko borroka orokorra hemen orpoz-orpo jarraitzeko. Ezta Euskara Batuaren beraren kondaira berriro idazteko ere.

Lehenengoari buruz badago daturik beste idazlan batzuetan; eta ez naiz horretan murgilduko. Bigarrenari buruz, berriz, funtsezko testua du irakurleak gai horretaz: Koldo Zuazo irakaslearen doktorego tesi bikaina: *Euskararen Batasuna*, Iker 5, Euskaltzaindia, 1988, Bilbo.

Kapitulu honetan, gainerakoetan bezala, hizkuntzaren alorreko borrokan eta eginkizunetan ni neu nola esnatu eta lotu nintzen azaltzen saiatuko naiz.

Eta, interesgarri izan daitekeelakoan, beste sailetan baino xehekiago azalduko dut Euskara Batuaren sorkuntzan tokatu zitzaidan partea; interpretazio «ofizialak» urrunsko baitaude egia historikotik.

Bi lerro hasteko, neure abiapuntuaz.

Zenbait aldiz kondatua dudanez (ikus, adibidez, *Euskal*

Herritik erdal herrietara liburua, 11-16 orr.; 1973an argitaratua), euskaldun berria naiz. Osoki ez bada ere, hor nonbait.

Datu hau emango dut, adibidez: ni baino lau urte gazteago den Juan Mari anaiak euskaraz ez daki: ez ondo, ez erdi-purdi, ez deus. Familian erdaldun hazita ikasi egin dut euskaraz nik, zerotik hasita. Edo-ta «epsilon»dik gehienez.

1946an Valladoliden gainditu nuen «Reválida» famatua, batxilergo maila lortuz. Eta hurrengo udan, 1947koan, gaisotu egin nintzen.

Hilabete inguru eman nuen Antiguako gure etxean ohetik jaiki gabe. Biriketan harrapatu bide nuen pulmonia edo horrelako zerbait.

Eta orduan, neronen ama «informante» bakartzat hartuta (hitz hori, jakina, ez nuen orduan ezagutzen), litografiatik igotako *blok* handi batean hasi nintzen, amaren esanen arabera, euskal «gramatika partikularra» osatzen. Inoiz erabili dudan lehenengoa...

«Paradigmak» osatzen ari nintzela somatu gabe, hitzak adizki-ilarak eta deklinabidea prestatu nituen (aspaldi galduak, esan beharrik ez dago). Eta, horrela, etxetik irten gabe pasatako bizkorraldi hartan (nolazpait esateko) euskarari buruzko liburuska bat antolatu nuen; baita buruz ikasi ere.

«Egon» aditzarena bederen ez zait batere ahaztu: «ni naó, zu zaudé, bea daó, gu gaudé, zuek zaudeté, beak daudé» (sic). Geroko Euskara Batutik gertu samar...

«Referéndum»aren garaiak ziren haiek (1947). Eta, esan beharrik ez, euskararen aldeko ezeren arrastorik ez zen inon somatzen. Euskara bera ere oso-oso bakanka baizik ez zen entzuten Donostiako kalean. Nahiz Bretxa inguruan edo Santa Maria elizaren ondoan, baserritarren eta arrantzaleen ahotan, entzutea posible izan.

Euskaraz ikasi nahi nuen. Baina nondik hasi ez nekien.

Gure litografian, Miguel Alvarez Iraola osabaren bitartez, Lopez Mendizabalen euskal liburu batzuk zeuden; beronen ordezkaria-edo baitzen ene aitaren anaia. Ixakak ihes egin ondoren, eta urte luzetan barrena, misterio apur batekin, han

zeuden Tolosatik ekarritako liburu haiek. «Aeolian» pianola bat ere bai lehengusuen etxean, paper zulatuzko martimuilu mordo batez hornitua.

Euskarazko liburuaren artean, *Xabiartxo* batez oroitzen naiz; baita Aita Bera-López Mendizabalen hiztegi lodi bikunaz ere. Hain zuzen ere, ale huraxe izan nuen hiztegi bakarra zenbait urtez.

Euskaraz ikasi nahi nuela-ta, handik urte pare batera bi irakasle izan nituen Donostian. Lehenengoa, Iñaki Zubimendi, gerra aurrean *Yakintza* literatur aldizkariaren zuzendari izandakoaren semea. Zabala-Aranaren *Gramatika* ikasi nuen honekin 1948ko udan, kapituluz kapitulu: «Kaixo Errapel... Kaixo Urrupiñ...».

Hurrengo udan (1949koan, beraz, Bilbora joan aurrekoan) beste pausu bat eman behar nuela-ta, Arrigarai-Ataunen *Gramatika* ikasi nuen Iñaki Zumetarekin; baita Aita Jose Lezo izeneko kaputxino nafartarraren artikulu-bilduma, banaka aztertu ere. Zumeta, tolosarra, apeztu egin zen geroztik; eta Gipuzkoako Irakaskuntzako bulego ofizialetan goraino iritsi zen, oraintsu arte horretan ari izan delarik.

Beste antigutar bat neukan eskolakide: Txuma Lasagabaster izenekoa. Hau ere euskaldunberri bihurtua, apeztu egin zen ondoko urteetan; eta literatur gaietan oso jantzia, urte askotan izan dut irakaskide Donostiako EUTGetan (alegia, Deustuko Unibertsitateak Donostian daukan ikasguan).

1949ko udazkenean, ingeniari ikasle, bigarren ingresu saialdian Bilbora joan nintzenerako, zerbait banekien euskaraz. Gutxi. Kostata bazen ere, euskal izkribu errazak irakurritzakeen; eta, poliki mintzatuz gero, zerbait ulertu eta esan ere bai. Hauxe da egia.

Ezaguna nuen ordurako Jon Etxaide idazlea; garai hartan donostiar abertzale gazte askoren irakasle eta eredu izana. *Alos Torrea* irakurtzen genuen; eta *Joanak Joan*-ekin saiatzen... Derrigorrezko aipamena merezi du Etxaideren mapak; beronen bitartez ikasi baikenituen herrien euskal izenak. Euskal Herri oso agertzen zen bertan, eta toponimia guztia euskaraz.

Mapa hura haize bolada freskoa zen; eta barra-barra erosi genion Donostiako euskaltzaleok. Bere eskuaz prestatua zuen Etxaidek paper «vegetal» handi batean (Pasaiaiko Portuko bulegoetako delineantea zen bera); eta, «konfidantzazko jendearen artean», kopiak banatzen zituen. Eskuragarri zen guztia «del Movimiento» eta erdara hutsez zenez, arnasa ematen zigun...

Hots, Bilborakoan, Jon Etxaide horretxek bidali ninduen Federiko Krutwig izeneko «euskaltzale» batengana 1949ko azaroan. Bere eskuzko eskutitz bat eman zidan; besteak beste, bai berak eta bai Krutwigek, begi onez ikusten zuten *Gure Herria* aldizkariaren aldeko aholkua emanez.

Harremanetan hasi nintzen horretara Krutwigekin. Eta nigan gizon hark zauskada handia eman zuela zertan izkutatu beharrik ez dut ikusten.

Greziera klasikoa ikasi behar nuela esan zidan («Jakintza Baitha»ri datxekion helenismoa ez baita Federikorengan gaurko kontua!); eta hiru orduz egunean seriotan laneginez gero, bost urtetan menderatua izango nuela erantsi zuen... De Brooglie eta Schrödinger-i buruz mintzatu zitzaidan; eta zientzi-gai horiek ongi ezagutzeko eta euskaraz tratatzeko beharra azpimarratu zidan. Gaizki ez banago, Egiptoko liburukote koloretso eta harrigarri batzuk «irakurri» zizkidan (koptoz, edo nik dakita zein hizkuntzaz); eta hamabi hizkuntzaz mintzatzen zekiela esan zidan. Budista zela ere bai; eta halako eliztar txartel gorri-more bat erakutsi zidan: «Hinayana» elizakoa, uste dut.

Gero, edo beste egun batean agian, olio margotutako erretratu handi bat erakutsi zidan: Isabel arrebarena, nik uste. Baita bere egunkari izkutu baten orrialde batzuk irakurri ere... baina ispilu baten bitartez irakurri beharrak! (askoz ere beranduago jakin nuen sistema bera erabili zuela Leonardo da Vinci famatuak, ezezagunek hura ezin irakurtzeko).

Esan beharrik ez dago: txundituta utzi ninduen.

Gure Herria Iparraldeko aldizkarian abonatzea gomendatu zidanez (Louis Dassance uztariztarrak zuzentzen zuen orduan), halaxe egin nuen. Hortxe dauzkat oraindik orduan jasotako ale batzuk, hamaika istilu eta etxe-aldairatatik salbatuak. Eta horietxek izan ziren Iparraldeko euskararekin eta euskaltzaleekin izan nuen lehenengo ezaguera.

Federiko, jakina, «laphurtera klassikoaz» mintzo omen zitzaidan; eta oso azkar egiten zuenez, eta hainbeste /h/ ahoskatzzen, ez nion nik, euskaldun-berri gordinska hark, beti ongi ulertzen. Nola aitortuko, ordea, «laphurtera klassikoaz» oraindik ez nekienik? Eta giputx lotsor hau isildu egiten zen.

Euskaltzaindiaren arrastoak (gerratearen ondorioz xehatuak, itxuraz) Bilboko Ribera 6an zeuden orduan: liburutegia, apal batzuk eskaileraburuaren ondoan (eta beretan Azkueren gauzak: *Aezkera*, *Ardi galdua*, *Particularidades del Dialecto Roncalés*, Euskera 1931), den-dena errautsetan. Han egoten zen Don Resurrección, Euskaltzaindiaren aita; hondoratutako ontzi-kapitainen antzera, deskalabru betean tinko. Azkue, bestalde, ez baitzen inoiz «abertzale» agertu... Eta hau funtsezkoa zen urte haietan. Zaharkituta, 86 urte zituen orduan (nik, berriz, 21 bete berriak). Batzuetan pianoa jotzen ari zela entzuten genuen eskaileratik.

Krutwigen bidez ezagutu nuen. Berau, bere 29 urteetan, etxe ilun hartako oinordeko gazte eta atipiko gisa agertzen zelarrik: gaur egun Federiko euskaltzainik aspaldikoena da; bere gradua 1947ko azaroaren 29an eskuratu baitzuen.

Hura bai bikote ikusgarria! Lekeitiar zaharra eta bilbotar germaniko gaztea, a ze para!...

Lehenagotik ezagutzen nuen Alfontso Irigoien ere (Donostian aurkeztu zidan Gaintzarainek 1950 inguruan) hara azaltzen zen tarteka.

Beronen bidez lortu nuen, hain zuzen, Azkueren *Hitzegia*-ren ale bat, Azkueren beraren eskuzko oharrez hornitua, omen. Mila pezeta ordaindu nuen; ez baitzen hutsaren hurrena ni bezalako ikasle batentzat...

Eta ondoko hilabeteetan euskaraz ikasteko talde txiki bat eratu genuenean, hantxe genuen partaide Alfontso bera. Eta, igande goizetan, Orixeren *Kiton arrebarekin* aztertzen genuen sistematikoki. Gaizki ez banago, Ansola, Larramendi, eta besteren batekin sortutako talde hartara ez zen Federiko inoiz bildu. Eta honek 1951tik atzera eramaten gaitu; Krutwig-ek ez baitzuen Bilbotik 1952ko hasera arte ihes egin. Talde osoa,

Alfonso Irigoien barne, oso «garbizalea» zen garai hartan; eta Orixeren eta Zaitegiren jarraitzaile hestua.

Federiko Krutwig ez zen horrelakoa orduan ere.

Lehengora itzuliz, dena dela, 1949 aldera nik uste, halako batez Azkue aurkeztu zidaten Ribera 6ko atzekaldean zuten bulego hartan. Eta Azkuek galdera hau egin zidan:

– Nongoa zara zu?

– Donosti-koa –nik ziplo.

Aurpegia aldatu; eta, zuzenketa doinuan, hauxe erantzun zidan:

– Zu etzara Donostikoa. Zu Do-nos-ti-ya-ku-a zara...

Betirako ikasi nuen! Eta «batuaz» Donostia erabaki da. Beharrik!

Azpeitian ere Enparantzatarak badaudela esan zidan. Baina ez zuen ordurako batere ongi entzuten; eta zail gertatzen zen berarekin hitz egitea.

Handik urte t'erdira edo, 1951n, Euskaltzaindiaren ate aurrean bertan, ibaira begira zegoela, Nerbioi zikinera erori, eta ito (edo pozoindu) egin zen.

Ingeniari Industrialen Eskolako ikasle abertzale multzo bat (berehala Ekin talde politikoa bultzatu zuen berbera) ateratzen hasi berria zuen *Materia* aldizkariaz baliatuz (jadanik gu «fitxatuta» egonik, polizia ez aztoratzeko erdaraz ateratzen genuen!), artikulu bat atera genuen Azkueren omenetan. Aitzakia ona hura; inork ez baitzekien La Casilla-ko Eskola hartan Azkue nor zen, ezta euskara zegoenik ere...

Katakunbetan ginen, zinez.

Garai hartantsu ere (1948 edo 1949ko udan, ene ustez), iberikoari buruzko hitzaldi batzuk eman zituen Vallejo hizkuntzalariak (nire oroimenak gezurtarazten ez badit, bederen).

Eta hantxe ezagutu nituen bai Koldo Mitxelena, bai Julio Urkijo.

Mitxelenaren itxurak harritu ninduen gehienik, agian. Zeharo konkortuta topatu nuen (ordurako!). Han zeuden guztiek oso errespetu handiz tratatzen zuten.

Askoz ere beranduago jakin nuen zortzi bat urte gartzelan pasata, irten berria zela ia-ia; eta barruan galdu zuela osasuna beldurtzeko moduan.

Vallejok «Egea» (de los Caballeros), *Exea* zela azaldu zuen, *Etxea* beraz. Eta horrelako xehetasun asko.

Baina Urkijok ere, nahiz beste alde batetik, oso harritu ninduen (beti /j/ belarez ahoskatua).

Ikastaldi hartan parte hartu genuen guztiok gomitatu gintuen bere etxera (ni barne, neure 18-19 urteetan; eta euskal gaietan analfabeto galanta).

Joan gara ba denok Bilbo plazako bere egoitzara, Santa Katalina zubiaren ondoan. Eta berak ardo bat, edo nik dakita zer, eskaini digu gomitatuoi. Ez dakit benetan *RIEV* aldizkari famatuaren «aita»ren etxean ginela erreparatzen ote genuen...

Baina orduantxe sekula ahantzi ez dudan xehetasun honetaz jabetu nintzen.

Mahai txiki baten gainean, Karlos Setimo berberaren fotoa zegoen, bere eskuaz Erregeak eskainia: «A Julio de Urquijo, mi fiel Gentil-Hombre de Cámara», edo horrelako zerbait.

Urkijo karlista zen.

Baina hariari helduz, eta 40. hamarkadaren hastapenetara itzuliz, tema bat zeukan Krutwigek nik ezagutu nuenean: euskararen gradu jasotzea.

Gure hizkuntzak –zion Krutwigek– derrigorrezkoa du batzea eta gaurkotzea. Fisika Teorikoa normaltasunez irakatsi behar da euskaraz. Euskalkikeria eta dialektalismo guztien kontra zegoen osotara. Euskara europartu, batu eta desbaserritatu egin behar zela zioen. Bestela, kitto ginela.

Hain zuzen ere, hau proposatu zidan behin: euskaltzale multzo bat eratu; eta igandeetan, «frak» eta «kopa-sonbreroa» jantzi, eta, besterik gabe, Bizkaiko herrietan gaindik euskaraz mintzatuz ibiltzea. Joera, garbi agertzen da honetan.

Nola batuko hizkuntza? «Batua egina dago», erantzuna. «Leizarragak batu zuen XVI. mendean. Batua lapurtera klasikoa da».

Nola modernizatuko? Europar kultur iturrietatik, lotsarik gabe edanez, arrapostua. Garbizalekeriak oro arbuiatuz, eta kultura greko-latinoen (greziarrean batez ere) hiztegia guretzat hartuz.

la-ia bakardade osoan, oker ez banago, 1950 baino lehenagotik defenditzen zituen Krutwigek bi ideia nagusi horiek. Gerora ez hain bakarrik, piskanaka euskaltzale mordo bat bere tesietara erakarri zuelako: Aita Villasante, Mikel Arruza, Mirande, Aresti, eta abar.

Beti jokabide berberetara eraman ez bagintuzten ere, eragin handia izan zuten Krutwigen ideia horiek gu guztiongan; baita euskararen beraren bilakaeran ere.

Beste maila batean ere –maila sinbolikoan– beste urrats garrantzitsu eta adierazgarri bat eman zuen Krutwigek urte haietanxe: Euskaltzaindiko bilerak euskaraz eginaraztea. Ez baitziren euskaraz egiten, erdaraz baizik! Gaztelaniaz, preseskiago.

Urkijok, Olabidek, ez zekiten euskaraz mintzatzeko; eta Ignazio M. Etxaidek (aitak, alegia) nahiko nekez. Ohituraz, denaz gain, hiper-diglosia betean, gauza garrantzitsuak erdaraz eztabaidatzen ziren. Euskara baserritarrekin hitz egiteko hizkera zen, eta ez besterik. Erdaraz jakinez gero, erdaraz. Eta kitto.

Krutwigek, Euskaltzaindiko bileretan eta lanetan, euskara kultur mintzabide bihurtzeko asmoa zuen 1947az geroztik. Baina Urkijo zaharrarekiko errespetuz, ez zuen bere projektua Don Julio 1950ean hil arte aurkeztu.

Euskaltzain urgazle batzuk proposamenaren alde azaldu ziren: Mikel Arrutza (gero ere aipatzekoa) eta Garro bizkaitarrak bereziki. Hizkuntz aldaketa hori «historiko»tzat jo zuten, hain zuzen.

Euskaltzaindiko joerak, normala denez, ez ziren bapatean errotik aldatu. Aita Juan Gorostiagak, adibidez, urte askotan Algortan euskararen irakasle egona, gaztelaniaz aurkezten zituen bere txostenak eta ikerlanak. Ez zen inondik ere bakarra, halere.

Areago: euskaltzainek erdaraz egiten zuten beren artean;

frantsesez Iparraldekoek, gaztelaniaz Hegoaldekoek. Eta hau oraintsu arte bederen horretan egon da.

Aski da euskaltzainen arteko gutuneriari begirada bat ematea (parte bat argitaratua izan baita). Euskaltzain ezagun batzuen seme-alabak erdaldun hutsak dira; edo-ta, zenbait aldiz, euskaldun berri borobilak.

Nikolas Ormaetxea, *Orix*-ren kasua, horretara, ez da batiere salbuespena. Bai adierazgarria, ordea; *Orix*e urte haietan iritsi zituen entzutea eta eragina oso handiak zirelako.

1954eko bukaera aldean itzuli zen *Orix*e Ameriketatik. Eta gutxienez ni Euskaltzaindikoko bileretara sistematikoki joan nintzen garaian (1957az geroztik 1961era arte) erdaraz mintzo harrapatu nuen behin eta berriz euskaltzainen artean. (Bidenabar, eta ahantzi aitzin: bila Santurtzira joan zitzaizkiot, hauek izan ziren: Labaien, Irigoien eta... Aresti!).

Euskaltzainen hizketan ezezik, abertzale euskaldunen artean ere gaztelania zen etengabeko mintzabidea. Euskaltzaleak ez ziren euskaraz bizi; bantueraren espezialistak bantueraz mintzo ez diren bezalaxe, euskaltzaleak Ahuñemendiko mendebaltar «indioen» espezialistak ziren. Baina at zeuden.

Jakina: euskararen alorrean erdal herrietikako bisitariak horrela jokatzea, aisa konprenitzen nuen. Eta konprenitzen dut. Noski. Guk euskaldunok, ordea, horretara, «bascoloque» abstraktu gisa jokatzea, ez nuen orduan ulertzen. Eta orain ere ez.

Nahiz nire irizpide aldakaitz honek hamaika istilu eta atsekabe ekarri bizieran barrena.

Honek UCLAko irakasle baten esaldia gogorazten dit. Ipar Ameriketako hizkuntza «indio»ren baten fonologiaz zerbait azaltzerakoan, hitz hauetaz hasi baitzituen bere azalpenak: «Somewhere in the mountains...».

Jokabide hotz eta gizagabe horri, zientifiko deritzote batzuek. Nik ez. Hizkuntzek ez baitute mintzabide izena merezi, hiztunen egoeratik at hartzen badira. Areago, noski, hizkuntza hori desagertzeko zorian dagoen norberarena denean.

«Somewhere in the mountains» horietan, «indio» deitzen

ditugun pertsonak bizi dira; beren giza-problema guztiekin. Eta etniak bizi dira. Eta inperialismo arrotz eta harroputzaren hankapean saiatzen diren herri biktimak...

Ez ordenadoreak. Ez tesi-gai abstraktoak. Ez produzio-izaki koloregabeak.

Hots, «toutes distances gardées», gure aurreko euskaltzale batzuek, irakasle horren jarrera gogorazten didate. Eta Orixek berak ere bai, hein batean. Ez osoki inondik ere; Orixe izan baita, halaz ere, euskaltzaletasunak sortu duen lehenengo idazle profesionala.

Baina Orixe ezagutu genuenok, zalantza gutxi dugu Orixeren erdalkeria gotorraz.

Beste euskaltzale asko bezala, ni neu ere Leitzara joan nintzen 1957ko abenduaren 22an Orixe euskaltzain oso hautaturik, Sarrera Hitzaldia aditu nahi genion bertan.

Halako batez, bere hitzaldia hasi berria zuelarik, nonbait aretoan zarata handiegia zegoela-ta, bere mintzaldia moztu, eta hauxe galdetu zigun ozenki: «¿Qué? ¿No se me oye ahí atrás?»... Leitzan, eta Euskaltzaindiko Sarrera ekitaldian, horrelakorik? Camilo José Celak bere sarrera zeremonian, hau galdetu izan balu bezala: «Et alors? Est-ce qu'on ne m'entend pas?»...

Sinetsi ezina. Baina gurean... «normala»...

Ramon Labaienen bidez dakit, bide beretik, erdararako joera hori ez zela Orixerengan batere harritzeko edo salbuespena.

Oso maiz erdarara jotzen zuela-ta, ausartu omen ziren Labaiendarrak, halako batez, euskararen Maisuari ohartxo bat egiten:

– Baina, Orixe, ez al zaizu ba bekatu mortala iruditzen beti erdarara jotze hori?

Eta Orixek derrepentean hau erantzun:

– Beniala bakarrik.

Eta erdaraz jarraitu omen zuen.

Donostian ebakuntza bat egin ziotenean (1958 inguruan, nik uste; gu ezkondu berriak ginelako, oroimenari fidatzen natzaiolarik) bisitatzea joan gintzaizkion emaztea eta biok, Ategorrietako klinika batera. Orixe errespetuz eta mirespenez begiratzen genuela, errepikatu beharrik ez dago: ahobatez ziurtatuko genuke hori nire belauneko euskaltzale guztiok.

Sartu gara ba biok Orixeren gelara:

– Zer moduz, Orixe? Hobeto al zaude?

– Bueno, pues ya voy un poco mejor.

– Eta zenbat egunez egon beharko duzu ohean?

– Todavía no me ha dicho nada al respecto el médico.

Eta abar, «ad nauseam», elkarrizketa elebidun txandakatu hertsian.

Halako batez, bai emaztea (ikastolan irakasle) eta bai ni (euskal idazle), guztiz mindurik, ausartu egin gara:

– Aizu, Orixe! Euskaraz ere badakigu!

Ezta jabetu ere bera:

– Sí, claro. Como os iba diciendo...

Horra hor eskandalua, gure iritiz. Leitzako erdal galdera adierazgarri hura ez zen errakuntza bitxi bat. Ez. Orixe erdaraz bizi zen, baita euskaltzaleekin ere. Antzerkia, fartsa, komeria, gezurra... Hitz hauek elkargainka pilatzen ziren nigan.

Eta haxe larriena. Gure aurreko euskaltzale haiei, itxuraz bederen, at zegokiela euskara, lekorean, estratosferan, ez genekien non.

Hots, guk, orduko gazte abertzaleok, geure herriaren eta geure kaletarren mintzabide bihurturik nahi genuen euskara. Hortxe somatzen zen bi euskaltzale belaunen arteko hausku-nea.

Gure herri xehea, arrantzaleak eta baserritarrak bereziki, euskaraz bizi baitziren 1950ean. Gaur egun baino areago, hain zuzen.

Zein helburutan, beraz, erdara *de facto* mintzabide nagusi eginez, euskaldun herriari bizkar emango?

Zalantza larriak piztu ziren nigan eta gugan.

Eta tupust honek ondorio zabalak zekartzan:

a) Alde batetik, hizkuntza, euskara bera, osatu behar zela-ko, gaurko beharretarako prestatu ez zegoelako.

Mitxelenak esan ohi zuena ia hitzez hitz errepikatuz: «Bai Xenpelar eta bai ni neu, errenteriarak gara biok. Xenpelarrek nik baino hobeki zekien euskaraz. Egia. Baina beraren euskara hark ez dit niri gaur balio».

Berrito ere, euskaraz bizi nahi genuenok geure hizkuntza kaletartzeko eta gaurkotzeko behar gorria senditzen genuen. Eta eginkizun hori, osoki zitzaigun lan teknikoa, euskalari-lana; iturrietara joaz, eta literatura zaharra eta herriaren mintzaira berrirakurriz eta berraztertuz sortu behar baitzen Euskara Batua famatu hura.

Behar honek, besterik ezean ere (garai hartan ez zegoen Euskal Filologi Sailik Unibertsitatean) Euskaltzaindiko ateetan jotzera bultzatu gintuen; eta, nolabait esanda, gu geu, nor bere mailan, euskalari bihurtzera.

b) Beste alde batetik, hizkuntzaren erabilpena bultzatu nahi genuen. Guk ez genuen ulertzen, esan dudanez, ezta onartzen ere, hizkuntza landu bai, baina gero eguneroko bizian erdaraz egitekotan. Euskaltzaleak erdaraz ari, kontraesan hutsa zitzaigun.

Praxi euskaldunera bultzatzen gintuen honek; eta, beraz, aurreko euskaltzale askorekin, gehienekin egia esan, tope egitera; eta ezpai mingarritan trabatzera eta minberatzera.

Euskalaririk famatuenekek berek ere (nik izenik eman ez arren, aski du irakurleak garaiko idazle eta hizkuntzalarien izkribuak aztertzea), erdaraz egiten zuten beren lana, baita euskal filologiaren alorrean ere. Euskararen aldeko lana ere (hori aldekoa ote den eztabaidatu behar litzateke aurrenik!) erdaraz egiten zen.

Biziera egiazkoaren eta alegiazkoaren arteko haustura, ezin nabarmenagoa zen. Eta egoera zentzugabe hura errotoik aldatu nahi genuenok, atsekabe asko eta askotara eramán gintuen.

c) Eta oraindik beste alde batetik, oso garbiki ikusten ge-

nuen euskararen arazoa politikoa zela erabat, eta politikatik at konpontzerik ez zegoela. Euskal eskola lortzeko, euskal unibertsitatea eraikitzeko, euskal prentsa bultzatzeko, administrazioan eta ekonomiaren munduan euskara sartzeko, «politika» egin behar zela. Egoera politikoa aldatu behar zela; eta hasteko, fazismoa uzkaile. Noski!

Frankismoaren barruan bereziki euskararen arazoa konpontzerik ez zegoela garbi baino garbiago zegoen. Eta aber-tzaletasunetik at, sustraitikako aldaketa politikorik gabe, jai zegoela. Hitz batez, «kulturalismo apolitikoa»ren aurka geunden eta gaude.

Eta borroka politikoan sartu nintzen ni ere; guztiz isilpekoa eta eskergabea garai hartan, Ekin taldearen sorreran parte hartuz. Ez baitzen, hamaika kritikak esan izan duenaren kontra, batere gertakari «kulturalista» gertatu!

Hau dela-ta, bai orduan eta bai gero ere, oso bizimodu zail eta korapilotsua tokatu zait bizieran barrena; bi sailetan batera (hirutan ere bai, hein batez) bultzatu nahi izan baitut, ezinbestean, gure herriaren pizkundera.

Gure herri borrokaren ardatza hizkuntz arazoa dela sine-tsirik, alor horretan eman dut neure indarren zati handi bat: bai ikerkuntzan, eta bai erabilpenaren bultzadan.

Baina, horrekin batera, aldaketa politiko funtsezkorik gabe gure herriarenak egina duela seguru egonik, iratzarkuntza politikoaren inguruko egitekoetan ere murgildu izan naiz buru-belarri.

Liburu honetan, hala ere, xede didaktikoak bultzaturik, banatu egin ditut bi ekintza motak, «politikoa» eta «kulturala», kapitulu desberdinetan; nahiz, irakurleak berak egiaztatu-ko duenez, bi alorrok ezin bereziak izan.

Ezta nik egiten dudan kondairan ere!
Barka, beraz, errepikapenak.

1951-1952 urteetan, Ingeniari Eskolako garaian, erakunde politiko izkutu bat antolatu beharraz jabetu ginen Ekin taldearen sortzaileok.

Baina lehenengo urratsean geure formakuntzaren ahule-

ziaz ongi jabeturik, oso lan «intelektuala» egin genuen: Euskal Herriaren Historia irakurri adibidez. Bilboko Diputazioko Liburutegian makina bat aldiz gertatu izan zait, neronek (1950 inguru hartan) 1880 edo 1900ean argitaratutako liburu funtsezkoen orri askatugabeak, orduan askatzea: *Campion*, *Hermilio Oloriz*, *Sagarminaga*... Lotsagarri iruditzen zitzaidan!

Historia apur bat ikasi genuen, beraz, ezertxo ere ez bai-kenekien iraganaz; Foruak aztertu genituen banan-banan: Bizkaikoak, Nafarroakoak... Polonia, Eire, Suomi-ko askapen mugimenduen berri biltzen saiatu ginen.

Eta, jakina: euskaraz ikasi genuen aurrenik. Ekin taldearen «gurasook», kaletarrak izanik, erdaldun hutsak baikinen!

Nork berea konda beza, eta nik neurea.

1949-1950 ikastaroan, Bilboko Necochea akademian neure azkeneko «ingreso» saialdia prestatu nuenean («azkena», aitak mehatxatu zidanez) gauez ikasten nuen euskara: hamabietatik hirurak arte (sic); eta inolako irakaslerik gabe. Goizetan Necocheako eskolak hamaiketan hasten zirela baliatuz, gaitzerdi.

Nire logelan bi lagun ginenez gero, lanak izaten nituen neure argitasunaz gelakidea ez esnatzeko edo enbarazu egiteko... Euskararen ikasteari, hitz batez, gau-minean eman nion nik: Bilbon, metodorik gabe, irakaslerik gabe... Eta arrabots egiteko ikaran.

Eta zerbait ikasi nuen, Ibarbia zeritzon gelakidearen lepora... Barka Jose Mari! Donostiako Tranbiaren sortzaileen familiakoa, ez zen bera espezialki euskaltzalea; eta ez zuen nire «tema» ulertzen.

Okendo kaleko «ziegan» (kalabozoan, erdaraz) nengoela, dena dela, 1950eko uztailaren 4ean, ni zaintzen ninduen «grisa» jaitsi, eta: «me piden sus familiares que le haga saber que ha ingresado usted en la Escuela de Comercio» esan zidanean, xuxen ulertu nuen. Casillako etxetzarrean hasiko nintzela, alegia. Ez zen berri txarra: sartua nintzen Ingeniari Eskolan.

Eta gaua pasatzeko erabiltzen nuen egurrezko tramankulu gogorra (ez koltxoirik, ez maindirerik, ez deusik hiru egunetan, heze usaina), biguinago iruditu zitzaidan. Eta Martutene

estrainatu-berri hartara eraman nindutenean, topatu nuen mu-
trikuarraren txistek, euskara hutsean kondatuak, hein batez
bederen, ulertu egiten nituela!... Hura poza!

Ilea moztu zidaten («al cero»). Eta ondoko urrian Casilla-
ko Ingeniari Eskolara agertu nintzenean, hura figura enea!
Kaskamotz, eta ikaskideei egia borobila aitortzeko, lotsaz?...
Badakizue: «rojo-separatista», eta abar. «No se llevaba nada
ser aberchale»...

Oraindik ere 21 urte bete gabe, hilabetez Martuteneko
«hotelean», fitxatuta betirako... Ondo jaioa nintzen!

Irten egin nintzen, dena dela; eta Bilbora berriro joan.

«Kontuz» ibili behar nuela-ta, euskarari eutsi nion azkar-
ki. Baita irakurtzeari ere. Egunean hiru liburu alogeratzen zi-
tuen elkarte baten bazkide egin nuen neure burua. Eta or-
duantxe irakurri nuen nik literatura apur bat. Literatura irakur-
tzea eta euskara lantzea baitziren orduan nire bi eginkizun na-
gusiak.

Eta borroka abertzalea urte pare batez «hormaturik» atxe-
ki nuen: 23 urte izanik, buruan zer ote neukan azaldu beharko
al dut? Irakurleak badaki.

Euskaraz funtsezko gauzak idazteko deliberoa hartu
nuen.

Gure kuadrilako «filosofoa» Iñaki Gaintzarain zen. Bilbo-
tarra, irakurle amorratua, oso «fitxatuta» zegoen: 1947an On-
darretako gartzelan egon baitzen; eta 1949an, Martutenekoan.
Eta honek markatu egin gintuen gu guztiok, baita Ekin taldea-
ren sorrera bideratu. Gaintzarain ni baino urtebetez zaharra-
goa zen (Venezuelan bizi da aspaldidanik), eta euskaldun be-
rria.

Poliziaren eskuetan berriro erortzeko temak markaturik,
segurtasun beharra piztu zuen gure artean, eta ikastea eta ira-
kurtzea neurritz kanpo bultzatu. Eta ondoko orrialdeetan ikusi-
ko denez, nabarmena izan zen haserako gure taldean, bai ni-
gan eta bai Ekineko askorengan, Txikitoren eragin intelektual
hori.

Baina oraingoz euskararen alorrera itzuliz, zertan ari ginen gu, ikasle multzo hura, Bilbon 1950 inguru hartan?

Gauza bat nahi genuen, alde batetik: euskara mintzabide, espresabide, mintzabide egoki bihurtzea. Eta ez hezurrik gabeko azal. Bai geure maila pertsonalean, bai euskal gizartearenean.

Eta, beste alde batetik, txit intelektualak ziren gure kezak; eta gure idoloak, ahal genuen mailan ulertuak, oso filosofikoak: Unamuno bera, Kierkegaard, Jaspers, Heidegger, Sciacca, Sartre, Camus, Marcel (Marcel batez ere lñakiren ustez, katolikoena omen zelako)...

Gerratearen ondoko garai haiek, existentzialismoaren garaiak ziren. Eta gu giro hartako seme ginen, dudarik gabe.

Baina 1950erako (alegia, gazte-gaztetandik) Bilboko ikasle talde hartako gehienok, izkutatu beharrez etxetik ihesi aldegin beharra, komisaria, gartzela, «dastatuak» genituen jadanik. Nor bere mailan eta modura, euskal militante abertzaleak ginen.

Sartrearen «authenticité»aren aldeko dei sutseuk ere, konpromezu politikoak hartzera bultzatu gintuzten. Eta laburki, hitz gutxitan, neure burua orduan definitu behar izan banu, honelako zerbait erantzungo nukeen, ustez eta nahikundez bederen: «Ni existentzialista abertzalea naiz; eta intelektual konprometitua, *engagé* frantsesez».

Hots, eta jadanik iradoki dudanez, gure ikasle taldekook, soziologikoki (eta ideologikoki ere bai, erants dezake hemen beste norbaitek) kaletarrak eta burges txikiak izanik, erdaraz baizik ez genekien. Eta nazio hizkuntzaren berreskuratzetik hasi behar izan genuen, zerotik gehienok. Urte haietan ia-ia zehaztasun osoaz esan baitzitekeen, arrantzaleek eta baserri-tarrek hitzegiten zutela euskaraz, eta ez beste inork.

Hizkuntzaz ongi jabetu-nahi hartan, eginahal handiak egin behar izan genituen. Libururik ez zegoen ia-ia (gerra aurreko kondar batzuk, etxazpietako umelduretan horiturik), AEKrik ere ez; gau-eskolak eta... pentsa... Frankismo betean ginen.

Gipuzkoan bazegoen, Elizaren arrimuan gauzatua, OAR-GUI izeneko kultur erakunde bat (Organización Artístico-Re-

creativa de Guipúzcoa); Donostiako Getaria kalean kokatua. Eta horretaz baliatu ginen bilerak egiteko, euskarazko eskolak emateko, euskal sariketa apalak antolatzeko, eta abar.

Eta, hain zuzen ere, Oargui hartantxe jaso nuen nik, pozkariotan, euskaltzale bizieran barrena jaso dudan lehendabiziko saria. Sinbolikoa, noski. Azpimarratu beharrik ez, nik uste.

Kierkegaard-en hazia Unamuno-gan lore zeritzon lan haren aleak oro galdu ditut. Ez arrasto guztiak, halere; *Egan* aldizkariak (1955eko 5/6 alean, 76. orr.) idazlanaren berri ematen baitu. Badirudi 1955ean bertan izkiriatu nuela (urte hastapenean agian).

Tartean, dena dela, zazpi lan urteak (1948-1955) erreparatu behar dira, euskara ikasten emanak. Suzko mihien miraria, urrun!

26 urte nuen orduan, eta ingeniari karrera oraino bukatu gabea.

Negua Bilbon pasatzen nuenez, existentzialismoari buruzko saiakeratxo hura Bilbon bertan prestatu nuela segurta nezake, Gordoniz kaleko neure gelan prezeski; eta Ekin taldearen sorkuntza betean ari ginelarik.

Guk mamiari begiratzen genion. Euskaraz, bai; baina «zerbait» esan nahi genuen. Eta joera hau berri samarra bide zen urte haietan. Handik bi urtetara (1957) Mitxelenak *Leturia*-rentzako hitzaurre luzea egitean, bereziki azpimarratu baitzuen hori: «Utsa aal da, bada, gure artean, iñor mamia aintzakotzat artzen ikustea?» (ik. *Leturia, Sarrera-iz batzu*, 5. orr.; 1957-IV-14ean prestatua).

Oargui-ko sari hura jasota hilabete batzuetara, Antonio Arrue asteasuarrak (*Egan* aldizkarian eta Urkijo Mintegian Mitxelenaren lankide) lan bat euskaratzea proposatu zidan; eta gero *Egan*-en argitaratzea. Hautatutako lana hau izan zen: Alphonse Daudet-en *Aita Gaucher-en mixtela*. Ipuin laburra.

1955eko abenduan burutu nuen neure lana; eta 1956ko *Egan*-en (3/4; 44/49 orr.) argitara zen. Horra hor, inprimaki mailan bederen, nire «luma-bataioa»...

Hortik aurrera, eta gartzelara erori eta deserrira abiatu arte-

an, aldioro idazten nuen *Egan*-en; eta, hori dela-ta, «colaborador» gisa agertzen naiz urte haietan aldizkariaren kontrazalean.

1956ko dagonillean Budha-ri buruzko artikulu luze bat idatzi nuen: *Mendeurren oargarri bat* (1956-5/6; 94/99. orr.). Budista xamarra nintzen garai hartan; *Peru Leartzako* nobelan argiro ikus daitekeenez.

Apur bat moda ere bazen: Ferrol-en laguntasun handia egin nuen López Encinas izeneko ingeniari erdi-budista batekin... Ez zen Krutwig bakarra... Bidenabar esateko: budismoarena ez da moda-kontua. *Unamuno eta Budha ez daude elkar-gandik urrun.*

1957ko martxoaren 28an, neure bizian lehenengo aldiz, hitzaldi bat eman nuen euskaraz, Donostiako Diputazioan: *Unamuno eragille.* (ik. *Gertakarien lekuko*, 1985; Haranburu Ed., 71/80 orr.). Unamuno euskal herritarra gorroto banuen ere, Unamuno idazlea benetan miresten bainuen.

1958an (*Egan* 1/2; 43/47) astronomiari buruzko artikulu filosofiko eta luzeska bat idatzi nuen: *Betikoaz agian* (ik. ibid. 13/18/).

Eta 1960an, bigarren aldiz gartzelara joan baino lehen-txeago: *Lekuko bikain bat il da* (ibid. 80/88); hil berria zen Albert Camus frantses-algeriar idazle famatuari buruz. Berau ere, irakurleak badakikeenez, existentzialista, baina Sartreren etsai ideia politikoen alorrean.

Urte haietan nire kezka intelektualak nolakoak ziren garbi azaltzen da izkribu-gai zerrenda horretan.

Baina, horiekin batera, ordukoa da jadanik Donostia zaharrarekiko nire joera: *Donostia eta Antigua 1829an* (*Egan* 1957, 1/2; 52/58 orr.). Kondaira ataltxo hori, urte haietan gauzatu nuen (ik. bigarren argitaraketa: *Euskal Herritik erdal herritara bilduma*, Gr. Bilbao, Euba, 1978; 17/23).

Beti sinbolismo filosofikoaren ildotik, geroago ere berrargitaratua izan den ipuin adierazgarri bat izkiriatu nuen: *Orangutanen ugartea* (*Egan*, 1957; 5/6, 289/295). Hau literatur lanekin sailkatzekoa da, saiakera laburren multzoan; nahiz kezka hori ia-ia metafisikoa izan.

Euskal mundura, garbi agertzen bide denez, idazle gisa agertu nintzen; ia-ia «Aresti-tar Gabirel» izenekoarekin batera (haren *Pigmalion euskaraz* delakoa urte haietakoa baita); eta nahiz Gabriel ni baino gazteago izan.

Egan-en kronikariak, bestalde, ez du Arestirekiko bere mi-respena izkutatzen: «Benetan arrigarria, tutik ere etzekian Bilbotar gazte onek egunez-egun dagien aurrerapena» (*Egan* 1956, 1; 58).

Garai berekoak dira, bide beretik, Laspiur, Kapanaga, Alfontso Irigoien; baita Etxaniz eta Etxaide semea (Jon), gu baino zaharragoak izan arren.

Ordukoak dira nire lehenengo bi nobelak («nivolak» esatea egokiago nuke, Unamunoren ildotik).

1956an barrena idatzi nuen *Leturiaren egunkari ezkutua* izenekoa, Galizan, Ferrolen zehazki; «glorioso ejército» ko alfereza nintzelarik. 1957ko udaberrian Koldo Mitxelenak hitzaurrea prestaturik, moldiztegiara joan zen urte hartan, baita kalera irten ere.

Existenzialismoaren kezkek eta problematika nagusia azaltzen dira liburuan. Gertuago dago liburua, dena dela, Unamuno eta Kierkegaardengandik, Sartregandik baino. Eta, sinbolotan gauzaturik, aukeratu beharri lotutako ezin egonak eta larridurak azaltzen dira (Absolutu bihurtuko den sinboloa baizik ez da Miren nobelaren ardatza); eta aukeratuondoko egoera ezin aldatuari datxezkion beste larridurak azaltzen dira bigarren partean.

Nire nahian bederen, denak dauka bere funtsa (Camus-en *La Peste*-k izan bide zuen honetan eragin nagusia): «uda» garaian Leturiak ezer ez idazteak, argi arrazionalaren bila Parise-ra egindako bidaiak, denak. Ustez, bederen, denari datxekio bigarren mailako irakurketa.

Irakurlerik gehienek ez zuten sinbolismoaren gakoa somatu, eta honek dexente sufriarazi ninduen. Autore guztion ezinak, nik uste.

Hurrengo liburuan, 1960ko haseran burutua, eta *Peru Le-*

artzako izenburukoan, kezka berak azaltzen dira. Sinbolismoa ez da hain orokorra; nahiz benetako etsipena eta larridura eguneroko lanegin beharretatik jaregitean sortzea ez batere axaleko xehetasuna izan. Budismoaren tentazioa, bestalde, nabarmena da, «Gautama» eta «Sakyamuni» hitzak aipatzen baitira liburuaren amaieran (Budharen beraren izenak).

Saioak, hitz batez, metafisikoak izan ziren sentidu her-tisian. Baina gutxik erreparatu zuten honetan, eta konprenitu. Beti ere, jakina, nire ustez. *Leturia* eta *Peru Leartzako*, liburu filosofikoak dira osotara; hutseginak izan baldin badira ere.

Gerozko *Elsa Scheelen* edo *Exkixu*, ez. Baina *Haizeaz bestaldetik* ere, oso gertu dago, funtsean, *Leturia* eta *Peru-tik*.

Bego hori ohar orokor horietan; ez baita nire asmoa neronen literatur lanen kritika egitea...

Baina idazle sasi-filosofoaren kezka horiek gauza nabar-mena izanik ere, ez ziren txikiagoak euskararen etorkizunari buruz edoskitzen nituen kezkak. Batzuetan literatur iruditan disimulaturik (ikus *Piarres gaixoaren pasadizuak*, adibidez: *Egan* 1958; 162/164).

Alde batetik, euskaldun berria izaki, hizkuntza ongi men-peraturik ez izateko segurantzia neukan. Mitxelenak berak bere hitzaurrean azpimarratu zuenez, nire euskara «gordin-an-txa» zen orduan, heldu gabea. Eta ahulezia honek gehiago irakurtzera eta ikastera bultzatzen ninduen. Mendibururen *Otoitz-gaiak*, Axular, Asteasuko Agirre, orduan irakurri nituen nik xeheki eta buruz buru.

Beste alde batetik, euskararen dialektalismoak kezkatzen ninduen. Hitzen balio semantikoa aldatu egiten da euskalkitik euskalkira, eta irakurleak zer ulertuko ote zuen ez nekien. Nire hiztegia urria zen, zalantzaz betea. Lanabesaren eskasia erreparatzen nuen egunero, izkiriartzen hasten nintzen bakoi-tzean; gehi... neronena!

Eta Krutwigekin nentorren bat: gure hizkuntza ez zegoen prest. Gaitu egin behar zen, osatu.

Eta, besteak beste, nire aldaketa horren argigarri gerta daitezkeen neure hiru izkribu gogoraziko ditut laburki.

Lehenengoa *Egan* aldizkarian agertu zen (ikus *Egan* 3/4, 1956; 44/49 orr.); eta 1956ko haseran idatzi nuen: *Ez bat eta ez beste*. Azpтитulu honekin: *Euskeraren auziari buruz*.

Euskara «garbia» eta euskara «mordoiloa»ren arteko eztabaida latza zegoen euskaltzale bazterretan. Orduko abertzaleak, oro har, garbizaleak ziren; eta gazteok, edo gazte batzuk bederen, «garbizale» samar izanik ere, gehiegikerien kontra-koak ginen.

1956ko artikulua hartan agertzen diren esaldi batzuek ez dute zalantza handirik uzten: «Euskera, jaunok, ez da garbi, ta ez mordollo ere. Geu gera garbi ala mordollo dakusagunak. Euskera euskera da: orra ezinbestezko idorokunde nagusia... Euskera garbi ala mordollo ote den galdetzen ba zaio jatorrizko euskaldun bati, ez dut uste erantzuten jakingo duenik... Euskera euskaldunen mintzabidea izan deño, iñork ez ditu bere begiak euskeran jarri... Orrengatik, konpleju guziak aldebat utzita, euskera euskera dela aitortu bear dugu leenik; eta euskera dela soilki euskaltzaleok maite bear duguna» (*Egan*, 45).

Horretara zetorren izenburua: *Ez bat(a) eta ez beste(a)...* Ez garbia, eta ez mordoiloa.

Izkribu horretan, dena dela, «Euskera Batua» esaera ez da agertzen.

Nora jo, ordea? Nork erabaki zitzakeen arazo haiek?

Euskaltzaindiak, entzun zitezkeen euskaltzaleen artean. Ez denen artean: bai Euskaltzaindiak, bai Bizkaiko «Junta de Cultura» delakoak, bai Urkijo Mintegiak, frankismoarekin «kolaboratzeko» fama zuten abertzale eta anti-frankista «ofizial»en artean.

Baina, egia esan, zertan ari zen Euskaltzaindia? Zerbait esana dago jadanik.

Zilegi bekigu atzera egitea, eta gauzak oraingoan xehekiago kondatzea.

Gauza bat hasteko: orain kondatuko ditudanak somatu egiten zirela kanpotik; baina jakin ez genekizkiela. Askoz ere beranduago jabetu gara orduko egoera tristeaz.

Bileretako Agiriak (Aktak) izango ditugu aurrean (*Euskera*, 1956; 317/329).

Franco Bilbon 1937ko ekainean sartzean (Gernikako zafraketa gertatu eta bi hilabetetara), euskal kutsu eta inguruko ekinaldiak eta erakundeak oro gelditu ziren; Euskaltzaindia bera barne.

Baina Urkijo eta Azkue bera «abertzale» ez izanik (alegia, politikoki «separatista» ez izanik, gutxi gora-behera), frankistek ez zuten osotara birrindu eta desegin. Honetan funtsatzen ziren abertzaleen susmoak. Normala urte haietan euskal instituzioak debekatzea baitzen, bulegoak ixtea, eta abar. Zergatik ez Euskaltzaindia?

Polizia, halere, ez zen guztiz fido. Eta 1944eko martxoaren 31ko Agirian, bilerara «ertzain bi agertu zirela» adierazten da (bi polizia español, alegia).

Isil-isilka, beraz, batere arrabotsik atera gabe, berriro hasi ziren Euskaltzaindiko bilerak burutzen. Azkueren lehendakartzapean beti, txandaka Bilbon eta Donostian, Euskaltzaindiak ezagutu duen garairik ilunenean barrena.

1941 eta 1948 artean (Azkue 1951n hil zela esana dugu) 39 aldiz bildu zen Euskaltzaindia (edo, hobeki esan, salbatu zen parte: Altube, adibidez, deserriturik, bileretatik at egon zen urte luzetan).

Bilerak erdaraz egiten ziren (gaztelaniaz, zehazkiago); gerra aurrean bezala. Eta txostenak ere, erdaraz. Honen froga bitxi gisa hau erants daiteke: G. Bahr-ek alemanez bidali zuen txostena, biltzarkideei Azkuek berak itzuli ziela erdarara (1942ko martxoaren 26ko bileran). Ez zuen euskarara itzuli.

Urte horietan barrena bileretan irakurri ziren 30 lanetatik, 29 gaztelaniaz aurkeztu ziren. Hogeita hamargarrena (Ignazio Maria Etxaiderena), xehetasunik ezaz, ez dakigu euskaraz aurkeztu zen, ala beste guztiak bezala erdaraz.

Txostengile nagusia Azkue bera zen: dozena bat txosten,

batzuetan bizpahiru bilkuratan zehar irakurriak. Halaz ere, zaharra zen ordurako (84 urte, 1948an).

«Absentismo» handia zegoela somatzen da: «batzarretara uts barik etorri daitezala» irakur daiteke 1947ko irailaren 26ko Agirian.

Txostenen kopuruari begiratzen badiogu, Federiko Krutwig da bigarren txostengile nagusia. 1942ko urriaren 29an «urgazle» hautatua (berak 21 urte besterik ez zuelarik), eta 8 txostenen egile, bera izan zen Azkuerekin eta «zaharrekin» lotura egin zuena. Zinez esan daiteke Krutwigek «salbatu» zuela Euskaltzaindia berrogeikadako urteetan, handik urte gutxitara (1952ko urtarrilean) ihes egin bazuen ere.

Eta hirugarren txostengilea, kopuru hutsaren lerrokada horretan, P. Zamarripa apaiz eta gramatikagilea izan zen: 6 txosten.

1947ko azaroaren 29an euskaltzain oso aukeraturik, Krutwigek mahairatu zituen arazo nagusiak. Julio Urkijo hilda berehala, Euskaltzaindiko bilerak euskaraz egitea proposatu zuen (hau proposatu behar izatea ere!...), baita lortu ere; ondoko urteetan ere bilera haietan, esana dudanez, gatzelaniaz zein frantsesez mintzatzea maiz gertatuko bazen ere. Eta Euskararen Batasunaren behar gorria azpimarratu zuen.

Besteak beste, 1943ko azaroaren 26an aurkeztu zuen txosten berezia honi buruz: *Unificación de los dialectos vascos*. Hauxe zen gai honi buruz gerra ondoren aurkeztzen zen lehendabiziko txostena. Kezka berbera zeukan Sebero Altube euskaltzainak, hori bai: *La unificación del euskera literario*. Baionan 1946ko irailean irakurria, ez zen Hegoaldean batere hedatu. Frankismo betean ginen; eta Iparraldean edo Frantzia gertatzen ziren urratsen oihartzuna, nekez iristen zen Hegoaldean bizi ginen euskaltzaleon belarrietara.

Bai Menéndez Pidal eta bai Ormaetxea, *Orixe*, arrazoin desberdinegatik, Euskara Batuaren kontra zeuden errotik. Eta bi horietxek ziren garai hartan gehienik errespetatzen ziren gizandiak... Menéndez Pidal ez zitzaion estandarren «artifizialkeria» gustatzen. Eta Orixekek gogoan zeukan Grezia klasikoa: lau dialekto literatur tresna izanak. Zergatik ez gauza bera gurean?

Ondo ginen!

Seber Altube Batuaren alde zegoen 1922az geroztik; eta garbizalekeriaren kontra ere bai. Betidanik. Baina Altube ihesi joana zen, abertzalea, eta debekatua espainiar Estatuan. Arrazoin desberdinengatik, batera zituen bere kontra PNV-tar «ofizialak» (garbizale amorratuak, itxuraz; nahiz beren praxian erdaltzale faktiko ezin gogorragoak); eta bai frankistak eta panzistak.

Giroa ez zegoen, hitz batez, batera Euskara Batuaren alde ni euskal mundura jaio nintzenean; eta ez gutxiagorik ere.

Eta, oro har, Euskaltzaindia ere ez.

Nora joko, ordea? Euskaltzaindira, halaz ere. 1955-1956an ere gauzak beren hartan zeuden. Ez da harritzekoa, beraz, 1956ko hastapenetan nik idatzitako lanean (*Ez bata eta ez bestea*, *Egan*-en argitaratua, arestian seinlatu dugunez), esperantzak Euskaltzaindian ipintzea. Areago Arantzazurako deialdia egitean (1956ko irailean).

Egun haietan Galizan nengoen ni, soldadutzako azkene-ko sei hilabeteak amaitzen ari (neure *Leturia* hantxe idatzi nuen, bestetan ere esan izan dudanez). Eta Arantzazura zoritarrez ezin azaldurik, txosten bat bidali nuen Alfontso Irigoien bidez. *Karta idigia* izeneko txostena (ikus *Euskera* 1956, 83/88) bidali nuen Ferrol-dik.

Pasarte bat (87-88 orr.) Euskaltzaindiaren betekizunari eskaini nion, honetara:

«Pozez ikusten dugu Euskaltzaindiaren piztutzea.

Erabakizkoa izan diteke oni guziari buruz Euskaltzaindiaren betekizuna.

Bere bi adarrak odol berriz indarturik, abiadura ederra artu dezake, ta bi lan goragarri egin ditzazke:

1) Alegiñak bere babesean zuzendu.

2) Bere aipu guziarekin, eta ofizialki, *euskeraren batasuna* zeaztu, eta euskera «personala» ta euskal berrikeri guziak ezetsi eta kondenatu».

(ik. *Euskera*, 1956; 88. orr.).

«Balizko olek burnirik ez» paragrafoan, hau proposatu nuen egiteko nagusizat: «Euskera *gaitu, batu ta osatua*» (87).

Eta A. Villasantekin bat eginik, euskara euskaldunen mintzabide bihurtzea.

Bilerako Agiriak aurrean, eta gaizki ez banago, ez zuen beste inork bileretako ardaztat euskeraren batasuna hartu. Krutwig aldegina zen lau urte t'erdiz geroztik. Eta lapurtera «klasikoa», definizioz, Leizarragarena zen, eta batu beharrik ez du. Nolanahi ere, eta ageri denez, ez zen Arantzazun planteiatu.

Gainerako txostenek beste hamaika puntu ikutzen zuten: Azpeitiko euskerea, liñagiñen iztegia, Lardizabalen izkera, Arantzazuko folklorea, bertso zarrak eta berriak, kristau ikasbidea, Axularren kontuak, eta abar.

Bi txostengilek, bestalde, ohitura zaharrari jarraituz, erdaraz aurkeztu zituzten beren izkribuak: Zavala eta Mokoroa apezek.

Aita Agirretxe izan bide zen Arantzazuko bilera haietan *Euskara batuaren* beharra azpimarratu zuten bakarretakoa: «askotan poztu egiten garela bereizkuntza ta pitxiakatik, eta poztu bearrean zergatik ez garen tamaltzen» (ibid., 173); *bata-sun falta garbiki gaitzesten zuelarik*.


1956ko azaroan, bai karrera amaituta (urte bereko martxoan), eta bai soldadutzako alferrez-aldia bukatuta (urriaren 31ean), Donostiara itzuli nintzen. Eta Mitxelenari erakutsi nion neure esku-izkribua, baita hitzaurrea eskaini ere.

Halaxe egin zuen. Eta 1957ko Erramu igandez izenpetu zuen nire nobelak eramango zuen «sarrera».

Maiz ikusi ohi nuen Mitxelena Diputazioan; eta maiz ere Urkijo Mintegiko liburuak (Duvoisin-en Bibliaz eta Haranederren Ebanjelioez oroitzen naiz bereziki) etxera eramaten eta lantzen. Afalondoan oso maiz telefonatzen nuen Errenteriako bere etxera.

Asteartero, arratsaldeko zazpi t'erdietan, euskarazko eskolak ematen nituen Mintegian, Diputazioan (ikus, harrigarriro, hamaika etxe-aldairatzen barrena neure paperen artean atxeki dudan baimen hau, Mitxelenak berak bere eskuaz sinatua).

Eskola horien berri eman zuen *Egan*-ek: «Beti bezala se-
gitzen dute –zioen *Egan*-ek– Aldundegiko Liburutegian, eta
haren Aretoan, euskara-erakaspak, Bidegain andereñoaren
gain batzu, eta besteak Alvarez jaunaren gain» (*Egan* 1959;
5/6, 184; Apat Etxebarneren kronikan).



Ordurako euskaltzain «urgazlea» nintzen («académico correspondiente» gaztelaniaz); 1957ko irailaren 26an maila horretan hautatu nindutenez geroztik. Ondoko orrialdeotan ere itzuliko naiz puntu honetara.

Berriro Euskaltzaleen Biltzarra biltzekotan zegoela ikasi nuen. Eta txosten zehatz bat aurkeztea erabaki nuen. Mitxelena oso maiz Diputazioan gurutzatzen nuenez, eta bere liburu eta separata guztiak argitara ahala eskaintzen zizkidanez, normala da Bilbora eraman nuen lan hartan Mitxelenaren ideien oihartzuna garbiki segi ahal izatea. Maileguen egokikuntza fonologikoaz ematen nituen adibide zerrendak, Mitxelenak emandako zerrendetan funtsatuak dira orpoz orpo, adibidez.

Nire izkribu hura bere osoan ezagutu nahi duenak, bi helbide dauzka: bata, jakina, Euskaltzaindiaren *Euskera* aldizkari-
ra jotzea: 1959, IV, Bilbao; *Batasunerako Bidea*, 150/170. Edo-ta, bigarren modua, *Euskal Herritik erdal herrietara* bildu-
mara jotzea, 171/193 orrialdeetan.

«Batasunik eza» salatzen nuen bertan, «gure anarkiaren sustraia» zedarritzen saiatzen nintzen, «euskal jenioa» gorai-patzen, autore zaharren balioa azpimarratzen, «idazleen asmaketak» gaitzesten, «literatura euskalkia»ren behar gorria gogorazten, «deklinazioa» eta «berboa» batzeko beharra, eta abar luze bat.

Bukatzerakoan batera jokatu beharra azpimarratzen nuen, eta «Euskaltzaindiak gogorrago» bidea markatzeko eskatzen. Geroago Ermuan ikusiko zen bidetik, *batasuna eta diziplina* nahi nituen, beste euskaltzale gazte askok bezalaxe.

Handik lau urtetara (1960) *Peru Leartzako* bigarren nobelarentzako prestatutako sarrera oharrean, hitz hauek idatzi nituen: «Euskaltzaindiak «h»ari buruz iritzi tinkorik oraindik eman ez duelako, neurekixa darabilzkit auek; eta Etxaide'k eta gaurko beste zenbait idazlek bezela, «h» ori erabiltzen duten euskaldunai irakurtzea piska bat erraztutzeko asmotan, bokale bikoitzetan jarri dut liburu ontan: zaharra, zuhurki, ahaide, lehenago, eta abar... Liburuan agertzen diran nere irizpide auek, alaz ere, betirako ditudan iritziak ez dira, noski. *Eta Euskaltzaindiaren esanetara nago*» (*Peru Leartzako*-tik, sarrera oharra).

Berriro 1958ko abenduaren 3ko txostenari nagokiolarik, garrantzitsutzat daukat Batuaren aldeko neure borroka pertsonalean.

Baina Euskara Batuaren aurkako korronea azkartuz zihonan ordurako, eta aurrerago egiterik ez zegoen. Altubereren lehenengo saioak gertatuz geroztik, 37 urte ziren joanak; eta Krutwigen saioetatik, berriz, 15. Ez zegoen presarik!

Gazteek zuten presa, euskal gizarteak ere bai. Baina beste hamar urtez itxaron behar izan genuen, Euskaltzaindiak, Mixelenaren bitartez, gidaritzaren erremalak ausarki har zitzen.

Hamar urte luze.

Baina euskara ikastea, batzea, irakastea, ez zitzaigun aski.

Eta, hain zuzen ere, euskara eguneroko bizian txertatu nahi genuelako, euskararen aldeko mugimendu edo organizazio bat sortzea, edo bultzatzea, burutatu zitzaigun.

Hots, ezinezkoa zen hori, legetik atekoa, eta abar. Frankismo betean geunden! Nonbait kokatu behar. Eta frankismoan barrena sarritan gertatu zen bezala, babesa Elizaren organizazioetan (Oargui aipatua dut) jarri genuen begirada; edo-ta, euskararen alorrean, legezaturik zegoen erakunde euskaltzale bakarrean: Euskaltzaindian.

Eta koka dezagun, beraz, geure arreta 1958-1959an.

1957ko irailaren 26an, Jon Etxaide, Gabriel Aresti, eta beste zenbait euskaltzalerekin batera, «Euskaltzain Urgazle» izendatu ninduten; 28 urte betetzeko bezperan hain zuzen. (Bilera haren Agiria «desagertu» denez, ezin izen lerrokada zehatzik eman).

Begien aurrean daukadan neronen Diplomak honela zioen: «euskeraren alde orain arte egin dituan lanen esker-erakutsiz, eta aurrerakoan pozgarri izan dakion, urgazletzat artu du». Grafia horrelakoxea zen oraindik; Euskara Batuaren prozesua hasia ez zelako.

Argitara berria neukan, hain zuzen, *Leturiaren egunkari ezkutua* nobela (Bilbo, 1957; Euskaltzaindiaren ardurapean). Eta Mitxelenaren *Sarrera-itx batzu* izeneko hitzaurreaz horniturik.

Egon, Euskaltzaindiaren barruan nengoen, «urgazle» gisa, 1957az goerotik. Eta hilero-hilero, Donostiako Diputazioan burutzen ziren bileretara joaten hasi nintzen. Eta horrelaxe egin nuen 1961ean, gartzelatik irtetean, ihes egin nuen arte.

Euskaltzaindiak bi Sail nagusi dituela ikasi nuen urte haietan: zientzi-alorrekoa bata, «Iker Saila» izenekoa; eta hizkuntzaren biziari buruzkoa bestea, «Jagon Saila» deritzona.

Esan beharrik ez: bigarren honetan somatu genuen guk, euskaltzale gazteok, frankismo itogarri hartan, euskararen alde agirian zerbait egiteko zirrikitu bat.

Areago. Zehazki nola jakin ote genuen gogoratzen ez naitzelarik, Jagon Sail honen arrimuan, gerla aitzinean Euskaltzaindiaren Laguntzaileak izeneko azpi-sail bat muntatzeko projektua aurkeztua izan zela jakin genuenean.

Ni 1957an Euskaltzaindia boturik gabekoan mailan sartu aurretik, hain zuzen, eta Mikel Arrutzaren eskutik, azpi-sail hura berpizteko saio bat egon zen (ikus *Euskera* 1992, 1; 557-572 orr.; Jose Maria Satrustegik prestatutako txostena).

Eta 1959an eginetara pasa ginen. Euskaltzaindiaren Laguntzaileak erakundea indartu nahi genuen («genuen»: aberzale gazteok).

Azpisailaren idazkari izendatu ninduten: eta Jagon Sailaren agindupean lanegiteko asmoa azaldu genuen. Buruzagitzat ondoko pertsona hauek proposatu genituen: Bizkaian, Nazario Oleaga eta Mikel Arrutza (berau jadanik aipatua). Eta Gipuzkoan, oraindik hautatu gabeko euskaltzain bat, eta irakurleak ongi ezagutzen duen Juan San Martin jauna. Oleaga zaharra zen, karlista, eta euskaltzalea. Arrutza, berriz, jadanik bere 72 urteetan egonik ere, oso bultzatzaile, oso abertzale eta oso gazteen aldekoa.

Eta lanean hasteko urratsak egin genituen.

Dokumentu gisa (Satrustegik ez dakarrelako, bere osoan bederen), eta mirakuiluz neure paperen artean kopia bat gaur arte salbatu delako, hona hemen Euskaltzaindiaren Laguntzaileak delakoaren izenean aurkeztu nuen plana: 11 puntutan.

«San Sebastián, junio 1960.

Propuesta de Reglamento para Euskaltzaindia y Euskaltzaindiaren Laguntzaileak

1.—Con el fin de actualizar más plenamente el artículo 1 del vigente Reglamento de la Academia de la Lengua Vasca, de fecha 24 de agosto de 1954; que dice: «el fin de esta Academia es velar por el idioma vasco, atendiendo tanto a su cultivo popular y literario como a su investigación filológica»; y de dar fiel cumplimiento a lo estipulado en el artículo 2 del referido Reglamento, según el cual «se aconseja la formación de dos secciones, filológica y tutelar», la Academia acuerda en Junta reconstituir reglamentariamente dicha Sección Tutelar.

2.—De acuerdo con ese artículo 2 del Reglamento vigente, según el cual a esta Sección Tutelar «pueden

pertenecer todos los miembros de la Academia», quedan constituidos inmediatamente por miembros de la Academia los comités de Vizcaya y de Guipúzcoa, de la forma que más abajo se indica. Se recomienda asimismo a la Junta de la Academia la activación de las gestiones en pro de la rápida constitución de comités análogos en Alava y Navarra.



EUSKALTAZAINDIA'REN LAGUNTZAILLEAK

BIZKAI'KO BATZORDEA

1226'gn. Bidari-Kutxa

43763 eta 12745'gn. Uñak.

BILBO

3.—Según el punto 3 del repetido Reglamento, la misión que debe cumplir la Sección Tutelar es la siguiente:

«a) prestará preferente ayuda a la fijación de la lengua literaria; uno de cuyos medios habrá de ser la facilitación por parte de la Academia y orientación de los escritos actuales respecto a los mejores textos del euskera escrito.

b) Colaborará con la Sección Filológica en la formación del Diccionario General.

c) Prestará su concurso para la euskerización de textos pedagógicos y demás libros, escritos publicitarios, comunidados, etc., en que sea requerida la Academia.

d) Celebrará concursos literarios, a base de obras originales, o traducciones de publicaciones u obras de interés actual preferentemente.

e) Recogerá cuidadosamente nuestros documentos

literarios antiguos, tanto impresos como inéditos, y publicará los que mayor interés tengan.

f) Ayudará a la creación y orientación de clases de Lengua y Literatura vascas.

g) Podrá otorgar el visto bueno a las obras literarias de noveles que lo soliciten, si el lenguaje utilizado reúne las condiciones mínimas de corrección de estilo, de *comprensibilidad y gusto literario*».

4.-La Sección Tutelar, consciente de la gran envergadura de la misión que la Academia le tiene encomendada, y de la imposibilidad real de cumplirla por sí sola con eficacia, solicitará apoyo a la filial Euskaltzaindiaren Laguntzailleak, constituida recientemente por acuerdo de la Junta, y cuyos fines no son otros que todos y cada uno de los que enumera el punto 5 del Reglamento de la Academia.

5.-Euskaltzaindiaren Laguntzailleak, como se acaba de exponer, y como su propio nombre indica, es una sub-sección de la Academia, carece de personalidad y de fines propios distintos de los de la Academia; y no es sino la prolongación de la Sección Tutelar para euskaltzales no académicos, que así pueden colaborar en las labores de Euskaltzaindía. Euskaltzaindiaren Laguntzailleak trabajará, por lo tanto, bajo las órdenes de la Sección Tutelar de la Academia, y sus miembros se someterán en todo al Reglamento vigente de 1954.

6.-La Sección Tutelar, apoyada por su filial Euskaltzaindiaren Laguntzailleak, por sus mayores posibilidades de recaudación de fondos, espera poder administrarse a sí misma con plena autonomía, sin convertirse en una carga para la Academia; e incluso ayudar poderosamente a la Sección Filológica para sus trabajos específicos.

7.-Un Académico de número será el responsable ante la Junta, de la administración de los fondos de la Sección Tutelar y de su filial, y presentará detallados balances a la Junta con la periodicidad que ésta establezca.

8.—La Sección Tutelar actuará con plena autonomía, lo mismo que la Sección Filológica, sin más limitaciones que las que establece el Reglamento de 1954.

9.—Se someten a ratificación por la Junta los siguientes comités de la Sección Tutelar:

Vizcaya: Presidente: D. Nazario Oleaga
 Secretario: D. Miguel Arruza
 Vocales: Srs. Gorostiaga, Mocoroa
 Ibarguchi, Peña, Erquiaga,
 Irigoyen, Berasaluce y Aresti.

Guipúzcoa: Presidente: (un académico de número)
 Secretario: D. Juan San Martín
 Vocales: Srs. Loidi, Berriochoa, Echániz,
 y Alvarez Emparanza.

10.—Todos los directivos de la Sección Tutelar, lo son también por derecho propio de Euskaltzaindiaren Laguntzailleak.

11.—En los casos en que surjan divergencias de criterio, será factor determinante el cumplimiento del Reglamento de 1954.

Firmado: Alvarez Emparanza».

Parte hartzaileen zerrenda adierazgarria da. Ikus daitekeenez, deserrian ordurako, Krutwig ez da agertzen; Villasante eta Mitxelena ere ez, esate baterako. Irigoi en bai, eta Gabriel Aresti ere bai: Zenbait «urgazle», beraz. Baina «goikoak» at, berriz ere.

Helburuak, organigrama eta Euskal Herriak jasaten zuen zapalketa fazista ezagututa, laguntza merezi bide zuen proiektu honek. Baina laburki azalduko dugunez, trabak agertu ziren berehala.

Finantza bideen alorrean sortu zen hika-mika; eta gerora haustura.

Euskaltzaindiaren Laguntzailleak erakundetik autonomia ekonomikoa eskatzen genuen. Baina hauxe zen Euskaltzaindiak, «infiltrazio» abertzaleak sinetsirik, onartu nahi ez zuena. Orduan ere «nor dago atzean?» galdetzen zuten geldikoiek eta legezaleek.

Asteasuko Arrue frankistak kezka horiek azaltzea normalizat jo behar da. Abertzale batzuek ere hanka-traba egitea, nekezago uler daiteke. Euskarak ez baitzuen nora heldurik.

Urte mordo bat beranduago A. Satrustegik prestatu duen txostenak, horretara, balio aparta du urte haietako jokabide batzuk, eta ondorioz agertutako herra eta etsaigo iraunkor batzuk ulertzeko.

Mikel Arrutzak, alde batetik, buru-belarri jokatu zuen gazte euskaltzaleen proiektuaren alde; azkenean bere burua gaitzetsirik ikusi arte.

1960ko abuztuaren 18an Goarda Zibilak atxilotu ninduen Antiguako etxean. Euskaltzaindiaren Laguntzailleak erakunde berriarentzako proposamenak nire sinadura baitzeraman bi hilabete lehenago, ondorioak ateratzea ez da batere zaila. Behin eta berriz tokatu izan zait Euskaltzaindian bertan «elemento conflictivo» izateko erasoia jasan behar izatea... Ez da gaurko kontua; ezta 1978koa ere.

Agian gertakari hauetan bilatu behar litzateke gakoa. Baita ondoko hilabeteetan gertatu ziren beste batzuetan ere.

1961eko Urteberri egunez Dantxariatik Iparraldera pasa nintzenez, eta 16 urte luzetako deserrialdia hasi, beste fase bati ekin nion neure bizieran. Eta Euskaltzaindiko azpi-sail hura azkartzeko asmoa ahaztu ere egin nuen.

Ondorioek, ordea, oker ez banago, luzaz iraun zuten. Eta oraino ere zutik ote dirauten nago...

Baina Euskaltzaindiaren Laguntzailleak azpi-sailaren gora-beherek desbideratu egin gaituzte geure bidetik. Eta hobe dugu harira itzuli.

Jakina: batek edo bestek agian erakunde hartaz zer gertatu zen ikasi nahi luke. Nik neuk, esana dudanez, ezer gutxi jakin nuen ondoko hilabete eta urteetan. 1961eko otsailean Parisera ihesi iritsita (babes politikoa lortu arte beste sei hilabete luze joan ziren), eta emaztea eta hiru seme-alaba nagusiak nigana ekarri ahal izateko oinarriak jartzen, banuen nahikoa lan. Dokumentazioa ere ez baitziguten frantsesek aisa ematen...

Euskaltzaindiaren Laguntzailleak, hitz batez, itzaldu egin zen nire bizian. Eta Hegoaldean ere... hor nonbait.

1961eko amaiera arteko gorabeheren berri eman du Jose Maria Satrustegi euskaltzainak. Urte t'erdiaeren buruan, kitto. Beste porrot bat euskararen kondairan.

Baina gu geu, goazen aurrera.

1961eko urtarrilean Iparraldean gelditzen saiatu nintzen. Baina «paperen» arazoaz gain (anti-frankismoa ongi ikusia zenez, hortxe zegoen gure esperantzabidea), ekonomiarena zegoen. Zertatik bizi?

Aita Charritonek lagundu ninduen: bai Hazparnen zuzentzen zuen Collège Saint Joseph delakoan ohea eta hazkurria emanez; eta bai ingeniari lanen bat bilatuz ere.

Aurkitu ere egin zuen: Miarritzen, Lavigne zeritzon ingeniari militar zahar baten bulegoan. Baina lanbide hura ez zen egoki mamitu; eta prentsa iragarki bidez, Parisen lortu nuen beste aukera bat.

Kalkuku frogatzen bat egin nuen astebetetz Pelnard-Considère izeneko bulegoan, eta onartu egin ninduten. 1961eko otsailean horretara Parisera joan nintzen, neure familia (emaztea eta hiru seme-alaba, Mikel gazteena oraindik jaio ez zelako) Donostian utziz. Eta horrela eman nion hasera neure Parise-aldiari.

Esan beharrik ez: etenda gelditu ziren eskuartean nituen proiektuak oro. Frantsesez jakinda ere, gogor gertatu zitzaidan egun osoan barrena, ahoz eta izkribuz, frantsesez ongi (eta ez gutxi gora-behera soilik!) mintzatu eta izkiriatu beharra.

Orduan ezagutu nituen Singer kaleko Jaurlaritzakoak, Urrestarazu euskaltzalea, «Acción Comunista»koak, deserrian bizi ziren «felipeak» (J. Leunda donostiarra, bereziki), eta abar luze bat. Baina izari «politiko» hauek gero ukituko ditut.

Artean, 1961eko uztailean, Ekin taldeko lankideak «erori» ziren; baita, ahal izan zutenek, Iparraldera jo ihesi. Hauen artean Jose Mari Benito del Valle Larrinaga zegoen; Ekin taldeko arima eta ardatza. Larramendi, Albisu, Laspiur, eta haseratik taldean ibilitako beste asko («ehun bat», esaten zigutenez) gartzelan zeuden.

Madariaga ere «barruan» zegoen. Hilabete lehenago egon ginen elkarrekin Montparnasseko Dufour kalean bizi

nintzen garaian; bera urte osoa Itsas Eskubidea ikasten Cambridge-ko Unibertsitatean pasa ondoren.

Kexatzea alferrik zela. Eta Benito del Vallek hau proposatu zuen: enplegu-multzo bat Iparraldean sortu; eta gu, iheslari sakabanatuok, Ipar Euskal Herrian, bizimodua eta guzti, finkatzea. Hori lortzekotan bere altxor pertsonala ipini zuen mahaiaren gainean. Eta elkarketa aldia hasi zuen.

Horrela sortu ziren «negozio» txiki batzuk, ozta-ozta soluzio pertsonalak lortzeko mailakoak: «export-import»eko Ikar delakoa (berehala Julen Madariaga eta Eneko Irigarainen lanleku); Goiztiri liburu eta disko egile eta zabaltzailea (besteak beste Mixel Labéguérie ezagutarazle); eta Gotor burdin-lantegia, Hazparden hau, Aita Charritonen anaia baten eskuetan jarria, eta hiru urtez neure lana bihurtzekoa. «Charpente métallique» delakoa kalkulatzeko eta eraikitzen genuen; Ipar Euskal Herrian eta Landetan bereziki.

1962ko uztailean iritsi nintzen horrela Parisetik Hazparrera. Aldaketa galanta! Behin ere ez nuen senditu ederrago Euskal Herriaren ederra, eta inoiz ez bizikiago euskal munduan murgiltzeko jorana.

Betonezko obren kalkuluen ordeztu, beraz, burdinazkoenari ekin nion Hazparden; zenbait mementu kritikotan Charritonen ikastegian matematika-eskolak ematen nituelarik.

Eta euskal kulturaren alorrean bultzatzeko asmotan, Euskal Idazkaritza Elkarteak sortu genuen Baionan, Cordeliers karrikan. Euskararen alorra ene eskuetan jarri zuten. Eta bi helburutara jotzekotan hasi ginen lanean: 1/ Euskara Batua Iparraldetik ere bideratzekotan; 2/ Euskal kazetaritza eta liburgintza (Goiztiri ere horretan ari zen) sustatzekotan.

Michel Labéguérie Diputatu hautatu zuten, gurekin (Benito del Valle, Irigarai, Madariaga eta neronekin) adiskidetasun handia lotuta zegoelarik. Oso maiz elkartu ohi ginen garai hartan Kanboko bere etxera; eta hauteskunde-kanpainaren prestaketan parte handia hartu genuen Hegoaldetikako errefuxiatuok.

Normala zen, horretara, Euskal Idazkaritzako Lehendakaria Labéguérie izatea. Goiztirik argitaratu eta zabaldu zituen diskoen bitartez, abertzale guztien lider bihurtu zen kanboar adiskidea; ez baitzen gure artean batere gaizki ikusia. Bezeu-

kan Labéguérik hitzaren dohaina (euskaraz eta erdaraz); Iparrarra zen, eta *Haurtxo-haurtxoa* eta gainerako kantuen bidez, oso herrikoia zen. Eta... «mugari tiro»!

Parisetik itzultzean, beste erabaki bat hartu nuen: Euskaltzaindiak Iparraldean egingo zituen bilera guztietara joatea, aurreko urteetan Donostian egon nintzen garaiko ohiturari jarraituz.

Eta zorte handia izan nuen; hilabete haietantxe ospatu baitziren euskaltzain batzuen sarrera ekintzak. 1963ko maiatzaren 18an egin zuen berea Iratzeder beneditarrak, Bellokeko komentuan; ihardespena Lafitte kalonjeak ematen ziolarik.

Eta handik sei hilabetetara 1963 berean, hortaz Jean Haritxelharrek egin zuen berea Baigorriin, Lafonek erantzuna emanaz (uztailaren 28an).

Hots, nik Lafonen kontra eta Haritxelharren kontra deusik ez izanik ere, baxenabartarraren sarrera ospaketak ekarri zidan lehenengo uztar larria.

Irakurleak badakienez, Euskara Batuaren aldeko borrokan ari nintzen zenbait urtez geroztik. Eta giroa pitin bat «berotzen» hasia bazen ere, hilabeteak eta urteak aurrera zihoazen, eta urrats sendo berririk ez zen lortzen. Euskaltzaindiak ez bide zuen presarik; eta are gutxiago gainerako instituzioek. Aitzitik, Euskara Batuaren kontrako korrontea zen jaioa, eta indartzen hasia. PNVko zuzendaritzak oso, bereziki, ez zuen Batuaz ezer nahi, «atzean» indar ilunak omen zeudelakoan. Eta Mitxelena bera PNVk freinatuta zegoen, gero eta nabarmenkiago.

Gauzak horrela, Baigorriko ospaketak «azkeneko tantoa» izan ziren.

Zergatik hala?

Haritxelharrek baxenabarreraz hitz egin zuen, eta Lafonek zubereraz erantzun zion. Gezurra badirudi ere, hauxe izan zen ontzat ezin eman genezakeen ostikoa. Sinboloen mailan ere, gure ustez, ospakizun nagusi batean, garbi agertzen baitzen Euskaltzaindiak dialektalismoari eutsi nahi ziola.

Generaman borroka zailean, afruntu eta irain iruditu zitzaigun ospaketa hura.

Eta demisioa eman nuen Euskaltzaindian.

Angeluko *Oihansia* neure etxeko pareta batetik zintzilikatuta neukan Izendapen Diploma hura jaso eta tolestu; eta Bilbora bidali nuen; Alfontso Irigoien adiskideari ofizialki Euskaltzainburuari eta kideei helarazteko eskatuz.

(Xehetasun interesgarri bat etxe honi buruz: ni baino lehenago, Aita Iñaki Azpiazu azpeitiarra bizi izan zela *Oihansian*; eta apaiz abertzaleen koordinatzailearen bidez lortu nuela Parisetik Euskal Herrira itzultzean...).

Handik egun batzuetara, Aita Charrittonek irakurri zuen nire izkribua; eta berak ere, esandakoarekin bat zetorrela-ta (orduan urgazlea zen) bere dimisioa eman zuen.

Ez dut uste testu hura askotan argitara denik. Iparraldean bai: *Enbata*-k, 1963ko iraileko alean, titulu hau ezarri zuen aurreko planan: «Face à ses responsabilités, l'Académie Basque va-t-elle éclater?»; eta bere osoan eman zuen.

Eta ondoren, eta bere hartantxe, emango dudan izkribuak honela zioen:

«Euskaltzaindia'ko adiskide maiteok, AGUR:

Sei urte huntan Euskaltzaindia'ko lagun izanik, nere barrenean nahasturik eta burruka nerabilzkien ideia asko Haritxelhar jaunak bildu eta mamitu ditu Baigorri'ko bere hitzaldian.

Esan zuen Haritxelhar jaunak –eta egoki esan alabainan Euskaltzaindiak ez duela espanturik egiten euskaltzain berri baten sarrera antolatzean; eta hau egokia dela, zeren eta beste Akademiak eta guhaurena liferentak baitira. Nahi dut.

Halere behar bezin liferentak ez dirala deritzat. Eta hunetxek eraman nau, emeki-emeki, egun adieraziko ditudanak jakinarazi eta deliberatu behar huntarat.

Badira hizkuntza biziak eta hizkuntza hillak. Hizkuntza bat mintza-bide bat da, adieraz-pide bat, alkar aditzeko tresna bat. Martinet hots handitako hizkuntzalariak ongi dio, frantsezaz ari delarik: «Frantsesa, beste edozer baiño lehenago, frantsesez mintzo diran jendeak alkar aditzeko eta hartu-emanetan jartzeko balio duen tresna da». Horra karkoa. Herri batek edo presuna batek izkuntza bat jakitea ez da deus, mintzabidetzat ez ba du. Hizkuntza bat hildakoren mintzabide billaka-

tu denean, hizkuntza hilla da. Eta alderantziz, bizi diran hiztunen mintzabide deño, hizkuntza bizia date.

Hizkuntza baten giharra, hortaz, mintzabide izan ala ez izan hortan datza. Hizkuntzak, hitz batetan esateko, biziak dira ala hillak dira batez ere. Etruskoa hil zen; euskera ustez baiño hillago da; gaztelera eta frantsesa, ondo bizirik. Horra hor hiru maillak; horra hor mintzairen egiazko illara, hiru sailletan. Akademia batek beraz, hizkuntzari dagokion eginkizunik pixuena ahanzten du mintzabide den aldetik hartzen eta begiratzen ez ba du.

Etrusko-Akademiak, Euskaltzaindiak, eta Espagnolak, ezin dezateke nehundik ere jokabide antzekorik izan; hiru hizkuntza horiek, bizitasunari gagozkiola, guztiz desberdiñak diralako.

Izan ditzateke, bai, jokabide antzekoak hizkuntzaren bizitasunetik at eta landa jartzen ba dira. Baiña zentzuak berak erakasten duenez, sasi-Akademia bat baizik ez litzake izango hizkuntzaren biziaz okupatuko ez litzakean Akademia. Beharbada, Euskaltzaindia, Araudiak besteik oihukatu arren, haue-tako bat dugu, eta euskeraren bizia bera etzaio sobera axolarik. Huntara ba litz, argi eta garbi jakiñarazi nahi dut barrenean ez nukeala nik fitsik egitekorik izango.

Baiñan iduriz, itxuraz, eta letraz, Euskaltzaindiak euskera biziaren zaindari egon uste du, edo agertu nahi bederen.

Izatez eta obraz, ordea, behar zukeanaren laurdenik ere ez du egiten, bide faltsuetan barrena abiatua delako; eta egia aurrez-aurre eta zer nahi gerta dadin ere ikusi nahi ez duelako. Eta nik ez dut joko hortan segi nahi. Ezin narraioke prestatuki.

Euskaltzaindiak izango du azkeneko hitza. Baiña nik, euskeraren alde egoteko, ondorengo hauek egin arte ez dut Euskaltzaindiaren barrenean jarraitu nahi.

Euskaltzaindiak, euskeraren zaindari ari izateko, Biltzar Nagusi bat antolatu behar du bereala. Hunat hemen Biltzar Nagusi hortan erabaki behar diranak, nere ustez:

1/ Ortografia – Euskaltzaindik gorenak berak nor bere gisarat ari dira, Euskaltzaindiaren ortografiari jaramonik egin gabe. Urte anitzen ondoren, oraindik ere «tch» erabiltzen dute batzuk; beste batzuk «h»-rik gabe izkiriitzen dute, eta beste batzuk; «v»-kin (letra hau Euskaltzaindiak sekulan onhartu ez

arren). Nahaste eta anarkia hauek ez dute ezer laguntzen euskeraren onetan, baiña bai kaltetan. Biltzar Nagusi hortan, beraz, baitazpadako ortografia bat onhartu behar da, bozkatzez edo nahi den bezala. Eta gero euskaltzain guziak ortografia hori baizik ez erabili. Beren setai ekiten dietenak, Euskaltzaindia'tik egotziak izanen dira.

2/ Euskera osotuaren beharra ongi nabaitu dugu Euskal Herriko lau parteetan ibilli geranok. Batasun hau bereala egingen ez ba da, euskera hil egingo da. Euskeraren batasun hunen kontra, agirian edo gordeka, ari diranak oro, euskeraren etsaiak dira. Orain arte Euskaltzaindiak ez du egiazki ezer egin batasun hunen alde: Baigorri'n bertan, batasun hau nahi ez duela agertzeko-edo, Haritzelhar jauna baxenabartarrez mintzatu da, Lafon jauna zuberotarrez, eta Lojendio jauna gipuzkoarrez. Batasunaren eragille izan nahi denean ez da jarraipide ahalkegarri hori ematen.

Egin behar da, beraz, bereala, eta Biltzar Nagusi hortanxe onhartu, euskera osotuaren oinharri bat bederen: aditzaren konjugazioko paradigma osoa eta deklinazioak, gutxienez. Bi paradigma hauek Biltzarrean bozkatze-bidez edo nolnahi erabaki ondoren, Euskaltzaindia'ko guziak onhartu beharko litzuzteke, gaiñerako forma guziak agirian eta literaturan alde bat utzirik. Paradigma horiek segitzen ez dituztenak, Euskaltzaindi'tik egotziak izanen dira.

3/ Euskaltzaindiak, betidanik eta 1954'ko Araudian ere bai, badu Jagon-Sailla deritzan Talde bat, «Sección Tutelar» erderaz. Sail hunek euskeraren biaiz okupatu behar du. Biltzar Nagusi hortan Sail hau abiaraziko da, zortzi edo hamar euskaltzale gartsu izendatuz. Izendatutako hauek egun guzian eta egun guziez euskera biziaren eginkizunez okupatuko dira, Euskaltzaindiak ordaindurik, eta beste edonolako lanak arras utzirik. Hauxe egitean (eta ez lehenago) sinhets diteke Jagon-Sail delakoa hitz bat baiño gehiago izanen dela.

4/ Lan horiek aurrera eramateko, Jagon-Saillekoak ordaintzeko, eta abar, dirua behar da. Biltzar Nagusiak berak idatziko du diru-eskabide bat, erruz inprimatu eta zabaltzeko, euskeraren alde egiaz lanegiteko behar den diru hori eskatuz. Diru-eske hau agirian egingo da, prentsan eta irratian, Gobernutik has eta jende xehearenganaíño johanik.

5/ Euskal eskolarik gabe euskera hil egingo da. Euskaltzaindiak ezin dizaioke huni luzaroago ez-ikusia egin, gauza jakiña baita. Biltzar Nagusiak, beraz, ahobatez eta handiro, eskabide berbera egingo die Madrille'ko eta Parise'ko Gobernuai, bi puntutan:

a) Euskeraz egiten den tokietan, eskolako mintzabidea euskera izanen da, gaztelera (edo frantsesa) ikaskizun izanik;

b) Euskal Herriko gaiñerako tokietan española (edo frantsesa) izanen da mintzabidea, eta euskera ikaskizun.

6/ Eskolako liburuak falta dirala-ta, Biltzar Nagusiak eza-gutaraziko ditu sei edo zortzi sari, beharrezkoen diran sei edo zortzi liburuak gertatzeko. Sari hauek egilleak sariztatzeko eta liburuak inprimatzeko izanen dira. Hunentzako epea: urtebete gehienik.

7/ Euskaltzaindiak dei bat egingo dio Elizari, Ahuñemendiz hunaindiko eta haraindiko apezpiku eta erretore guziaz kopia bidaldurik, apaizak euskeraz egiteko duten beharraz. Euskaldun herrietan euskeraz ez predikatzea letra guziakin kondenatuko du, etsenplu lotsagarri batzuk aipatuz.

8/ Biltzar Nagusi hau aurten berean egingo da, Ipar-aldeko Euskal Herriko herri batetan, horrela azkatasunean, eta euskaltzale eta euskaltzain guziak johan ahal izanik, erabaki egokiak hartzeko era izan dedin.

Nahiago nuke nik Euskaltzaindiak onhart ba leza nere eskabide hau bere hortan. Baiña libro da ez onhartzeko: badakit.

Baita ni ere, hargatik beragatik, Biltzar Nagusi hori eta bertan erabakitzeoak egin artean nere demisioa emateko. Eta hau egiñen dut. Tristuraz beterik batzuegatik, beste batzuekiko eskergabekeria besterik izango etzaien nere jokabide huren arriskoaz jabetuta ere. Baiñan Euskaltzaindiak ezin deza-ke gehiago iraun egon-lasai hortan, gezurretan eta ez-ikusitan. Ni neu behintzat ezin nakiok aurrerago jarrai.

Biltzar Nagusi hori egiten ez ba da, ez da euskerarengatik izango, Franco'renganako bildurrengatik baizik; euskera ez-baiña Euskaltzaindia arriskutan gerta ditekealakoan.

Baiña, zergatik mintzatu behar du ausarkiago Menendez

Pidal'ek berak gure Euskaltzain Buruak baiño? Nori egin zizaiokean kalterik «Euskaltzaindiaren Laguntzailleak» delakoak, esate baterako: euskerari, ala debekatu zutenai? Askotan agertu da Euskaltzaindia koldar eta Franco'ren morroi, baiña gutxitan ausarta eta euskeraren zerbitzari.

Errazago zaio Euskaltzaindiari euskeraren BITXITASUNAZ ari izatea, euskeraren BIZITASUNAZ baiño. Bitxitasunari so egiñik, ordea, bere xedea nahasten du eta lana lardaskatzen.

Sei urte huntan ongi ikusi dut, eta hau borondate onez ari den nornahik ikus dezake, Euskaltzaindia legun-legun eta koskarrik gabe moldatzen dela Madrille'ko gobernu etsaiarekin. Zergatik? Euskaltzaindiak, oro har, gehiago begiratzen diolako Gobernuaren aginduari, euskerarik baiño; gehiago agiri delako Franco'ren alde, euskeraren alde baiño. Euskeraren heriotzak askoren ustez eskas duen naturaltasuna eta legetasuna, Euskaltzaindiak ematen dio. Zer hoberik euskeraren hinka gaistoa ahantzerazteko, ohorez eta irribarrez antolatzen dituen biltzar horiek baiño? Politikarik egin nahi ez duela aitazkia, frankismo hutsa baizik ez du egiten Euskaltzaindiak, eta euskeraren borraroen laguntzaille billakatzen. Zenbat aldiz oлдartu zaio Euskaltzaindia Gobernuari, edo euskera dela-bide ahakarrik edo kalapitarik izan? Nork esan dezake prestuki erarik edo ziorik oraindik aurkitu ez duenik?

Euskeraren zerbitzuko egon nahi dudalako uzten zaituztet, beraz, zortzi puntu horiek bete artean. Zortzi puntu horiek bete arte, Euskaltzaindiak ezpaitu euskera «zaintzen», erreparki ehorzten baizik. –Badago gehiago. Badira hizkuntza ofizialak, eta ofizialak ez diranak. Bada huntan oinharrizko zerbait. Hizkuntza baten ofizialtasuna (ala legetik at egotea) ez da muntarik gabeko txikikeria bat-. Gaztelerak, gonbarazio baterako, baditu hogoi bat erresuma bere zerbitzuko, eta ehun bat milloi hiztun. Eta horrenbestez hedatutako legetasun edo lege-mailla hortatik datozkio guziok dazkigun abantailak: gaztelerazko eskola eta gaiñerako irakaskintza, beharrezkoak dira milloi bat herritan. Prentsa, irratia, administrazio osoak han eta hemen, Ameriketara eta Europan batera, gazteleraz ari dira. Horrelatsu dabil frantsesa ere.

Euskerak, berriz, ez du erresumarik batere bere alde; eta, gehienik beharbada, hirurehun bat milla euskaldun zaharrek

baizik ez dute mintzatzen; eta nork nola. Are gehiago, kontra ditu –eta menderatzen duten Estaduak–. Eta ez da harritzekorik. España'ko Akademia (eta berdin ere Fraitzi'koa) bere gobernuaren alde ari da, hizkuntza ofizialaren Akademia baita. Hizkuntzaren bizitasuna erresumak zaintzen du; eta Akademiak teknika-aldeek har ditzake ikergaitzat, eta hizkuntza «ikuzteko eta dirdai-arazteko». Bataren eta bestearen lanak ederki ezkontzen dira, eta alkar osatzen. Gobernuarekin ko hartu-emanak ez dira, eta ezin ditezke izan, onak baizik.

Euskal Herriko Euskaltzaindiak, ordea, ez du euskaldun gobernu bat ere bere alde. Aitzitik, kontra ditu dituen biak. España'ko eta Fraitzia'ko erresumak ez dira euskeraren zerbitzuko, nola edo hala españaola eta frantsesa hedatzearen alde baizik. Ezin ditezke, eta hau izatez eta naturaz bestalde, euskeraren biziaz kezka.

Nola izan ditezke onak, beraz, euskerari kalterik egin gabe, Euskaltzaindiaren eta Madrille'ko gobernuaren arteko hartu-emanak? Ongi moldatze hunek gehiago erakusten du agian Euskaltzaindia-ren jokabidearen muiñas eta balioaz, nere arrazoin guziak baiño. Nola izan ditezke, berdin onak, España'ko Akademiaren eta Euskaltzaindiaren hartu-emanak?

Biltzar Nagusi hori egitean (egin ba dadi...), eta euskerak behar dituen erabaki gogorrak hartzean (Euskaltzaindiak har baditza...), nere salakuntza hauek guziak gibelatuko ditut.

Batek edo bestek, «politikarik ez dagoen gertaeretan» politika sumatzen dudala esango du. Halere gauza jakina da, beren zerbitzuko erresuma bat bederen ez duten hizkuntzak oro, hiltzen dirala; eta dutenak, hazkartzen eta hedatzen. Bretoiña atzera ari da, Bretaña'ko gobernurik ez dagoelako; hebreotarrak, berriz, indartzen, Israel sortu delako. Gallegoa galtzen ari da; eta portugesa, anaia bizkia izaki ere, sendo dago. Gaztelera galdua da Filipinetan, eta sefardita berdin ere Grezian; frantsesa galtzen ari da Canada'n, eta alemana Alsazia'n.

Hizkuntzak ez dira ahultzen edo gotortzen beren moldea edo barne-egiturarengatik, politikazko azkatasun ala menpeta-sunarengatik baizik. Azkatasunik ez duten herriak beren hizkuntza galtzen dute, eta politikaz menperatu dituzten erresu-

men hizkuntza hartzen. Filipinetan tagaloa galdu zen hasieran; orain española; eta gero, agian, anglea tagaloa piztutzearekin. Euskal Herrian euskera ahultzen ari da; eta Ipar-aldean frantsesa eta Hego-aldean gaztelera gotortzen. Noski!

Halere, egun hauetantxe irakurri dut berriz ere euskerazko aldizkari jator batetan, «euskerari kalterik eta ondamenik aundienak egiten dienak emakumeak dira, eta emakumeen barrutian monjak...». Hizkuntzak ez dituzte, ordea, monjak eta emakumeak galtzen, GOBERNUAK BAIZIK. Bada garaia, nik uste, egiak argi eta garbi esateko, jaunak!!

Etzerate nerekin ados? Politikatik at legozke, hortaz, nere zortzi eskabideak. Bete ditzagun, bada, nere zortzi puntuak, eta barkazioa eskatuko diot Euskaltzaindiari, pozez beterik eta nahi dukezuten eran.

Bitartean ordea –zer nahi duzute?– ez. Nere kontzientziak, nere euskaltzale-kontzientziak ez bestek, erabaki larri hau hartzera behartu nau.

Ez nuke neuk bakarrik utzi nahi Euskaltzaindia. Euskeraren onerako, Euskal Herriaren ohoretan, eta egiazko Euskaltzaindia bat sor dedin, adorea eta euskal garra duzutenok: egin zazute nik bezala.

Utz ditzagun nehorat ez daramaten bideak. Esan dezagun goratik: «Ez. Aski dugu».

Gora euskera!

TXILLARDEGI

Angelu'n, 1963-ko Agorrilla

Alfontso IRIGOIEN Euskaltzaindia'ko Zadorlaria
ri igorritako izkiribuaren kopia da».

Euskaltzainburua zen Jose Maria Lojendiok ez zuen ene dimisioa onartu; eta itzuli egin zidan Angelura urgazle izendapenaren Diploma (hementxe daukat, neure begien aurrean, etorri zitzaidan tolesturetan tolestuta); eta berehala, ahalik eta azkarrenik, Euskara Batuaren prozesua bideratuko zuela agindu zidan. Eta egiaz mintzo zitzaidala berehala ikusiko nuela.

Guk, halere, hitzez eta luzamenduz asperturik, areago itxaron gabe, geure kasa jokatzuz hastea erabaki genuen; proposamenen mailan bederen Euskara Batuaren proiektu bat Baionan, eta Euskal Idazkaritzaren bitartez, abiaraztekotan delibratuta.

Euskara Batuak indar politiko abertzaleen baiespena behar zuela sinetsita, Batzorde «multi-partido» horietako bat eratu genuen; eta Hizkuntza Saila bataiatu genuen.

Hamar lagunek osatu zuten: PNVko bi partaidek (J. Solauñ, Okotz eta T. Monzon); *Enbata*-ko ordezkari batek, Jean Louis Davant zuberotarra; ETAko bi lagunek (Eneko Irigarai eta ni neu); eta euskal liturgi lanetan nabarmendutako apaiz batzuek: Roger Idiart (aurki Zuberoara «deserriratzekoa»), Andiazabal, eta Hiriart-Urruti, ondoko urteetan diosesako Bikario izatekoa. Beste bi partaideren izenak agertzen dira nire paperetan, nahiz praktikan biltzarkide ez izanak: Dagorret irakaslea eta Etxamendi delako bat.

1964eko otsailerako «Hizkuntza Saila» delakoak bere lehenengo onarkizunak prestatu zituen; urte bereko udan egingo zen Bilkura Nagusian eztabaidatu eta zehaztekotan.

Multikopistaz banatu genuen txostenak (30 orrialde) puntu hauek ikutzen zituen: «ldazkeraz»: «x» eta «tx» eta «ch» eta «tch» baztertuz; «ll, dd, tt» bai, gain-tilderiko, *d, t* eta *l* ez; «nb» eta «np»; eta ez «mb» eta «mp». /h/ari dagokionez, urrats batzuk ematea proposatzen genuen, eta zalantza dagoenean, lapurtera zaharraren arabera. «kh», «lh», etab, baztertu. «Baldintzazko *ba* berboari lotuta idatziko da... eta baieztutzeko *ba* ere, berdin berboari lotuta. Horraino 1968an Arantzazuko Batzarrak onartuko zuen gauza bera.

Baina «ukatzea» (edo ezezko prefijoa) lotuta idatziko da. Baina dagozkion fonetika-aldakuntzekin: eztaikit, enekien, elitzake joango, enintzake etorriko... Zai gaude!

«Bait» eta «ezpait» lotuta idatziko dira ere, lotzeari dagozkion legeak kontutan hartuz: hala baita, harek ondo baitzekien... Eta era berean ere: ezpadator, ezpadoatzi, ezpaletor, eta abar (1964eko otsaila, Baionan).

Ondoren Deklinabide osoa: mendi, haran, seme, gizon. Izen nagusiak (Ahazparne, Maddi).

Aurrerago «Aditz edo berbo osotua»: naiz, nintzan, baintz. Dut, ditut, nuen, nituen, dezadan, etab. Ondoren «bokal bikoitzen arteko /h/ zerrenda bat» (24 hitz; denak gero onartuak), baita «hasierako /h/ batzuk ere (59 hitz, hauek ere gero onarkizunak).

Hurrengo kapitulua «Euskal Deklinazioaz» (8 orrialde), adibidez hornituak (ondoko urteetan *Sustrai Bila* liburuen argitaratzekoak); «Aditz Indeterminazioaz» (4 orrialde); eta, amaitzeko, toponimo zerrenda bat (8 orrialde), eta «Afijos y Sufijos derivativos» (beste 4 orrialde); azkeneko hau arazoa plazaratzekotan erantsia, eta oraindik landu gabea.

Eta, ahal genuen neurrian, banatu egin genuen Ipar eta Hegoaldeko euskaltzaleen artean.

Berehala errepara daitekeenez, 1958ko txostenari jarraitzen nintzaion orpoz orpo. Bestela esanda, sei urtez puntu berean! Ok eginda geundela esan beharrik ez dago.

Hots, lehenengo aldiz argitara ematen dudan eskutitz honen bitartez egiazta daitekeenez, Mitxelenak begi onez ikusten zuen Baionako gure lana (1964eko hastapenetan gaude oraingoan).

Hona hemen, facsimile-tan 1964eko otsailaren 10eko gutun hori:

Luis Michelena Elisavalt 1964-II-10. *Antoni de Elvira Rautava*

Adiokide naizen,

Eureak artu nituen, eta eskerrik asko, biotzez. Badakit gaifera orko Euskaltzaleek eman ziotela berri Euskaltzaleentzako eskeneko batzarraren or darabilskintzen geien gaifera. Beritzarrez ez negoa ni erantzuteko artu nituzenean --batzarrera ere ez nintzan agertu--, luzaroan eri egon bainaz eta ezertaz kezkatzeko gauza ez nintzala. Ori izan duzu soil-soilik nere izilik egotearen arrazoiak.

Erzira ongi iruditsen zait artu duten asmoa eta ez asmoa bakarrik. Esaten didazunaz naurtu bear baldin badut, tajuz eta zuzen ari zerate lanean. Ortozga fiarekikoa, ederki erabakia iruditsen zait.

Gaiferaokotan, ordea, gauza zailagoa izango dela deriztat. Nere uestea oso-osorik agertu bear badut, entut aste oraingo morfologia eta morfologia gorago batasunera el gaitzenkeanik. Bakar-bakarrik, batasunera bidean --Orixe'k diou bezala-- abia, eta ez litzake ori irabazi makala. Gaiak, nere ueste, errazenetik zailenera artu bear renituskete --zailenak eta gaitzenak ankenerako utzi, alegia-- eta ez ajola geiena dutenebatik asi eta deuz dutzikoenera. Batasuna, nere ueste, naiz arazo utsetan izan, bein erdietsi ankero laguntza andia izango baita bestetarako.

Emantez duzu, bada, labor esanik, nere iritzi kaxkarra. Eder baiño ederragoa iruditsen zait zuen asmoa eta ez asmoa bakarrik, baltik eta, orrezaz gaifera asmoa zaitzen asi zeraten bidea. Ene bedeinkazioa ere emango nizueke gogo-gogotik, orretarako eskurik banu.

Eta, berandu bada ere, ar itzazue etxean gure goraintziak eta urte onetan opa diruegun zoriona. Hots,

Antoni

Urtean barrena horretara lan egin ondoren, batzar bat egi-tea erabaki genuen. Eta hementxe daukat (mirariz berriro ere...) Kordelieren karrikako 14ean, Baionan, abuztuaren 29an eta 30ean egingo zen jarraipidea:

29an, larunbatez, 10.30etan «Ongi etorria». Eta ia-ia segituan, 11.00etan, «Batasunari buruz xehetasun batzuek».

Gero bilkurako lehendakariaren hautaketa.

Eta, arratsaldeko hiruretan, hiru gai hauek:

1.–Ortografia.

2.–Deklinazioa.

3.–Aditza...

30an, igandez, 10.00 etan, «Euskal irakasleek egindako agiriaren irakurtzea».

Eta, hamaika t'erdietan, Erabakiak.

Bileretan sorpresa bat izan zen: Aita Lafittek, adinez eta merezimenduz bileretako lehendakari hautatua, «ez» eta «bait» lotuta idaztearen kontra azaldu zen. Eta Batzordeak (eta euskalarik ospetsuenek) indarturik zeukaten joera nagusiaren kontrako erabakia hartzera bultzatu gintuen. «Bereiz edo aparte idatziko dira» (= «ba» eta «ez»). Baina ohar hau erantsi zen espreski: «Nahiz hauek esan, itzegiterakoan: eztakit, ezta-toz, etzekian, eztakartzu, eztaude» (ikus *Baiona'ko Biltzarren Erabakiak*, 2. orr.).

«bait» lotuta idaztea erabaki zen, baina bitasunean: «baitakit» edo «baidakit», etab.

/h/ batzuk onartu ziren: 23 bokale bikoitzetan, eta beste 59 hitz-haseran...

Erabakien sarrera-hitz gisa hau irakur zitekeen: «Baionara euskaldun idazleak eta irakasleak bildurik, hona hemen Biltzarrak ontzat eman dituen puntuak. Batasunari buruz, euskaltzale guziei erabaki hauek betetzen hasteko eskatzen diegu; eta bereziki Euskaltzaindiari egiten diogu dei bat, bere aipamen guziaz gure erabaki hauek aztertu ondoren onar ditzan. Idazkaritzako Hizkuntza Saillak».

Hona hemen orri-bildumaren aurrekaldea:

EUSKAL IDAZKARITZA

14, Kordeliaren karrika
BAIONA

Baiona'ko Biltzarraren Erabakiak

(1964-eko Agorrillaren 29-30)

Baiona'ra euskaldun idazleak eta irakasleak bildurik, hona hemen Biltzarrak ontzat eman dituen puntuak.

Batasunari buruz, euskaltzale guzietan erabaki hauek betetzen hasteko eskatzen diegu; eta bereziki Euskaltzaindiari egiten diegu dei bat, bere aipamen guziaz gure erabaki hauek aztertu ondoren onar ditzan.

IDAZKARITZA'KO HIZKUNTZA SAILLAK.

IDAZKERA

- « **X** » — goxo, xamur, xede, xekatu eta abar onartzen dira.
« sh », « ch », « ss », « s », eta abar, baztertzen dira.
- « **TX** » — etxe, atxiki, amatxo, zakurtxo, txiki eta abar onartzen dira.
« tch », « ts », « ch » eta abar baztertzen dira.
- « **J** » — jin, jan, jario, josi, jarri, jauzi, eta abar onartzen dira. — Nahiz eta euskalki guzietan soinu berbera ez izan.
- « **RR** » — elurra, egurra, irri, farre, zoragarri, arrunt eta abar onartzen dira.
« r̄ » baztertzen da.
Hitz bukaeran « r » idatziko da beti : haur, ur, ar, zur, elur; nahiz batzutan « rr » eman (egurra, arra, elurra), eta beste zenbait aldiz « r » (nori, ura, ora).
Elurr, atorr, zakurr, eta honelakoak baztertzen dira.

BUSTIAK.

Palatalizazio edo bustiera deritzan fenomenua, letra bikoiztuz idatziko da.

LL — llabur

DD — Maddalen

TT — ttaka-ttaka, pittarra, aittitta, pottoka.

« l̄ », « d̄ », eta « r̄ » baztertzen dira.

« **NB** » eta « **NP** »

Nahiz « mb » eta « mp » esan, « nb » eta « np » idatziko da : enparantza, denbora, enbata, baldinba, eta abar.

Biharamunean, foto eta guzti, biltzarraren berri eman zuen Baionako prentsak: «Il est nécessaire d'unifier le basque littéraire pour que la culture euskarienne puisse se maintenir et se développer», idatzi zuen J.B. Dirassar-ek 1964eko irailaren 1ean *Basque-Eclair* egunkarian.

Hegoaldeko euskal prentsak ere poz handiz hartu zuen

berria. Jakin aldizkariaren inguruko euskaltzaleek bereziki; baina baita Zeruko Argia-ren ingurukoek ere...

Hots, handik bi astetara, hementxe begien aurrean daukadan eskutitzak dioenez, Euskal Idazkaritzako Lehendakari eta adiskide izandako Mixel Labéguériek, bere dimisioa eman zuen!

Eskutitzak honela zioen:

«Assemblée Nationale – République Française – Liberté, Egalité, Fraternité – Paris, 1^e 14 septembre 1964.

Monsieur Jose Luis Alvarez Emparanza – 14 rue des Cordeliers – Bayonne –

Monsieur,

J'ai l'honneur de vous adresser ma démission de la Présidence et du Conseil d'Administration du Secrétariat Basque, Euskal Idazkaritza, dont le siège est au 14 rue des Cordeliers à Bayonne»...

Harrituta utzi gintuen erabaki hark. Hain zuzen ere Idazkaritzak Euskararen Batasunaren alorrean bere lehenengo fruituak ematen zituen unean...

Azalpena ondoko lerroetan zetorren:

«3/ L'exclusion du siège comme de la direction de toute organisation politique... J'avais espéré que le souci du Pays Basque l'emporterait sur des considérations et des objectifs que je ne me permets pas de qualifier... Il ne m'est cependant plus possible de prolonger une situation qui permet à certains de se délivrer à mes dépens des certificats de bonne conscience et de haut patriotisme, tout en me refusant ce même bénéfice»...

Etena zen gure artekoa. Ez zegoen dudarik. Moduak ere ez zuen zalantzarako zirrikiturik uzten. Besteak beste, ez bainuen nik sekula frantsesez hitzegin Labéguériekin... Azpilara nabarmen gure kontra, eta euskararen beraren alorrean... Zer debru zegoen?

Handik aste gutxitara berri hitsa eman zigun Labéguériek

berak: Pabeko prefektuaren mahaiaren gainean ikusi zuela gure kontrako «expulsio» agindua, Espainiako gobernuaren presiopean emana. «Legendunen patu hitsa» zen gurea. Kanpora, at!

Berriro ere eskuarteko lan guztiei «agur» esan behar... Eta Belgikarako bidea hartu... Baina hau geroago azalduko da.

Aste haietantsu inprentaturik, *Huntaz eta Hartaz* saiakera-bildumak, 1965eko haseran ikusiko zuen argia Baionan, gure Goiztiriren eskutik; ni Belgikara iristerakoan!...

Begiralditxo bat eman diot liburuari lerro hauek idazterakoan. Ez dut zehazki irakurri. Baina idatzitako guztia berriro bere horretan berridatziko nukeela iruditzen zait. Oro har, irizpide berean nago.

1964ean idatzitako lerro horietan, 1956an bezalaxe, honetara bil zitekeen nire euskararekiko kezka: «euskera gaitu, osatu, batu gaurkotu» (76). «Euskera benetan eta laister euskaldunen zerbitzuko jar; ala euskera giharek hil. Horra hor aukera» (76). «Eskolak, ikasguak, aldizkariak, merkatalgo eta lantegitzako bulegoak, herriko-etxeak eta administrazio-idazkaritzak oro, Euskal Herriko bizi guzia hitz batez, euskeraz egiñerazi behar da. Hunela, eta ez bestela, salbatuko dugu euskera» (77).

Eta euskara ardatzat hartu nahi ez zuten «abertzale»en kontra, esaldi zehatz hau: «nere Aberria Euskal Herria da» (71).

Egia esan, liburuak nolako eragina izan zuen ez nuen jakin. Handik hilabete gutxitara Belgikara joan bainintzen; eta Euskal Herriarekiko neure loturak berriro ere eten eta zaildu baitziren.

Baina honetara, datorren kapituluan itzuliko naiz eta xehekiago mintzatuko.

IV. Ekin-etik ETARA

Jadanik esana dudanez, batera mugitzen nintzen ni (saia-
tzen bederen) hizkuntzaren alorrean eta isilpeko borroka poli-
tikoarenean.

Ez baitzen garai hartan (Rikardo Arregik behinola zorrozki
«marginalismo» hitzaz bataiatu zuena) batera harrigarria. Beste-
ak beste kezka «politikoak» zituztenak «lau katu» zirelako; eta,
hortaz, eginkizun guztiak, inolako pozik gabe, «lau katu» ho-
rien artean banatzen zirelako.

Aurreko kapituluaren eta beronen arteko bereiz-marra,
beraz, oso artifiziala da. Irakurleak berak egiaztatuko duenez.

Beste ohar bat: orduz geroztik berrogei bat urte joanak
(eta nolako urteak: hogeita hamar bat etxe-aldaketa, adibidez,
niri dagokidanez), eta arazo hauek arriskugarriak izanik (ozta
izkiriatzen genuen poliziarri baliagarri gerta zekiokenik ezer),
nekez erabil dezaket izkriburik. Eta oroimenak bere hutsuneak
ditu, batez ere denbora tarte hauek daudelarik.

Barka bekizkit nire erratuak, hitz batez.

1946an batxilergoa Valladoliden gainditurik, ene aitak in-

geniaria izango nintzela erabaki zuen. Matematikarako dohainak ba omen nituela-ta, zalantzarik ez. Eta Bilbon industria ingeniariaren Eskola bat bazegoenez gero, horrerantza abiatu nintzen.

1946ko udazkenean, horretara, Karlos Santamariak zuzentzen zuen C.E.S. delakoan matrikulatu nintzen, San Marcial kalean (Donostian bertan); Círculo de San Ignacio delakoaren gainean. «Don Carlos»ekin batera, José María Atorrasagasti eta Joxe Miguel Zumalabe izan nituen irakasle.

1947ko ekainean, harrigarria, gainditu egin nuen Bilboko froga «lehenengo kolpian»; eta «bigarren Ingreso»rako prestaketa hasi nuen. Beti ere Donostian geldituz.

Francok eratutako «Referéndum» famatua orduan izan zen (jendeek «reveréndum» esan ohi zuen); eta, paper-propaganda zabalketa handia egin zen. Niri ere (orduan neure hamazazpi urteetan) paper batzuk eman zizkidaten (PNVkoek, gaizki ez banago); eta etxeetako ate-azpitik sartzeko eskatu ziguten. Eta, beldurrak kikilduta, halaxe egin nuen Alde Zaharrean.

1948an ez nuen ekainean bigarren ingresurako etsamina gainditu. Neure lehenengo gaztaro-amodioa udaberri hartan izan nuelako, euskaraz neure kasa ikasten hasia nintzelako, edo dena-dela, «katea» Bilbon. Eta urrian, berriro matrikulatu nintzen Santamariaren C.E.S.-ean. «Conversaciones Católicas Internacionales» delakoetan buru-belarri bera sartuta, nabarmen agertzen zen beroien arrastoa gure ikasguan: kartelak, pankartak...

Iñaki Gaintzarain eta Iñaki Zubimendiren eskutik, isilpeko mundu abertzalea somatzen hasi nintzen. PNV inguruko mundua erabat; nik Donostian ezagutu nuenaz mintzatuko banaiz ere.

Erdi gordeka gutxienez, bi euskal irakasle ezagutu nituen garai hartan: Elbira Zipitria (nik neuk inoiz ez irakasle izana, egia esan), eta Jon Etxaide, berau Donostiako portuko elizaren geletan gazte askoren irakasle (nirea ez, aurreko kasuan bezala).

Baina benetako biltoki abertzalea, garai hartan, Agote Ta-

berna zen; Portu kalean. Ni neu ere hara azaltzen hasi nintzen, beste hamaika bezala, «zer berri» ote zegoen jakitera.

Jon Etxaide ere, eskolen ondoan, hara azaldu ohi zen ikasle batek edo bestek lagunduta. Eta ez zuen inolaz ere erdaraz hitzik bat ere esaten. Halako batez aurkeztu egin zidaten. Euskaraz hasi zitzaidan bere /r/ «frantses» azkarraz mintzatzeko. Ez nion gauza handirik ulertu. Eta orduan, mespretxu nabarmenez, niri bizkarra eman, eta barraz bestaldera begira paratu zitzaidan... Hura lotsa nirea! Baina bihotzez eskertu nion purrustada hura.

Batzuetan Tolare beteranoa etortzen zen AgoteTabernara; zerrepelduta zenbait aldiz. Eta orduan, frankismo betean gine-la ahaztuz, ate ondolik, eta barrura begira, botatzen zuen bere gerla-oihua: «¡Antes hijoputa que español!»; ozenki, eta taberna osoan aditzeko moduan... Hori entzunda, zer gertatuko ote zen kikilduta, beldurtienak ihesi joaten hasten ziren... Alta, Tolarek ongi ezagutzen zuen gartzela.

Eta uda hartantxe, 1948koan, euskaraz ikasten hasi nintzen Iñaki Zubimendirekin eta Zabala-Arana Gramatikaz baliatuz (aurreko kapituluan azaldu dudanez).

1948ko udazkenean, mixterio handiaz, bilera izkutu bat egin nahi zuela esan zidan horrek; eta non bildu ez zekiela. Zumalakarregi 5ean, neronen aitaren bulegoaren ondoan lokal huts bat bazegoela. Eta, giltza nik lortu; eta hara bildu ginen.

«Esto es una reunión de la Resistencia» bota zigun Zubimendik. Hamar bat gazte ginen. Nor? Ez dakit zehazki. Gaintzarain han zegoen, nik uste; baita ondoko urteetan Ekin organizazioaren sortzaile izango ziren beste batzuk ere: Iñaki Larramendi, nire amaren lehengusu propio baten semea; Rafa Albisu, antigutarra eta familiaren lagun semea. Eta beste.

«Resistencia» hitza entzun genuenean, hotzikara batek korritu zuen gure larrua. Propaganda banatu zigun, eta azalpen handirik gabe bukatutzat eman zuen bilera. Hura larria!

Eta han bertan, «klub» bat antolatzea erabaki genuen: «guatekeak» egiteko (hau ere han egin baikenuen), eta «bestirik» ere bai. Leihotik salto egin, eta... Goarda Zibilaren ikui-

luetara joan zitekeen. Baina ez genuen honetaz asko pentsatu. Etxea, Goarda Zibilak okupatzen zuen Zumalakarregi 9a barne, 1906an nire aitona eraiki zuela-ta... «gurea» zitzaigun...

1948-1949ko negu hartan, hain zuzen, bagenuen antigitarrok ikuskari ahantzezina, eta dohainik. Aldez aurretik nola jakiten genuen ezin esan nezake. Baina jakin ohi genuela, bai:

–Hoy, por la tarde, más dinamitaje de la cárcel.

Eta halaxe izaten zen. Hondartzatik begiratzen genuen gartzelako murrutzar horiska haiek nola zartatzen ziren. Martuteneko presondegia berria «prest» zegoen 1948ko maiatzaren 2az geroztik.

Guk, artean, 1949ko udaberrian, Zumalakarregiko lokal hura «antolatu» genuen; tarteka Ondarretako kresala gure aurpegiak hezitzen zituelarik.

Pinpon-mahai bat erosi genuen, beharrezko neurriak zehazki errespetatuz; zurezko saltimetro bat eginarazi genion lehen auzo genuen Iturriotz arotzari; erreglamentuzko «jabalina» eta «diskoa» erosi genituen. Eta, goizero-goizero, CES-era joan baino lehenago, Loretopearen ondoan entrenatzen ginen, hondartzan.

Gure koadrillako batek, hain zuzen, Ramon Galparsoro medikuaren semeak (gero Burgosko epaiketari bere burua abokatu gisa nabarmenduko zen Gurutzeren nebak) Fortuna-ko pentathlon bat, edo horrelako zerbait, irabazi zuen. Eta arrakasta honek harrotu egin gintuen.

Gure klub-ari izena jarri behar genion; eta Pelissier txirringulariaz oroitu ginen; orduan oso modan nonbait. Eta, ez bat eta ez bi, Eup-Pelixer Elkarteak sortu zen.

1949ko udan Elkarte hartantxe eman genituen euskarazko klaseak (Iñaki Zumetarekin orduan, irakurlea oroitzen datekenez); eta, abertzale batek euskal kantak eta dantzak jakin behar zituela-ta, hantxe zaildu ginen, apur batez bederen. Dantzan irakastera Kirol beteranoa etortzen zen «Donostiatik»...

Artean *Erne* aldizkaria ateratzen genuen (EIA-ren agerakaria Gipuzkoan), multikopistaz; gero ikasleen artean zabaldua (orduantxe idatzi nituen nik neure lehenengo artikuluak). As-

koz ere beranduago ikasi nuen Bizkaiko Elvarko (Eusko ikasle Alkartasuna, ez gero sortuko zena!) *Ikasle* argitaratzen zutela, eta beraien artean Jose Mari Benito del Valle izeneko bat ari zela...

Esan beharrik ez: 1949ko ekainean suspenditu egin ninduten Bilbon (bigarren «katea» bigarren ingresoan). Eta aitak leporaino eginda, nonbait, eta ene «mobidak» somatuz, erabakia hartu zuen: «El curso que viene, a Bilbao. Y si vuelves a suspender, a trabajar en alguna parte».

Mehatxua hor zegoen.

Baina Bilbora 1949ko udazkenean iristean, eta «patrona»ko bizimodua zer zen dastatzean, 20 urte nituen. Etxean «*cartilla de racionamiento*» delakoa eramateko esan zidaten (bai, jaun-andereok!), ogia estraperloz izkutuka erostea zer zen ikasi nuen, eta Indautxuko «Particular»eko zazpigarren pisu bateko gela batean kokatu nintzen.

Gauetz ezin lorik egin: sekulako mugimendua etxe hartan... Gero jakin nuen zita-etxe bat genuela bizilagun...

Eta, jakina, abertzale jendearekin harremanetan jarri nintzen: Krutwigekin (aurreko kapituluan kondatu dudanez); baina baita Gaintzarainek, hemendik eta handik, «lokalizatuta» zeukan jende pilo bat: Gereño, Barandiaran, etab...

Benito del Valle Bizkaiko txapelduna zen urte haietan xake-jokoan. Donostian egon zen «simultáneas» mordo bat eginen, Donostiako Kasinoan (gaizki ez banago). Hogei bat lagunena kontra egin zuen bere frogaketa; gehienak irabaziz... Oso ona omen zen joko horretan; baina handik aurrera ez dakit nik partida asko egin ote zuen etorri zitzaion «saltsa» ezagututa...

Baina, harira: 1949ko udazkenean Bilbora iritsi nintzen ikasle.

Eta kurtso hartan, nik Bilbon pasa nuen lehendabizikoan, San Antongo taldearekin jarri nintzen harremanetan. Aita Klaudio Gallastegiren inguruan elkartzen ziren Bilboko gazte abertzaleak. Alimaleko gizona zen don Klaudio, handia, sendoa, eta abertzale segurua.

San Antongo Koralak ere beste elkarbide bat eskaintzen zuen; nahiz Bengoa zuzendariak erretxin fama izan. Han eza-gutu nituen nik urte hartan Uzkatarrak, Saituatarrak, So-laundarrak, Angulotarrak, Gereñotarrak, eta beste. Txinpartak antzerki-taldea ere hantxe sortu zen garai hartan.

Zenbait erromeriatara bultzatzen gintuzten hauek eta haiek. Goikolegea horrela ezagutu nuen. Eta horrelaxe ere Artxanda atzekoa, jendetsua, Txorierri aldeko mazelan ospatua, udaberriz (ekainean, nik uste); makina bat txistu eta «kai-ku» berde eta gorriren artean burutua. Garai hartan, abertzale izena merezi izateko «kaikua» jantzi behar zen...

Xabier Gereño zen bultzatzaile nagusi ekintza haietan. Eta ez zuen dantza loturik onartzen... *O tempora, o mores!* Dantza lotuari halako amorrua, eta denak (Gereño ez: egiari berea) erdara batuaz ari... Zer nahi duzue... kalapita galantak! Nik oso maite nuen «jazz»a, pianoz bereziki.

Hots, egun haietako batean, Valladolidetik iritsi berria omen zen mediku ikasle gazte bat aurkeztu zidaten. Jon Arenaza zeritzon. Handik egun batzuetara (Sanjuanetan ginen orduan) gazte talde batekin Donostiara joango zela esan zidan. Arenaza EIAkoa zela somatu nuen nik. Baina, zuhurtziaren kontra, neure tarjeta bat eman nion.

Treanean bilbotar talde hura Amarara ailegatzean, polizia agertu, jendea atxilotu (Arenaza bera barne), nire tarjeta agertu... eta, akabo!

Zumalakarregi 5eko gure etxera etorri zen polizia gaueko hiruretan. Aitak «mandato judicial» eskatu zien. Ez zeukatela. Eta ez zien atea ireki gau osoan. Biharamunean bai, eta Oken-do kalera deklaratzera eraman ninduten, esposaturik. 21 urteak ez nituen oraindik beterik.

–Sabemos que perteneces a Jaji-jaji –bota zidaten komisa-riek, lau jota belarez.

«Jagi-jagi»z ari zirela ulertu nuen. Baina ez nuen deusik erantzun; egia ez zela besterik. Ez ninduten ukitu ere egin. Eta deklarazioak amaitzean, Martutenera eraman ninduten. 1950eko uztailaren 4a zen. «Hotelera» nik egindako lehenengo bisitaldia...

Egia esan dezaket: ez nekien ezertxo ere Jagi-Jagi-az.

Nire lagun batzuek egina zuten aproba. Nik ez. Nahiz aurreko urtean, 1949an Gaintzarain bigarren aldiz «erori» zenean, zenbait egunez etxetik ihesi joana ibili, ez nuen gartzela ordura artean ezagutu. Larramendik ere ez; baina, beronen bila etxera joan zitzaizkionez, urte oso batez ibili zen etxetik at.

Gartzelako kutsu militarrek harritu ninduen gehienik: aginduak kornetaz emateak, platerak eta basoak aluminiozkoak izateak, kondentatuek soineko urdinska «mil-rayas» jantzita ibiltzeak (txapela eta guzti), «periodo» egiteko zeldan bakarrik hamar egunez egon behar izateak, sartu orduko ilea «al cero» mozteak... Esperientzia mordo bat!

Fernández Cuesta falangista zen orduan Justizia ministraria. Eta «en España no hay presos políticos» erabaki zuenez, gu preso «komunekin» batera jarri gintuzten. Hiltzaileak, homosexualak, kontrabandistak, preso abertzaleok, denok batera, nahasian. Orduan ere ez ginen gu preso politikoak...

Zeldetatik irten ginenean, eta patiora gainerako atxilotuekin elkartu (gehien-gehienak erabat ezezagunak), Juantxo Azkarraga izeneko «beterano» batek agurtu ninduen:

–Por fin entendiste el mensaje; pero no vaciaste el inodoro. ¡Qué despiste! ¡Había que vaciar el inodoro, echando el agua al lavabo por medio del pañuelo! ¡No conocías ese truco?

Orduan hasi nintzen konturatzen. Aldameneko zeldan Azkarraga hura zegoen, Donostiako kaiko gizon txiki bat, hamaika abenturatan ibilitako horietako bat.

Jo egiten zuen paretean, kolpe bakar bat, eta isilunea. Gero bi, eta isilunea. Gero hiru, eta isilunea. Gero bat... Azkenean ulertu nuen. Berak hiru kolpe paretean, nik beste hiru. Berak bi, nik beste bi. Hura zauskada! Mezu bat! Baina nik ez nekien komuneko ura kenduta, inodoroan barrena hitz egin zitekeenik... Eta horretara deklarazioen berri, eta abar, elkarri pasa...

Gartzelan bazegoen halako gerra-kutsua. Han fama zenez (eta gartzela barruan zurrumurruek berehala zabaltzen dira) Salinas funtzionaria, Ondarretatik Martutenera aldatua, Ai-

ta Ariztimuño, Aitzol apaizaren torturaketan eta hilketan parte hartua omen zen. Ile zuri-zuria zuen:

–Se le puso blanco al sacarle un ojo a Aitzol, durante las torturas, con la llave de la cárcel... –esaten zuten.

Gartzelako maisua ere bistaz ezagutzen nuen. Ondarretan urteetan barrena egona, *Ferrene* eta *Portu-Etxe* baserrien arteko etxe batean bizi zen, Igarako bidean. Eta gizon hura, dudarik gabe, han ikusia nuen askotan txirrinduzko ibilaldi haietan.

–En esta cárcel no –esaten zen han. –Pero en Ondarreta continuaron las sacas y los fusilamientos hasta hace ahora tres años, hasta 1947.

Berri hauek beldurra sartzen ziguten hezurretaraino...

Hantxe geunden 30 bat lagun, sarekada berean eroriak. Jon Arenaza bera hasteko, jakina. Baina baita beste asko ere, PNVren ingurukoak: Andonegi iturgina, Joxe Mari Gallastegi erreteriarra, eta abar. Oso gazte bat (16 urte), ondoko urteetan finantza-munduan gailentzekoa: Jose Antonio Bontigi. Zaharrena, Manu Otaño.

Okendo kaleko «saloietan», matrikula-plaka zintzilikatu zidaten lepotik, zenbaki batekin; foto batzuk atera zizkidaten (aurretik eta saihetsetik); eri-aztarnak hemen eta han emanerazi; eta, horrela «fitxatuta», Martutenera. Hilabetez bakarrik.

Abuztuaren 4ean, kalera.

1950eko udazkenean La Casillako Ingeniari Eskolan has-tean, eta jadanik esan dudanez, ilearen eskasiak salatzen nin-duen klarki. «Este ha estado metido en algún lío»...

Eta zoritxarreko fitxaketak kikildurik, askoz ere kontu haundiagoz ibili behar zela konprenitu nuen. Eta Ekin taldea sortuko genuen gehien-gehienok horrelako «fitxa» bagenuelako, eta Okendo kaleko ziegak dastatuak genituelako, oso herabe abiatu ginen borroka abertzalearen munduan.

Sendotu egin zuten gertakari hauek Iñaki Gaintzarainen irizpide ezkor eta herabetia. «Organizazio»rik antolatu behar ez zela ere zabaldu zen gure artean: alferrik zela. Beti jakiten zuela dena poliziak, eta dena birrintzen.

Eta orduan, pare bat urtez, 1951-1952an barrena, irakurri eta ikasi egin genuen gehienik: existentzialismoa bereziki, euskal foruak xehe-xehe eta herrialdez-herrialde, euskal kondaira (Bizkaiko Diputazioko liburutegian, adibidez). Eta, ahal izan genuen neurrian, liburu abertzale zaharrak (ia-ia ordura-ko ahaztuak) irakurtzeari ekin genion.

Anacleto Ortueta berri izan genuen, nola ez dakidalarik. Non bizi zen jakin eta... bisitatzea joan gintzaizkion. Gu ginen gazte jendea interesaturik ikusita, oso poztu zen Ortueta (gu baino 40 bat urtez zaharragoa); eta oparitu egin zizkigun bere bi kondaira-liburu nagusiak: *Navarra y la Unidad Política Vasca*, eta *Vasconia y el Imperio de Toledo*. Buruz buru irakurri genituen; eta Nafarroak kondairan barrena, lapurretaz, galdutako eskualdeen kontzientzia hartu genuen.

Arturo Campion ere irakurri genuen (gerla haseran hila); baita Carmelo Echegaray, Hermilio Oloriz eta Juan Iturralde y Suit ere.

Eta, horrekin batera, euskaraz ikasteari ekin genion. Klaseak ematen genizkion elkarri (gehien zekienak gutxien zekienari), liburuak (lortzen genituen bakanak!) aztertzen genituen; eta igandeetan, *Orixe-ren Kiton arrebarekin* aztertzen genuen. 3 kapituluan azaldu dudanez.

Gerra aurreko abertzaleak ezagutu nahi genituen.

Eta, 1951n agian, Krutwigen eskutik (bera 1952ko haseran ihes egin baitzuen Alemaniara), bilera bitxi batzuk egin genituen Ribera 6ko Euskaltzaindian.

Oso ongi oroitzen naiz Billalabeitia diputatu-ohia azaldu ohi zitzaigula, eta Egileor, eta Robles Arangiz; hirurok, iruditu zitzaidanez, «oso zaharrak» (ez ahantz nik orduan 21 urte besterik ez nuela...).

Askoz ere beranduago jabetu naiz Manu Egileor hura, Gallastegiren jarraitzaile, Jagi-Jagi-koa izana zela. (Bide bere-tik, 1971n, Monzonekin Salles d'Armagnac-en nengoenean, ezagutu nuen Manu Sota ere, jagitarra izana zenik handik urte askotara arte jakin ez nuen bezalatsu).

Baina bihur gaitezen geure harira. 1951n Bilbon, batekin eta besterekin aztamuka ari.

Bi ideia nagusi gudan: 1/ segurtasun-neurri hestuak ez hartzekotan, ezer ez egitea hobe; 2/ bihozkadaz jokatzeari utzi, eta helburuak eta bideak ongi aztertuta jokatu behar. Berehala izan genuen aukera.

Halako batez, 1951ko udaberrian, Luis Arana Goiri hil zela jakin genuen. Santurtzin edo Bilbon, ez nago seguru.

Zer egin behar genuen? Elizkizunetara joan? Eztabaida hitsak izan genituen; eta, jadanik «fitxatuta» geundela-ta, ehortzetara ez azaltzea erabaki genuen! Ekin-ekook, nolazpait esateko...

Lotsatuta hartu genuen erabaki koldar hura. Baina ez genuen «erre» nahi...

Eta isil-isilka, abertzale jotzen genuen gazte-jende askorekin hasi ginen harremanetan. 1952an barrena, hamaika bilerratan hartu zuten parte beroiek; eta, alde horretatik, denok, «alde edo moldez», Ekin-en sorreran egon zirela esan daiteke.

Harreman horiek Bilbon lotu ziren (zinez esan behar da Ekin Bilbon jaio zela); nahiz askotan «parteliantak» eta bultzatzaileak giputzak izan.

Izenak ematekotan, hona hemen nik gogoan atxeki ditudanak: Jose Mari Benito del Valle, Julen Madariaga, Jose Manuel Agirre, Mikel Barandiaran, Iñaki Gaintzarain bera (noski), Alfontso Irigoien, Gurutz Antsola, Juan Mari Larrea, Rafa Albisu, Iñaki Larramendi, eta lerro hauek idazten dituenak. Hamar lagun, neure kontuaren arabera.

Denok, halere, ez ziren Ekin-en sartu.

1952-1953 ikastaroa hasterakoan, beste pausu bat eman behar genuela iruditu zitzaigun. Nahiz Gaintzarain aurka egon. Alegia, segurtasunaren eta beldurraren gainetik, organizazio izkutu eta politiko bat (eta ez kulturala soilik) eraiki behar genuela isilpean uste baikenuen gehienok.

Afari «bero» bat izan genuen honetaz San Bizente elizaren atzekaldean. Eta ardoak eraginda, nonbait, «zerbait» egitea erabaki genuen. Nahiz Gaintzarain organizazio bat antolatzearen aurka egon. Hain zuzen ere, funtsezko sortzailea eta aita bera izanik ere, «kanpotik» laguntzekotan geratu baitzen.

Berehala, 1953ko udaberrian neure oroitzapenen arabera, argi eta garbi mintzatu ginen Julen Madariaga, Jose Manu Agirre eta Alfontso Irigoienekin. Azkeneko hau uzkur zegoen; «politika» eta euskara nahastea kaltegarri izango zelakoan. Baina baiezkoa eman zuen, eta Ekin-ekin lan egin zuen lehenengo bi urteetan, 1955era arte. Beste biek baiezkoa pozik.

Eta sorrera-bilera berezi eta super-izkutu bat antolatu genuen.

Jose Mari Benito del Valleren etxean elkartu ginen (segurtasun arrazoinengatik, gauza bera egingo zuten giputxek handik aste batzuetara Gipuzkoan); Bilboko Elkano kalean, Merkataritza Eskola parean.

Guretako batek, ez dakit nondik, *Gudari* gerra-denboran Euzko Gudarosteak frenteko gudarientzako argitaratzen zuen aldizkariaren ale bat ekarri zuen bilerara (hain zuzen ere, azal osoan batera, aurre eta atzekaldean, koloretan ikurriña bat zekarren zenbakia); eta gure artean zegoen mahai txapal baten gainean pausatu zuen. Zutik jarri ginen bostok: Benito del Valle, Agirre, Madariaga, Irigoien, eta lerro hauek idazten dituen hau.

«Guri begira» Mauro Benito del Valle (Jose Mariren aita) gelan gailen agertzen zen oleo handi batetik...

Eta orduan *zin egin* genuen. Zer gerta ere ez genuela organizazioaren berririk inori emango. Eta Agirrek 1936an Gernikan bezala, «zin dagit» esan genuen.

Lotura egina zegoen, sinbolikoki bederen. Gudaritzat geukan geure burua; eta izenik ere ez zuen organizazio berriak, Euzko Gudarostearen segidan ikusten zuen bere burua.

Ekin izenarena gero etorri zen. Baina guk ez genuen horrela bataiatu. Talde berriak izenik ez zuen. PNVkoak hasi ziren Ekin-eko «juramentatuez» gaizki esaka handik urte batzuetara.

Zenbait urtez, izenik gabeko talde berri bat ginen. Eta honnek «morbo» gaitza zuen...

Ez da harritzekoa Krutwig, handik zortzi urtetara, *Vasconia* 1961ean izkiriatzean, Euskal Tenebrosoen Alkartasuna kri-

tikatzea. Besteak beste, Krutwig Ekin taldekoa inoiz izan ez zelako, mihi gaiztoek ziotenez.

Baina geroago mintzatuko gara berriro gauza horietaz.

Zergatik talde berri bat 1953ko udaberrian?

Hortik, *a posteriori* hedatu diren azalpenak berriro ere ukatuz: Ekin ez zen sortu PNVren arabera «ezkerretan» ginelako. Ez. Zatiketa «politiko» horien aurka ginen gu, hain zuzen, eta batasun nazionalaren alde; ideologia «politikoen gaitetik». Zatiketa «politiko» horiek herri askatuen «luxua» zirela uste genuen.

Beste ipuin bat: PNVk sustatutako «Resistencia» delakoan, dinamikarik ez zegoela, eta koldar mordo bat besterik ez zegoela. Hau ere ez da batere egia; nahiz 1953an hala iruditu. Ausaz «egia berri hori», nolazpait esateko, hozitzen hasia zen.

Neure oroitzapenez fidatzen banaiz, 1951 arte, preseski, (1953ra arte, soka tinkatuz), PNVk, oro har, bultzatzen zuen Resistencia delakoan, dinamika bazegoen. Handia. Eta kalean senditzen zen: paperezko propaganda, ikurriñak mendietan eta kanpandorreetan, Euskadi Irratia (Iparraldetik), irрати-mozketak... Eta, horrekin batera, sarekadak etengabe.

Baina 1951n benetako kolapsoa egon zen: Pariseko Avenue Marceau Euskal Delegazio dotore eta ederra (Parisen erdi-erdian, nik inoiz ez bisitatua), frantses gobernuak Francori eman; eta dokumentazioa tarrapatuta handik ahal bezala salbatuta... Francoren Enbaxada kokatu zen bertan!

Giro berriaren etorrera adierazi zuen honek ezin garbikiago. Euskal politika ofiziala (=itxaron dezagun mendebaldeko gobernuak Franco hankaz gora bota arte, mementu hori segidan heldu baita) hila zela ulertu zuten denek; Agirreren lagunek barne. 1953an Francok Konkordatoa lortu zuen Vaticano-rekin (abuztuaren 27an) eta Tratu Militarra amerikarrekin (irailaren 26an).

Ordurarteko zai egotetik, jai zegoen. Oso mingarria zen, lotsagarria zen, nahi duzuen. Baina zai egotea denbora galtzea besterik ez zen. Eta guk, Ekin-ekook, gazteak ginelako

besterik gabe, eta porrot pertsonalik onartu behar ez genuelako, argi eta garbi esan genuen: PNVk (eta Baionako Itunak, orduko Ajuria-Eneak) gidatzen duen politikak ez darama INORRA.

Eskandalo izugarria zen hau. Gerla egindakoek (ulergarria denez) ezin zezaketen horrelakorik irents.

Lotsagabekeria, «aliatuen» aldetik zetorren. Normal xamartzat hartu behar zen fazista guztiak (frankistak barne) Hitler eta Mussolinirekin batera jautsiko zirela sinestea. Horretan ez dago PNVren jokabidea gaitzesterik. Arazoa 1951n sortu zen, eta 1953an areagotu. Eta 1951ko greba orokorraren ondoriozko sarekada gaitzek, kolokan utzi zuten «Resistencia» osoa; zeharo birrinduta, oro har.

Bide berri bat bilatzekotan egin zen 1956ko Biltzarre Nagusirako deialdia. Baina Parisen, espero zitekeenaren aurka, geldizaleak nagusitu ziren. Eta hauxe izan zen PNVren heriotza. Lasarte eta Monzonen hausketa, Prietoren beraren urrunketa, gaitz berberaren seinale nabarmenak ziren.

Gazteei eta berrizaleei bidea ireki beharrean, bideak hertsi egin zitzaizkien.

Ekin-en sorrerak horretan dauka oinarria.

Borrokarako gogoaren aldetik, zerbait somatu duke irakurleak.

Bai Jagi-tarren arrastoen artean, jakina; baina baita PNVko gazte (eta ez hain gazteen) artean, bazegoen borroka gogor egitearen aldekorik.

Baita abertzale zindo eta benetakorik ere. *Comunión-Partido* elkarketa kaltegarria mamitu aurretik bezala.

Bazegoen abertzale multzo bat (zer neurritakoa ezin esan), Resistencia delakoari itsatsita.

1956az geroztik erregionalismoa azkartu zen lotsagabeki; urteen buruan espaniolismo huts-hutsera eta ustelkeria politikoraino heldu arte. Baina abertzale batzuk, ezer ere sinetsi eta konprenitu ez arren, hortxe zeuden, organizazio berari itsatsita.

Guk 1950 inguruan ezagutu genuen gazte abertzaleen

multzoan, geroko Herri Batasunean egon den giroaren antzeko zerbait zegoen. Gerla-hotsak oraindik «aidean» zeudelako, agian, bazegoen galda berorik.

Mendebaltarren saldukeria osoa gertatzean, PNVko buruzagiek dimisioa eman behar izan zuten, oraindik gazteria berriarekin lotura egitea posible zen artean; eta jende berriari eta ideia berriei leku eman. Baina ez zuten behar adinako bertute edo abertzaletasunik izan.

Jagi-Jagi-koek, bestalde, apurturik, eta beti ere talde txiki samarra izanik, ez zuten gurekin lotura funtsezkorik lortu. Honetarako aukera ederrak izan bazituzten ere.

Baina ondoko urteetako zantzuak hor zeuden PNVren inguruan. Pasadizu bakan batzuk kondatuko ditut.

Gorago esan dudanez, Donostiako kaikoa zen Azkarraga (nik Martutenen ezagutu nuen gartzelakidea, ondoko zeldakoa). Ni baino hamar bat urte zaharragoa zen, gutxi gora-behera. Hots, fama zenez, eta gartzelan bertan ikasi nuenez (berari entzunik agian?), abertzale gazte batzuek halako batez *txakur* bat Donostiako kaian ezagutu; eta... bertan behera, uretara bota zuten!...

Beste batean, beste *txakur* bat inguru haietan ikusi, indarka harrapatu, kaian bertan zeuden komunetara eraman, burua komuneko inodoroan sartu, bonbari orduan eman... eta hantxe gure «secreta» itoka...

Aro desberdinak ziren. Bai. Baina «egurrerako galda» hor zegoen. Franco hor baitzegoen; baita beste hogeitaz egongo ere.

Gure aurrekoen artean horrelako istorioak entzuten ziren. Eta beroiek, psikologiaren aldetik bederen, ETA gogorazten dute; eta ez gaurko Ertzantza eta Martiarenaren mutilak. Orduko PNV isilpekoa, eta Atutxaren PNV hau, ez dira gauza bera. Ez urrik eman ere!

Beste adibide xume bat. Ni 1957ko uztailean ezkondu nintzen; Gipuzkoan bederen PNVrekiko gure harremanak «on xamarrak» ziren garaian. Eta ehun bat lagun elkartu ginen Donostiako Alde Zaharrean, elkarrekin afaltzekotan. Halako batez, eta afarikoan, batek proposamen hau egin zien afalkideei

(barrea bilatuz, nonbait) «barruan egon direnek besoa altxa!»; oso ongi oroitzen naiz: dozena erdi batek ez beste guztiek altxa zuen besoa!...

Borroka giroa ez zegoen oraindik oso urruti. Eta 1945-1950 urteetan «dantzan» ibilitako jendea («hay folklore» entzuten zen oso maiz, esate baterako), ugaria zen. Egunerokogia ziren sarekadak.

Eta ohitura «gogorak» (Aita Santakruz ez baitzen Pleistozenoko paleoantropo bat!) «aidean» zeuden. Karlistak ez ziren jende leun baketsua, gainera!

Adibidez, eta argibide hau eman ahal izateko beste inor «busti» beharrik gabe, istorio hau kondatuko dizuet. 1958 inguruan gure PNVrekiko harremanak zeharo gaiztatu zirenean, Arzalluzen arbaso politiko haietako batek, «Paseo Berriko arroketa botako ninduela» (sic) esan zidan, argi eta garbi; eta oso seriotan mintzo zelarik.

Eta multzo bereko beste batek mehatxu hau bota zidan beste behin: «Inoiz honetaz ezer esaten baduk, garbittu eingo haut!».

Plegu horretako erakuskari «demokratikoak», guk, (edo nik bederen), PNVren inguruko jendeagandik jaso ditugu lehenengo aldiz.

Beste batean, eta rue Singer-eko batimenduaren barruan ginelarik, esaldi paradigmatico hau bota zidan hango buruzagitzatik gertu zegoen erdaltzale amorratu haietako batek: «ETA es el último mokordo que ha producido Euskadi; y que pronto será expulsado»... Ez baitzen oso «diplomatikoa» haraino isilpean joandako ordezkari gazteoi entzun erazteko!

Ajuriagerrak, artean, antzinako «Sólo JEL basta» ideia fazistari eutsiz, hau esan zien Bizkaiko Ekin-lariei: «A Ekin hay que aplastarla; y luego absorberla, admitiendo uno a uno a los elementos que el Partido estime convenientes»...

Moduak, hitz batez, 1958-1959 urteetan, ez ziren oso «goxoak»... Eta hau esanez, «zaharrak» ditut gogoan.

Eta Ekin-eko batek (Julenek, nik uste) esaldi gogor hura bota zuen gure bileretako batean: «La liberación de Euskadi

pasa por la destrucción del PNV»... Eta, gutxi gora-behera, ados ginen.

Ajuriagerraren ustez Euskadiren soluzioa Ekin (eta gero ETA) desagertzeaz bestaldetik bilatu behar zen. Simetria osoan, guk ere Euskal Herriaren askakuntza, PNVren gainetik ikusten genuen. Hau egia da. Eta denborak arrazoi eman digu gero eta nabarmenkiago.

PNVren estrategiaren bitartez, gure ustez, Euskal Herria putzura zihoan; 16 urtez zain egon ondoren agertzen zen bezala.

Ez genuen guk kanpoko indarren eta Estatuaren laguntzan ezertxo ere sinesten. Guk euskal estrategia eraiki nahi genuen. Euskal indarretan oinarritua. Sekula-sekulotan «aro hobeen zain» egon gabe.

Horregatik aztertu nahi genituen geure arazoak, eta ikasi. Bihozkadazko jokabideak gaingitu nahi genituen.

Eta horretarako, barrutik fazismoaren zapalketari aurre egin ahal izateko, organizazio hertsia eta izkutu bat eratu nahi genuen.

1953ko egoeraren gakoa, horretan zetzan, ene ustez.

Eta, noski, gauza bat ikusten genuen garbiki: mendebaltar aliatu eta demokratez ahaztu egin behar genuela. Eta areago espainiar errepublikarrez eta gainerakoez.

Honela sortu zen Ekin, eta ez bestela.

Desberdin-mugak geroago bestela paratuko baziren ere, haseran hor zeuden, nik somatzen dudanez.

Txalapartak (L. Nuñez eta I. Egañaren lumetan) ETARI buruz argitara berria duen kondaira zehatza hor egonda, baita beste lan on batzuk ezaguturik, esanik eta ongi bildurik dauden gertakariak errepikatzeak ez luke funtsik. Oso ezagunak ez diren zertzeladak eta xehetasunak besterik ez ditut hemen gogoraziko. Ideien mailako gañazkari dagokionez, boskarren kapituluan xehekiago mintzatuko natzaizuelarik.

Haziz joan zen Ekin taldea Bizkaian eta Gipuzkoan. He-

rriz herri, eskualdez eskualde. Urte pare baten buruan, 50 bat talde «ireki» abiarazi ziren bi probintzia horietan (bi «erki» horietan esan behar omen zen).

Jendea biltzeko Ekin-ek zeraman sistema ezaguna da: ikasaldi «zabal» (edo «ireki») bat aurretik, 25 bat astez; astean behin gai bat taldean aztertzen zelarik.

Eta hori bukatzean, isiltasunezko zina eskatu: «zer gerta ere, eta hire erabakia zein den izanagatik, organizazio hau dagoenik ere ez duk sekula salatuko».

«Fitxatu-gaia» prest agertuz gero, ikasaldi hertsuari ematen zitzaion hasera. Beste zortzi bat astez. Organizazioaren berri emanenez, antola-moldeez, eta abar.

Jakina: benetan antolatu gabarik zegoen gazte jende asko ezagutu genuen han-hemenka. Euzko Gaztedikoak ziren batzuetan. Baina beste asko eta askotan, ezeren berririk ez zuen jende jatorra zen. «Zerbait» izkaturik bazegoela jakitean, pozarren: «bazen garaia!» esaten zuten. Lauzpabost urte hartan gutxienez (Avenue Marceauko Delegazioaren okupazioa 1951koa zela errepikatuko dugu), gerla ondotik haraino heldutakoa hilik baitzegoen.

1956ko uda bukaeran, Agirrek bi urte lehenago iragarritako Congreso Mundial Vasco delakoa hasi zen. Ni Ferrol del Caudillon nengoen, alferetz; esana dudanez. Eta ez nuen parte hartu.

Baina Ekin taldeak txosten bat prestatu; eta bi ordezkari bidaltzea erabaki zuen: Jose Mari Benito del Valle bilbotarra eta Jose Manu Agirre algortarra.

Ondoko hilabeteetan hauek kondatu zigutenez, sorpresa gaitzak izan zituzten Parisen.

Alde batetik, argiro agertu omen zen, PNVren zuzendaritza ofizialaren ondoan («atzean» esatea zehatzago) «beste zuzendaritza izkutu» bat bazegoela: Quentin Bouchard kaleko Oficina de Servicios izenekoa. Pepe Mitxelenaren agindupean, omen; eta geure artean segurtasunez «Grupo A» soilik baitaiaturik, bigarren buruzagitza bat zegoen.

Bestetik, Krutwigek sekulako iskanbila muntatu omen

zuen Kongresuan; «borroka armatua» proposatu baitzuen, diximulutan ibili gabe; baita «komando-ekintzak» hasteko beharra, eta abar. Erotzat hartu omen zuten batzartutakoek. Eta 1962an *Vasconia* liburua kalera agertu arte, ahaztuta gelditu zen «txotxolokeria» ero hura.

Gure txostenak ez zuen arrabots handirik lortu; eta ondoriorik bat ere ez. Dena berdin gelditu baitzen.

Ateak oro hertsita zeuden.

Orduan gauzak zeharo okertu eta zaildu ziren guretzat.

Alde batetik, eta buruzagitzan halako «akordio» bat edo lortu zenean (Gipuzkoan Agote eta Murua sartu ziren erakunde «conjunto» delakoan; eta, Bizkaian, Isasi eta Arenaza), egoera ez zen batere garbia izan. Alde batetik, Ajuriagerraren jokoa zegoen, PNV ofizialarena; bestetik «grupo A» delakoarena, Alderdia «barrutik» aldatzekotan, eta ez genekien norantza eramateko; eta bestetik, gu geunden.

Horrez gain, jakina, polizia zegoen... eta gu ordurako fitxatuta...

Hitz batez, eta garaiko gure hizkera erabiliz: «Almirantea» batetik, ortodoxiaren zaintzaile, baina oso ahulduta (Don Juan Ajuriagerra); eta PNVko buruzagi «erregionalak». Gipuzkoako «aitona», Elias Etxeberria zen; Bizkaikoa, Luzio Artetxe; Nafarroakoa, Joxe Agerre; eta abar. Guk zinez ikusten genituen agureturik, zaharturik, eta at; gaitzizenak berak adierazten zuenez... Bestetik, «Grupo A»koak zeuden, Joxe Muruaren inguruan (gehi Pariseko Pepe Mitxelena, Rekondo, eta beste; denak ezezagunak eta hiper-izkutuak). Eta bestetik, gu, Ekin-ekook.

Goitik eta oso artifizialki «batutako» «EGI-Conjunto» hartan, Ajuriagerrak, Ekin-en eta Grupo A delakoaren infiltrazioa somatzen zuen. Grupo A-koek, berriz amerikarren eraginez anti-komunismo osoan tematurik, beste talde komunista bat somatzen zuten Ekin-ekoongan, eta gu Euzko Gaztedian infiltratu ginela sinesten zuten, dena marxismo-leninismo internazionalaren eskuetan jartzeko. Eta guk geuk, azkenik, beste hau somatzen genuen: Grupo A-koek gutaz baliatu nahi zutela Ajuriagerra uzkailezko, eta gero gu ere albora uzteko.

Hori guztia susmoa besterik ez zen orduan. Noski.

Guk, Ekin-ekook, artean, jendea biltzekotan, talde irekiak eratzen genituen leku asko eta askotan.

Zehazki noiz ez dakidala (1958ko urte haseran, agian) talde horietako baten ikastaroa tokatu zitzaidan Zarautzen. Astero-astero Miguel Castellsek saldu berria zidan Isetta hartan joaten nintzen lagunengana; eta, beste hamaika lekutan bezala, hogeita bost «txarla» haiek ematen nituen.

Ustekabean PNV ortodoxoko gizon bat agertu da gure bilerara, eta oihuka kursillista gazte haien aurrean nire kontra hasi:

–Zer ari haiz hi hemen, faltsu hori? –euskaraz berak ere, kursilloan erabiltzen nuen hizkera berak ere hartuz. –Hi Zerbitzuetako mutila haiz, eta Alderdia izorratzera etorri haiz!

Ezer ez nekiela erantzun nion.

–Gezurti zerri hori! –berak («Subiñas» gaitzizenez, geroago jakin nuenez).

Eta orduan nire alkandoratik bere bi eskuez helduz, muturrekoka hasteko zori-zorian jarri zen... «Armonia» galanta gurre artean!

Artean «expulsatu» egin zuen PNVk Benito del Valle, nondik edo zergatik garbi ulertzen ez bazen ere.

Gertakari «bitxi» batzuk, argi berri batez argiturik somatzen genituen. 1957ko apirilaren 25ean, adibidez, sorpresa bat izan genuen Gipuzkoako «mahai batuan». Sekula txosten idatzirik aurkezten ez zuen Joxe Muruak, 8 foliotako izkribu zehatz eta landu bat ekarri baitzigun bilerara, Donostian, GB-Bri emateko, kritika latzak PNVko zuzendaritzaren aurka, eta abar.

Ekin-eko inork ez zuen sinetsi txosten hura bere buruz Muruak prestatua zenik. Ahobatez Grupo A delakoaren joko izkutua somatu genuen. Horra hor, gure biziera politikoa lehenengo aldiz, infiltrazio nabarmen bat. Beste pilo bat ezagutuko genuen segidan!...

Ajuriagerrak, bere aldetik, gutaz batere ez fidaturik, eta «Grupo A» hartaz leporaino eginik, bide gogorra hartzea erabaki zuen: Ekin-ekoon izenak eta deiturak bazter guztietan emanaz, eta gurekin ez kolaboratzeko eskatuz...

emanen, eta gurekin ez kolaboratzeko eskatuz...

1958ko udaberrian dirudienez, Ajuriagerrak «Servicios» erakundearekin erabat ebakitzea erabaki zuen.

Muruak, bapatean, («Kirru» gure artean) «gaixotu» egin zen. Eta «bolara batez Gabiriko bere baserrira erretiratzeko» asmoa jakinarazi zigun.

Hau ere ez genuen osotara sinetsi Ekin-ekook. Eta Murua-ren «eritasuna» nola ote zihoan jakin behar genuela erabaki genuen.

Gabirira agertu nintzen ni, horretara. «Kirru» ez zegoen Gabiriko bere jaiotetxean. Eta beraren familiakoek eritasun horretaz deusik ere ez zekitela esan zidaten! Baserrian bertan hori...

Gauza garbi zegoen: Murua beste joko batean zegoen. (Askoz geroago jakin genuen orduantxe desegin zela «Servicios» taldea, eta Pariseko «bigarren Delegazio» hura ere, desagertu egin zela. Aste haietantsu, hain zuzen). Jose Manu Agirrek, bere aldetik, 1958ko maiatzaren 20an datatu du Ajuriagerrarekiko haustura Bizkaian.

Hau jakitean, eta Bizkaiko Ekin-kideek kondatzen zituzten bitxikeriak ikusita, nahiz segurtasunaren aldetik guztiz arriskutsua izan (Ekin-ekoon izenak «kalean» zeuden, benetan), seguruak ez ziren pertsona guztiekin hautsi; eta erakunde berri bat haseratik beretik eraikitzen hastea erabaki genuen.

Horrela sortu zen Euskadi Ta Askatasuna organizazioa 1958ko bukaeran. Ekin-ekook osatzen genuen; gehi hamaika talde irekitan ezagututako gazte askok ere. Urrats honen berri jakitean, gehien-gehienek gurekin etortzea erabaki baitzuten. Zortzi «barruti»tatik sei Gipuzkoan, bederatzitatik sei Bizkaian, baita Araban eta Nafarroan zegoen apurra ere.

Parisera, Eusko Jaurlaritzara, bidalitako sorrera-gutun laburra, Donostiatik bidali genuen; eta 1959ko uztailaren 31ko data zeraman (neronek idatzi eta bidali nuen). Data horretan «arrasto klerikalak» aurkitzea, eta abar, oso ongi ezkontzen zen modako erasoekin. Baina faltsua da erabat. Uztailaren 31ko data eraman zuen bezala, irailaren 10 edo urriaren 4a eraman zezakeen.

nuela. Izen bat prestatzeko esan zidaten. Ez nik besteek baino merezimendu gehiagorik neukalako, edo abar. Ez. Izena euskaraz jarri behar zenez, eta ni 1957az geroztik euskaltzain «urgazlea» izanik, niri bide zegokidalakoan...

Eta bi izen eraman nituen bilerara: «Aberri Ta Askatasuna» (ATA) bata, eta «Euskadi Ta Askatasuna» (ETA) bestea. Bizkaieraz «ata», ahatea dela-ta (erdaraz, 'pato', 'canard'), txantxa iturri izan zitekeela-ta, ETA hobetsi zen.

Eta Madariagak orduan, hitza eskatu zuen: «pronto será esta sigla mucho más famosa que la sigla EOKA». Greziara Txipre uhartea elkartzeko mugimendu armatua zen hori, Grivas koronelak zuzendua; eta sabotajeak eta gainerakoak maiz buruturik, oso famatua zen egun haietan. Hura Julenen «balentria» horietakoa zela pentsatu genuen ahobatez... Eta aurrera segi genuen.

Baina erakunde berri bati, programa, estrategia eta taktika zegozkion. Eta hura guztia definitu gabe zegoen. Esan beharik ez dago.

Demokratikoki jokatzekotan, Bileran Nagusia egin behar zela uste genuen («asanblada» hitza ez zen oraindik erabiltzen); eta gure egoera pertsonala, segurtasunaren aldetik, guztiz txarra zen, irakurleak uler dezakeenez.

Besteak beste, eztabaida gogorrak egon ziren 1957-1958 urteetan borroka-moduari dagokionez. Ekin-eko sortzaileen arteko batzuk militante katoliko gogorrak izanik, oso-oso uzkur agertzen ziren bortxa politikoaren erabilpenaz («violencia»renaz, alegia).

Garbi geneukan denok sistemaren barrutik sistema zer bait alda daitekeena. Baina benetako aldaketak egiteko (aldaketa «iraultzaileak», esango genuke ondoko urteetan) sistematik at jarri beharra zegoela uste genuen (gaur egun ere gauza bera pentsatzen dut, bidenabar esateko). Legetasunetik at jokatu behar zela, hitz batez.

Legetasunetik at jarrita, berriz, bi bide ikusten genituen: Gandhiren borroka bortxagabea, batetik; edo-ta, jakina, bortxazko borroka, bestetik.

Urte oso batez, gutxienez, zenbait taldetan eztabaidatu zen puntu larri hau. Bortxarik gabeko borrokaren aldekoek, Gandhi aipatzen zuten; eta gose-oporrak, gizarte-desobediencia, eta abar. Baina hutsune bat egotea aitortzen zuten: Franco ez zela britaniar sistema.

Gehien-gehienak, horretara, eta piskanaka, borroka gogorren alde lerratu ziren. Kondairaren ikasketak, bestalde, honetarantz bultzatzen gintuen: Israel, Tunez bera... eta zer esanik ez Irlanda, Polonia, etab.

Gure organizazioak bost «adar» zituen orduan: Talde Adarra (zaharrena, kurtsilloak antolatzen zituena); Idazketa Adarra (*Ekin* hilabetekaria eta «txarлак» prestatzen zituena); Gaztigutza Adarra (gaur «informazio adarra» esango genuke); Agiriko Adarra (erdaraz 'Organización Paralela', O.PA.), legetasunaren ertzean ari zena: euskara, euskal kultura, kirol taldeak, ikastolak; eta Zabalketa Adarra, sortu zen boskarrena, *Zutik* argitaratzen eta zabaltzen zuena.

Seigarren adarra, beraz, azkenekoa, gero beste bostak irentsi edo gaindituko zituena, Ekintza Adarra zen, 1958an sortua; organizazio berria sortu eta bataiatzerakoan antolatua. Adar honek bere hastapenetan, eta Manzanas-en kontrako atentatua gertatu arte, pintaketak egin zituen, eta ikurrinak jarri, eta sabotaiak egin, eta tankera horretako «ekintzak». Baina giza-odolezko kolperik ez zen egon. Zortzi-hamar urtez, hitz batez, ETAk ez zuen biktimarik eragin.

Eta hau ere, egiaren parte garrantzitsua izanik, izkutatu egin ohi da: ETA gogortuz joan zen haseratik. Hori bai.

Ekintza Adarra delakoa sortu zenetik, bestalde, eta segurtasunezko arrazoinengatik, ETA bi erakunde desberdinetan erdibitu zen: lehenengo bost adarrek ETA «politikoa» osatu zuten, eta beren biziera autonomoa zuten. «Seigarrena», berriz; Ekintza Adarra zeritzona, erabat at mugitzen zen; buzoi bidezko sistema baten bidez, gainerako bost adarrekin koordinaturik bazegoen ere.

Ni neu adar «politikoa» gelditu nintzen. Eta «seigarrena» ezer gutxi nekiela esaten badut, egia besterik ez dut aitortzen.

1960ko abuztuaren 17an «erori» egin nintzen. Eta hone-takoan ez ninduten Okendo kaleko Komisaldegira eraman; etxe ondo-ondoko Goardia Zibilaren Komandantziara baizik. Hantxe, nire aitona bere bulego pertsonala izan zuen leku eta gela berean egokitu zitzaidan... poliziarri deklaratu behar-rra!

Hiru egun eta gauzez egon nintzen han. ETAKoa nintzela esan zidaten, Alderdikoekin akordio bat lortzekotan egona nintzela Parisen (egia baitzen)... Ez ninduten ukitu ere egin. Eta ezer aitortu gabe Martutenera eraman ninduten, bigarren aldiz.

Hara iristean Euzko Gaztediko mordo bat topatu nuen: Emilio Agote bera (ordurako ez hain «gaztea»), Gereka eta Alberdi zarautzarrak (irakurleak dakien egoeratan tratatuak), eta abar luze bat. Berrogei bat laguneko sarekada.

Oraindik «barruan» nengoela, Juan Jose Etxabe eta Jon Ozaeta atxilotu zituzten. Mihia erdibituta iritsi zen lehenengo Martutenera, eta makina bat basakeria jasanda. Nitaz gal-detzen zioten. Etxabek ez zuen ahoa ireki. Baina poliziak nire berri (eta ETaren berri) dexente zekiela ikusi genuen.

Zuhurrena nik ihes egitea izango zela erabaki zuen era-kundeak. Azaroaren 12an Martutenetik irtetean, bigilatuta nengoela iruditu zitzaidan. Aste batzuk pasatzen utzi geni-tuen, horretara; eta Urteberriko goizaldea egun egokia izango zelakoan, 1961eko urtarrilaren 1ean Dantxariara agertu nin-tzen. Benta haietako bat jenderik gabe eta kontrol agirikorik gabe zegoela erreparatuta, errekatxoa pasa zubitxotik, eta... Iparraldera! Nire bizierako kapitulu bat amaitua zen.

Han, nire zain, Aita Piarres Xarriton (gaur EAn dagoen berbera); eta Agustín Zumalabe, *jagi-jagi* izana.

«Urte berri, bizi berri»...

Enkas egun batzuk pasatzen uztea hobe litzatekeela-ta, urtarrilaren 10ean aurkeztu nuen neure burua frantses Komi-saldegian. Eta «*récépissé*» delakoan dantzari ekin nion: bi as-tetarako paperak, hilabeterako paperak, bi hilabetetarako pa-perak... Eta beti paperik gabe, edo-ta paperak «kadukatzeko» bezperan.

perak... Eta beti paperik gabe, edo-ta paperak «kadukatzeko» bezperan.

Aita Xarritonek eskaini zidan kokalekua Hazparneko Saint-Joseph ikastetxean (urte haietan hamaika errefuxiaturen babesleku izana); eta hantxe hasi nuen neure «ihesaldia»: hamasei urtez luzatuko zena. Elkarrekin egin ohi genituen oturuntza haietan ezagutu nituen, «haragi-hezurretan», Iparraldeko aberkideak; eta euskalkien arteko ñabardurak praktikan neurtu...

Xarritonen eskutik, lan bat ere topatu nuen Miarritzen: Lavigne izeneko ingeniari militar baten bulegoan, handik laister lkar kokatuko zen etxearen ondoan.

Baina ez nintzen lan hartan ongi egokitu; eta prentsa iragarkiak irakurtzeari ekin nion. Halako batez Pariseko «Bureau d'Etudes» batek egiten zuen ingeniari-lan eskaintza bat erreparatu nuen. Froga egitera joateko eskatu zidaten. Betonezko portiko batzuk kalkulatzea eskatu; eta nire lana ontzat emanik, onartu egin ninduten. Bulego hura oso ezaguna zen («Pellnard-Considère» delakoa, Montparnassen); eta, denak utzita, hara joan nintzen 1961eko otsailean.

Gela bat aurkitu nuen alogeran Dufour kalean, Saint-Germain-des-Près auzoan; bulegora (Armand Moisant kalean) oinez joateko moduko urruntasunean. Eta Parise ezagutzen hasi nintzen.

Ingeniari lankideak hamaika nazionalitatetakoak ziren. Nire bulego-burua, Vuong, Saigon-goia zen; 1947an gerrillan frantsesen kontra borrokan ibilitakoa, eta Ho-Chi-Minh-en miresle sutsua. Beste bat, berriz, Djordjevic, serbiarra, anti-komunista porrokatua, Tito osoki gorroto zuena. Bulegoan Léo Ferré-ren kantak entzuten genituen etengabe, delineante-etako batek oso maite zuelako.

Vuong-en bidez vietnamdar mordoska bat ezagutu nuen, denak Viet-Minh-en aldekoak eta ezkertiarak. Gauza batek harritu ninduen: espero zitekeenaren kontra, alerik ez zegoela haien artean budistarik. Ez 'hinayana'rik, ez 'mahayana'rik... «C'est comme ici –esaten zidaten–. Vous croyez qu'il y a beaucoup de chrétiens en France?».

go, batek ere ez zuen gure kasua ulertzen; are gutxiago begi onez ikusten.

Bost hilabetez bakarrik bizi izan nintzenez (emaztea eta hiru seme-alabak Donostian geldituak zirelako); eta Saint-Germain auzoa gauez paseiari ibiltzeko oso atsegina izanik, orduan ezagutu nituen La Rhumerie Martiniquaise taberna, beti jendez gainezka; eta La Pergola, eta Sartrek maiz bisitatzen omen zituen Flore eta Aux Deux Magots kafetegiak; eta abar.

Hilabete haietan ezagutu nituen, era berean, Pariseko bi euskal delegazioak: jadanik, isilka etorrita bisitatua nuen Singer kalekoa; eta ordura arte ikusia ez nuen Duban kaleko Euskal Etchea, «frantses euskaldunena» (ondoko orrialdeetan bere osoan datorren hitzaldian ere ikus daitekeenez).

Errefuxiatu abertzale batzuk ere ezagutu nituen, ni baino lehentxeago iritsiak: Arrarte bi anaiak, adibidez. «Felipe» batzuk ere bai: Jabier Leunda donostiarra. Gerla garaiko anarkista mordo bat ere bai, oso jende ikasia eta otzana; espainiarrak, gehienetan; nahiz euskal herritar batzuk tartean egon.

Xehetasun bitxi bat: Salan jeneralak Algerren «kolpea» eman zuenean, ni Parisen nengoen. Gau hartan afaria genuen Quartier Latin inguruan, Karlos Santamariarekin (Donostiatik etorria), eta Iñaki Larrañaga apezarekin (orduan Parisen Soziologian prestatzen ari). Afaltzen ari ginelarik, Debré frantses gobernu-buruaren dei etsiak entzun genituen bat-batean irratiz:

—Citoyens! Allez aux aéroports! Il faut empêcher que les pustchistes débarquent à Paris!...

Arranopola!...

Bertan behera utzi genuen afaria, eta Grand Palais ingurura joan. Armak banatzen zituzten: izena eman besterik ez zen behar... «Assemblée Nationale»aren aurrean, tanke batzuk... Ni errefuxiatua, paperik gabe, «anti-fazista» ofiziala (Salan erdi-fazista zelarik).

Baina kolpe militarra ez zen larriagotara joan...

Besterik ezinean, Buenos Aires-ko *Tierra Vasca* hilabete-karian idazten nuen aldioro. Salazar kolokan omen zegoen (orduantxe izan baitzen Galvao kapitainaren ekintza famatua:

ontzi handi bat itsaso-betea harrapatu eta «liberatu»); eta Franco ere, nola ez, «al caer»... Beti egon zen bezalaxe.

Goizetik arratsera egunero frantses hutsez bizitzea zer zen 'dastatu' nuen. Eta hizkuntza arrotz batez bizi beharraren zailtasuna ongi neurtzen hasi nintzen. Vietnamdarrek vietnamieraz egiten zuten beren artean eta beren familietan. Singerkorako delegazioan gaztelaniaz, eta Dubangoan frantsesez. Bapoa mutilak!

EUZKADI precisa un movimiento VASCO Y PROGRESISTA. Si ETA encarna esta DOBLE exigencia triunfará; si no, traicionará al País y será barrida. Más claro agua. Tanto en el Zutik como en los cursillos de formación, propugno:

1.-AFIRMACION EUSKALDUN Y EUSKALTZALE. El PRIMER deber de todo militante es hacerse euskaldun. Es inadmisibile que un dirigente de ETA sea «neutral» respecto al euskera. Por mi parte me niego DE PLANO a una aberración tal. Aprender euskera es hoy un acto revolucionario; y da un prestigio indiscutible ante las masas.

2.-Todo militante de ETA debe conocer la Historia de Euzkadi, sobre todo desde 1800. Los cursillos deben dar esta formación; en un plano progresista y socialista, pero VASCO Y NACIONALISTA.

3.-Todo militante de ETA debe tener una idea precisa de la Euzkadi que propugnamos: una Euzkadi al servicio de los vascos sin distinción de clases ni de ideas. Es decir: socialistas y libres. La dictadura del proletariado no existe: lo que existe es la dictadura del PC. Por ello la libertad de expresión, etc, no pueden ser negadas de plano, ni en una fase transitoria. El cursillo debe explicar el marxismo; pero como aportación, y no como Religión.

4.-Se debe hacer un esfuerzo, TODOS, para ver clara nuestra línea ideológica y nuestra estrategia. El PNV y demás tienen la suya; nosotros no.

Sólo añadiré para terminar que mi crudeza en la exposición me parece corresponder a la gravedad de la situación. El silencio a mis exposiciones y la insistencia en el norteñismo me obligan a ser implacable en mi protesta.

Jean

Informe a la dirección política de ETA (Bruselas, 19-3-1966)

A todos los militantes de ETA, agur:

Empiezo a recibir las primeras respuestas a mis acusaciones GRAVES contra el actual Ejecutivo.

De sobra sé que son graves. Sé de sobra también que me lo he jugado todo a una carta, con dificultad de probar lo que digo excepto para quienes son capaces de distinguir una revolución vasca de una revolución cantábrica; sé que algunos me tacharán de impulsivo, de resentido, de viejo, de reaccionario, de... todo. Pero lo que no saben es que he aguantado SIETE meses; que hace siete meses que aguanto la norteñización de la organización apretando los dientes. Y que esto no tiene nada de impulsivo ni de irresponsable. Si otros no saben leer entre líneas, si no saben distinguir ETA y ESBA, la culpa no es mía.

El derecho a pedir la expulsión de los enemigos de ETA

Estoy seguro de que si Zutik hubiera adoptado una línea anti-socialista, en ese momento se hubiera encontrado normal que se pida la expulsión de los reaccionarios. En cambio nuestro «izquierdismo» es tal, que el acusar de falta de vasquismo a los del Ejecutivo y a los de ESBA, parece una exageración, «cosas de Txillardegi», NO HAY TAL.

Una organización está a las órdenes del Ejecutivo para lo ejecutivo; pero para lo ideológico es EL EJECUTIVO QUIEN ESTA AL SERVICIO Y BAJO LA DISCIPLINA DE LOS MILITANTES. Ahora bien: yo no acuso al Ejecutivo de su gestión ejecutiva, sino de haberse VENDIDO A ESBA, AL ESBISMO y a la NORTEÑADA SEUDO-IZQUIERDISTA. Es decir: le acuso de traicionarnos por desviacionismo IDEOLOGICO, de dictadura IDEOLOGICA.

Yo no tengo la culpa de que ciertos miembros de ETA estén desvasquizados; lo que digo es que esos NO PUEDEN dirigir la revolución PATRIOTICA, porque son objetivamente anti-vascos en el contexto actual. Yo no tengo la culpa de que para ellos lo vasco no tenga peso, debido a la profundidad del genocidio que sufrimos; pe-

ro yo constato que, debido a esa falta de peso de lo VASCO, han caído en el seudo-izquierdismo abstracto cuando se presenta como nueva Verdad Revelada Absoluta, liberadora de todas las alienaciones. Pero yo tengo derecho a pedir que los tales elementos salgan de nuestra organización; pues son vascos capados, son eunucos desde el punto de vista abertzale, son incapaces de producir exaltación patriótica y vasca a su alrededor.

La proximidad de Aberri-Eguna

Este es un dato de la situación. La concentración de Irún-Hendaya debe ser un triunfo. En esto, por encima del problema existente con el Ejecutivo, estimo que, en las semanas que quedan, TODOS debemos volcarnos, y yo lo mismo, a apoyar la concentración en la medida de nuestras fuerzas.

Es lo que haré, suspendiendo provisionalmente mis escritos, excepto en lo que se refiere a copias de otros escritos que he enviado al Ejecutivo, y que jamás han recibido respuesta ni han sido tomados en consideración. (Los hechos mandan, señores).

La solución posible a mi juicio

a) Estudio, con vistas a su aprobación por una Asamblea, de un PROGRAMA.

Entiendo que, en este sentido, debe ser estudiado sobre todo el caso NO, DE NINGUN MODO REPITO QUE NO, de la revolución abstracta socialista; sino que se debe estudiar el caso, y los programas, de las luchas de liberación de los PUEBLOS SOMETIDOS A COLONIALISMO, siglos XIX y XX.

Nuestro problema es un problema NACIONAL Y SOCIAL. Nosotros no estamos sometidos a opresión de clase sólo. Lenin dice con todas las palabras que la opresión nacional afecta a TODAS LAS CLASES, mientras que la opresión de clase, no afecta a toda la nación.

Con citas de Mao, Lenin, los irlandeses, Gandhi, y lo que sea, se puede probar que en un pueblo OCUPADO POR EL EJERCITO EXTRANJERO, lo primero a hacer es luchar contra ese poder EXTRANJERO. En esta lucha

(basta ver el ejemplo de Mao con Chang Kai Chek) el deber de ETA es no el frente de clase, sino el Frente Nacional. Mao Tse Tung no se alió a los socialistas japoneses, sino a Chang Kai Chek.

Quiere esto decir que, en contra totalmente del Ejecutivo actual, que ha abandonado el vasquismo EN TODO lo que nos es posible ver a través de su ultra secreta acción desde la IV Asamblea, hay que hacer lo contrario exactamente.

Hemos de buscar aliados tácticos en la izquierda española y francesa; pero el plan del frente de clase dentro del Estado español, idea ESENCIAL de ESBA, del FLP y del actual Ejecutivo, es una traición; y es además un suicidio. Nuestra estrategia no puede ser de clase. Contra lo que sostiene Zalbide en su último informe (que es un exponente del ultra-izquierdismo actual) ETA NO DEBE SER UN MOVIMIENTO DE CLASE HOY. ETA DEBE ESTAR HOY, COMO MAO FRENTE AL JAPON, POR EL FRENTE NACIONAL VASCO. Su propaganda debe ser socialista, socialista revolucionaria (luego volveré sobre este punto). Debemos buscar y desear que resurja ESBA, que resurja o tome fuerza el PC pro-chino de Euzkadi, debemos intentar que ENBATA dé el viraje a la izquierda. Pero nosotros HOY nos suicidaríamos si HOY convirtiéramos a ETA en un movimiento de clase. Nosotros no somos asturianos: esto es todo. El que no se siente diferente de un asturiano –y desgraciadamente poco difiere cuando no es euskaldun– no encuentra peso a esto que yo digo. A «Jon Landeta», que no sé quién es, todo lo que yo digo le sonará a chauvinismo vasco reaccionario. Pero el tal Jon Landeta, muy probablemente, es sociológicamente un asturiano de Bilbao o de San Sebastián. Quién lo lamenta más que yo, ¡¡¡carajo!!!

Esto quiere decir que si ETA se convierte, en una medida suicida, en un movimiento ABIERTAMENTE DE CLASE HOY, se opone automáticamente a la constitución de un frente PATRIOTICO, más o menos difícil de conseguir, pero nunca rechazable a priori mientras el ejército ocupante esté ahí. ETA debe proclamar, a mi juicio, un programa SOCIALISTA hacia fuera, y un PROGRAMA DE CLASE HACIA DENTRO, interno. Pero sin que la adopción íntima, sincera, y total de éste, frene ya «a priori» la formación de un frente vasco de liberación

NACIONAL. Yo diría que Kemen puede y debe ser abiertamente un órgano socialista de clase incluso; pero que Zutik debe ser un órgano totalmente socialista pero no de clase abiertamente. ¿Por qué? Porque la revolución socialista presupone Euzkadi libre; so pena de que hagamos... socialismo español inevitablemente. ETA, y Zutik, deben ser, a mi juicio, ABERTZALES VASCOS DE IZQUIERDA. No podemos convertirnos hoy, bajo la ocupación extranjera, en vísperas de desaparición como pueblo, en movimiento de CLASE. Pero Zutik puede y debe admitir ya, desde ahora, posiciones de extrema izquierda; pero NO SOLO ellas. No sé si me explico.

Esto quiere decir, me parece, que, SIN OLVIDAR QUE LO PRIMERO CRONOLOGICAMENTE ES LA LUCHA NACIONAL, podemos y debemos ir a la creación de un movimiento socialista completo.

Así, por ejemplo, yo creo que en el próximo programa que se apruebe debe quedar bien claro que TODAS LAS RIQUEZAS Y BIENES DE PRODUCCION del país pertenecen al pueblo vasco. Esto debe ser dicho sin limitación ninguna. Incluso la Carta a los intelectuales me parece reaccionaria en este sentido. Los bienes de producción no pueden ser NUNCA de los particulares.

En lo referente al capitalismo no hay que andarse en medias tintas: el capitalismo es ESENCIALMENTE INJUSTO E INADMISIBLE. PUNTO.

Y lo mismo el resto. No me parece que estas afirmaciones nos presenten ni como movimiento reaccionario, ni como movimiento de clases.

Por lo que a mí respecta me propongo empezar a preparar borradores, y a enviarlos al Interior y al Exterior, con vistas a ir aclarando ideas.

LO QUE NO PUEDE CONTINUAR ES LA ORGANIZACION SIN UN IDEARIO, Y EN MANOS DE CUALQUIER INFILTRACION, DE CUALQUIER CANALLADA, O DE CUALQUIER ESTUPIDEZ. Que prácticamente todo lleva al mismo desastre.

b) Estrategia

No sólo hay que aprobar un programa (que puede constar, como propongo yo, de DOS partes: una pública y otra secreta; o de una sola, válida hasta el día de la liberación Nacional), sino que hay que aprobar UNA ESTRATEGIA.

También esto es estrictamente necesario. En esto, como en el capítulo del programa, «Branka» puede dar muchas ideas, de las cuales no todas serán malas, espero yo...

Lo que es preciso es que, todos los MILITANTES (es decir: los que LUCHAN de hecho por el programa de ETA, hoy) sepan a dónde vamos.

Esta estrategia, que no es sino la aplicación concreta del Programa, NO PUEDE SER NUNCA DECIDIDA POR EL EJECUTIVO. También la Estrategia de ETA, que HOY HA DE SER UNA ESTRATEGIA DE LIBERACION NACIONAL, DE CREACION DE UN ESTADO VASCO, ha de ser servida por el Ejecutivo, y no impuesta. La democracia empieza por dentro. El movimiento se demuestra andando. Siempre he sido partidario de la dirección democrática de ETA; y en la cuestión buruzagi voté en contra hasta el fin.

Baste leer los últimos Zutik para ver que el actual Ejecutivo ha caído en el más burdo de los norteñismos. Pues adoptando como lema: «No queremos un Estado Vasco», queremos un «Estado Socialista Vasco», ha adoptado la línea del seudo-izquierdismo. Pues lo primero a conseguir es el Estado Vasco; y luego, INMEDIAMENTE, DESDE ESE MISMO INSTANTE, empezar la revolución interna que ponga las riquezas y el país entero en manos del pueblo por medio de un cambio de estructuras. Decir que no queremos un Estado Vasco, sin decir SIMULTANEAMENTE además que NO QUEREMOS TAMPOCO UN ESTADO SOCIALISTA NO-VASCO, muestra por otro lado el mismo signo norteño y seudo-izquierdista de la actual Dirección.

Hay que aprobar una ESTRATEGIA DE ETA, QUE HA DE SER DEL MISMO TIPO NECESARIAMENTE QUE LA DE CUALQUIER PAIS EN SU PRIMERA FASE FRENTE AL PODER COLONIALISTA EXTRANJERO.

Lo contrario es hacer Estrategia FLP o trotskismo español.

c) *Táctica*

Esto sí que debe quedar en manos del Ejecutivo. En esto hay que dar plenos poderes al Ejecutivo. En este sentido toda crítica ha de ser bien pensada, pues es difícil

discutir al que está al frente de ETA lo que ETA puede hacer en los casos concretos.

Pero, evidentemente, la táctica es el infinitésimo de la estrategia. La estrategia es la suma de las tácticas sucesivas. La táctica de cada momento es UN PUNTO de la línea estratégica.

d) Socialismo y Marxismo

Que Marx ha descubierto verdades eternas es claro. Hay una parte del marxismo, que podría identificarse con la CRÍTICA de la Sociedad burguesa y de ciertos aspectos sociológicos de la Religión, Filosofía, etc, que parecen indiscutibles. Viviendo en una sociedad burguesa, en que las más crueles injusticias y desigualdades, y las más patentes alienaciones, son la esencia de nuestra estructura política bajo el colonialismo, es evidente que, POR HONRADEZ INTELECTUAL Y POR EL SENTIDO POLITICO INCLUSO el oponerse a dar una explicación del marxismo a nuestros militantes y a todo nuestro pueblo, es INADMISIBLE. Nadie habrá más opuesto que yo a que se proscriba el marxismo de nuestra formación y de nuestras publicaciones. Sería algo así como oponerse a explicar a Freud en psicología. Un mínimo de formación MARXISTA es necesario y viene bien a todo el mundo.

Pero, y aquí viene el «pero», sólo dar formación marxista, es sólo dar formación en una dirección. Pues el marxismo no lo explica todo ni lo soluciona todo. No hagamos del marxismo una nueva Religión.

Por ejemplo, Proudhon y Bakunin (es decir: los anarquistas), enemigos como Marx y Engels de la sociedad burguesa, hicieron profecías sobre el stalinismo, la burocracia omnipotente, la dictadura tiránica del PC, etc, hace ya CIEN años. No estudiar a estos genialísimos autores es un absurdo. No olvidemos que hay muchos diversos modos de hacer ciertas críticas al marxismo oficial de los Estados comunistas: 1.-Existe la crítica que ya hizo Bakunin hace 100 años, y por la que rompió con Marx; es decir: la crítica anarquista. 2.-Existe la crítica trostkista, que es una crítica marxista del marxismo oficial. 3.-Existen las críticas de los intelectuales marxistas como Lefebvre 4.-Existen las críticas por razones ideológicas (y que son explicables desde el propio punto de vista marxista): la dictadura ideológica del PC; la falta de libertad

de expresión; la confesionalidad de los Estados comunistas... Pretender que todo este tipo de críticas es prueba de espíritu reaccionario es una majadería. Lo reaccionario es, ha sido, y será siempre, el fanatismo; la convicción de estar en la Verdad Absoluta e impedir toda discusión.

Pero hay otras razones. En efecto: es ilusorio creer que la revolución socialista en Euzkadi puede ser del mismo tipo que en países con un 90% de analfabetos, sin industria, etc.

Yo estoy convencido de que la única Democracia Real es el SOCIALISMO PLURALISTA. Es decir: el socialismo total en lo económico, pero en un marco de libertad de crítica del Poder y de libertad de expresión. Si en Euzkadi se consiguiera esto sí que sería realmente la dimensión verdaderamente trascendental, visto desde fuera, de la revolución vasca.

e) La alienación nacional

Los que aún sostienen (a veces dentro de ETA!!!) que el euskera es importante pero menos... me hacen verdadera gracia. Ya os lo dije el otro día: sin una Lengua común no hay comunidad nacional, aunque puede haber un Estado. Con varias lenguas distintas no hay comunidad nacional en ninguna parte. ES MENTIRA. ¡Que venga a Bélgica el que crea lo contrario!

Más aún: sin euskera Euzkadi no existe. Mejor dicho: no hay nación vasca. Y sin nación vasca, el pueblo norteño no tiene DERECHO A CONSTITUIR SU ESTADO. ¿Para qué crear fronteras artificiales?

La alienación nacional vasca es la alienación LINGÜÍSTICA. No decir esto es estar objetivamente en posición a la vez REACCIONARIA (es decir, anclado en una idea pasada) y ANTI-VASCA, pues el vasco no ha dicho jamás la palabra «vasco» incluso, hasta que se ha hecho norteño. No hay dos Euzkadis posibles. La única revolución nacional es la EUSKALDUN. La otra, la de ESBA, es la norteñada comunistoide. Es curioso que los mismos que pretenden que el euskera no es esencial para EUZKADI (es decir, que demuestran tener una sutileza enorme, pues creen que Euzkadi puede ser vasca por otras razones oscuras, místicas por lo visto...) esos mismos, digo, son afásicos, son como insensibles para con

las características que si no es la única verdaderamente nacional (yo opino que es la única nacional, desde luego), convendremos en que es la primera, creo yo. Son así sensibles a la quinta, a la veinticuatroava y a la trigésimo quinta característica; pero la primera... esa no: «esas son pijadas de Tx.». He ahí todo un modelo de razonamiento «objetivo», «científico» y «revolucionario»...

El PSU (es decir, el PC catalán), según me decía el otro día un andaluz que vivió en Barcelona, OBLIGABA EN 1960 a todos sus miembros, fueran catalanes o no, a UTILIZAR SOLO EL CATALAN EN SUS REUNIONES. Es así como este comunista andaluz APRENDIO CATALAN, por narices, por ORDEN DEL P.C.!!! No hablo de 1936, sino de 1960, época en que tuvo que escaparse de la policía española. He ahí un extremo. ¿Qué vemos en el otro?

Ya lo sabéis: el obispado (el obispado español y reaccionario, ¡carajo!) de San Sebastián NO ORDENARA MAS SACERDOTES NO EUSKALDUNES en esta diócesis.

Compañeros: ¿QUIEN ES EL EXTREMISTA? EL ACTUAL EJECUTIVO Y CIERTOS SEUDO-REVOLUCIONARIOS NORTEÑOS, O LOS QUE CONSIDERAMOS QUE LA LENGUA DEL OPRESOR DEBE SER BARRIDA DE NUESTRAS FILAS Y UN DIA DE NUESTRO PAIS. Espero sólo una respuesta HONRADA de vuestra parte.

Conforme en que la situación de nuestra lengua es precaria. También es débil el proletariado actual ¿Y qué? ¿Apoyamos por ello al capitalismo? El Zutik no puede ir todo en euskera; pero no PUEDE EN NINGUN MODO IR TODO EN ESPAÑOL. Esta es otra prueba de la norteñada del actual Ejecutivo y de los que lo aprueban.

El movimiento se demuestra andando

Los medios marcan el fin. ETA marca el futuro de Euzkadi, pues lo encarna; y tanto más lo encarnará cuanto más creamos en ETA. Quiere esto decir que ETA es un pequeño Euzkadi EN EL CUAL EL PODER ESTA YA EN NUESTRAS MANOS. Yo por eso estoy terriblemente decepcionado por el actual Ejecutivo y por ciertos etarras. Pues nuestra organización NO ENCARNA LA EUZKADI VASCA Y DEMOCRATICA QUE QUEREMOS,

SINO LA CANTABRIA COMUNISTOIDE QUE NO QUEREMOS.

En efecto. En lo nacional (es decir: en lo idiomático, esencialmente) hay una DESPREOCUPACION, UN OUDIO CASI, INADMISIBLE.

En lo democrático: El Ejecutivo, que dice hacer sólo lo que dice el pueblo, no hace ni pizca de caso de lo que decimos los militantes: ni actas, ni explicaciones de las charlas suprimidas, censura, etc. ¿Esto es lo que queremos? Pues eso se parece mucho a cosas que no citaré... NO PUEDE SER. ETA ESTA EN UN MUY MAL MOMENTO. REFLEXIONEMOS TODOS. ANALICEMOS EN EQUIPO. LUCHEMOS AHORA, COMO SI NADA OCURRIERA POR EL EXITO DE IRUN-HENDAYA.

PERO ESTEMOS CONVENCIDOS DE QUE ESTO NO PUEDE CONTINUAR. QUE, EN TODO CASO, NO CONTINUARA COMO HASTA AHORA; PUES SOMOS YA MUCHOS LOS ETARRAS QUE NO LO TOLERAMOS.

GORA EUZKADI ASKATUTA!!!

Txillardegi

Txosten horiek ez ziren zabaldu ere egin organizazioan. Madariagak bildu zigun behin, oso laburki, arazoaren egoera: «Socialismo no hay más que uno; y ése es el Socialismo Científico».

Gurea, jakina, «socialismo pequeño-burgués» zen, «sasi-sozialismoa», «socialismo de pacotilla», eta abar.

Aspergarria litzateke garai hartako eztabaida ideologikoak hona ekartzea. Europa osoan ezkerrek ezagutu zituenak besterik ez dira, beste alde batetik.

Aski izan bitez hemen gertakari adierazgarri batzuk.

Guk gauza bat ikusten genuen garbi: nahaste borrarastean joatea, eta pluralistak eta «monistak» elkarrekin jokatzeko (areago isilpean), pluralismoaren heriotzaurrea besterik ez zela. Alderdi «sozialista batu» guztiak, alderdi marxista-leninista kolorebakarraren lehenengo urratsa besterik ez ziren gertatu behin eta berriz, eta mundu guztian.

Sozialismoa *bakarra* baldin bada, alderdi *bakarra* onartu

beharra denbora kontua zen; eta alderdi bakar hori, behin eta berriz frogatua zenez, partidu moskutero eta anti-pluralista zen segurki.

Bi besterik ez zegoen, beraz. Bata marxista-leninista ez ginenok, ETA utzi, eta erakundea berorien eskuetan jartzea. Bestea, ezkerren «batasun behar» abstraktuaren ohoretan, ezker abertzaletasuna marxista-leninisten eskuetan jartzea; eta gu, abertzale sozialistok, onenean, PC abertzale baten jokoa jakinaren gainean egitea.

Sobera sinetsi gabe ere, beste soluzio bat lortzen saiatu ginen: ETA bi organizazio desberdin eta autonomoren arteko «fronte» bat bihurtzea. Hitz batez, nahaste borrarastetik at, ekin-tza bateratua burutuko zuen mugimendu bizifalok bihurtzea.

Helburu horretan, eta gertu zegoen V. Biltzarre Nagusian aurkeztekotan, *Frente de Tendencias ETA y Frente Nacional* txostena prestatu genuen. Xabier Imatzek egin zuen aurkezpena.

Gure txostenak, Grupo Socialista de ETA taldeak prestatuak, 1967ko otsaileko data zeraman.

Baina erdibiketa horrek ETAREN ahultzea ekarriko zuela bide, gure proposamena ez zen onartu.

ETA barruko partida galdua genuen.

Eta ETAtik at zerbait saiatu behar genuela iruditu zitzaigun.

Brusselako Neerstalle kaleko nire etxean elkartu ginen, horretara, ETAKO «proskrito» batzuk eta Federiko Krutwig; ordurako (1965 erdirako, esan dezagun) Antwerpen-dik Brusse-lara aldatua. Eta aldizkari abertzale bat argitaratzea erabaki genuen.

Eta izena eta izana finkatu genituen berehala. Izena, *Bran-ka*, Krutwigek proposatu zuen. Eta izana, ezkertiar abertzaleta-sunaren defentsa, sasi-marxismoaren eta sozial-inperialismoa-ren aurka.

Krutwigek abertzaletasunaren defentsa egingo zuen maosis-moaren aldetik (1968ko maiatzaren bezpera giro hartan, de-fentsa bakarra ezker-muturretik egin baitzitekeen! Rikardo Arregi bera lekuko). Nik ezkerkeria sasi-klasisten kontra, hiz-

kuntzaren balioa zuzenetsiko nuen (*Hizkuntza eta Pentsakera* liburua ere, garai hartakoa, helburu berean idatzi nuen); batez ere Whorf eta Sapir-en lanen ildotik. Eta Benito del Valle, ekonomiaren arloan, komunismo ofizialaren burokraziaren alderdi txarrak salatuko zituen, Autogestioaren beharra azpimarratuz.

Krutwig ez zen orduan ETAKoa (gero bai). Alderantziz, Benito, Agirre, Imatz, ni neu, ETAKoak ginen orduan. Gero ez.

Flandriar abertzale baten laguntzaz (Antwerpen-go Valère Depauw dut gogoan), aldizkaria Flandrian argitaratzea erabaki genuen. Eta gero, ahal bezala (?), «barrura» pasa; ahal bezala, banatu; eta, ETAKo zuzendaritza berriak zeraman jokabide «felipe»aren kontra lanean hasi... Hutsaren hurrena, noski!

Segurtasun arrazoinengatik, Buenos Airesen argitaraturik, kalera zen *Branka* 1 1960ko «Apirrillean».

Branka-ren kronologia eta nire lau txosten nagusiena alderatzen badira (4. txostenak 1966ko martxoaren 19ko data zeraman), asmo edo proiektu berberaren pausuak direla garbi ageri da. (Irakurleak, dena dela, posible du gaur *Branka*-ren pausuak orpoz orpo jarraitzea: ikus Ediciones Vascas Argitaletxeak 1979an argitara emandako bilduma).

Gure lana abiatuta ikustean, «lasai» xamar gelditu ginen Bruselako «heterodoxoak»; eta zerbait lortuko genuela sinesten hasi.

Baina handik zortzi edo hamar urtetara, bestetan ere kondatu izan dudanez, hau jakin genuen: ETAREN zuzendaritzak berak, gu laguntzekotan pardel osoa muga pasako zigun aitzakian... edizio oso hura hartu, eta... itsasora bota zuela... Talde «abertzale sozialista»ren oinarri ideologikoak jarri nahi zituen errebista, hor nonbait, Kantauri Itsasoko zokoren batean, txipiroien eta txangurroen bazka bihurtu zitzaigun, aloka eta salma artean...

Hastapen distiratsua gurea!

Baina jakin ez genekien itsasoraketarena. «Zerbait» gertatu zela somatu, bai.

Berehalatik, orduan pil-pilean zegoen arazo nagusiari buruz («Frente Nacional o Frente de Clase» famatua), Branka Taldeak Frente Abertzalearen alde egin zuen bere hautua; ezkerkoi eta ultra-sozialisten madarikazioak jasoz.

Branka-k bi fase izan zituen.

Lehenengo hiru zenbakietan (1, 2 eta 3-4 zenbakikoe-tan), eta 1967ko urtarrilera arte, beraz, gurekin batera hartu zuen parte Federiko Krutwigek bere maoismoan barrena. *Branka* 5etik aurrera, berriz, Federiko ETAn sartua zenez (eta besteok irten), errebistak ez zuen beraren artikulurik gehiago argitara.

Alderantziz, nolazpait esateko, Krutwigen lanen orde-z, Benito del Vallerenak ugaldu ziren (Zabala), Agirrerrenak (Hirurizar), eta besterenak.

Haserako *Branka*-z (oraindik ere Benito del Valle, Agirre eta ni neu ETaren barruan), oso laburki mintzatuko.

Epealdi honetan, teorian bederen ETaren onespenez atera-ta, bi joeratako artikulua daude.

Egia esan, eta praktikan, hiru idazlek egin zituzten zenba-ki horiek: Txillardegik (78 orrialde), Federiko Krutwigek (75 orr.) eta J.M. Benito del Vallek (25 orr.). Gehi atal txiki batzuk, Guy Héraud barne.

Interesgarria izan daiteke kalera irtendako datak gogoraz-tea: 1 (1966-IV); 2 (1966-IX); eta 3-4, ale bikoitza, 102 orrialde (1967-I; ETaren V. Biltzarrearen bezperan, nolazpait esateko).

Interesgarria ere artikuluen hizkuntz banaketa: erdia ia-ia gaztelaniaz, pittin bat gutxiago euskaraz, eta %10 inguru fran-tsesez.

Krutwigen ekarpena garbi agertzen da: *Nacionalismo Re-volucionario* eta *Estrategia Guerrillera* lanek helburu bat zu-ten: euskal maoismoaren oinarri teorikoak finkatzea. Abertza-letasuna funtsatuz, borroka armatuaren defentsa.

Nire aztergaia (*Branka*-ren kondaira guztian barrena be-zala) bikoitza izan zen: hizkuntzaren funtsezkotasuna azal-tzea (estrukturalismoaren bidez, oro har), eta modan jartzen hasia zen «Frente español de clase» delakoaren kontra, «Fren-te Abertzalea»ren aldeko argudioak ematea.

Benito del Vallek, berriz, burokrazia marxista-leninisten kontra, Autojestioaren defentsa etengabea: bisitatu berria zeu-kan Jugoslabiako esperientziatik hasita.

Nork irakurtzen zuen? Zehazki ezin esan. Garai hipergauchista hartan (1968ko maiatzaren Iraultza gertu zegoen) denak zeuden, hitzez eta ustez bederen, ezkerrean ezkerrean. Eta ezkerretan egoteko, PC ofizialen erreformismoa ezagututa, maoismoan egon behar zen. Edo guevarismoan. Trotsko baztuk ere bazeuden, baina komunista ofizialen artean oso gaizki ikusiak. Harritzekoa, bestalde: bandera beltzak eta anarkoek indar gutxi izan zuten 1968ko maiatzeko iraulketa gertatu arte.

Hego Euskal Herrian, artean, koldarkeria hutsa zen marxista-leninista erradikal gisa ez agertzea. Gu, beraz, *Branka*-ren ingurukook, erreformista saldu eta nazkagarri hutsak besterik ez ginen. Orduan zabaldu zen «Txillardegik» «zillardegik»tik datorrela... Eta *Branka*-ko artikuluak «Usako» (erdarazkoetan urtetan sinatu bainituen Oñatiko gaitzizen horretaz, familiako Enparantzatarren oroitzapenetan) izenpetzen bainituen, super-gorriek berehala bilatu zioten gako «zientifikoa»: U.S.A.-ko, ni yankee-zale okaztagarria omen nintzelako... Bego hori!

Gauzak horrela (eta 1967ko apirilean geundelarik), alde zurretik aurrikusia genuena gertatu zen: ETArekin aldaketa ez zen onartu. Oso ofizialki inoiz garbiki aitortu ez bazuen ere, ETArekin zuzendaritzak, V. Biltzarrearen ondoren ere, marxismo-leninismoa hartu zuen dotrina gidarizat.

Ondoko urteetan ere, itsukeria sinetsezin guztien gainetik nabarmen agertu zenez, Mosku, La Habana, Pekin, are Pyongyang ere, erreperere bihurtu ziren, sekula ez Bakunin edo anarkoak. Are gutxiago sozial-demokrata okaztagarriak, edo beste.

ETAk (eta ondorioz Ezker Abertzale deritzonaren joera nagusiak) «socialismo científico»aren bidea hartu zuen ardatz.

Eta ETAtik irtetea erabaki genuen.

Euskal Herri osoan (ahal genuen mailan, jakina) ondoko *Azalpen* hori banatu genuen, hiru hizkuntzetan batera.

Abertzale askok eta askok, eta ETAk militanterik gehien-gehienek, traidoretzat hartu gintuzten: «pequeño-burgueses», «resentidos que querían seguir mangoneando desde fuera», «reaccionarios», «cobardes», «antimarxistas», eta abar. Han-

dik urtetara, adibidez, Z. Argia astekariak, «Caja Laboralak» banatutako argazki guztiak argitara zituen, koloretan (Ariz-mendiarrrieta, Lete-Iriondo, Txillida, Mitxelena, etab.), bat ezik: nirea...

Zergatik? «Ha blasfemado: no cree todavía que la solución de Euskadi pasa por el marxismo-leninismo».

Ondoan doan dokumentu honek ez zuen beste erantzunik merezi, beraz.

AZALPEN

E.T.A.-ko Buruzagitza'ri,

Agur:

Euskadi Ta Askatasuna (E.T.A.) deritzan Mogimendua abertzale-tasunaren kinka gaisto batean sortu zan. Batzutan xuxen eta batzutan oker, gure ustez, betekizun garrantzitsu bat bete du gaur arte, euskaldun nazio-nahia indartuz, eta abertzale sozialismo bat sor dedin lagunduz.

Hemendik aurrera kondaira-betekizun berri bat izan dezake E.T.A.k, eta hortara galerazten azkenak izango gera gu. Betekizun hori azkeneko bi urte hauetan gertatu dan aldakuntzak agerrerazten du: ezari-etzarian aldatuak, E.T.A. ez da gaur joera batzutako mogimendu bat, joera marxista-leninista bakar baten partidu bat baizik.

Marxista ez diranek berek, halere, ezin dezateko hau guztiz kaltegar-ritzat jo, abertzaletasuna gaur politika-joera guztietara zabaldu daia era-kusten baitu; eta hunek adierazten baitu ere abertzaletasuna helduago dagoela lehen baino.

Baia aurrerakoan gu Mogimenduan egoteak ez luke funtsik; aitzitik, iluntasun eta nahasketa iturri izan diteke; eta hauek galgarri gertatzen dira luzera. Guk, sozialista izanik ere, marxismo-leninismoaren zenbait puntu nagusi ez ditugu onartzen, ez filosofiari buruz eta ez politika-jokabi-ueaz ere; eta, hori dala-ta, E.T.A. erakundea uztea erabaki dugu.

Bi funtsezko arrazoiengatik luzatu dugu erabaki hau gaur arte.

Lehendabizikorik, gure erabakiaren larritasunaz ongi oharturik, E.T.A. joera bitako mogimendu egon zedin saiatu gera azken bururaino, joera hauek, noski, beti abertzaletasunean eta sozialismoan. Burrukako hiltabete baizuen ondoren, ordea, aukera hori gaur ez dagoela iruditzen zaigu.

Bigarrenekorik, E.T.A.k ideien eta perisonen beren infiltrazio bat jasan du berriki. Batzuk españazale marxista agintari ezagunen zerbitzutan jarriak ziran; eta «popular» hitzaren atzean Euskal Herria rekiko beren gorrotoa nagusi dutenen menpean jokatzen zuten. Hein hortan gauzak, españazale okertzearen kontra burrukan gure laguntza osoa eman nahi izan dugu. Gaur okertze hori nabarmen agertu da, eta garaituta dago: salakunenaren zuzendariak E.T.A.-tik betaiak dira, eta ezereztatzeru kondena-turik daude.

Berriz ere esan nahi dugu bukatu aurretik, Euskal Herria'ren salbaido bakarra euskal erresuma bakar bat eraikitzean, eta euskaldun gizarteak gizatar sozialismo baten arabera eratzean dagoela. Helburu horrek zuzendu du gure biziera orain arte; eta helburu horretxek zuzenduko du etorkizunean.

J.M. Agirre Bilbao

J.L. Alvarez Enparantza

J.M. Benito del Valle

Xabier Imaz

1967-ko Jorralaren 14

AZALPEN E.T.A.-ko Buruzagitza'ri,

Agur:

Euzkadi Ta Askatasuna (E.T.A.) deritzan Mogimendua abertzaletasunaren kinka gaisto batean sortu zan. Batzutan xuxen eta batzutan oker, gure ustez, betekizun garrantzitsu bat bete du gaur arte, euskaldun nazio nahia indartzuz, eta abertzale sozialismo bat sor dedin lagunduz.

Hemendik aurrera kondaira-betekizum berri bat izan dezake E.T.A.k, eta hortara galerazten azkenak izango gera gu. Betekizun hori azkeneko bi urte hauetan gertatu dan aldakuntzak agerreraizten du: ezari-ezarian aldaturik E.T.A. ez da gaur joera batzutako mogimendu bat, joera marxista-leninista bakar baten partidu bat baizik.

Marxista ez diranek berek, halere, ezin dezakete hau guztiz kaltegarritzat jo, abertzaletasuna gaur politikajoera guztietara zabaldu dala erakusten baitu, eta hunek adierazten baitu ere abertzaletasuna helduago dagoela lehen baiño.

Baiña aurrerakoan gu Mogimenduan egoteak ez luke funtsik; aitzitik, illuntasun eta nahasketa iturri izan ditteke; eta hauek galgarri gertatzen dira luzera. Guk, sozialista izanik ere, marxismo-leninismoaren zenbait puntu nagusi ez ditugu onartzen, ez filosofiari buruz eta ez politika-jokabideaz ere; eta, hori dala-ta, E.T.A. erakundea uztea erabaki dugu.

Bi funtsezko arrazoiñengatik luzatu dugu erabaki hau gaur arte.

Lehendabizikorik, gure erabakiaren larritasunaz ongi oharturik, E.T.A. joera bitako mogimendu egon zedin saiatu gera azken bururaiño, joera hauek, noski, beti abertzaletasunean eta sozialismoan. Burrukako hillabete batzuen ondoren, ordea, aukera hori gaur ez dagoela iruditzen zaigu.

Bigarrenekorik, E.T.A.k ideien eta pertsonen beren infiltrazio bat jasan du berriki. Batzuk españazale marxista agintari ezagunen zerbitzutan jarrian ziran; eta «popular» hitzaren atzean Euskal Herria'rekiko beren gorrotoa nagusi dutenen menpean jokatzen zuten. Hein hortan gauzak, españazale okertzearen kontrako burrukan gure laguntza osoa eman nahi izan dugu. Gaur okertze hori nabarmen agertu da, eta garaituta dago: saldukeriaren

zuzendariak E.T.A.-tik botaiak dira, eta ezereztatzera kondenaturik daude.

Berriz ere esan nahi dugu bukatu aurretik, Euskal Herria'ren salbabide bakarra euskal erresuma bakar bat eraikitzean, eta euskaldun gizartea gizatar sozialismo baten arabera eratzean dagoela. Helburu horrek zuzendu du gure biziera orain arte, eta helburu horretxek zuzenduko du etorkizunean.

J.M. Agirre Bilbao

J.L. Alvarez Enparantza

J.M. Benito del Valle

Xabier Imaz

1967-ko Jorraillaren 14

Sekulako barne-krisi batek astindu ninduela izkutatu beharrik ez dago.

Eta, neure arreta ahalean bederen besteratzekotan, nobela bat idaztea bururatu zitzaidan. Mementu hartan ondoan neukanaz giotzea erabaki nuen (1968ko Belgikan, beraz: Brussel, Brugge, Walonia, eta abar); eta horrela jaio zen *Elsa Scheelen* nobela (aurki Euskaltzaindiak Txomin Agirre Sariaz ohoratua, nahiz makina bat kritika ezkorrez astindua: nobela idazteari berari utzi nion!). Aurreko kapituluan mintzatua natzaizue honetaz.

Eta *Branka*-ri eutsi nion gainerako «proskritoekin» eta laguntzaile bakan eta estimagarri gutxiren laguntzaz. «Bigarren *Branka*»ri, nolazpait esateko, eman genion hasera.

Branka 5ak 1967ko Garagarrillaren data darama.

Branka 14ak, aldiz, 1971ko hastapenetan ikusi zuen argia (edizio oso bat euskara hutsez, lehenengo aldiz; eta beste bat, erdara hutsez). *Zuzen*-en, aldiz, ale bakarra argitara zuen 1971 urte berean.

Krutwigen artikuluak desagertzearekin batera, *Branka* abertzale sozialista (ez m.l.) guztien espresio-tresna bihurtzen saiatu zen. (*Branka* 5tik aurrera).

Baina hau guztiz zaila zen. Frankistek «estado de excep-

ción» delakoak jartzen zituzten Hego Euskal Herrian, behin eta berriz; ETaren eskalada gora zihoan, gure joera politikoa zatiketa-maniobratzat hartzen zuelarik; *Branka* Flandrian egiten zen, Belgikan; errebistako kronikariok Belgikan bizi ginen, eta Parisen, eta Mexikon, eta abar...

Euskararen erabilpena jaitsi egin genuen, arazo ekonomikoak handitu (zazpigarren aletik aurrera, aldizkariak 32 orrialde besterik ez zuen).

Baina sinadura berri batzuk azaltzen hasi ziren: gaur UPVko katedraduna den Joxe Azurmendi, orduan Münsterren fraile; Jean Louis Davant zuberotarra, ingeniaria, eta 14. zenbakitik aurrera (alegia, *Branka* Flandriatik Ipar Euskal Herrira aldatzean) aldizkariaren zuzendari ofiziala; Jokin Apalategi, *Txurdintxo* gaitzizenaren atzean diximulatua; Jakes Abeberri, ipartarra eta urte askotan *Enbata*-ren arima eta gorputza izana. Sekula ez dugu aski eskertuko, mementu zail haietan, idazle horiek ofizialismo «maoista»ren bidetik ez joana. Sozialismo abertzale eta kritikoaren ahotsa ez zen hila...

Bigarren *Branka* horretan, idazle nagusiak «Txillardegi»/«Usako» (ni neu, noski), eta «Zabala» (J.M. Benito del Valle) ziren: 91 orrialde bakoitzak; hirugarrena, «Hirurizar» ize-nekoak (Jose Manu Agirre) 27 zituelarik.

De facto halako «espezializazioa» gertatu zen gure artean: Zabalak ekonomi arazoak eta autojestionari buruzkoak ikutzen zituen; Hirurizarek teoria politiko orokorrari buruzkoak; eta lerro hauek orain idazten dituen honek, hizkuntzari buruzko gaiak, eta Frente Abertzalearen ingurukoak.

14. alea ateratzean, eta Burgosko Epaiketa famatuaren ondorioz (*Branka*-k garbiki agertu zen ETako kondenatuen alde *Burgos* izeneko editorialaz, ez baitzen lehenengoa...), aldizkaria euskara hutsez argitaratzea erabaki genuen, nahiz, gehigarri gisa, beste tirada bat gaztelania hutsez egin. (Baina hau behin bakarrik gertatu zen horretara).

Burgosko epaiketaren ondorioz aldaketa gogorak egon ziren Iparraldeko errefuxiatuon egoeran. Eta *Branka* desagertu egin zen; ondoko hilabeteetan sail berri bat hasten genuelarik: *Zuzen*. Ale bakarra kalera genuen, halere. Ezin.

Ahal bezala, eta mota guztietako zailtasunak gaindituz, *Branka*, Euskaldun Sozialista Aldizkariak zazpi urtez iraun zuen.

Baina beraren mezu nagusia: Frente Abertzaleari bai, ezintasunean galdu zen, hor nonbait; super-klasismoak sustrai sendoak ezker abertzalean itsasten zituelarik.

V. Ezkerra

1957an, ingeniari karrera Bilbon amaitu berrian, Donostian bizi nintzen, Zumalakarregi Etorbidean, Antiguako *Gutenfelder* etxe-ohian.

Neure lantokia Gros auzoan neukan orduan, Donostiako beste muturrean, Soroa-Nafarroa etorbideko izkinan; Diesel motoreak egiten zituen Massé izeneko lantegian. Entrepresa txiki hura (nik izandako lehenengo lana), izan, Berliet frantse-saren delegazio hutsa zen.

Massé-neko bulego teknikoan, hamar bat lagun guztira, Agustin Gomez Pagola izeneko oreretar bat neukan lankide (Ramon zeritzon beste anaia bat ere hantxe ari zen). 1936ko gerrakoan beste haur euskaldun asko bezala «Errusia»ra ihesi joana, Sobietar Batasunetik etorri berria zen. Berehala jakin genuenez, oso futbolari ona izana zen; eta Moskuko Dynamo edo Torpedo talde ospetsuetan ari izana zen urtetan barrena.

Ni baino zaharragoa zen Agustin, hamar bat urtez agian. Eta egunero bulego berean eta elkarren ondoan lan egiten genuenez, honetaz eta hartaz mintzatzeko aukera izaten genuen.

Irakurleak badakienez, garai hartantsu ari ginen gu (1957az ari naiz orain) Ekin-ekook, organizazio abertzale berrri bat eraikitzen. Eta isilpe eta diximulu beharra beti gainean izanik ere, interes handia genuen berri politiko guztiei buruz. Eta Sobietar Batasunari buruz ere bai, noski.

1958ko martxoan oporrerako deia zabaldu zuen «Resistencia» zelakoak. Eta Ekin-ekook (lau katu oraindik) parte hartzea erabaki genuen; eta, ahalean, bultzatzea ere bai.

Eta hauxe gertatu zitzaidan: opor-egun hartantxe Delegrado de Industria delakoak (Gipuzkoako frankista buruzagi bategen, beraz) Massé entpresaren ofizialki «bisitatzea» erabaki zuela... Eta Eduardo Massé ugazabak, oporraren zurrumuruaren berri ba bide zuelarik, otoi bertan egoteko eskatu zigun azalpen teknikoak eman behar genizkion bulego teknikoak.

Nik, berriz, zalantzarik batere egin gabe, langileekin bat eginez, opor egitea erabaki nuen. Eta Massé jauna «sólo ante el peligro» utzi genuen.

Ondorioa ez zen luzatu: kalean jarri ninduten. Eta oroi-menak huts egiten ez badit, erabaki berbera ezarri zioten Agustin Gomezi.

Biharamunean entpresako langile eta lankideak despeditzerakoan entzun nituen hitzak, ez ditut inoiz aipatu. Baina bihotz zolan iltzatu zitzaizkidan, eta hortxe diraute tinko...

Handik hamar urtetara, Pariseko eta Bruselako neure etxeetan, baneukan oraindik, neure paperen artean, «despido»ko eskutitz «historiko» hura, data eta guzti: «por inasistencia injustificada al trabajo», edo horrelako zerbait. Gero, gure etxe aldaketa ilara luzean, hor nonbait galdu nuen. Bego!

...28 urte zituen grebalari-idazle xume honek 1958an. Hel diezaiogun arestiko hariari.

«Ezker-bataio» hura oso ohore handitzat neukan eta daukat; baita Ekin-eko ezkertiar borrokakideek ere. Opor batean parte hartzeagatik kalera joatea, ez zen gertakari makala gu ginen «señorito»entzat. Eskubide gehiagok koka bide genezake geure burua ezkerrean...

Baina mamira joanez. Eta oroitzen naizenez, bederen, Agustin Gomez oporkide haretxekin izan nituen nik marxismoari buruzko lehenengo eztabaidak eta uztarrak. Eta haietako bat gogoraziko dut hemen.

Adinari ere zegokionez, emakumeei buruzko eztabaida garratz bat izan genuen bulegoan. Jeloskeriari buruz, preseski. Agustinen iritziz gaintitu egin behar genuen jeloskeria («superar» zioen berak, jakina); eta, bestalde, gaintitu egin daitekeela zioen. Jeloskeria «sendimendu burgesa» omen zelako...

Gauzen jabego pribatua desagertuz gero –zinostan berak zinki sinetsita– emakumeekiko dugun jabego-sendimendu ziztrin hori ere, burgeskeriaz kutsatuta, ekonomi egituratik es-trapolazioz mamitua, desagertu egingo da.

Nik ez nuela horretan sinesten erantzuten nion. Hori naturatik beretik zetorkigula. Eta orduan gakoa entzuten nion: «Es que tú eres un burgués».

Agustin Gomezek PCK kontrolatzen zuen *Áragoa* aldizkarian idatzi ohi zuen (ni «solipsista lingüístico» deitu ninduen berberean). Eta Frantzian bizi nintzelarik (edo Belgikan agian) frankistek detenitu zuten, eta basaki torturatu, belarri batez betirako gortuz. Gero, oker ez banago, hil egin zen Agustin.

1958an ez nekien gauza handirik marxismoaz. Deplauki aitortu dizuet. Eta Agustinen irizpidea «marxista» noraino zen ez nekien.

Baina 1958an, orain bezalaxe, egia esan, ez nuen nik sinesten ekonomi mailako jabego harremanen arazoa errotik aldatu ere, emakumeekiko gu gizasemeon jeloskeriak... erauziko direnik.

Langileen ahuleziak eta kapitalisten hantusteez sozialismora erakartzen ninduten; baina ezkerkeria hiper-ekonomizista horiek... uxatzen.

1961eko Urtatsez, esana dudanez, Iparraldera egin nuen ihes Dantxariako bentetako zubitxo batetik. Eta handik Pariserara joan nintzen. Hasia nuen hamasei urteko «jira» (1961-1977).

Eta Parisen izan nuen komunista, kripto-komunista eta trotskista batzuk buruz buru ezagutzeko aukera.

Alde batetik, lantegiko harremanak zirela bide, Viet Namdar mordo bat ezagutu nuen, denak Ho-Chi-Minh-en miresle sutsu. Batzuek, isilka aitortzen zutenez, Viet-Kong-ekin ari izan ziren Indotxinako gerratean, armak eskutan, frantses Armada okupatzailearen kontra.

Bestetik, Parisera iritsi berriak ziren «felipe» buru batzuk, eta tratatzeko aukera izan nuen. Baita Josep Pallach sozialista katalana ere, «Estat Catalá»ko beterano batzuk, eta beste.

Anarkista mordoska bat ere bai, azkenik, zaharrenak 36ko gerlan ibilitakoak; eta gazteago batzuk. Gurutxarri nafartarraz oroit naiz, adibidez. Denak idealista sutsu eta anti-komunista amorratuak; eta, askotan, kultura handiko jendea.

«Français moyen» mordo bat ere ezagutu nuen, jakina; baina berorietaz ezer esatea txorakeria eta paper galera alferra litzateke.

Beste urrats garrantzitsu bat 1961ean Parisera iristean: frantsesezko prentsa, irrati eta liburuetan osoki murgiltzea. Hain zuzen, askoz ere gehiago irakurri nuen frantsesez hamasei urte horretan, gaztelaniaz baino. Neronen liburutegi pertsonala lekuko.

Nolazpait esateko: kulturaren alorrean, ohituretan, ikusmoldeetan, kezketan beretan, frantsestu egin nintzen dexente; ez baitzen niretzat batere kaltegarri izan. «Dado que el ambiente me españoliza –esan ohi zidan donostiar adiskide batek– yo, conscientemente, intento afrancesarme».

Orduan ikasi nuen nik, harremanez eta liburu irakurketaz, sozialismoaz, marxismoaz eta anarkismoaz zerbait. Ordurartean, eta frankismoak ipinitako zentsurapean, nola ezer jakingo?

Politikaren alorrean, eta ezkeraren kondairaz, analfabetoa zen Euskal Herriko oposizioa. Eta ez dakit, egia esan, gerortik ere gauzak noraino aldatu diren... Ezker abertzaleko intelektual batzuek ez baitute gauza handirik pentsatu edo irakurri gai hauetaz. Nahiz oso seguru izan, hori bai, bidea zein den eta zein ez den, eta «anti-marxismo ustela» noraino heldzen den, zehatz omen dakiten.

Ezker abertzaletik at zegoen (eta dagoen) jakintza politikoaz, zertarako mintzatuko? Jesuita «défroqué» baten jukutriak itsu-itsu sinetsi eta obeditzea aski dute. Patrika segurtatu (honetan iaioak dira!), eta «silbote norteño» apur batez, loriatuta.

Brusselan egon nintzen garaian (1965-1970), eta lanetik goiz xamar irteten nintzenez, oso-oso maiz joan ohi nintzen «Gare Centrale»aren ondoko dorre-liburutegira; eta han denetatik irakurtzen nuen: sakontzeko asmoa nuen hizkuntzalari-tzaz bereziki.

Marxismoaz ere bai; besterik ez bada, Euskal Herriko gazteria abertzaleak jasaten zuen marxitiaz, zentzuz erantzun ahal izateko.

Hantxe irakurri nuen, adibidez, marxismoari buruzko eztabaida famatua, argentinar bilduma batean.

Leninen testu batzuek benetan interesatu bazitzaizkidan ere, Marx-enak eta Engels-enak aspergarri samar gertatzen zitzaizkidan. Eta, sinetsirik ere, ez nuen ulertzen Rikardo Arregik aipatzen zuen «Marxen zorabioa» zer ote zen. Freuden zorabioa senditua nuen nik, hori bai; eta Budharena, eta Zarathustrarena. Marxena ez, egia aitortzeko.

Garai hartan ezagutu nuen, era berean, Jean Paul Sartre/Simone de Beauvoir bikote *politiko* bitxia. Eta orduan ere beste pentsatzaile asko. Ekarpen filosofikoengatik baino, borroka anti-kolonialistarengatik egin ziren ospetsu bi frantses existentzialistak, nik uste.

Nire barne-giroaz jabetzeko, kontutan har beza irakurleak 1967ko apirilean utzi nuela ETA organizazioa; eta 1968an gertatu zirela Pariseko iraultza gauchista, eta sobietarrek agindu eta mamitutako Praha-ko okupazio militarra.

Ez zen urte hura arrunta izan, ez...

Kapitulu honetan ukituko ditudan gaiak (euskal ezkerren eraikuntzazkoak eta gertatutako etsaigo ideologikoak) oraindik ere gure artean gai minbera gertatzen direnez, eta borondaterik onenaz den-dena eskaini duten gudari ezkertiarrekiko errespetuz, gutxiago mintzatuko naiz neronen irizpideetan finkaturik; eta gehiago urte haietan gailen agertzen ziren

ezkertiar intelektualen ahoz eta hitzez (batzuetan esanak beren hartan, eta euskaratu ere gabe emanez). Eta oso gutxi, era berean, ETA barruko kontuez. Lan hau, bestalde, eginda dago; eta ni erakundetik at nengoen.

Honela jokatzuz, arazo «persona-gabetuz» saiatuko naiz; neure mentura pertsonalegiak alboan utziz.

Euskal ezker abertzalea eraiki nahi bai, eta inolaz ere PNVren lerroetan edo inguruan geure burua ikusten ez genuenok, bila ari ginen. Aztamuka. Eredu ideologiko onargarri baten bila, batez ere.

Are nekezago ari ziren, noski, Estatu fazistaren barruan saiatzen ziren aberkideak: ez prentsarik irakur zezaketen, ez libururik azter, ez Europako eta munduko berri fidagarririk izan...

Frankismoan bizi zirenak, frankismoaren anti-komunismo taigabeaz ok eginik, komunismoaren aldera begiratzen zuten liluraturik; «komunista horiek Francok horren gorroto baldin baditu, eta horren gaizki irizten, komunismoa gauza ona den seinale» zioten oro har.

Frankismoan bizi ez ginenok, berriz, halaz ere hobeki informaturik, euskal ezkeraren eraketa zailago antzematen genuen: «bai, baina»...

Sistema marxista-leninistaren alde jokatzek, hau adierazten zuen: gure herriarentzat partidu bakarra nahi genuela (marxista-leninista, jakina); sindikatu bakarra proposatzen genuela langileen eskubideak bermatzeko (m.l., noski); gerora prentsa eta irratia bakarra nahi genuela (m.l.); geure herriaren ekonomia osoa (sistema burgesetan baino aisa hertsikiago) partidu bakarraren burokrata ekonomisten eskuetan jartzea proposatzen genuela; eta abar, eta abar. Eta hau horrela zela, ez zela Francoren propaganda.

Gauzak horrela, apostu latza zitzaigun totalitarismo hori onartzea, eta geroko Euskal Herriarentzat proposatzea.

Baina gure herria, ohi lez, iraganean ainguratuta zegoen. Koldo Mitxelenak hau idatzi zuen euskal literaturaren atzerakunde gaindigaitzaz: «bastantes obras vascas (parecen) compuestas en fecha anterior a la real: Dechepare parece un autor del siglo XV; Axular, un escritor del XVI; la ola romántica se

desborda hacia 1880, etc. Modas y modos han llegado tarde, y muchas veces se han conservado largo tiempo con rara tenacidad» (*Hist. de la Liter. Vasca*, 19; 1960).

Ohar garrantzitsu horrek balio berbera du (edo-ta handiago agian) euskal politikari dagokionez. Marxismoa eta marxismo-leninismoa berandu iritsi dira Euskal Herrira; baina denak ematen du aditzera azkeneko moskutero ortodoxoak, Euskal Herrian suntsituko direla...

Nekez ahantziko ditut, adibidez, eta orain dela urte gutxi, gure ingurune politiko hurbilean ikusitakoak edo entzundakoak: perestroikaren kontra eta lanaev kolpistaren alde; Tiamanmen-go hilketa txalotuz; Jaruzelsky militarren kolpeaz loriaturik; edo, egun hauetan, «balseoak tiburoietara» eskatuz (ez baitu inolaz ere esan nahi Castrorekin USAk hartu duen jokabidea lotsagarria ez denik).

Euskal ezkerria aspaldidanik hipotekatzen duen xinplekeria horien kontra, nekez borroka daiteke: funtsean ez baitago borondate txarrik, atzeramendu ideologiko nabarmena baizik. Mitxelenak literaturaren alorrean salatzen zuen berbera.

Eta lot gakizkion hariari.

«Marxismo-leninismo» famatu hori teorian eta praktikan zer zen ikertu behar genuen; stalinismoa eta Khrus-txef-en txosten historikoa ez baitziren prekanbrikoan gertatu.

Euskal Herria, bestalde, eta oraingoan estrategiari gagozkiolarik, Estatu Batuek kontrolatutako hemisferioan euskaldun abertzaleok m.l.-aren ortodoxiatik abiaraztea, hordago gogorregia zitzaigun; batez ere helburua batere seguru ez zitzaigula kontutan hartuz gero. (Aski du irakurleak, nahi badu bederen, 1967ko gure «dimisioa» berrikustea).

Zehaztasun eta zuhurtzia behar hau (eta gu geu ere bai, egia esan), begi txarrez ikusten hasi ziren «barruko» abertzale super-gorriek; jadanik iradoki dudanez.

Hauek muturreko pentsakera xinplistetara jotzen zuten hirurogeietan; eta azpitik infiltratutako «felipe»ek eta antzekoek, ezker abertzalea burugabetu nahi zuten, nola edo hala; gu «zaharrok», «burgesosok» eta «herriaren taupada galdutakook», baztertuz. «Los ausentes nunca tienen razón», badakizue.

«Bloke komunista»ko gabeziak eta izugarrikeriak salatzen genituenok, «anti-marxista» eta «burges txiki»tzat bazterrean utzi gintuzten lasai asko.

ETAren barruan ere bai, jakina.

Gauzak horrela nik irakurketari ekin nion. Ez lerro ofizialeko autoreak bakarrik: garai hartan, bestetan ere kondatu dudanez (*Exkixu* nobelan, adibidez), militante abertzaleok, de-rrior, autore marxista ortodoxoak irakurtzen baikenituen.

Nik, monotematika horretaz asperturik (eta kezkatutik ere bai) ezkertiar heterodoxoen irakurketari ekin nion. Hatsa behar!

Eta bi filosofoen lanetik hasi nintzen: Russell eta Sartre.

Lehenengo eragile nagusia (mende-kronologikoki, bederen) Bertrand Russell Nobel Saria izan zen. Filosofo, matematika-ri eta bakearen aldeko borrokalari aspergaitza. Nik ez nekien orduan Russell «anarko-sindikalista» izana zenik, buro-kraziaren kontra autogestioa proposatzen zuenik, eta abar. Piskanaka ikasi nuen...

Horrela jakin nuen, 1918an ezagutu zuela gartzela Russe-llek lehenengo aldiz. Munduko «Gerrate Nagusia»ren kontra idatzi eta jokatu zuela («desertore» jokoak eginez); eta bost hi-labete eman zuela Brixton-go presondegian. Baina ez zuela denbora galdu; barruan izkiriatu baitzuen *Introduction to Mathematical Philosophy* liburua.

Eta ezkertiar kritiko eta jakintsu eskergak, nire mirespen osoa lortu zuen. Alde askotatik, Russellen dizipulu gartsu bihurtu nintzen.

Britainiar alderdi sozialistako kide izan zen bere gaztaro-an. Eta 1920an, «batzorde» laboristako lagun autonomo gisa, Errusiara joan zen. Han bertatik bertara gauzak ikusi, eta bu-ruz buru Lenin, Trotsky, Gorki, eta beste, elkarrizketatzeko pa-rada izan zuen.

Moskutik itzultzean *The Practice and Theory of Bolshevis-m* liburu aparta izkiriatu zuen. Nik Brusselan, frantsesez, eta berandu beraz, irakurri eta berrirakurri nuen: *Pratique et Thé-orie du bolchevisme*, Ed. Mercure de France, 1969; 196 orrial-

de. Ingelesezko argitaraketa... 1920koa zen!! Nik 1969an lortua. Aitor dut.

Oraindik ere aurreko urtean Praharen eta Parisen gertatutakoak giroan zeudelarik, Russellek laborrian utzi ninduen, eta «barruan» modan zeuden joerak despiste eta informazio falta hutsa zirela konprenitu nuen.

Ez luke funtsik izango, ez interes larriegirik ere, nik orain hemen, baratxuri zoparen aurkikundeaz harroturik, Russellek baino 74 urte beranduago (hiru mende laurden beranduago, bai) boltxebismoaren akatsen berri zehatza errepikatzea.

Baina beste batzuetan idatzi izan dudana idatziko dut berriro: euskal intelektual ezkertiar guztiek irakurri behar luketela liburu funtsezko hori. Gutxik egin bide du oraindik. Eta ondorioak hor daude!

Ebanjelioak irakurri, eta Vatikanoren praxiari ezikusia egitean dogmakeria onartezina iruditzen zaien horietxek, Marx irakurtzea aski izaten dute, eta alderdi komunisten praktikaz futitzen dira. «Deux poids, deux mesures», esan ohi da frantsesez. Zer izkutatzekotan? Zer zerbitzatzekotan? Intelektual fin batek aurre egin behar die galdera horiei.

Hasteko, ohar garrantzitsu hori: liburua 1920an bertan izkiriatu zuen Russellek; oraindik Stalin agintera iritsia ez zenean; eta «stalinismo» hitza bera asmatu ez zegoen garaian.

Russell, guztiz laburki azaltzekotan, SESB jaio berriaren aurrean, paraturik, arrunt jarrera kritikoan kokatu zuen bere burua. Balegoke (badago, hobeto) Russell baino kritiko goiztar-ragorik. Bakunin bera gailen, jakina; Marxekin eskuz esku Langileen Lehenengo Internazionalaren abiaduran ari izana.

Russellen lekuko-balantzea den liburu hilezkorra irakurriz gero, haxe izan zen ezinbesteko ondorioa: ez dela egia boltxebismoa, marxismo-leninismoa, Estatu-kapitalismoa, edo dena-delakoa, beste proiektu desberdin baten «desbideraketa» izan denik. Azken urteetako Sartrek ere *Observateur*-ari egin dako bilduma orokor hartan tristuraz amore ematen zuenez (eta Sartre izan da, inor izan bada, azkenera arte komunisten bidai laguna izaten saiatu dena) Moskuko sistemaren oinarrian Marx zegoela esan zuen.

Hitz batez, marxismo-leninismoak (eta Marxek berak ere bai) bere muinean bertan zeramala hasieratik, urteetan barrena «stalinismo» bataiatu zuten totalitarismo burokratiko poli-ziala: Bakuninek somatu zuen hori garbiki joan den mendean, eta Marxi berari leporatu; eta hurrengo belaunaldian Russellek, «mihian bilarik gabe», xehe-xehe biluztu zuen.

Hona hemen Russellek 1920an idatzitakoa: «Dans l'intérêt du socialisme et de la civilisation, je trouve primordial de reconnaître et analyser l'échec russe. Pour cette raison, serait-ce la seule, je ne peux entrer dans la conspiration du silence que croient nécessaire de nombreux socialistes occidentaux revenus récemment de Russie» (*Pr. et Th. du B.*, 167. orr., frantsesezko itzulpenetik).

Zer esango dugu guk gaur, 74 urte beranduago, zenbait girotan, eta ez gugandik urrun, marxismo-leninismoaren porrot osoaz mintzatzea oraindik ere hoben, debeku, tabu eta bekatu larri denean? Oraindik ere desordua eta desgaraia da beti marxismoaz balantze ausarta egiteko. 1953an hil zen Stalin. Ez iaz. Zertara, beraz, auto-zentsura eta barne-ikara azkengabe hauek?

Ausartenek marxismoaren «berrikusi beharra» aipatzen dute; eta askoz maizago, «osatu» beharra. Zergatik ez da sozialismo libertaria «osatu» behar? Zergatik ez kristautasuna «osatuko»? Zergatik oraindik ere marxismoa ardatz geldituko, axaleko «osakin» xume batzuk erantsiz?

Joera ezagun horri dogmakeria deritzo.

Begi aurrean dugun porrot historikoa hor egonik, besterik behar da ezker berria eraikitzen hasteko. Askoz ere ausardia handiagoa.

Areago euskal nazio arazoa ezkerretik eraiki nahi denean: «Le facteur non-économique le plus important, celui qui, négligé des socialistes, les a le plus égarés, c'est le nationalisme... En général ce ne sont pas les mobiles économiques qui décident quel groupe humain formera une nation» (ibid., 120).

Euskal nazio arazoa argitzekotan 1965az geroztik Euskal Herriko ezkerrek egiten duen bezala, Marxengana jotzea, problematika bera alienatzea da; eta soluziobidea, zaila izanik, eskierki ezinezko jartzea.

Nazio arazoa dagoen eskualdeetan, behin eta berriz nahi dira marxistak. Inperialismoaren arma bihurtu da marxismoa hamaika bider, bai gurean, bai Suomen Bobrikoffen garaian, bai Maghreben, eta bai besteetan.

Gordeta daukat, hain zuzen, Ramoñ L. Suevos Konpostelako irakasleak *Egin*-en, 5. orr. (1984-IV-1) argitara zuen artikulua bikaina. Eta beste maila bateko izkribua izan arren, lerro batzuk kopiatuko ditut: «Los 'marxistas' españoles sólo se acuerdan de las clases sociales cuando de nacionalismos se trata... el catalán es una lengua de burgueses, de escasa proyección (del euskera mejor ni hablar), en tanto que el español es la lengua del proletariado... Pero la lengua española es idioma de veinte burguesías... Paradójicamente, la 'izquierda' española pacta siempre con la fracción más conservadora de los nacionalismos periféricos»... Etab.

Jakina: hor sasi-marxismoa dagoela esan daiteke. Baina hemen besterik azpimarratu nahi dugu: oso erraza dela, eta oso maiz gertatu izan dela, arazo nazionala dagoen lekuetan erabilpen oker hori egitea. Hau, hitz batez, arrisku nabarmena dela.

Berriro Russellen hariari helduz, taktika hutsak ere euskal sasi-ezkertiarren jokabidea gaitzestera garamatza: «le citoyen normal n'éprouve pas pour le socialisme l'intérêt passionné qu'il a actuellement pour sa nationalité, jadis pour sa religion» (*ibid.*, 141).

Ideia hauek ez dira inondik ere Marxek predikatzen zuenak. Baina kondairaren azterketa eginda, Marx jarri behar da zalantzan nazio arazoa dagoen problematika argitzerakoan; eta ez egia «heterodoxo» hori aspaldidanik xuxen igarri zuten autoreak.

Ados da Russell Marxekin faktore ekonomikoen garrantziaz («importance fondamentale des faits économiques», 120), eta kapitalismoaren ezespenez: «après avoir bien pesé cette théorie, et accepté en entier sa condamnation du capitalisme bourgeois», 43.

Materialismo historikoa, oro har, eta fenomeno orokorreki buruz egia izan arren (baina marxismoa ez da materialismo historikoa soilik), marxismoari indar harrigarria eman dion

faktorea ez da, Russellen ustez, bere zientziaskotasuna, bere mesianismo mitologikoa baizik. Oro har materialismo historikoa onartzea kultur kontua da.

Baina marxismoa erlijio bat da: «En tant que phénomène social, il faut voir dans le bolchevisme une religion, et non un mouvement politique ordinaire... Ceux qui acceptent le bolchevisme deviennent imperméables à l'évidence scientifique et commettent un suicide intellectuel» (108, 109).

Russell garbi mintzo zen 1920az geroztik: «le bolchevisme n'est pas une simple doctrine politique: c'est aussi une religion, aux dogmes savants et aux Ecritures inspirées» (16).

Orain dela hogeita hamar bat urte euskaldun apaiz-ohiak trumilka marxismora lerratzea, guztiz normala da. Marxismo ideologikoa eta kristautasun dogmatikoa, eskema berberaren bi aurpegi baizik ez dira. Batetik bestera pasatzeko ez dira zimentuak berak astindu behar. Agnostizismora pasatzeko bai. Ikerbide zientifikoetara igarotzeko ere bai.

Hori guztia, hala ere, eskandalagarri gertatzen da oraindik gure artean. Gure herria fededun porrokatua delako.

Sistemaren gakoa gardenki ulerturik, harritzeko moduan igarri zuen Russellek boltxebismoak ekarriko zuena: «voici ce qui probablement se passera en Russie: une aristocratie bureaucratique tiendra tout le pouvoir en main, et créera un régime aussi tyranique et cruel que le capitalisme» (ibid., 135).

Igarpen hauek bai: benetako txorabioa sortu zuten nigan...

Askatasunik gabe –zioen Russellek– berrikuntzarik ez. Eta errepikapenaren aldia zabaldu: «Qui croît comme moi que le libre esprit est l'agent moteur principal du progrès humain, ne peut être qu'aussi fondamentalement opposé au bolchevisme qu'à l'Eglise de Rome» (ibid., 109).

Hain zuzen 1920ko Errusia «un immense collège de Jésuites» iruditu zitzaion Russelli (151)... Askatasunik gabe, adimena iraungi egiten da (151).

Baina bego horretan Russellek nigan izan zuen eragin osoa. Argi eta garbi aitortu behar nuen.

Eta pasa gaitezen bigarrenaren ideia nagusietara.

Sartre izan zen, zalantzarik gabe, nire pentsamolde politikoan eraginik handienetarikoa izan zuen bigarren filosofoa. Nahiz nire biografian, goiztarragoa izan existentzialistaren ukipena nire jakintza apurrean, britainarrarena baino; irakurleak agian erreparatu dukeenez.

Alde askotatik, zeharo desberdinak ziren Russell eta Sartre; nahiz Viet Nam-go gerla-basakeriak juzkatzekotan eratu-tako Tribunal Russell delakoan, biok elkarren ondo-ondoan, lankide eta lehiakide agertu. Eta nahiz biok nigan eragin nabarmena izan.

Besteak beste, Russell matematikaria zen, logikaria, zientzi-gizona, fisika berriaren aurkezle; eta Sartre, aldiz, idazlea zen, literatur gizona, nobelaria, teatrogilea, eta filosofoa.

Baina biok ziren militanteak, frantsesez «intellectuel engagé» esan ohi zena, intelektual ezkertiarak. Alegia: pentsamenduaren alor berezitan bildutako ospea eta entzutea, ekintz eta irizpide-askatasun osoari atxekirik ere, ezkerren zerbitzutan, baina «kalean» oraingoan, eta ez lumaz bakarrik, borroka herrikoietan partaide bihurtuz, beren burua eskaintzen zuten pertsonak.

Sartrearen fotoak, bozgorailua eskutan, langileei edo unibertsitateko ikasleei mintzo, famatuak dira. Baita Russell bake-manifestariarenak ere. Nola ahantziko britainar Nobel Sariak, bere 90 urteetan, eman zuen gartzelaldi laburra?

Baina ot nakion oraingoan frantses Nobel Sariari.

Nik haseran, ikasle garaian eman dezagun, Bilbon, eza-gutu nuen Sartre «existentzialista» hura (gogoan har 3. kapitulu-luan kondatutakoak) apolitiko samarra zen, nolabait esateko. Edo-ta, agian zehazkiago, apolitiko samarra zitzaigun guri berederen.

Sartre politikoa eta ezkertiar intelektuala gero etorri zen: ni Frantziara 1961ean iritsi nintzenean. Nahiz bera lehenagotik ere oso gailen agertutako pertsona izan, eta betiko jarreretan. 1956an komunistekin izandako ezti-aldia eteteen, Budapest izan zen oztoparria: Sartrek hitzak leundu gabe gaitzetsi egin zuen sobietarren inbasioa.

Algeriako askapen gudaketa zegoen 1960an bere gailurrean. «Bakegintza hutsa», jakina, hizkera ofizialean, «pacification contre la terreur fellagha». Eta gerlaren eragina egunero errepara zitekeen frantses prentsan eta irrastian.

«La F.L.N. est à son dernier quart d'heure» errepikatzen zuten frantses inperialistek. Eta guk ere, euskaldun errefuxiatuok, gauza bera irakurtzen eta berrirakurtzen genuen egunero.

Bistan zen hori egia ez zena: FLNa behin eta berriz arra-pizten zen, eta sekulako kolpeak ematen. Algeriaren askatasuna, odoletan eta torturatan, ate joka ari zen. Eta guk euskaldun abertzaleok nekez ikus genezakeen borroka latz eta luze hura, hotzean eta urruntasunean.

Hots, ni Parisera iritsi eta sei hilabetetara, Saint Germain des Prés auzoko Dufour kalean urte erdi bat pasa ondoren, 1961eko uztailaren 20an zehazkiago, prentsako lerro nagusiak hartu zituen Sartre filosofoak: «Jean Paul Sartre filosofoak Bonaparte kaleko 42an daukan etxebizitza, plastikatua izan zen atzo. Biktimarik ez».

Atentatuaren gakoa nabarmena zen: Sartre *fellagha* abertzaleen alde agertua zen ausarki behin eta berriz, hasera-haseratik; eta Algeriaren autodeterminazioaren eta burujabetzaren alde.

Gaur egun zail gertatzen zaigu Sartreren kuraia egokiro neurtzen. Frantziako iritzi publiko osoa, komunista herabetiak barne, eta berezkuntza pertsonal bakan batzuk salbu, Algeriar mugimendu nazionalaren aurka zegoen; eta «la France est une et indivisible de Dunkerque à Tammanraset» esaldia, eskuinean eta ezkerrean errepikatzen zen, eta oinarri politiko-tzat hartzen.

Tammanraset hori, enkas gogoraziko dut, Algeriako hegoaldean dago, Hego Saharako mendiez bestaldera, Niger Errepublikatik 200 bat kilometrotara. Parisetik urrunsko...

Algeriar abertzaleen alde osotara nengoela argitu beharrik ez dago; eta eztabaida garratzak izan nituela gai honetaz Pariseko neure bulegokideekin.

Métro Charonne-ko sarraskia garai hartantsu gertatu ze-

nean (dataz zehazki ez naiz oroitzen), eta sindikatuak eta ez-kertiar indarrek frantses poliziaren jokabidea gaitzetsi, eta grebarako deia zabaldu zutenean, zalantza izpirik gabe utzi nion lanari.

Hots, biharamunean (eta hau frantsesen jarreraren neurri izan daiteke) «Pelnard-Considère» bulegoan hutsegite horrek nabarmen utzi ninduela jakinarazi zidan bulego-buruak; ingeniari eta diseinatzaile guzti-guztiak joan baitziren lanera... ni ezik!

1962ko urtarrilaren 7an (eta, beraz, ni oraindik Parisen bizi nintzelarik), bigarren atentatua gertatu zen Bonaparte 42an. O.A.S. fazistak ez zion Sartreri, hartutako bidea barkatzen. Kalte garrantzitsuak izan ziren, baina zauriturik ez.

Sartrek orduan, segurtasun bila, eta jasotako irizpideak kontutan hartuz, Raspail bulebarreko 10. estaia batera aldatu behar izan zuen, hain maite zuen St. Germain auzotik alden-duz. Eta han hamaika urte eman zuen.

«Neure gizona» bihurtu zen Sartre, esan beharrik ez.

Eta orduantxe (1961-1962 urteetan) hasi nintzen Sartre «intellectuel engagé»aren idazlanak bertagotik, ahalean bederen, irakurtzen eta ulertzen. Anti-kolonialismoari buruzkoak batez ere.

Lan filosofiko batzuk ere bai. Oso modan zegoen *Critique de la Raison Dialectique* famatu eta lodia ere bai: erosi eta buruz buru irakurri nuen. Marxismoa berritu nahiz, eta marxismoa ukatu gabe, «desbideraketa burokratikoak» salatzen zitu-
tuen gupidagabeki.

Baina ni batere filosofoa ez izanik, ez nion horrenbesteko atarramenturik atera irakurketari. Askoz ere barrurago iritsi zit-zaidan *Le Mur* bilduma, adibidez; edo inperialismoaren kontrako izkribu berezi eta eskuarrak.

Handik urte pare batera (1964-X-16), Iparraldean bizi nintzenean, eta gure kontrako «ohilketa» («espulstioa» diote orain; eta, ipartarrek, «kasatzea») aidean sendi genuelarik, Nobel Sariari Sartrek emandako ukoa zabaldu zen bazterretan: «je désire ne pas figurer sur la liste des lauréats possibles» –zurrumurrua iritsia zen Sartreren belarrietara– «je ne peux ni

ne veux, ni cette année, ni dans l'avenir, accepter le Prix Nobel». Gogoan atxeki dut esaldi hura (oraingo honetan buruz ematen dut aipua): «cela équivaldrait à la récupération objective par le bloc occidental de ma figure publique». (Ikus, nahi izanez gero, nik 1964eko azaroaren 18an *Sartreren ukoaz* artikulua, in *Gertakarien lekuko*, 88-92 orr. Aranburu Altuna argit., 1985).

Eman egin zioten saria, hala ere; eta Sartrek arbuiatu egin zuen (X-22). Eta zegokion diru-saria (250.000 korona) Nobel Elkarteak atxeki zuen bere altxorrean.

Sartreren kasuan, hitz batez, areago erakarri ninduen, nik uste, intelektual militanteak, filosofoaren testuek baino.

Arte horretan, 1968an hobeki, «Parise-1968» gertatu zen.

Ordurako Sartre PC frantsesarekin eta Sobietar Batasunarekin guztiz hoztuta, Cohn Bendit, Geismar, Glucksman, eta gainerako ikasle buruzagiekin bat eginik, deliberatuki kokatu zen ikasleen eta «gauchisten» alde. PCren ezkerretatik etorri beharra zen iraultza, Sartreren iritziz; eta mugimendu anarkoaire eta heterodoxo hartan antzeman uste izan zuen.

Eta, ohi bezala, eta beste intelektual komunista-ohi askok bezala, bere hordagoa bota zuen hozitzen somatzen zuen ezker-mutur berriaren alde; eta marxista-leninista ofizialen aurka.

Pariseko ikasleek «les crapules staliniennes» kaleetan barena oihuka zapuzten zituzten une berean, Sartrek hau idazten zuen: «le Parti Communiste a trahi la Révolution de Mai».

1968ko gertakarien ondorioz, Brusselako ULB-VUB Unibertsitate «okupatu»ra azaldu zitzaigun Sartre bera. Eta hantxe entzun eta ikusi nuen nik zuzenki, emozio handiaz, ikasleen mugimenduaren alde mintzo; eta nahiz, egia esan, Sartre hizlaria... hutsaren hurrena besterik ez izan.

Handik hiru hilabetera, Varsoviako Ituneko Estatu komunistek Moskuren gidaritzapean, Dubcek eta gainerako «komunista liberalek» piztua zuten «Prahako Udaberria» itotzekotan, Txekoslabakia okupatu zuten, tankeak eta guzti; eta «legetasun sozialista» berrezarri.

Sartreren erantzuna ez zen luzatu: abuztuaren 24ean ber-

tan, Europako alderdi komunistek inbasio militarra txalotzen zuten mementuan, osoki gaitzetsi zituen sobietarrak.

Haustura hau, hain zuzen, betirakoa izango zen. 1941ean komunistek «agente probokatzaile»tzat salatu bazuten, 1968an tokatu zitzaizkion «loreak», ez ziren gustagarriagoak izan. Baina Sartrek eutsi egin zion leinari; eta «gauchismoan» eta kolonialismoaren kontrako mugimenduetan jarri zituen bere esperantzak.

Hilabete haietantsu, bestalde, Melitón Manzanos eta Etxebarriaren heriotzeak gertatu ziren Euskal Herrian.

Tentsioa gora zihoan. Burgosko epaiketa heldu zen. Eta ezkerkeriek beren gailurra iritsi zuten Euskal Herrian: «Cette insistance sur *le fait basque* –irakur zitekeen garaiko egunkari frantses ezagun batean– est actuellement *critiquée par l'aile gauche (majoritaire)* de l'ETA; qui estime qu'elle correspond à une *phase maintenant périmée* de leur mouvement»... Irakurle argituak dagoeneko somatu dukeenez, «ETA Sexta»koak mintzo ziren horretara. Ez ETA bera, ondoko urteetako eboluzioak erakutsiko zuenez.

Eta egia esaten zuten. Burgosko epaiketa hasterakoan ETAREN Bulego Politikoa, sozial-inperialisten eskuetan baitzegoen. Abertzaletasuna, euskara, «superatuta» zeuden...

Gauzak horrela, benetako bonba bat bota zuen 1971ko hasieran Sartrek, Burgosko epaiketari buruz Gisèle Halimik abokatuarentzako *Hitzaurre* ospetsua prestatu zuenean (ikus Txalapartak argitara emandako ETAREN Kondaira, 3.lib., 277-285 orr., euskarazko itzulpenean).

Bapatean, eta sozial-inperialismo espagnolista euskal ezker abertzaleaz betirako nagusiturik agertzen bide zitzaigunean, ikuspegi ezkertiar eta abertzalearen alde egin zuen postura ausarki filosofo famatuak.

Kolonialismo eta inperialismo mota guztien kontrako bere borroka nekagaitzean bere gailurrean zegoenean, eta gure arteko «felipe», «progre» eta «ezkerkoi» guztiak zapuztuz, borrokaren izari nazionala azpimarratu zuen parisetarrek.

Bai *Enbata*-k Iparraldean, bai ETAko *Zutik*-ek Hegoaldean (isilpean, esan beharrik ez), argitara eman zuten izkribu historikoa. Eta *Hitzaurrea*-k sekulako oihartzuna eta ondorioak izan zituen kanpo aldean; baita «barruan» ere, nahiz askoz polikiago.

Oso ahulduta zegoen ezker abertzaleak, zinez esan dezakegu hau, arnasa hartu zuen Sartreri esker. Eta garai hits hura bertatik eta ezinean pasa genuen abertzaleok, ez dugu laguntza hori inoiz ahaztu eta ez ahaztuko.

Noiz Euskal Herriko kaleren bat bederen Sartreri eskainiko?

Sartrek hil arte (1980) eutsi zion ezker berriaren oinarri ideologikoak bilatzeari. Eta, beti bezala, ez zuen inoiz bere iritzia izkutatatu. Oso maite zuen Castrori ere, adibidez, distantziak hartuak zizkion 1971n (orain dela 23 urte, bai!).

1971ko martxoaren 20an Heberto Padilla poeta arrestarazi zuen Castror. Aferak protesta gaitzak altxa zituen. Padillak, Stalinen garairik tristeenetan bezala, bere «autokritika» egin zuen; eta K.S. Karol, René Dumont, eta beste, «CIAko agentetzat» salatu zituen. Honek haustura ekarri zuen. Sartre ez baitzegoen prest, eta garbiki esan zion, Cuban ere «ilunkeria dogmatikoak, kultur xenofobia eta stalinismoak herrialde sozialistetan ezarritako zampaketa sistema onartzeko».

Azkeneko urtean, bestalde, ideologi krisi luze baten ondorioz, sozialismo libertarioaren alde jo zuen Sartrek (oraingoan Russallengana hurbilduz); eta «je ne suis plus marxiste» aitortu zuen deplauki.

Nola ukatuko Sartreengan aurkitu nuela nik irakasle bat?

Hau guztia oso-oso begi txarrez hartzen zuten «barruko» abertzale ezkerkoiek. Euskal Herriko giro «politizatuan» (??), ezkertiarra ez hiper-ezkertiarra zen seinale; marxista ez zena, hiper-marxista zen, trotskista, maoista, nik dakita zer. Euskaldun anarkoak berak ere, marxismoarekiko uzkur edo hotzairerantz agertzen ziren neurrian, «malo»!

Lekuko ona dugu gutxiengo («gutxiengo» idatzi dut, bai) abertzaleko giro paranoiko hura somatzeko. Rikardo Arregik, bere eboluzioan barrena, dexente idatzi baitzuen.

Apezgorako ikasketak eten eta uztean, eta bizimodu «zibilera» bihurtzean, «Marxen zorabioak» ukitu zuen (beste anitz euskaldun bezala). Gure herriak, fededun-fededunik baldin badago, beste ebanjelio bat, beste Eliza bat, eta beste sinbologia bat behar zuen. Eta hortaz, Morin-ek batez ere guztiz garbiki azaldu duen fenomeno baten bidetik, marxismora jo zuen. Eta arnas hestuka jo.

Ordukoa da (1967) Rikardoren *Sozialismoa modan dago* artikulua burrunbatsua, *Jakin* aldizkarikoa. Oso sintomatikoki «marxismo» hitza erabili behar zen lekuan, Rikardok sistematikoki «sozialismo» ipini zuen... 1967an ginen.

Eta nik beste artikulua luze eta zakar batez erantzun nion Brusselatik: *Marxismoa modan egon zen, Jakin* 26; 3/21 orr..

Marxismoari buruzko balantzea egiteko garaia heldua zela erantzuten nion. Partidu marxista-leninistak Europan zertan ziren (maiatzeko Iraultza 1968an gertatuko zen, handik urtebetera), eta «barruko» jende interesgarriak non zeuden alde ratzen nuenean, ondorio tinko bat ateratzen nuen: «barruko» gure jendeak ez zekiela ezer ezkerren kondairaz eta egoeraz. Zer egin, ordea?

Nire artikulua zenbait xehetasunetan agian xaharkiturik atzeman badaiteke ere (27 urte ez baitira alferrik joan!), prest nengoke orain bere horretan berriro izenpetzeko.

Kondaira populuek egiten badute –erantzuten nion Rikardori, besteak beste– eta ez buruzagiek («burgesek dioten bezala»), orduan Stalin ez da stalinismoaren erruduna; eta gakoa sisteman bilatu behar da, eta ez Josiv Djugashvili pertsonaren paranoietan.

«Barruko» abertzale gazteek oso gaizki hartu zuten nire eraso (kontra-erasoa hobeto esanda); oso gaizki ere bai ene lagun min batzuek; eta, jakina, erabat gaizki ETAko zuzendaritza politikoak (esana dudanez, sozial-inperialistek kontrolatua garai hartan).

1967ko apirilean nik emandako «dimisioa», beraz (ikusia du irakurleak aurreko orrialdeetan), saldukeriatzat, agurekeriatzat, anti-marxismo merketzat, desbideraketa burges eta eskuindartzat, eta abar, gaitzetsi zuten militanteen eta ETAzaleen artean. Eta erabat galdu nuen kreditu politiko guztia.

Ezer gutxi egin nezakeen nik Brusselatik isuri hazkor eta azkarren kontra.

Etsipen osoan (eta zerbait errepikatzen badut, barka) liburu bat idaztea burutatu zitzaidan. Waterloo-ko «morne plaine» hartan askotan, behin eta berriz entzundako harropuskeria frantsesez ok eginda, tristura latza jasan nuen. Zenbat aldiz ez naizen gogoratu Edgar Morin-en *Autocritique* lazgarriaz; bera ere bakardadean bere buruarekin mintzo zelarik, hitz hau errepikatzen zuela: «Exclu! Exclu!».

Ez ninduten ni bestek bota, egia da. Baina nire porrota nabarmena zen, osoa, itxuraz. Eta barne-oinazea ematzekotan, *Elsa Scheelen* nobela «huntü» nuen; ondoko urtean Euskaltzaindiak Txomin Agirre sariaz saritua. Eta Arestiri esker (hauxe da egia!), hamaika arazoren artean, Hego Euskal Herrian argitaratua eta banatua...

Nobelak guztiz harrera txarra izan zuen euskal kritikarien eta literatur jakitunen artean. «Atzera pausu» nabarmena zela, kanpotikako begirale «oro-jakilea»ren aroa xaharkitua eta «gainditua» zegoela, nire etorria «agortua» zela, hobe nuela aurrerantzean «beste nobelarik ez idaztea», eta abar.

Porrot politikoari literaturazko porrota gaineratu zitzaion. Eta 1969 inguruko garaian kinka larria ezagutu nuen, neure buruan konfiantza erabat galduz.

Aspaldiko partez, eta Brusselako egonaldiaren azkeneko bi urteetan, irakurtzeari ekin nion. Eta Euskal Herrira itzultzen saiatzen hasi nintzen; baita bidaiaria pare bat egin ere Frantzia aldera.

1969ko bukaeran jaso nuen berriak, beraz, sekulako poza eman zidan. Lafon euskalaria hil berria zela-ta, laguntzaile plaza bat agertu zen Bordeleko Unibertsitatean. Mitxelenak eta Haritxelharrek nire aldeko iritzia eman zuten. Eta horrela «Lecteur de Basque» postu bat lortu nuen.

Eta, gaztelaniaz nekielako, Hamon-Sobelco nire enpresak Hegoameriketako arduraduna izateko, eta bidaiaria asko egiteko egin zidan eskaintza tentagarriari, uko; eta, ez bat eta ez bi, Bordelerako bidea hartu nuen; bizitetxea Villenave d'Ornonen hartuz, Unibertsitatetik ez urrun.

Aldaketa galanta, berriro ere; baina euskal mundura hurbiltzeko esperantzak, eta seme-alabak agian Euskal Herrian heztekoak, dena gainditu eta ahantzarazi zidan.

Gauzak horretara, 1970eko otsailean, 1969-1970 ikastaroa dexente aurreratua zegoelarik, Bordeleko Unibertsitatera iritsi nintzen.

Orduan ezagutu nuen, igarokorra izango zen Unibertsitate egonaldi hartan, Vincent Garmendia arabar-bordeltarra, hantxe irakasle eta XIX. mendeko euskal kondairan oso jantzia. Baita Maurice Molho hizkuntzalaria, eta beste unibertsitari batzuk.

Kostaldea, bestalde, ez neukan etxetik urrun (Arcachon, bereziki). Deunoro Totorikaguena dimostarrak, PNVkoa izanik ere, bere etxea zabaldu zidan plarren-plar; eta, hitz batez, Gironde-ko udate hark oso kutsu ona utzi zidan.

Baina berehala, eta geroari buruz esperantza arrastorik gabe utziz, nire eskolak amaitu egin ziren. 1970eko uztailean, eta Bordeleko neure bigarren ikastaroa hastekotan nengoelarik, Marcellin frantses Barne ministrariak Frantziatik aldegitoko agindua eman zidan. Unibertsitateko lanpostu gabe utzi ninduen, hasteko: «Je vous prie, Mr. le Recteur, d'annuler sa nomination à l'Université de Bordeaux, même si elle est déjà effective». Eta handik hiru hilabetetara, Frantziatik aldegitokoa etorri zitzaidan.

Ez nintzen «exclu» oraingoan; baina ohildua, «expulsé», bai. Osotara.

Artean nik, dena airean, hordago botatzea erabaki nuen. Emazteak, Seaskaren bitartez, Baionako ikastola berriko postu baten eskaintza hartu zuen, eta Ipar Euskal Herrira aldatzea erabaki nuen; harako bidean Hazparnen egonalditxo labur bat egin ondoren.

Berehala, handik aste gutxitara, 1970eko abenduaren 3an Burgosko Epaiketa famatua hasi zen.

Honen segida ongi ezagutzen du irakurleak: 9 heriotz zigor, Francoren kontrako giro azkarra Europan... Frantses agintariak nire (eta gure) ohilketak isilean hormatzea erabaki zuten (ez zen polita aste haietan «anti-frankisten kontra» ezer egitea!). Eta azkenean ez ninduten, ordukoan bederen, bota.

Ezikusia egitea erabaki zuten; baina paperik batere gabe utziz. «Et si on m'arrête?», galdetu nien. «Ne vous inquiétez pas! Vous n'avez qu'à leur dire de se mettre en contact avec ce Commissariat des Landes»...

Burgosko Epaiketa gertatzean, beraz, ni Tarnos-en nengoen. Ofizialki Landetan, eta Ipar Euskal Herritik at. 1964eko istiluak eta kanporaketa nolazpait ekiditekotan, Bokaletik hiru kilometro, Baionatik sei. Bertago, dudarik gabe. «Ternoze»-ra, Dassancek zionez.

Baina hura ere lasaialdi laburra izan zen...

1970eko maiatzaren 9an, nire kontrako espultsio agindu berri bat iritsi baitzitzaidan. Hirugarrena sei urtetan!

Eta oraingoan salaketa zehatza zen: «Burgosko Epaiketaren ondoren, Telesforo Monzonekin eskuz-esku, «Frente Abertzalea» eraikitzen saiatuak ginela. Frantziatik aldegitoko astebete eman zidaten niri; eta Telesforori, bi aste.

Egia zen saiaketa horiek izan zirela: Franco hil orduko, «Frente Abertzale» bat nahi genuen; kinkaldi garrantzitsu hura, gure arteko konponezinak direla-ta, ez galtzeko. ETA ere prest agertu zen, askotan kontatua izan denez; eta PNV ez. Baionako Itunari eutsi nahi zion, eta PSOErekin atzerrialdian lortutako ulerkuntza zuhurra ETako buru-beroengatik ez arriskatu. Telesforo «gaixotu» egiten zen, berriro Euskal Herriak galduko zuen aukeran pentsatzean...

Gauchistak eta hiper-marxistak pozik zeuden; klaseen artean ezin baita inolaz ere meniarik izan; eta «Frente Abertzalea», «inter-klasista» izanik, «eskuindarra» omen zelako...

Hor genuen ultimatum, beraz.

ETAkoek, orduan buru zen Juan Jose Etxaberen bitartez, Telesforori eta niri Ipar Euskal Herritik ez mugitzeko eskatu zituzten, eta Baionako katedralean gose-grebari ekiteko; aurreko urtean beste euskaldun errefuxiatu batzuek St. André elizan egin zuten bezala. Proposamena ontzat ematekotan, prest zegoela ETako errefuxiatu mordo bat, gurekin batera katedralean etzateko.

Maiatzaren 20an, Salvatore egunez, 35 abertzalek, Ipar

eta Hegoaldekoek, Baionako katedrala «okupatu» genuen; eta Telesforo Monzon buru, gose-oporrean abiatu ginen.

Ez dut gertakari ezagun horien kondaira errepikatuko: aski du jakinmin duen irakurleak *Enbata* 212a, ale berezia, irakurtzea.

Izkutuko harremanak izan ziren. Euskal Herritik at sei hilabetez egoteko prest azaltzeko eskatu zitzaigun «goitik»; eta, hortik aurrera, isil-isilik jokatzeko, eta kaleko arrabotsik ez ateratzeko, «gauzak konponduz» joango zirela.

Jende ezagun asko mugitu zen Baionako grebakoan. Oporreko argazki horiek gaur begiratzea, arrunt zait mingarri; grebakide mordo bat, ondikotz, borroka latzean gertatu baitzen hilik ondoko hilabeteetan eta urteetan. Eustakio Mendizabal topatzen dugu hor, eta «Tomasón» Pérez-Revilla, eta «Korta» Garmendia, eta «Txapela» Goikoetxea, eta Mondragón (Hondarribian hilko zutena)... Beste multzo bat ere ageri da fotoetan, zanpaketa gogorak jasanik: Juan Jose Etxabe bera, «Zarugalde»koa, atentatuz zauritua eta alargundua; eta Jesus Zabarte arrasatearra, eta Mikel Lujua, eta Blasco, eta ondoko urteetan ia-ia giltzarri agertuko zen Azkoiti... Eta Mark Légasse ipartar idazlea, eta «Txino» Uria, eta abertzaleon arteko batasun beharraren apostolu nekagaitza: Jose Manuel Urbistondo. Eta abar luze bat.

Jende ezaguna ere ondoko egunetan publikoki ohilketen kontra agertutakoak: Guy Héraud federalista, Vercors idazlea, Claude Bourdet, Daniel Mayer, Georges Casalis, Etxeberri-Ainxart...

Horrela gertatu ginen Telesforo eta biok Nogaron, Gers Departamenduan; Salles d'Armagnac-eko etxetzar luze zabal hartan. Telesforok oso maite zuen inguruan, sei hilabete haiek biok buruz-buru nola-hala pasa beharrez...

Jende askok bisitatu gintuen. Telesforori are atzerriko Euskal Gobernuaren sortzeko proposatu zioten; eta Pariseko Jaurlaritzari agur osoa emateko. Telesforo ez zen menturatu: «Biak elkartu behar ditugu: ETA eta PNV. Bestela jai dugu».

Esperientzia aparta, aberasgarria, uda hartakoa; Telesforo, denaz gain, pertsona erraza eta etorkorra zelako (nahiz funtsean harria bezain gogorra izan oinarrizko ideia batzuetan).

Ipar-Vasconia zaharreko herriskak eta elizatxoak kurritu genituen banan-banan. Frente Abertzaleaz hamaika aldiz mintzatu ginen. 36ko gerla garaiko pasadizuak Telesforok umore handiaz kondatu zizkidan; bere burua, eta itxuraz bestaldera, beti oso seriotan hartzen ez zuelarik. Hasiak zitzaizkion ordurako bere koronariaren arazoak. Baina ez zuen horretaz inoiz hitz egiten.

Nogaroko deserrialdia bukatuta, Iparraldera itzuli nintzen (1971ko azaroan). Eta honetakoan Hendaian kokatu nintzen, ETAko errefuxiatuz beterik zegoen Kordeliers karrikan; Bat-eneering gure lan-bulegoa ere Michel Laffitte gure zuzendaria, Donibanetik Hendaiara aldatzea erabaki baitzuen.

Michel hauxe zen, zenbait urte beranduago, ETAren arma-biltegi bat poliziaren eskuetan erortzerakoan, bere buruaz beste egin zuen gizona.

Telesfororen proposamenaz Anai Arteko Batzordean sartu nintzen; eta honen bidez bestaldeko egoeraren eboluzioa segi nezakeen zeharbidez.

Berehala, ATEren heriotz mehatxuak hartu nituen: mezuak atepetik, telefonoz, postaz. Diruaren aldetik, bestalde, ene egoera ez zen batere ona. Eta «paperei» dagokienez, guztiz txarra: frantses agintariak ez ziguten batere paperik ematen; edo-ta, zerbait ematen zigutenean, «kadukatzeko» bezperan eskuetaritzen.

Giroa ez zen ona ezertarako; eta are gutxiago euskal ezkerri buruzko gogoeta sakonik egiteko... Liburu honetantxe irakurleak erreparatu dituzkeen etendurak, egiaren errainu hutsa dira...

Baina abertzale gisa oso kezkatuta bizi nintzen.

Norbaiti mingarri bazaio ere, eta oro har, aberrigintzan lan egiten zuen indar politiko bakarra ETA zen.

Hots, ETAren helburu politikoak, Burgosko Epaietan nabarmenki agertu zenez, oso nahastuta zeuden. Espainiarkeria estrategikoa, jarrera sasi-ezkertiarrarekin nahastuta: Euskal Herriaren arazoa «Espainiako Demokraziaren kapitulu eta osagai baizik ez da»...

Hizkeran batez ere (baina ez hizkeran soilik, ondoko urteetako kondairak garbi erakutsi duenez) mugimendu komunistak orokorraren azpisail agertzen zen ETA; eta «Euskadi Europako Cuba» esaldia oso gogoz onartzen zen.

Niri funsgabekeria iruditzen zitzaidan hori, Euskal Herria ez baita «Hirugarren Mundu»ko eskualdea. Probokazio hutsa ere bai; CIA Euskal Herriaz arduratzekotan, ez baitziren gure arazo zailak batera erraztuko. Probokazio ergela, eta alferra gainera; marxismo-leninismoa orduan ere (gaur zertarako aipa!) nekez proposa baitzitekeen gure herriarentzako helburu desiragarritzat.

«Kapitalismoa ere ez» erantzun ohi zidaten. Baina marxismo-leninismoa Estatu-kapitalismo gupidagabea antolatzeko tresna ideologikoa izan da, behin eta berriz.

Eta ez da oso bidezkoa minbizia sendatzekotan, hetika edo infartoa proposatzea.

Baina Hegoaldean inflazio ezkerkoi harrigarria zegoen (aski da Bruni edo Giacomuzzi-ren «ETAren kondairak» berri-rakurtzea); edo, hobeki, eta herrikoiago, garai hartako isilpeko panfletoak berak aztertzea. Benetako populu-paranoia zegoen. Eta gizarte-alienazio eskerga, batez ere apez-ohien arteko mugimenduetan.

Ezkerkerien kontrako argudioak bilatzea edo zabaltzea, oso gaizki ikusita zegoen. Etsaia «Burgesia» zen. «Bur-gue-sí-a a-se-si-na» oihukatu, eta kitto.

Eskuin aldetik, PNV genuen, Espainiako Errepublika berri-erori zain, praktikan hila. Eta ezker aldetik, gauchismo hiper-gorria eta hiper-umegorria. Ondo jaiok ginen!

Branka-Zuzen saioa (saio apala, oso: zer maila zuen? Nork irakurtzen zuen?), lehenago kondatu dudanez, etena izan zen Belgikatik Iparraldera heltzean (1971).

Hegoaldean, artean, ETAren eraso sail armatu etengabeak eta etarren hilketak, elkarri zerraizkiolarik, eustea aski. Eta nekez presta zitekeen inolako erremediorik euskal mugimenduan, beste modu batera, arriskutan jartzen zuen desbideraketa larriaren aurka.

Ezintasun horrek kiskali egiten ninduen. Eta «barrutik» etortzen ziren xinplekeria eta segurkeria politikoeak, areago sutzen.

Euskal (edo «euzko», edo nahi dena) industrilarien aurka-ko kanpaina ari zen gora: «ez dago alderik euskaldun eta espainiar kapitalisten artean»... «Espainiar proletarioa, aldiz, aliado espontáneo»... Eta abar!

Gure nazio arazoa «euskaldunen arteko» istilutzat aurkeztu ahal izatearen kontra ginen batzuk (gaur bezalatsu, egia esan; gure nazio arazoa espainiar inperialismoak sortu baitu... bertako salduen laguntzaz, noski). «Batzuk» esan dut.

Eta «Burguesía» abstrakto eta orokorraren kontrako gerra, «euskalherritar» gizonen kontrako eraso bihurtzen zenean, ETA etsaiaren jokoan erortzen ari zela pentsatzen genuen. 1972an, esate baterako, «Precicontrol» arazoan, Lorenzo Zabala ETAk bahitu zuenean bezala. Ez baitzen inondik ere plegu horretako kasu bakarra izango! Eta Espainiaren jokia hori baita: «Aquí sólo hay un problema entre vascos, de izquierda y derecha; no entre Euskal Herria y España»...

Iparraldean bizi ginen errefuxiatuok, bestalde, ez ginen batere lasai bizi. Argalaren eta Peixotoren kasuak puntakoak dira; iceberg zabal baten tontor agiriak. Eta 1971-1977 urteak, horretara, Hendaian emandakoak, oso korapilatsuak izan ziren enetzat.

ETAk gurekin 1971n erakutsitako anaitasuna nik ere zuzen jokatu nahi hutsez «ordaindu» beharrez, beste bi gosegrebatan sartu nintzen, frantsesek botatako etarrekin bat egirik: 1972ko urrian lehenengoa, Baionako katedralean; eta Carrero Blancoren hilketaren ondoren, 1974eko urtarrilean, Zokoko parrokiaren; hemezortzi eta hamazazpi egunez. Motzak izan ziren biok, iraupenez; baina oso ondorio txarrekoak Bat bulego teknikoan egiten nuen ingeniari lanaren aldetik.

Nork jasango halako «saltsa» azkengabea bizi zen lankiderik?...

Ezintasun hartan, irakurri egiten nuen; Belgikan egin ohi nuen bezala. Eta aski da neurekin atxeki ditudan liburuen

erosketa datari eta oharrei adi egotea, nondik nora nenbilen jakiteko.

Brussela garaiko estrukturalismoak eta freudismoak pasata (Levi Strauss, Freud, Sebag,...) «ezker berria»ren inguruan ibilitako autore batzuk irakurri nituen.

Telesfororekin Nogaron 1971n bizi izan nintzenean, adibidez, 1968ko maiatzean puntako izandako J.M. Benoist-en *Marx est mort* liburua irakurri nuen; eta, *The Litterary Times*-en kronika baten bidez, *The Welsh extremist*; gerora berorren idazlea zen Ned Thomas bera ezagutzera heldu nintzelarik. Gers-eko deserri mingoxo hartan irakurri nituen biok, eta beste batzuk, gogotik eta xeheki.

Betiko kritikak ez errepikatzeko, hau bakarrik gogoraziko dut hemen: oso ohar argitsuak egiten zituela Benoist-ek kultur desberdintasunaz. Levi Straussek irizkide (horregatik itzuli genuen *Race et Histoire* liburua, Jokin Apalategik burutua; baina zentsura frankistak debekatua... bai!) agertzen zen filosofo gaztea, eta egokiro mintzaten herrien eta kulturen funtsezko pluraltasunaz. Ez baitzen gutxi urte haietan, neure *Hizkuntza eta Pentsakera* liburuan soma daitekeenez.

Barka lerro hauen kopiaketa: «la pensée révolutionnaire, de par son origins aussi bien que par ses modalités d'application, est nécessairement un concept ou une image impérialiste... La conversion de cultures aussi diverses que la culture cubaine, la culture russe, la culture chinoise à un statut révolutionnaire, représente une agression de l'ethnocentrisme occidental fort comparable, dans son mouvement d'annexion à la violence commise par l'impérialisme colonial, lorsqu'il n'a pas su respecter l'altérité des cultures rencontrées» (Benoist, *ibid.*, 162).

Gaur bertan ere bere horretan sinatzeko modukoa.

Belgikako urteetan nigan gailendutako joera (ikus *Branka* edo Larresororen artikulua), azkartuz joan ziren.

ETAz gain besterik ezer interesgarririk ez zegoela garbi ikusirik ere, gero eta urrunago atxematen nuen neure burua «barruko» joera marxista (edo sasi-marxista) nagusietatik. Eta gero eta zailago topatzen nuen «barruko» militanteekiko benetakoa ideikidetzarik lortzea.

Ekintzarakoan, hori bai, Iparraldeko etarrekin egiten nuen topo; eta berekin elkaturik jokatu nuen mila aldiz.

Geroko Euskal Herriarentzako proiektuari buruz, aldiz, eta ezker abertzalearen beraren moldakuntzaz, uzkur senditzen nintzen (eta haiek ere bai nirekiko, noski). Ondoko urteetan ere maiz ezagututako egoera berberean nengoen ordurako.

Euskal Herriaren alde bizia arriskatzeko eta emateko prest zeuden aberkideak, ETAkoak ziren. Eta ez besterik inor. Gauzak garbiki behar dira aitortu. Gandhik oroitarazten zuenez, bizia ematera bultzatzen duten ideiek merezi dute... seriotan hartuak izatea. Gainerakoak? Nagoen isilik. Telesforori ere guztiz puntu garrantzitsu zitzaion hau, predikatutako ideia-endarra eta sinesgarritasuna funtsatzeko.

Claude Roy maite nuen, adibidez; Claude Bourdet euskaldunon adiskidea, Pierre Daix, Domenach bera, Cornelius Castoriadis. Nor bere mailan. PSUko aldizkariak eta lanak jarraitzen nituen gehienik.

Garai hartantsu irakurri nuen Albert Memmi-ren *Portrait du Colonisé* liburua; Sartreren hitzaurreaz hornitua.

Oso gustatu zitzaidan; eta segituan, euskaratzea erabaki nuen, eta ahalean argitaratzea (ikus *Kolonizatuaren ezagugarria*. Jakin argit., 1974. Aitor bat egingo dut: ez nintzen «ertratua» azalean paratzen ausartu...).

Euskal Herrian modan ez zegoen «un autre son de cloche» bazegoela erakatsi nahi nien neure herrikideei.

Eta nire itzulpen horrek, Memmi bera Parisen ezagutzeko aukera eskaini zidan.

Bere etxegaineko lan gelatxo misteriotsuan errezibitu ninduen («c'est ici que je me cache pour travailler» azal zidan), eta luzaz hitz egin genuen: bai euskaratu berria nuen liburuaz, jakina; bai juduei buruz («je suis sioniste de gauche» aitortu zidan); baita, jakina, Europako ezkerren egoeraz eta marxismoarenaz.

Marxek «kondaira liburu-letara handia» azaldu duela esan zidan; gertakari nagusien ildoak, alegia.

Baina «letra txikia» ez du azaldu ekin zuen. Eta horixe da koxka. Herri zapalduen arazoak, nazio askapenerako mugimenduak, eta antzekoak, «letra txiki hori» osatzen baitute...

Raymond Aron ere interesgarri zitzaidan, *Figaro* egunkari-ko sinadura ezaguna izan arren. Baina horrez gain Sartreren etsai pertsonala zen, gure ingurukoek «eskuindar nazkagarri»tzat gaitzesten zuten, eta... ez nintzen «tentazioan» erortzen ausartu ere... Autozentsura ez baita gaurkoa bakarrik ezker abertzalean! Eta, zoritxarrez, mesfidantzaz irakurri nuen *L'opium des intellectuels* famatua, besterik ez. Baina Aronek kontrakarrean joateko ausardia izan zuen, baita 1968ko gertaeretan beretan ere; ikasleek egotzi zizkietenak bizkar gainean zamatzuz.

Alferrikako lan astuna litzateke hemen irakurgaien zerrenda osoa egitea. Neure liburutegira begiralditxo bat emanaz erreparatuko ditudan izen edo liburu gailen batzuk baino ez dut aipatuko.

Fejtö-ren *Histoire des démocraties populaires* liburu bikoitz eta funtsezkoa topatzen dut, eskuztatua, erabilpenak higitua. Askoz ere beranduago jakin nuen Fejtö ere Arguments taldearen inguruan ibili zela. «Il semble que Marx –topatzen dugu tupustean– lui-meme ne se rendait pas compte de la dimension «religieuse», métasociologique, de sa démarche «anti-religieuse». C'est pourtant cette dimension là qui explique la grande résonance qui fonde la «magie» du marxisme... Tous ceux qui ont vécu dans le milieu marxiste savent que le marxisme, au lieu de supprimer la religion, n'a fait que la remplacer. Il est religion. Une religion qui a honte de l'être (*Arguments*, 2, 133-134).

Cornelius Castoriadis-en eskutik stalinismoaren eta burokrakerien arriskuak ulertu nituen, baita Sobietar Batasuneko minbizia zertan zetzan. Hau ere berandu ezagutu nuen, neure kasa; inguruan autore hauek ez baitziren aipatzen: Marx, Engels, Lenin, Mao edo Gramsci agian... eta kitto.

Castoriadis, hala ere ez da gaurkoa, 1950eko hamarkadako baizik. Iparraldera itzulia nintzelarik, eta Franco hil baino hilabete batzuk lehenago, erosi nuen Miarritzen *La Société Bureaucratique* bikoitz eta funtsezkoa.

Hungariako gertakari hitsei buruz, adibidez (1956koak), indar «kontra-iraultzaileen» alde izkiriatu zuen ausarki. Hortik aurrera miretsiago neukan.

«Le mouvement du prolétariat d'Europe orientale contre la bureaucratie et son régime d'exploitation et d'oppression, frauduleusement présenté comme socialiste, explose maintenant au grand jour» (*Socialisme et Barbarie*, 1956ko abenduan). «La révolution hongroise est la pointe la plus avancée de ce combat» (*La Société Burocratique*, 2, 268).

Areago: «Le prolétariat se bat de front contre le régime bureaucratique, qui ose se dire 'ouvrier', et qui représente en réalité la dernière forme, la plus achevée, des régimes d'exploitation et d'oppression» (270). Stalinismoan «la fraude la plus gigantesque de l'Histoire» salatzen zuen Castoriadisek (1956an!). Artean eta gure inguruan, gaur bertan ere, «Gorbachov-en saldukerien ondorioz», Sobietar Batasunean eta Ekialdeko Blokean, «ezkerra» erori zela entzuten dugu!

Touraineren izkribu batzuk ezagutu nituen, sozialismoari berari buruz gero eta uzkurrago. *L'Après Socialisme* famatua, Benoist-en izenburua parafasatuz, hitz hauetaz hasten baitzen: «Le socialisme est mort»(!). Eta aurrerago hau irakur baitzitezken: «Il faut libérer la gauche des idéologies mortes... Cessons de rêver confusément d'un retour à un imaginaire paradis perdu, situé avant la rupture de 1920. Méfions-nous des appels au «vrai socialisme» contre les partis qui le trahirent; ne croyons pas même qu'il suffise de remplacer une culture politique étatiste et centralisatrice par une autre, libertaire et autogestionnaire, à l'intérieur du socialisme. Il faut rompre les amarres et reconnaître le changement de la scène historique. Le socialisme fut l'idéologie du mouvement ouvrier» (ibid., 15. orr.).

Gogorra benetan Ekialderantz xeru-xeru begiratzen zuten ezkertiar abertzaleentzat. Touraine aurreko urteetan ezker berriaren apostolu lausengatua izan ondoren, Europako ezkerrearen aire berriak baitzekartzan. Eta egutegiaz ohar bat: lerro horiek autoreak idatzi zituenez geroztik... 15 urte joan direla!

Léfèbvre-ren lan batzuk ezagutu nituen (berau ere PC-ohia eta 1968aren aldeko). Pierre Fougeyrollas-ek merezi luke iruzkin luzeagorik. Beste batez agian. PC utzi ondoren, bere-

ziki arduratu baitzen nazio arazoaz (*Pour une France fédérale* eta *La Nation*, esate baterako).

Baina, honetaraz gero, eta deplauki neure egia aitortu behar baldin badut, nik filosofo edo pentsatzaile nagusi bat eza-gutu dut azken urte hauetan: Russell eta Sartreekin nire «hirurko» intelektualaren osatzaile: Edgar Morin parisetar judua.

Eta, zinez, bera behar da irakurri.

Autocritique liburu miresgarrian aurrenik (Seuil, 1975; Parisen 1976ko ekainean erosia; berandu), eta *Arguments* bi-koitzeko izkribuetan segidan (10/18 sailean, 1976; askoz ere lehenagoko artikulua bilduma); baina baita, berrikiago, *Pour sortir du XX. siècle* liburuan, beste hamaika liburu, artikulua eta elkarrizketatan, orduko eta gaurko neure kontseilari eta aburu-kide aparta aurkitu dut.

Autore honen ideiak ezagutuz gero, eta «toutes distances gardées», nireak ere ezaguturik daude; Morin baita aspaldi honetan nire argitzaile nagusia.

Morin, bestalde, PCTik pasatako gizona da; Russell eta Sartrez bestaldera.

Esaldi esanguratsu batzuk hautatuko ditut: «Si aujourd'hui –1958ko esanak dira– on me demande 'est-tu marxiste?', je reponds 'oui et non'... L'excès de préoccupations terminologiques ne signifie pas rigueur, mais dogmatisme ou fétichisme» (*Autocritique*, 233).

«Marx a sous-estimé la réalité de l'imaginaire... Or les besoins humains sont à la fois réels et imaginaires» (233). «Non seulement j'ai perdu la foi dans la mission historique du prolétariat, et dans le mythe philosophique de l'homme total; mais je me sens à l'étroit dans le matérialisme historique» (233).

Morinek honetan aurkitu uste zuen ezker ofizialaren gaitzen gakoa orain dela 36 urte: «le matérialisme historique n'a pas pu éviter de minimiser le problème même du bruit, de la fureur et des folies (de l'histoire)». Ez zuen ulertu, hitz batez, «le caractère profondément néurotique de l'histoire humaine» (*Autocrit.*, 234).

Russellekin batera: «Je prenais lentement conscience que mon stalinisme était une religion... et ce qui me fait horreur c'est la sorcellerie, et la religion masquée en rationalisme et en esprit révolutionnaires» (ibid., 240).

Frantziako Alderdi Komunistak, bestalde, halako «atrofia» erakusten zuen nazio arazoari buruz: «J'ignorais que le Parti (comm.) laissait persécuter le mouvement nationaliste algérien, ou même participait à la persécution. Du reste, j'oubliais totalement le problème colonial» (ibid. 68). «Je confesse athrophie mentale».

Astuna litzatake pasarte osoak hona aldatzea. Bego, bezaz.

«Y a-t-il un seul Français pour souhaiter être tchécoslovaque, vivre sous un régime honni par le peuple, maintenu par la force de l'appareil de l'Etat, et par l'occupation militaire soviétique?», galdetu zuen Morinek *Le Nouvel Observateur*-ean 1975eko ekainaren 25ean «Ez dago benetakoak omen diren askatasunen hazkunderik, alegiazkoak omen diren askatasunen galtzean. Informazio-zanpaketak oro, zizarte-zanpakuntza bihurtzen dira».

«La religion du salut terrestre fut l'évènement de notre siècle», zioen *Le Monde*-k egindako elkarrizketa batean, 1991ko azaroaren 26an. Eta, Castoriadis-en hizkeraz, «barbarie techno-burocratique» delakoa salatzen zuen. Baina sasi-zientziei («science-bidon» zioen Morinek) agur esanda, gizona «bakarrik» gelditzen da, mundutar esperantzarik gabe. Eta honetan somatzen diot nik halako neo-estoizismo bat, politikaren alorrean bederen: «nous devons renoncer au salut»...

Amaitu egin behar.

Oso agiri mamitsua eman zion berriki Edgar Morinek *Magazine littéraire* frantses hilabetekariari (312. zb., VII-VIII/1993; 18-22).

Pasarte batzuk hautatuko ditugu, eta beren horretan emango. «Contrairement à Malraux, annonçant que le XXI. siècle serait religieux, je dis que le XX. siècle a été un siècle hyper-religieux» (alferrik da esatea ados naizela erabat; eta Marx profeta klasiko bat izan dela, eta erlijio-sortzaile ezin na-

barmenagoa). «Le XX. siècle a été une époque de religion du salut terrestre... Le marxisme se croyait absolument scientifique, scientificité qui l'aidait à se camoufler à lui-même la nature mystique et religieuse de sa foi».

Beti pentsatu izan dut apaiz eta fraile mordo bat zuzenean, eta trauma larriegirik gabe, Elizatik Partidura aldatzea, ez dela inondik ere sustrai sakonik gabeko fenomeno. Era berean Partido Carlista-tik gaurko PNVra jendea mordoka, eta barruko traumarik gabe pasatzea, txiripa ez den bezala. Projektuak *berdinak* dira funtsean.

Ez du horrek esan nahi kapitalismoa, ekonomiaren mailako oihan-legea basaren gainean legeztatutako sistema, zuzena denik, ezta gaindi ezina denik ere.

Baina stalinismoaren emaitza nagusia (stalinismoa Estatu-kapitalismo estremoia izanik) hor egon da gidari, urte gehiegitan barrena. Hor dago oraino, herabeturik halabeharrez, ezkertiar batzuen bihotz ondoan.

Eta, stalinismoaren arrimuan, marxismoaren beraren atal erraztaile eta murriztaile mordoska bat ere bai, nahi baino azkarkiago sustraiturik.

Berreraiki egin behar da ezkerria. Bai horixe! Zein ezker-tiarrek esan lezake ezetz?

Baina errotik eraberritu behar da projektua. Eta marxismo-leninismotik at.

Ni ez naiz marxista. Ez naiz behin ere izan. Eta, hortaz, marxismoaz harunzko eskualdeetan eraiki behar horretan, ez dut ezer kuttunik alboan utzi behar.

Ezker abertzaleko borrokakide askok, aldiz, bai. Ongi dakit. Mingarriago zaie hauei eraikizuna, niri baino.

Ezker berri horretan, materialismo historiko delakoa, oro har, eta faktore ekonomikoen garrantzi aparta aintzakotzat hartu arren, stalinismoaren emaitza lotsagarriak gogoratu behar dira etengabe. Integrisimo politikoaren eta burokrazia ahalguztidunaren demasiak ez dira, inondik ere, bigarren mailako epifenomeno axial gertatu.

Ezker libertarioaren ekarpenak, marxismoak luzaz gaitzesirik eta madarikaturik, egurasgarri eta sendagarri funtsezko gerta daitezke; kapitulu honetan gidari jarri ditudan autoreen beren bilakabidean argi ikus daitekeenez. Noam Chomsky ere horretarantz doa aspaldi honetan

Nazio arazoa, bestalde, klase arazoa bezain garrantzitsua dela frogatu da behin eta berriz.

Erlijioa, bide beretik, ez da bigarren mailako soziologi eragilea: horra hor, esate baterako, Islamen gorakada; edo, hurbilago, orain dela hogeitun urte Jura kantoiko berriaren sorruntzakakoan gertatutakoak. Mozorroturik, azaldu dugunez, jainkorik gabeko erlijio laiko gisa har dezake egundoko indarra.

Naturaren sarraski hazkorrak, gizadia bera jartzen du gaur arriskutan; errotikako ekologismoaren behar gorria erakutsiz: «Zero hazkundera» ez da, berez, «mugagabeko hazkundera» baino ergelagoa.

Ezker berriak, hitz batez, faktore horiek guztiak hartu behar ditu kontutan. Teoria orokor berri bat behar du, Utopia berri bat; «Utopia» hitza oraingoan jatorrizko adieran hartuz. Garaia da euskal ezkerreko gauza hauetaz jabetzeko.

Teoria munstro hori (edo-ta alorka ongi uztartutako teori-multzoko bat, askoz hobe agian) asmatzea eta bideratzea, ez dago gu euskaldunon esku. Ezker berriaren proiektu-mordoa gauzatu artean, urte pila pasako da seguru aski.

Artean zer egin?

Kapitalismoaren kaltiarrek (langileriak, zehazkiago) ez dauka zertan «goikoen» zanpaketa isisilik jasan beharrik.

Ezker politikoko berria mamitu eta gorpuztu artean, eta kapitalismoaren barrutik ere (beharko!), langileen eskubideak bermatu behar dira ahalik ongienik. Eta, horretarako, alderdi sozialisten porrota konponduko ez deno batez ere, sindikalismo praktikoa azkartu behar da: langabezia, sexuen arteko berdintasunaz, biziera-baldintzez, lan-kontratuen edukinaz, erretiroaz, eta lan-istripuez, eta abar luze batez, arduratuko den sindikalismo zehatza.

Bihotza ezkerretan duten militante sozialista guztiek, langileen problematikara hurbildu behar dute gure honetan.

«Il faut libérer la gauche des idéologies mortes», zioen behin Tourainek, arestian oroitarazi dugunez.

Gauza berbera egin behar da euskal ezkerrean: ideologia hil eta kaltegarrietatik jaregin.

Eskuinaren zerbitzari zintzo eta «objetibo» izan nahi ez badugu, hain zuzen, «eskuinaren jokia» egiteko ikara behar dugu gainditu.

Alde onetik hartuko den esperantzan etorri da kapitulu mingarri eta arriskutsu hau.

Eta honen segidan etorriko da hurrengoa. Liburu honetako seigarrena eta azkena.

VI. Autodeterminazioa

1976ko abuztuan, oraindik ere Hegoaldeko agintean zeuden frankisten artean lagunak zituela-ta, Juan Maria neure anaia bakarrak lagunduta, Bidasoako muga igarotzekotan. Hendaiako mugara jo nuen:

–¡Bienvenido a España, señor Alvarez! –esan zidan muga-ko polizi-buruak. –Mejor dicho: ¡Bienvenido a Euskadi!

Bai, jaun-andereok! Horixe izan zen harrera ofiziala. *O tempora, o mores!* Ez «cocido madrileño»rik, ez «sevillana»rik, ez «corrida»rik. El cambio...

Xentimorik gabe iritsi nintzen.

Eta bizimoduaren arazo ekonomikoa konpontzekotan, Beobide eta P. Miangolarrarekin mintzatu nintzen, batetik: eta, hau gogozago. Aita Altuna aspaldiko lagunarekin ere bai.

Udazkeneko arrats batean Mundaizko ikasguan errezibitu ninduen Patxik, Aita Elizegirekin oker ez banago: eta bertako jangela «pribatu» batean afaldu nuen. Euskal Filologi Sailean eskola emateko aukera eskaini zidaten. Berriki lortua nuen Pa-

rise VI-an «Licence» delakoa: eta «Maitrise»rako hurrengo pausua abiatu behar du.

Eta 1976-1977 ikastaroa hasi berria zelarik, Hegoaldeko Unibertsitate aldiari hasera eman nion (Deustuko adarra den EUTGetan).

1977ko urtarrilean Lauriers karrikako etxea utzita, Donostiako Antigu aldera aldatu nintzen, Portu-ene inguruko Donosti-zarra izeneko etxe multzo batera. Oraingoan familia osoarekin batera, nik 47 urte, eta seme-alabek 17/14 zutelarik.

Mugaz haraindiko hamasei urte lantsuari, agur!

Neure proposamena hitz bitara bildu nahi izanez gero, hauek botako nituzke: euskara eta autodeterminazioa.

Baina botatze berean, ohar pare bat eginez. Bi xede horiek ez direla, batetik, izari edo molde berekoak: Autodeterminazioa «puntuakaria» da bere ezarpenan, nolabait esateko, mentu bati datzekio. «Halako egunean, autodeterminazioerreferenduma burutuko da». Euskara ez.

Eta, bestetik, gure herriak duen problematika osoa, ez dela biltzen ahal hizkuntza arazo eta autogobernu soiletara. Nork pentsatu ote du inoiz arazo eta soluziobide ekonomikoak guztiz garrantzizkoak ez direnik? Azterkizun eta eginkizun garrantzitsua dagokie, esan beharrik ez, ekonomilari abertzaleei. Soluzioak ez baitira soluzio, aurretik, berorien oinarri ekonomikoa finkatzen ez bada.

Baina problematika ekonomikoa, alor gisa, herri guztiei datzekie. Euskararena, berriz, Euskal Herriaren bizkar-hezur berezia delako, Euskal Herriari baino ez. Eta ez beste inori. HIES edo ozono geruzaren arazoak, guztiz funtsezkoak diren bezala. Berauek ez dira, izan, «gure» herria bakarrik baldintzatzen duten problema «propioak» (eta barka modako erdarakada hau).

Euskara gure herriaren nazio izanari berari datzekio, euskarak egiten gaitu euskaldun, euskarak egiten du herri Euskal Herria.

Euskal Herria hitzek, zehatz-zehazki, «la tierra del Bas-

cuenz» adierazten dute (erdal nafar-aragoiera zaharrez itzuli ohi zen bezala). *Euskararen herria*.

«El eusquera es elemento importante», esaten digute erdaldunek. «Vasquistago», nonbait, «el eusquera es muy importante» zuzentzen dute beste batzuek.

Baina arnasa, pertsona biziko bada, ez da «faktore garrantzitsua»; eta «oso faktore garrantzitsua» ere ez. Arnasarik gabe, kitto, eta zulora.

Erdaldunek, «abertzale» (?) omen direnean ere, ez dute hau sinesten; arazoa «hanpatu» egiten dugula dinoskue (erdaraz, noski).

Euskaldunok, ordea, badakigu; eta Euskal Herriaren etsai argiek ere bai. Josu Landak behinola artikulu lazgarri batean ezin hobeki azaldu zuenez (izenpuruaz ez naiz orain oroit), gure aberria zinez da Euskal Herria, *euskararen herria*. Erdal herria, ikurriñez jantzirik ere, Aturritik Ebroraino (edo Okamendietarainoko) legez izendaturik ere, «Euzkadi» bataiatua izan arren, edo dena dela, guri, euskaldunoi, helburu desiragarri eta abertzaletzat aurkeztea, gutaz trufatzea da; eta franco-español balentriei eta inperialismoei «euzko ginga» norteñoa erastea, mehatxu eta afruntu gupidagabeak txistu horixkarekin batera aurpegira botatzea.

Gure aberria Euskal Herria da; ez «Euskadi».

Berau, /s/z idatzia, eta oso zehazki hitz eginez, Euskal Herriaren zerbitzuko tresna politiko-instituzionala besterik ez da.

«Euskadi» hitza (eta balio honekintxe onartu genuen ETA sigla hartzean) *Euskal Herri Batua, Askatua eta Euskalduna* bermatuko lukeen *Estatua* izendatzeko hautatu genuen; eta 1953an jaiokizun zegoen izaki politiko-juridikoa eta Euskal Herria ongi bereizteko. Euskal Herria zerbitzatzekotan eta bermatzekotan sortu behar da Euskadi Estatua; ez ukatzekotan. Gaur egun espagnolistek kontrolatzen duten legetasun autonomikoaren araberrako «tinglado»ari «Euzkadi» deitzea, Arana Goiriren kontrako irain hutsa da. «Euskadi» Estatua *Euskal Herri Batu, Askatu eta Euskalduna* bermatzekotan eratutako Estatua baita; eta ez helburu hirukoitz hori ukatzeko tramankulu espagnolista bat.

Baina, «gaurko munduan» –esan ohi digute– «eta areago XXI. mende atarian, euskara hutsez nora joango?».

Ez dugu guk hori inoiz esan. Ez gara gu elebakarrak, gure hertsikeria salatzen duten Buesaren kastakoak baizik. Ni neu lau hizkuntzaz mintzo naiz. Zer hertsikeria eta zer debru? Euskara erauzi nahia salatzen dugu guk.

Baina nazio mintzairaren berreskurapenak (Europako txekiarrek, maggyartarrek eta flandriarrek, hiru adibide jartzekotan, obratu duten berberak); gure herriaren arazo soziolinguistikokoak, hitz batez, liburu oso bat merezi luke, eta ez kapitulu ataltxo hau bakarrik. Beste batean burutuko, agian!

Aldez aurretik, eta sarrera gisa: ez gaude gu bakarrik munduan. Gaur egun (baina ez betidanik) guztiz indartsu agertzen diren hizkuntzak ez dira anitz: ingelesa, errusiera, alemaniera, japoniera, frantsesa agian. Dozena bat bai ote? Gaztelania bera ez dago horien artean; bahasa-indonesiera ere ez, hindi-urdu bikoitza ere ez; txinera bera ere, ozta-ozta.

Gure nazio hizkuntza ongisko letorke, demografiaz eta literatur produkzioaz, hirugarren mailako hizkuntzekin: eesti (estoniera), eslobeniera, islandiera, kymriera, eta beste; nahiz, egia esan, gu gibeltxo etorri.

Askoz ere gehiago ikasiko genuke euskaldunok hizkuntzaren alorrean (eta ez horretan bakarrik) Hego-Ameriketako gaztelanidun Estatueta baina, Ipar-Europako Estatu txikietara begiratuko bagenu.

Hor ditugu, argi iturri oparo, hiru Errepublika Baltikoak (Eesti eta Latvia batez ere), eta Suomi-Finland miresgarria (5 milioi eskas), ofizialki elebiduna. Hortxe ere, inguru berean, Suedia, multzo-buru, zortzi milioi t'erdi; Norvegia, 4,3 milioi, bere bi estandarrekin; Danimarka, 5,1 milioi; Islandia, milioi laurden bat; eta Faroe Uharteak, 60.000 bizi-lagun.

Zer irtenbide soziolinguistikoko hautatu dute? Ez baitira munduko «pariak»...

Ñabardurak hemen alboan utziz, hauxe egin dute: funtzio *augustetarako* («zentralak» Txepetxen diagramei dagokienez: familia, lagunartea, eskola, udala, prentsa...) nazio hizkuntza erabiltzea. Eta funtzio *ez arruntetarako* (goi mailako jakintza

eta teknika, zientzi bibliografia, harreman internazionalerako, etab.) ingelesa.

Kataluñan ere (J. Bañeres-en jarraitzaileen artean bederen) badago eredu ipartar horren aldeko oihartzunik.

Ene ustez, guk ere, pausuka eta zentzuz, eta egin behar diren tarteko urratsak ongi aztertuz, eredu ipartar horretarantz jo behar genuke. Herri harremanak ere, ahalean, Ipar Europa horrekin azkartuz; eta Hego Amerikarekiko harreman anormalen inflazioa laxatuz. Ez gara gu izango, azkenean, «Inperioa»ren azkeneko defendatzaile faktikoak...

«Etxerako», euskara, beraz; eta «kanporako», ingelesa. Horra hor xedea, ene ustez, irakaskuntzan ere, pausuka baina irmoki, mamitzen hastekoa.

Hirugarren (edo laugarren) hizkuntzen arazoa (eta multzo honetan kokatu behar ditu abertzale denak gartzelania eta frantsesa), eztabaidan jar dezagun.

Baina Euskal Herriaren izanari dagokionez, euskara ardatza den bezalaxe, erdal herriekiko harremanei dagokienez, edozein soluzio demokratiko eraikitzekotan, autodeterminazioa da ezinbestezko oinarria. Autodeterminaziotik at, Hetero-determinazioa dago. Hau da, atzerritar inperialismoa. Noiz arte, eta zertan funtsaturik, erabakiko dute besteek, beren interesen arabera, euskaldunon bidea?

Euskaldunok geure buruaren jabe izan nahi dugu. Ez dago zertan diximulutan ibili beharrik. Beste edozein herrik daukan eskubide berbera guk euskaldunok ere izanik, Autodeterminazio eskubidea baliatuko dugu. Espainiar eta frantziar demokratek, ez soilik kontra ez jarri, lagundu ere egin beharko ligukete helburu horren lorpenean.

ONUK 1966an, bere Biltzarre orokorrean, Giza Eskubide funtsezko bi Itun nagusiak aldarrikatu zituenean (2200 A (XXI) Deliberatua) hauxe erabaki zuen: «Todos los pueblos tienen el Derecho a la Autodeterminación. En virtud de este derecho, establecen libremente su condición política, y proveen asimismo a su desarrollo económico, social y cultural» (ikus Obieta, *El Derecho de A.D. de los pueblos*, 21. orr.; edo-ta *Le Droit des Peuples à l'A.D.*, CRISP, 1984).

Horra hor, hitzez hitz, Eskubide Internazionalak dioena: «herriek oro dute...». Hortaz, Euskal Herriak ere bai; nahiz espainiar eta frantses Konstituzioek, arrazoi politiko ezin-nabarmenagoengatik, onartu nahi ez izan.

1978ko Konstituzioari nola edo hala eutsi nahi diotenen beren burua «demokrata»tzat hartzea, eta Konstituzio hori uz-kaili nahi dugunok «anti-demokrata»tzat salatzea, tragikoa ez balitz barregarria litzateke.

Batez ere 1514(XV) delako Erabaki Nagusia (1960-XII-14) testuari buruzko bozketa nolakoa izan zen kontutan hartzen badugu:

89 Estatu alde;

0 Estatu aurka;

9 Estatuk, abstentzioa.

(Abstentzionista horien artean, jakina, USArekin eskuz esku, Frantzia eta Espainia zeuden... *No comment!*).

Testu edo Delibero horrek honela dio:

«2. art.: Herri guztiek dute autodeterminatzeko eskubidea. Beronetaz baliaturik, inolako loturarik gabe hautatzen dute beren legetasun politikoa; eta askatasun osoan mamitzen beren garapena, ekonomiaren, gizartetzaren eta kulturaren alorrean».

Hots, Autodeterminazio eskubidea onartu nahi ezean bi-latu behar dira Euskal Herriko bortizkeria giroa (Eiren oraintsu arte bezalaxe), eta ETAren jaiotza eta iraupena, eta ez besterik ezertan ere.

Karlismoari buruz laburki idatzi dugun II. kapitulua irakurri ondoren, gainera, garbi agertzen da Foruen ezabaketak ekarri zuela gure herrira bortizkeria eta Madrilén kontrako altxamendua; eta ez, beraz, anakronismo funsgabeen eroriko ez bagara, ETAk.

«Toda forma de reivindicación de autonomía –zioen Guy Héraud jurista ospetsuak 1985ean Herria 2000 erakundeak 1985ean Euskal Herrian antolatu zuen Kongresuan– de autonomía avanzada o de secesión, es sistemáticamente combatida por el Estado... Los pueblos... están abocados a conquistar

la independencia contra viento y marea –venciendo casi siempre, toda índole de adversidades, y además sólo cuando la suerte les llega a sonreír» (I Congr. A.D., I, 63).

Eta handik bost urtetara, Herria 2000 berberak bere II. Kongresua antolatu zuenean, Guy Héraud irakasleak, ideia beren bidetik, hauxe esan zuen: «La Constitución española de 1978... excluye del derecho de auto-organización, ese elemento capital que es la Autodeterminación externa. Euskadi, que constituye una nación y no una región, no puede aceptar que se le prive de tal derecho. De ahí que se desarrolle la violencia» (II. Kongr., 190).

Bortizkeriaren gakoa Estatuaren zampaketan dago, eta ez euskaldunon halako odol-zalekeria atabikoan...

Autodeterminazioaren kontra dagoen oztoparri nagusia, Estatu sakro-saint duen mugen ikutu ezinean dago. Estatu baita, omen, «eskubide-iturri bakarra» (ikus, adibidez, Jaurilaritzako konfidantza-gizona eta Euskal Herriaren nazio eskubideen etsaia nabarmen den, *number one*, José Ramón Recalde txantre.españolistaren lanak oro...).

Hots, denok dakigu (edo jakin behar genuke bederen) Estatu ukiezinezko horiek nola sortu diren: «Son las guerras y la herencia de los príncipes los que han construído esos ensamblajes artificiales y monstruosos que son hoy día la mayor parte de los Estados; los mismos que nos lanzan hipócritamente a la cara el principio de la intangibilidad de las fronteras...

¿Cómo pensar ni un solo instante que el equilibrio internacional, la paz y la fraternidad entre los hombres, puedan basarse en la justificación de la matanza y del saqueo?» (Denis Langlois jurista famatuak, 1990eko Kongresuan, *ibid.*, 264. orr.).

Autodeterminazio Eskubidea eta Estatuaren legekeriak elkarren aurka daude.

Koxka hor dago.

«HERRIEK ORO DUTE AUTODETERMINATZEKO ESKUBIDEA» errepikatuko dugu. Euskal Herriak ere bai.

Madriletak eta Parisek prozesua galerazteko indarra dute,

Casinello jeneralak askotan oroitarazi digunez. Baina galerazpen hori inoiz mamitzen bada, INDARKERIA ANTI-DEMOKRATIKO HUTSA izango da. Leporaino gaude indar-bidezko galerazpen anti-demokratikoa hori txalotzen (are lotsarik gabe eskatzen) dutenen ahotik, berak «demokratak» direla entzuteaz.

Galdera bakarra, hitz batez, hau da: Euskal Herria, herrial da?

Galdera hori funtsez erantzuteko, herrien izari objetiboa eta subjektiboa hartuko ditugu kontutan (ikus, adibidez, Jose A. Obietaren *El derecho de Auto-Determinación de los pueblos* liburu mamitsua, Deusto 1980; 31./56. orr.)

Oinarri soziologikoan, etniaren nortasun-zimentarri gisa, etnia dugu; eta, egoera normaletan, giza-multzo horren kultur desberdintasunaren ardatz, herriaren hizkuntza.

Kultur batasun hori, jakina, ez zaio etniari zerutik etorri: mendeetan barrena elkaturik bizi izanaren ondorio da; elkarrekin bizitzeko mintzatu egin behar baita.

Baina objetiboa izanik ere, aurre-gizatiarra da, nolabait esateko. Artalde batean ere, esate baterako, ardi arteko batasun objetiboa atxeman daiteke. Baina ez besterik.

Giza-multzoetan, ordea, izari subjektiboa ere badago. Etnia bere buruaz jabetzen da, bere berezitasunaren eta desberdintasunaren kontzientzia hartzen du; eta multzoak bizi izandako esperentzien gomutak, herri-oroimena sortzen.

Eta normalean, kasu patologikotan ez ezik, etnikideak bere gizataldearekin egiten du bat.

Horrela hozitzen da, piskanaka, «etno-nazionala» deitzen duten multzoa.

Kondairan barrena eskualde berezi batean faktore objektibo eta subjektiboak elkartzen direnean, eta elkaturik bizinahia sendotzen, etnia hutsa zena herri bihurtzen da.

Prozesuaren bukaeran, eta kontzientzia eta kondaira elkaturik egin nahia zabaldu denean, izari objektiboa, subjektiboa eta lurraldea dituen nazio baten aurrean gaude.

Nazioa herriaren garapeneko azken urratsa da; baina nazioa etnien eta multzo nahian funtsatzen da, eta herri mailatik nazio mailara ez dago zertasunezko aldakuntzarik. Nazioaren muinean kultur nortasuna dago, eta honen gainean uztarturik, elkarturik izan nahia.

Abertzaletasuna, hitz batez, funtsetik beretik da kulturala. Kultur izaria falta bada, ez dago naziorik; baina nahiak bultzatzen berorren berreskurapena. Hain zuzen ere, anti-kolonialismoaren garaiko borroketan, «borrokan ari den herria» izan da naziotasuna eta autodeterminazio eskubidea dagozkien gizataldeak sailkatzeko erabili den irizpide nagusia: «tout peuple en lutte a Droit à l'A.D.».

Bilduma hau laburki eginda, garbi agertzen da Euskal Herria herri eta nazioa dela; eta «borrokan ari den herria» ere bai. Eta, beraz, autodeterminazio eskubidea bete-betean dago gokiola.

Euskal Herria, Eskubide Internazionalak aldarrikatzen duen autodeterminazio eskubidearen sujetu da osoki.

Aldiz: Arabari edo Azkoieni ez dagokie autodeterminazio eskubiderik. Eta irakurleak badaki hautaketa honen gakoak... Zergatik hori?

1/ Oinarri kulturalik (are gutxiago kondairan barrena gauzatutako hizkuntz desberdintasunik) ez dutelako.

2/ Etni-kontzientziarik eta berezita bizitzeko nahirik ez dutelako: «irurac bat» eta «navarrismo» delakoak baino sendimendu sustraituagorik aurkitzea, nekez.

3/ Unitate etniko, kultural eta politiko gisa aurrera joateko multzo-nahi sendorik sekula erakutsi ez dutelako.

Eta horretarak gero, eta egin ohi zaigun eraso zatikatzaile merke horri erantzunez, Araba eta Azkoien ez dira herri. Eta ez dagokie autodeterminazio eskubidea.

Beste ohar bat, berau ere hiztegiari lotua: ez direla gauza bera «herria» eta «populazioa». Euskaldunok «herria» eta «populua» berezi izan ditugu (erdarazko «pueblo», edo «people», bisemikoen kontra). «Populu» («popùlia» diote xiberutarrek)

erdaratikako maileguak, garbi salatzen du «herri» hitz zahar-
raren eboluzio semantikoa.

Toponimia bera lekukorik fidagarriena. *Ergoiena* vs. *Elbarrrena*, esate baterako (goiko eta beheko auzoak izendatzeko). *Etxegoien* vs. *Etxarren* bikotea bezalaxe. «Mairu-herria», «tierra de moros» itzuli du Aita Villasantek. Katalan abertzaleen «Visca la terra!» oihuari ez deritzot horren arrotz. «Herri» hitzak, haseran, «jendedun eskualdea» adierazten zuen.

«Populu»k, berriz, Lhande zuberotarrak berak itzuli zue-
nez, «tous les gens d'un pays». Hitzak balio soziologikoa du;
«herri»k, aldiz, balio semantiko geografikoa zuelarik.

Baina, joanak joan. Orain zer egin?

Irakur ditzagun Guy Hérauden hitzak: «La distinción (entre «pueblo» y «población») adquiere interés cuando se trata de delimitar las personas habilitadas para tomar parte en el referéndum (de A.D.). La noción de «pueblo» vasco sólo comprende a los ciudadanos vascos de origen, o a los asimilados; en tanto que la «población» comprende a todos los ciudadanos, sea cual sea su etnia, establecidos en el terreno sometido a consulta» (*Condiciones fundamentales para el ejercicio del D.A.D.*, II. Congreso de Herria 2000, Bilbao 1990; 192. orr.).

Hitz batez: Euskal Herriko populazioa (populua agian, antzinako berba hori berreskuratuz) herritarrek eta etorkinek osatzen dute. Erroldetan eta halakoetan zenbatu ohi dena «populazioa» izaten da. Beronen barruan multzo bat herritarrek osatzen dute, multzo organikoa eta mendeetan sustraitua; bestea, berriz, ñabarra eta berria, jatorriz batasunik gabea: salmantinoak eta tetuandarrak maila bereko etorkinak dira, nahiz burokratikoki desberdinak.

Leku askotan (ni neu bost urtez egondako Belgikan ere bai) eskubide politikoak eta sozialak ez dira batera lortzen.

Lan-eskubideen lorpena, adibidez, azkarra izaten da, automatikoa: iritsi eta berehalakoa. Eskubide politikoak, berriz, bertan sustraiak bota artean (bost urtetako egonaz, eman dezagun) ez dira eskuratzen.

Lege-jokabide hori normala da European gaindi. Lanerako eskubideak lortzeko, itxaron beharrik ez dago; baina etorki-

nak hautatu duen bizileku berriko gorabeheri buruz botua tazuz eta zentzuz erabili ahal izateko, ezagutu egin behar da herri ostatutzailea. Txorakeria litzateke besterik defendatzea.

Gomulka komunistaren beraren Polonian, adibidez, Stettin-go «poloniar» berriak (etniaz alemanak), ez zuten poloniar naziotasuna besterik gabe lortzen: polonieraz mintzatzen bazekitela erakutsi behar zuten.

Errepublika garaiko Lizarrako Estatutuak, bide beretsutik, «euzkotartasuna» lortzekotan, hamar urteko egoitza-epea aipatu zuen.

Eskuarki ez zaio etorkinari sustrai kulturalik gabeko hiritartasunik aitortzen.

Nor da laponiarra, adibidez? Suomiko legeriak zehazki erantzun du (ikus Marjut Aikio, *Journal of Multilingual and Multicultural Development*, 7, 5, 1986; 361-378. orr.).

Aski da ondoko baldintza hauetako bat betetzea, eskatzaileari «sami-tasuna» aitortzeko:

1/ Berak, eskatzaileak, lehenengo hizkuntza «sami» (=laponiera) izatea.

2/ Gurasoetako bat, bederen (aita edo ama), jatorrizko samiduna izatea.

3/ Aitona-amonetako bat, bederen, jatorrizko samiduna izatea.

Etni-zedarriketa objetibista hori, jakina, egokia izan daiteke jende-mugimendu urriak ezagutu dituen samitar gizarte arkaikoan (Tromsö-ko 10.000 samitar elebidunak berak (suomi-sami) ez omen dira «laponiartzat» hartzen; eta are gutxiago Rovaniemi hiria...). Eta honek Yucatán-go mayatar gidari gazte haren esana gogorazten dit: «mi padre sí era maya; pero yo no, porque yo ando en avión»...

Autodeterminazio prozesu bat bideratzerakoan, xehetasun horiek eta beste asko behar dira finkatu eta garbi jarri. Eta zedarriketa behar honetan ez dago arrazakeriarik batere.

Zapalketa nabarmenen garaian gertatutako etorkin olatuak, edo-ta *inbasio* lotsagalduak zilegiztatzea, inbasio bidezko operazioak bultzatzea litzateke. Eta, erresistentzi eskualde-

ak, inbasio «legalen» bidez funditzeko eta errausteko metodo genozida bat bedekatzzea.

Estatu Baltikoetan, Sobietar agintepeko garaian, sekulako inmigrazioa jasan zuten Eestik (Estonia) eta Latviak (Letonia), bertakoak gutxiengo bihurturik gertatu arte leku askotan. Tallingo eta Rigako gobernuek orain ez diete inolaz ere errusiar etorkinei estoniar edo latviar «hiritartasuna» (eta beroni datzekion eskubide politikoak) «automatikoki» eman nahi. Azterketaz neurtuko den nazio hizkuntzaren ezaguera minimoa frogatu behar dute etorkinek.

Hego Tirolen kasua da oso argigarria. Horixe izan zen, Süd-Tirol izeneko eskualdea, «Potentzien arteko kontsentzuaz», 1919 urtean Italiari «eman» zitzaion lurraldea. Ondoko urteetan Mussolinik tarrapatuta «italiartzeko» plana egin zuen: alemanierazko eskolak deuseztu, lanpostu gailenak italiarrei eman, eta Ipar Italiatik oste gaitzak «Alto Adigio»ra igorri (izena ere aldatu baitzion buruzagi fazistak!), oinarri soziologikoa bera, etorkinen koputu eskergaren bitartez, aldatu eta «italiartu».

Lau zifra baino ez:

1919- 7.100 italiar (%3) // 232.700 tiroldar.

1961-128.000 " (%34) // 248.500 "

1971-173.000 " (%40) // 260.000 "

Italiarrek irentsi egin dute Hego Tirola.

Oso problema antzekoa gertatu da «frantses lurraldea» den Nouvelle Calédonie uharteetan (Parisetik 16.000 kilometro bakarrik!). Bertako «kanak»ak, inmigrazio eskergaren ondorioz, gutxiengo bihurtu dira beren sorterrian (%45). Hemendik aurrera, eta «demokratikoki» kanakak putzura eta frantses-tera.

Saharan ere marrokiarren etorrera gaitza salatu izan da; bertakoak, saharaitarrak, gutxiengo bihurtzekotan baitaude.

Hots, Franco jeneralak, zalantzarik gabe, Hego Euskal Herrian, bertako «euzko» burgesia espainiarzalearen lagun-

tzarekin, (eta ferroldarrak berorrek bere etekinak emendatu beste kezkarik ez zuela zehazki ulerturik), Mussoliniren eta Stalinen «operazio» bera egiten saiatu zen.

Espainiar etorkinak, harro-harro, eta aginte fazistak beren espainiartasunean areago harropuzturik, «tierra conquistada»ra gisa etorri ziren gurera. Ez denak, dudarik ez; baina bai gehienak, zoritxarrez. Euskal Herria Espainia ez dela ulertu nahi gabe.

Etorkinen olatua, horrela, jatorriz indar ekonomikoen ondorio soila izan ondoren, bi ahotako ezpata mingarri bihurtu zen. Langileek jasaten zuten zapalketa sozialaz gain (sindikaturik ez, egoera berrian egokitzeko prestaera psikologikorik ez, sorterrria utzi behar, etab), euskaldunok jasaten genuen ezintasun larria berei ezin konpreniarazi. Süd Tirolen italiar etorkinak Mussoliniren jostailu bihurtu ziren bezala, gurean espainiar jatorrizko etorkinak gauza bera bihurtu ziren; azkenean gure borrarero objetibo eta anker bihurtuz.

Mintza bitez zifrak ni baino klarkiago:

Gaur (eta atal honetan Nuñez soziologoari jarraitzen gaitzaizkiola) 701.414 etorkin bizi da Hego Euskal Herrian (1986): populazio osoaren %26,4. Hazkundera 1950/1970 urteetan izan zen biziena: «migrazio-saldoa» +131.727 laguneko zifrara iritsi zen 1951/1960 hamarkadan; eta +274.323 lagun 1961/1970ekoan. Urtero 27.000 lagun gehiago «sartuak» (Euskal Herrira), «irtenak» baino.

Etorkin horien artean, %84,1 espainiarrak dira, %10,0 galiziarrak, eta %1,7 eskas katalanak. Inmigrazioa, hitz batez, espainiarra da. Gehien-gehienak castellanoak dira, eta ondoren extremeñoak.

Migrazio zeinua aldatu da, dena dela, azkeneko urteetan: orain gehiago dira Hego Euskal Herritik «irteten» direnak, «sartzen» direnak baino: -5.000 lagun Bizkaitik (1975) eta -6.300 lagun Gipuzkoatik (1980).

Hego Euskal Herrira urtebetean 25.000 espainiar finkatzea zer izan den ulertzeko, aski da hau pentsatzea: Espainia Estatuan urtebetean 400.000 frantses finkatzea zer izango litzatekeen. Benetako inbasioa mamitu zen Francoren garaian.

Hor problema latza dagoela gogoraztea ez da batere alarmismo merkea. Batez ere alderdi anti-euskaldunek etengabe giza-multzo horrekin egiten duten joko politiko lotsagabea kontutan hartzen bada.

Hala ere, eta autodeterminazioari buruzko bi Biltzarreetako txostenetan berehala frogatu daitezkeenez, hemen ez da inoiz planteatu ere egin sustraitutako etorkinei (hamar urte honetan, eman dezagun, Hego Euskal Herrian bizi direnei) beren eskubide sozialak zein politikoak ez aitortzea. Hemen ez dago Estonian edo Latvian dagoen giroa.

Euskaldunok prest gaude sustraitutako etorkin guztiak herrikidetzat hartzeko. Eta «sustraitutako» horiek gehien-gehienak direnez, praktikan hau esan daiteke: euskal hiritartasuna oso etorri berriak ez diren etorkin guztiei eskainiko zaiela. Honetan, bidebategi, Guy Héraud juristaren irizpidea gure egiten dugularik. Ateak zabalik daude.

Etorkinei dagokie orain berek ere beren hautua egitea. Aukera dute gure aldetik herritartzeko; eta, azkeneko urteetan egin denaren bidetik, ez zaio inori bere eskubiderik ukatuko.

Baina hemen herri bat dago, zapalduta, ukatuta, borroka latzean. Autodeterminazio eskubide demokratikoa eskatzen du; eta fazista espainiarrek eta lagunek ukatu egiten diote. Zer hautu egin behar du etorkinak?

Frankismoaren garaian informatzeko trabak eta behaztopak zeuden. Gaur posible da, erraza ere bai, hemen dagoen herri problema ulertzea. Pankartetan irakurtzen den «Hau ez da España» esaldia, ez da, gu abertzaleontzat, *slogan* hutsala. Modu desberdinetan asko gara herri honetan Euskal Herriari datzekion nazio eskubidea gauza dadin bizi guztia eman eta emango dugunok. Ez du balio ezikusia edo ez-ulertua egitea. Euskal Herria ez da Espainia, eta ez Frantzia; Espainia, Frantzia edo Danimarka ez den bezalaxe.

Etnia, Herria, Nazioa hirukote hazkorra aipatu dugunean, berorien oinarriak gogorazi ditugu: oinarri *kulturala* hasteko (alienazio-lana hasi baino lehenago, etniaren *hizkuntza* ardatz); *kontzientzia*, herri desberdin izateko kontzientzia gero;

eta herri gisa bizitzeko *nahia* azkenik, nazio kontzientziarekin eta abertzaletasunarekin uztartua.

Etorkina, normala denez, beste etnia bateko ume da. Hego Euskal Herrian, azaldu dugunez, espainiarra gehienetan. Bere oinarri kulturala eta bere hizkuntza, espainiarrak ditu; kontzientzia ere bai; eta bizi nahia, normala denez, Espainiaren barruan ikusten du haseran.

Eta hor hautu bat egin behar du. Euskal kulturari eta hizkuntzari uko egiten badie (bai beretzat eta bai bere haurrentzat), eta espainiar segi nahi badu, bere hautua garbi agertzen du: berorrek espainiar egon nahi du Euskal Herrian.

Eta pertsona mailan eskubide pertsonala du Lekeition edo Leitzan gure kulturari, gure nazio proiektuari eta gure helburuei uko egiteko. Berak horretara atzerritar egon nahi du. Eta eskubidea du: atzerritarrek atzerrian bizi direnean duten eskubidea.

Baina eskubide pertsonal hori «etxetik kanpo» ere erabili nahi badu, eta autodeterminazioaren prozesua oztopatu, eta kontra egitekotan antolatu beste herrikide batzuekin, hori ezin zaio onartu; etorkinek ez baitute inon «*quinta columna*»rik eratzeko eskubiderik. Gauzak argi.

Autodeterminazioaren eskubidea ez da arazo pertsonala. Herriei dagokie. Eta etorkinaz ez dira herri; eskubide kolektiborik gabeko pertsonak baizik.

Etorkinek hautu hau egin behar dute: Euskal Herrian integratzea, gainerako hiritarren eskubide berberekin; ala atzerritar gelditu, atzerritarrei herrialde demokratikoetan aitortzen zaizkien eskubideez horniturik.

Muga bakarra, ene ustez, eta gerla aurreko Estatutuan Eusko Ikaskuntzak prestatu zuen lanaren bidetik, hau izan daiteke: egonaren edo presentzi-epea finkatzea. Normala baita herria ezagutzen ez duten etorkin gordin-gordinek, autodeterminazio kontsulta batean parte ez hartzea.

Beste baldintzarik ez litzateke egongo, ene ustez.

Bi hitz bukatzeko etorkin- seme eta alabei bereziki eskainia.

Neronen deiturak ongi azaltzen duenez, ni neu ere etorkin-semea naiz, hein batez. Francisco Alvarez González Madrilera nire birraitona, bigarren karlistada hasi baino lehenago etorri zen Tolosara. Federico Alvarez González nire aitona (berriz, bai) Tolosara etorri zen umetan, urte pare bat besterik ez zuelarik. Eta Bittori Iraola Eizmendi tolosarrarekin ezkondu zen; gero, alargundutakoan, Antiguara aldatuz.

Horra hor nire lau leinu nagusietako bat, lehenengo deitura eman didana, espainiar jatorrikoa.

Nik hautua egin nuen: *euskalduna eta abertzalea izatea*. Ez dut inoiz, ezta behin ere, nire etorkiari buruzko ohar gaixtorik *bat ere* (ongi esan dut: ezta behin ere) entzun «arrazakoi amorratuak» omen diren abertzaleengandik. Ipuinak dira horiek!

Baina nik *hautua* egin nuen gaztetan herri zafratu eta iraindu honen alde.

Eta liburu honetan ematen dudan lekukotasun mozorrogabea, hautu horren froga berria da.

Euskal Herrian, 1994eko irailean

Aurkibidea

Hitzaurrea	9
I. Atzeraka	17
Ipar	25
Eki	35
Hegoa	59
Mendebal	75
II. «Cueste lo que cueste»	95
III. Euskara	125
IV. Ekin-etik ETARA	175
V. Ezkerra	267
VI. Autodeterminazioa	303